

Sebastian Mendiburu

**JESUSEN
AMORE-NEKEEI
DAGOZTEN ZENBAIT
OTOITZGAI**

(I)

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektronikoa honen egilea: Josu Landa Ijurko.

Iturria: *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, Sebastian Mendiburu (Patrizio Antonio Orkaiztegiren edizioa). Eusebio Lopezen etxean, 1904.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00352.htm>

**JESUSEN AMORE-NEKEEI
DAGOZTEN ZENBAIT
OTOITZGAI**

**JESUSEN KONPAÑIKO
A. SEBASTIAN MENDIBURUK
EGIÑAK**

TOLOSAKO LIBURUGILLE
EUSEBIO LOPEZ-EN ETXEAN
1904-garren urtean

BEAR BEZALA

IRAKURLEARI

Bein baño geiagotan adirazia daduka gure Jesus maitagarriak, Jesus beraren Konpañiakoak ari bear dutela, beste anitzen artean, beraren Biotz humil mansoaren deboziona lurrekoei agertzen, ta ar-erazten.

Nik, alegiña ezpada ere, egin dut zerbait joan diran ogei urte ta geiagotan gure lan au nolerebait egiteagatik. Onetan aritu naz ni, artarako itzbidea izandu dudan aldietan, naiz zela konfesionetako denboran, naiz bestela: ta noiz ere baño astiroago nere Misioneetan.

Eta orduan guziei erraten niena geldi zedin aditzen nindutenen gogoan, utzi izandu diet, artarako ziran errietan, Jesusen Biotzaren izeneko Kofradia, edo Kongregaziona, artan sartzen diranak egin bear dituzten zenbaitgana bereisten nleztela; ta besteen artean,elkarrekin elizan, Jesus agerturik eta begira dagotela, egin bear diranak. Orietatik dira: Jesusi dagozkan gauzak liburutik aditzea, ta aditzen dutena gogoan arturik, otoitz egitea.

Aldi orietarako bear zutela erran izandu didate anitz eliz-gizonek, berariazko liburuen bat edo bertze; ta egia ziotela ezaguturik, zenbait illabete-ko astia izandu nuen batean, euskarara nuen debozione beraren berrizko aita Croiseten laburtxo bat; eta adirazi nien, ura agertzean, emain niela alik lenena otoitzgaiez beterikako beste bat ere.

Andik laster asi nintzan ni onen moldatzen; baña ezin utz nintzakeen egitekoak eraman didate gerozko denbora, egiteko berri batek, nengoen lekutik atera ta, artarako etzela zirudien beste batera eraman ninduen artean. An, nuen astia artarako artuz, bukatu ditut, Jesusi eskerrak, asiak zeuden otoitzgaiak; eta gogoso, ta biotzez bidaltzen dieztet orain nere adiskide maiteei, ta gañerako euskaldunei.

Otoitzgaiak dira, Jesus maite dutenei eragiteko, era orretako maitatzalleak egin bear dutena, edo Jesusen Biotzaren debozioneak eskatzen duena.

Debozione onek eskatzen duena da, Jesusi zor diogun amore andiari amorez erantzutea; ta gugatik Jesusek eraman zituen neke-tormentu

guzien, ta egungo egunetan ere ekusten dituen bidegabeen damuz, geren biotzak betetzea: damu-amore oriek eskatzen dituzten gauzak Jesus beraren izenean zuzen egiteko.

Ez da erraz, ez, guk au egitea, ongi ezagutzen ezpadugu norañoakoak diran gure orretarako zorrak: ez-eta zor au ezagutzea ere, lenik ezagutzen ezpadugu guk nor den Jesus, ta nor garan gu; zer den Jesusek gugatik egin, ta eraman duena; ta zeri dagokala, edo zergatik, izandu den au guzia.

Au adirazteagatik nik, gauzak nastu bage, ta agertuz aldian aldikoa, lenbiziko libruko otoitz-gaietan agertzen dizut zere txarkeri galdua, ta Jesusen Jangoikotasun andi on maitagarria.

Bigarreanean, Jesus beraren guganako urrialtasuna; ta gure urrikariz gizatasuna artu zuenetik anditu artean gugatik egin zuena.

Irugarreanean, bere Bataiotik egin ta erakutsi zituen gauzak.

Laugarreanean, bere Pasioneko denboran gure zorren alde eraman zuen bizitza ta iltze gogorra, ta azkenekoan, gerozko denbora guzian Aldarean zor diogun amore bazterrik bagekoa.

Otoitzgaiak moldatu ditut euskaldunen onerako; ta orregatik, oi den baño geiseago gauzak zeetzen, ta agertzen ditudala. Aditu, ta ekusi dudanak eman dit ekualdun guziener berria; ta ez dut uste, guzien artean arkitzen den amarretatik bat, gogozko ta biotzeko otoitzera oitua dagoenik. Artara oituak daudenentzat aski, ta geiegi litzake otoitzgai bakoitzean dakardanaren laurdena; baño ez dakit askiko den gañerakoen-tzat, diodan guzia ere. Gertatzen zaie alabaña otoitz egitean, otoitz onetara oituak daudenei, ta oitu gabeei, aurrei, ta andiei ogiarekin ta jakiarekin gertatzen zaiena.

Andiak, bear bezala jateko, ez du, maira janaria ateratzea, besterik bear. Ara dakioneko, austen du edo zerratzen du ogia, zatitzen du jakia, txikitzen dita biak bere ortz aginekin, ta igortzen du guzia, odol, aragi, ezur, zain, ta bear den gauza egiñen zaion, bazterretara, edo bere barrenera. Baña, Amaren esnea, ta aia baizik, artzen ez dakien aurrari berebat egiten badiozu, gosez ta negarrez au laster illen zaitzu. Onek artuko badu zerbait, apur eginik eman bearko

diozu, edo ongi zeetua ta prestatua, jan bear duen ogia edo edozein gauza.

Era berean gogozko otoitzera oitua dagoenak, aditu orduko odolez izerditurik egondu zela bein gure Jesus maitagarria, beste batean urratu zutela borreroak bost milla ta azot-ukaldi geiagorekin; edo, iltzez josirik, ill-erazi zutela gurutze batean, edo zerbait orrelako, gogoa orretan geldi erazten badu, dezakenak bezala, ekusten du nor den Jesus ta nor den bera; ekusten du beraren bekatuakgatik dirala, ta sekula guzian erretzen egon ez dedin, gure Jesusen neke guziak: ekusten du ezin andiagoa dela Jesusek dion amoreta; ta amore onek ar-erazi diozkala Jesusi, eraman dituen neke guziak; eta au, ta onelako gauza zenbait ekusi ezkeru, beratzen zaio bere biotza; damutzen zaio gaizki egiñaz; eskatzen dio Jesusi egiñaren barkamentua; ematen dio gaizkirik berriz ez egiteko, ta gaitzbidetik kentzeko, itz osoa. Eskatzen dio artarako bear den bere laguntza ta grazia. Ematen diozka, bere neke tormentuekin egin dion onagatik, al dituen esker guziak, eta erraten dio egiñen duela ordañezal duen on guzia.

Eta orra non egiten duen bere jate guzia, edo gogozko otoitz eder bat, gaia ukituz bezala, erakuste batekin.

Baña animako jate, edo otoitz bera eragiteko, orretara oitua ez dagoen euskaldun bati, ogi edo gai bera, edo beste edozein ongi-ongi erakutsi bearko diozu; ta erakutsi bearko diozu nola ebaki ere, ta nola jan; edo eman bearko diozkatzu moldatuak, edo egiñak bekatuen damua, barkamentuaren ta laguntzaren eskaera, eskerren emanera, gaizkirik ez egiteko ta gauz onetan zuzen ibiltzeko asmoa, ta gañerako gauzak.

Orregatik, bada agertu dut, ekusiko dezun adiña, otoitz bakoitzzerako gaia; ta ori agertzean, noizean bein, ta luzaroago bukatzean, ereiñ ditut otoitz onak ekarri oi dituen asmo, itz, eta gauza zenbait; ar ditzatzun, biotzez emateko zere Jaun on maitagarriari, edo ikas dezazun nola itz egin zere Jaungoikoari, ta otoitz onetik atera bear dezuna.

Kongregazionean asi ta utzi bage irakurtzen da otoitzgai guzia. Baña nola errazki barraiatzen diran gogotik, bein baizik aditzen ez diran gauzak, edo zeren gogoak aisa iges egin oi duen,

aditzen dituen gauzak utzirik, naiago dituenetara, irakurleak lagundu bear die kongreganteen beren gogoan erabiltzen irakurri diena, erraten diela noizean bein beren otoitz denboran zer, edo zer, len irakurrietatik, edo era bereko beste zer bait.

Orretarako dira, otoitzgai bakoitzaren ondoren arkitzen diran Eskriturako itzkuntzak edo sententziak, eta oriei ditxezkon itzak; bada oriek, ekusiko dezun bezala, otoitzgai berari dagozkanak dira, ta len errana berritzen ta sendotzen duten gauzak.

Otoitz denboran, bada, irakurriko ditu irakurleak, zein bere aldian, edo aldirako artuko du bakoitzetik ongien deritzan zatia, edo orren orde zerrain du irur aldiz zer bait orrelako.

Irakurleak ez dira guziak mii batekoak: batzuek bear dute ordu-erdi bat, besteak laurden batez irakurriko dutenerako: ta bakoitzak irakurri bear du bere eran, baña geiegi luzatu bage. Orregatik bada, bere zatietan berezia dago otoitzgai bakoitza; ta bakoitzean buka ditekkeen bezala, utsik egin bage; ta, artara baño len,

ekusiko du irakurleak aldi artan irakurri bear duena.

Eta, obeki elizan irakurtzeko, irakur beza lenik bere etxean; ta ekus beza, irakurtzean, aldatu bear duen itzen baten edo bestearen bukaera; bada librua bazter guzietarako egiña da, ta itz guziak ez dituzte era batean bukatzen euskaldun guziak. Egia da, dauden eran irakurtzen baditu ere (ongi irakurtzen dituela, ta dago-kana dagokanarekin) ez dutela adilleak galduko erraten zaiena; bada libru onetako euskara, len egin nuenarena baño errazagoa da; ta angoa ere aditzen dute, dagoen bezala, diodan eran irakurtzen bazaie, berak erraten dutenaz. Eta bein, edo berriz zerbait galduagatik, laster oituko dira, aditzen dituzten itzetara; ta erdarazkoak, eta beste bear ez diranak utzirik, artuko dituzte beren itzkuntzetarako Itz euskaidun garbi-leunak.

Kongregazioneak eman dute bidea libru au era onetan moldatzeko: baño kongregazioetarako ez ezlk bestetarako ere egin da librua; bada egin da, euskaldun biotz onezkoak gogozko otoi-tzera oiterazteagatik; oititza da alabaña anima-

ren janaria; ta janari, bekatuz ez iltzeko, noizean bein bada ere artu bearra.

Lagun artean bezain ongi ar dezake bakoitzak bakarrik bere janari on indarsu au; edo bakoitzak berez, ta libruz bere buruari laguntzen diola, egin dezake jaiegunetan, Mezakoan, ta. astia duen aldioro edozein tokitan, gogozko bere otoitza: ta nai duenari, nai duenean, onetan laguntzeko ere egin da librua.

Eta aisago lagun dezan, ta erraz orretarako noranai eraman dedin, arkituko dezu amaika zatitan, edo libru txikitan berezia. Baita irur zati anditan ere.

Laguntzen badizu nik nai adiña, izain zara zu zorionean jaioa, ta Jesusen Biotzekoa. Emen zu ala izatera, izain zara gero Zerukoa. Au dakusagula biok elkar eternidade guzian. Bai arren, bai.

Obispo Jaunak, eta Erregeren Konsejuak eman dute beren baimena, edo lizenzia, libru au agertzeko; baita Jesusen Konpañiako Nagusiak ere. Erdarazkoak dira orien baimenak, eta nere baitan gelditzen dira, ekusi nai dituenari erakusteko. Obispo jaun D. Gaspar Mirandak ematen die berrogei eguneko barkazio, edo induljenzia,

otoitzgai bakoitza irakurtzen, leitzen, edo aditzen dutenei, ori egiten duten aldioroko.

LICENCIA DEL ORDEN, DEL SEÑOR ORISPO Y REAL CONSEJO

Eugenio de Colmenares, de la Compañía de Jesús, Provincial de la Provincia de Castilla.— Por particular comisión, que para ello tengo de N. M. R. P. General Lorenzo Ricci, doy licencia, para que se imprima un libro, cuyo titulo es *Jesusen Amore-Nequeei dagozen zenbait Otoitz gai*, ó Meditaciones sobre el Amor, Penas y Trabajos de Jesús, compuesto por el P. Sebastián de Mendiburu, de la misma Compañía; el cual ha sido examinado y aprobado por persona docta y grave de nuestra Compañía. En testimonio de lo cual di esta, firmada de mi nombre y sellada con el Sello de mi Oficio y refrendada de mi Secretario, en este nuestro Colegio de Avila á 4 de Noviembre de 1758.— *Ihs.*— *Eugenio de Colmenares.*— *Ihs.*— *Joachin de Mendrano, Sec.*

DON GASPAR DE MIRANDA Y ARGAIZ

**por la gracia de Dios y
de la Santa Sede Apostólica,
Obispo de Pamplona,
del Consejo de su Magestad, etc.**

Por la presente, y por lo que á Nos tóca, damos y concedemos licencia en forma para que, sin incurrir en pena ni censura alguna, se pueda imprimir é imprima el libro intitulado *Jesu-sen Amore-Nequeei dagozten zenbait Otoitz-gai*, ó Meditaciones sobre el Amor, Penas y Trabajos de Jesús, compuesto por el R. P. Sebastián de Mendiburu, de ia Compañía de Jesús; atento á que, habiendo sido examinado y reconocido de nuestra orden, nos ha constado no contener cosa alguna, que no sea conforme á nuestra Santa Fé Católica y útil á las buenas costumbres. Y concedemos 40 días de Indulgencias á todas y á cada una de las personas de ambos sexos, que leyeren ú oyeron leer algunas de ias Meditaciones de dicho libro, por todas, y cada una de las veces, que lo executaren. Dado en Pamplona á

doce de Diciembre de 1738.— *Gaspar, Obispo de Pamplona.*— Por mandado de su S. I. el Obispo mi Sr.— *Dr. D. Joseph Eladio Collado, Sec.*

**CENSURA DE DON JUAN
JOSEPH DE AMEZQUETA,
Capellan de las MM. Agustinas Recoletas
de la Ciudad de Pamplona...**

Obedeciendo el mandato de los Señores del Real y Supremo Consejo de Navarra con todo el respeto y acatamiento debido, he visto y leído con atención un libro en vascuence, intitulado *Jesusen Amore-Nequeei dagozten, zenbait Otoitz gai*, ó Meditaciones sobre el Amor Penas y Trabajos de Jesús, su autor el Padre Sebastián de Mendiburu; y luego que vi á su frente el nombre de su Autor, dije así para conmigo mismo: es *Obra ó producción* (para hablar á la moda) del Padre *Sebastián*? Luego no puede dejar de ser grande, augusta, santa, divina, religiosa y digna de toda veneración: que son atributos y predicados, que lleva en su propio nombre: *Sebastianus*, id est

augustus (Apud Diction. Nebris.) ¿No es el Padre Sebastián escritor de este Libro, hijo de la Compañía de Jesús, Maestro en muchas Facultades, Misionero Apostólico, bien conocido en todas las Montañas y Países del Vascuence, donde ha sembrado la palabra Divina con tanto fruto, como es notorio, y Prefecto actualmente de la Escuela de María en la ciudad de Pamplona? ¿No ha hecho toda su vida su estudio principal en la Ciencia de los Santos, esto, es, en el conocintiento de las cosas santas, ó de los misterios de Dios, como lo interpretan los Expositores literales Alapide y Tirino in Sapiens cap. 10. v. 10? O, si queremos entender aquella ciencia práctica, con que debemos servir y agradar á Dios en todo, teniendo por regla de nuestras operaciones la Divina Voiuntad, quien ve, y nota en ese Jesuita una exacta puntualidad en todo lo concerniente á su Sagrado Instituto, nacida sin duda de esta verdadera ciencia? ¿Pues qué otra cosa podía salir de un sujeto adornado de estas prendas, sino una obra piadosa, sólida, útil y conducente para el camino de la verdadera salud? Y en verdad, que no me engañó mi pensamiento; por-

que, viendo la materia que trata en todo su libro, he notado una unción propia de su espíritu, que enciende al lector en aquel fuego sagrado del amor de Jesús, que vino el Salvador á traer al mundo, y deseaba tantoprehendiese en los corazones de los hombres; en especial en el libro cuarto, donde hay veinte Meditaciones sobre el adorable misterio de la Eucaristia.

Aquí, parece que quiere introducir las almas hasta el gabinete del Corazón de Jesús, abriéndoles el paso con la llave de sus fervorosas y sólidas reflexiones; de las cuales, me parece se puede decir, lo que el Autor del Ecclesiastés en el cap. 10, v.10. *quaesivit sermones rectissimos, ac veritate plenos*; por que cada Meditación es un sermon rectísimo y lleno de verdades: ó sino, según comento del doctísimo Alapide á este lugar, diré que son unas meditaciones, que contienen unas palabras rectas, esto es, conformes á la recta razón, á la Verdad, á la Justicia, y á la Divina Voluntad, como norma y regla directivas: *non obliqua, non torta, non perversa, sicut verba impiorum*, conforme aquello de la misma Sabiduría, prosigue el citado Expositor; todas sus

palabras son justas, no hay en ellas cosa alguna mala, ni perversa. Proverb. cap. 8. v. 8. Así que dicho se está cuánta utilidad traerá este libro, si se leyere por modo de lección espiritual, ú plática; pues, como se lea con pausa su sentido, cada Meditación suya será una plática muy instructiva, afectuosa y ferviente. Y espero, lo harán los Señores Párrocos vascongados; que tendrán en él á poca costa y trabajo un gran socorro para el cumplimiento de su alto ministerio. Y de aquí resultará otro beneficio y utilidad á favor de la Lengua vascongada; que en varios parajes se halla muy desfigurada, y aún como sepultada entre locuciones nada propias a ella, y con muchos términos del todo estraños; que será resucitarla, digámoslo así, á la vida de su antiguo candor y pureza, y dejarla surtida de voces nativas, tersas y propias; pues todo ello se encuentra en este Libro, a una con una expresión airosa, natural, fluida y suave.

Por tanto, y por no contener cosa contra las Regalías y Pragmáticas de su Majestad, lo califico segunda vez por Obra en su género grande, augusta y digna del nombre de su Autor; y que

merece la licencia, que se pide para la pública utilidad. Así lo siento, salvo meliori, en Pampiona à 8 de Enero de 1759.— Don Juan Joseph de Amezqueta.

Nere alde dira (dakusazun bezala), erdaraz emen zuk ekusten dituzun, gauzak. Orregatik, bada, ta irakurleari azken-lekuan adirazten diodanagatik, gordeak neduzkan nik; eta iduki ere uste nituen, bizi nintzaño. Baña nik an diodana banatu diran libruetan (ta banatu dira sei zatietatik bat eta erdi ta geiago) ekusi duten zenbaiti ez diet (aditu dudana) zor izandu uste nuen siñiste guzia; ta, orien ekusi-naiari atsegin egi-teagalik, eta beste edozeinen goganber etorkizunari bideak galerazteko, agertzen dirut orain; ta ezar eraziko ditut, banatzeko dauden beste guzietan. Barkatu, arren, lenbizitik au nik ez egiña.

JESUS BIOTZ MAITEAREN KONGREGAZIOKO ERREGLA LABURTUAK

§. I

Nolakoak izan bear duten Kongregazio onetan sartzen diranak

Kongregazio onetakoak amorez ta damuz erantzun bear diote Aldareko Sakramentuan Jesusek agertzen digun, bere Biotzeko amoreari, ta guri ongi naiak emen eramazarzten diozkan gaistoen bidegabeei; baña erantzun bear diote gañerako kristioak, edo kristauak, baño zuzenago ta obeki. Orregatik:

1. Izan bear dute kongreganteak bizitza garbikoak, eta erran-biderik ematen ez dutenak:

2. Izan bear dute Jesusen Biotzeko eskolatik ateratzen ez diranak, edo ango umillera ta mansotasuna ikasten dabiltzanak:

3. Izan bear dute Kongregazioneko gauzak zuzen egiten dituztenak; naiz Jesus berari dagozkanak izan, naiz lagun urkoari dagozkanak; naiz beren animako ongiari dagozkanak.

§. II.

Kongreganteak egin bear dutena

URTEORO:

1. Kongregazioan sartzen diranean, ta gero urteoro, eginen dute beren konfesione jenerala; baña aldian aldikoa, edo ongien dagokiena:

2. Igaroko dute, alik ongiena, Jesusen biotzeko fest-eguna. Fest onetan egiten dira Erregla luzeak bereisten dituzten gauzak.

3. Ez dute gelditu bear ejerzizioetara bage oriek dirauten egunetan.

4. Egiñen dute urteoro Jesusen Biotzaren bederatzurruna.

ILLORO:

Konfesatu, ta komuniatuko dira illoro gutie-nean; baita Konfesari onak bereisten diezten egunetan ere.

Elizan arkituko dira Jesus sakramentatua agertzen zaien arratsaldeetan; ta an egoin dira Erregeen Errege andiarekin daudenak bezala.

ASTEORO:

1. Igandeak dira Jauugoikoaren egun bere-ziak, eta egun Jesusen Biotzaren kongreganteak elizan ta gauz onetan eraman bear dituztenak. Bere bat egin bear dute jai osoetan.

2. Aisa bizi diranak, eta osasun ona dutenak atera dezakee barauren bat edo beste; ta kongregante guziak egin dezakee ostiralean edo beste egunen batean jan-edan labor, ildura, edo nekezko zerbait beste gauza.

EGUNORO:

1. Jaiki orduko ziñatu, Jaungoikoari eskerrak eman ordurañoko bere ontarte guziakgatik; eskeñi egun guziko beren gauzak eta nekeak eta eskatu, guzirako bear duten bere laguntza ta

grazia, *Aita Gurea* ta *Abe Maria* erraten diotela. *Beste bat* eta *irur Abe Maria* Jesusen Amari, ar ditzaten egun guziko onek, Aingeruak, eta bete-la Santuak beren kontura.

Entzun bear dute beren meza, al dutenak.

2. Aldareetako otoitzak egitea, ta errosarioa elizan, etxekoekin, edo bakarrik erratea kongregante onen egunoroko egitekoa da.

3. Egunoro, al badute, edo al duten egunetan irakurri bear dute libruren batean zerbait denborazatiz.

4. Elizara ditezkenak bidoaz au Jesus ekustera, mezarik ez den orduren batean bada ere.

5. Ezin joan diranak billa bezate, gogoz bada ere, beren Jesus sakramentatua; ta etxetik, menditik, bidetik, edo dauden tokitik argana beren Biotza zuzentzen dutela, erran bezate bortz aldiz goizetik arratseraño: Alabaña izan dedilla Aldareko Sakramentua, ta Sakramentu artan arkitzen den Jesusen Biotz maitagarria; ta gero *Aitagure bat* eta *Abe Maria*.

6. Ziña bitez itxetik ateratzean, lanean asitzean, ta edozein beren perelletan; aldi orietan,

ta ordua aditzen dutenetan, erraten dutela *Abe Maria*.

7. Etzin baño len ekus bitzate egin dituzten lan on ta gaisto guziak; gaistoez damuturik, egi-teko beren onez-damu edo kontrizionea; ta egin bezate goizetarako berezi den otoitza.

8. Elizakoekin arkitzen den kongregante eriarren alde erran bezate *errosario bana*. Iltzen denean, *beste bana*, ta orduan entzun bear dute *meza bana*; ta egin bear dute *bortz aldareetako otoitza*.

Kongregazioko kargudunak, eta itxeko karguarekin arkitzen diranak ekus bitzate Jesusen Biotzaren debozioko libruan arkitzen diran Erregla luzeak.

Jesus agertu ondoan erraten diran Otoitzak:

KARGUD. Alabatua izan dedilla Aldarean dagoen Jesusen Biotz maitagarria.

GUZIAK. Orain ta beti.

K. Baita bekatuaren loirik ekusi etzuen Jesusen Ama ere,

G. Alaber.

K. Jesus gurea: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Gugatik gizon egin zihan, bizi guzian neke izerdia baizik ekusi etzenuena, ta odola zeriezu-la gurutze batean josirik gelditu zihan Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Gugana aserre dagoen Aita palakatzeko, ta gure bekatuakgatik zor diogunaren alde, Aldare orretan gelditu zaran Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Gure biotzak, zureari dariozkan graziazko argiz, ta amorezko suz bete naiez zauden Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Gure bekatuen gurutzeak eta kulpen arantza gogorak zure Biotzari eman zioten neke ta estutasunaren damua eskatzen dezun Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Indartsuen janaritzat, eta anima eriei indarrak emateko, Aldarean gelditu zaran Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Artu nai zaituztenentzat Aingeruen ogi, ta edaten dutenak Birjin egiten dituen ardo egiñik Mai orretan zauden Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Amorezko labe ta sutegi egiñik zere biotza dadukazuna; ta gurearen amodioa eskatzen dezun Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Itsasoak are adiña bekatu dituen gaistoarentzat, eta atsegin guziak or arkituko dituen onarentzat Biotza zabaidua dadukazun Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Birtute guziak, eta lenenik beratx izatea ta umiltasuna zere biotzean erakusten dezun Jesus maitagarria: galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Eriotzak lurretik bota nai gaituenean, zeruko ostaturako bear dugun ondasuna ta grazia Biotz orretan dakartzula, gugana etorzeko zauden Jesus maitagarria: galduak izan gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

K. Sakramentu andi orretan munduaren bizitza, bizitzako arbola, gaistoen bitarteko, onen biztura ta sekulako bizitza zaran Jesus maitagarria: emendik ateratzen garanean sekulako galduak izan ez gaitezen,

G. Gorde gaitzatzu zere Biotzaren erdian.

AÑA. *Improperium expectavit cor meum, et miseriam et substinui qui simul contristaretur, et non fuit, et qui consolaretur, et non inveni.*

V. *Discite á me quia mitis sum et humillis corde.*

R. *Et invenietis requiem animabus vestris.*

OREMUS

Domine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius, ut gratias coelestibus ex hoc dulcissimo fonte manantibus corda nostra ditari ac recreari

mereantur. Qui vivis, et regnas in saeculi saeculorum. Amen.

Nere Jesukristo erran ondoan, erran bear den

OTOITZA

Jesusen Anima, birtutez bete nazazu.— Jesusen Biotza, amorez erre nazazu.— Jesusen gorputza, salba nazazu.— Jesusen odola, amorez zora nazazu.— Jesusen Biotzeko ura, garbi nazazu.— Jesusen Izerdia, graziazko biziz bete nazazu.— Jesusen Pasionea, indartsu egin nazazu.— Nere Jesus ona, adi nazazu.— Zure llagetan, zure Biotzaren erdian gorde nazazu.— Ez nadilla ni etsaien eskuetan erori.— Nere eriotzeko orduan dei nazazu.— Zeregana eraman nazazu.— Zure Santuekin alaba zaitzadan beti sekula guzian.

Bai arren, bai!

ZEIN GAUZ ERRAZA DEN, TA ZEIN ONDASUNA, GOGOZKO OTOITZA

A.

Gauz erraza da gogosko otoitza

Anitzek uste dute, ez dela guzientzat gogozko otoitza; ta, gizon jakintsuak eta birtutetsu zenbaitek ezpada, ezin dagikeela, ongi beintzat, otoitzera an; ta gañerakoak *Aita gure* ta *Abe Mari* zenbait erran ezkeru, egin dutela beren egitekua, edo beren otoitz guzia. Baña uste orretan daude gaisoak, jakin bagez zer den ta zein erraza gogozko otoitza, ta zein andiak diran otoitz onetatik datozen ondasunak: bada, au guzia balekite, besterik errain lukee, ta pozik saiatuko lirake otoitz erraz-ondasundun au zuzen egitera. Artara ditezen uskaldun onak, erakustera noakie, otoitzgaiak zabaltzen asi baño len, egiteko onetan jakin bear dutena; ta lenenik otoitz onen erraztasuna.

Zer dala deritzazu gogozko otoitza? Urrutiko gauz errebes-gaitz gogorren bat? Ez bada: bada san Juan Damaszenok dionaz (ta berebat diote gañerakoak) gogozko otoitza da «Gogoz ta biotzez» gure Jangoikoari begiratzea. Eta ekusten dezu ez dala gauza gaitza begiratzea, egiten bada beintzat begiratzen duenaren onerako; ta otoitzgilearen onerako da, ta on andirako, ekusiko dugun bezala, onek Jaunari egiten dion begiratzea, edo onen gogozko otoitza.

Nai dezu ekusi zein aisa dagikezun gogozko otoitz edo zere Jaunari begiratze au? Aski da orretarako ikastea zenbat aldetara, ta zer eran, egiten den. Anitz aldetarakoa dagogozko otoitza, edo anitz aldetara begira dakioke gogoz ta biotzez gure Jangoikoari; bada begira dakioke, gure egilleari bezala; begira dakioke, gugatik gizon egin ta gurutze batean ill zenari bezala; begira dakioke gure emalleari bezala, gure erakusleari bezala, gure barkalariari bezala, gure sustengarriari bezala; baita gure Jaun ezinobeari, ezin urrikaltsuagoari, ta ezin maitagarriagoari bezala, ta onelako beste anitz aldetara ere: ta, orrelakolari bezala, Jangoikoari gogoz ta biotzez begira-

tzea, besterik ez da, baizik era artan zugandik arrek eskatzen duena astiz ekustea; ta eskatzen duena, naiez ta biotzez zuk egiten, edo egin-asmoa bertatik artzea. Ara nola:

Begiratu nai diozu Jangoikoari zere egille onari bezala? Ekartzu bada zere gogora nor den zu ezer-ezetik atera zinduen zure Jangoikoa: ta ekusiko dezu au dela guzia dakien, guzia dagikan, ta, ongi baizik, gauzak ezin egin ditzaken Jaun asierarik, bukaerarik eta bazterrik bageko bat. Zoaz atziña, ta ekartzu gogora zergatik egin ote zinduen za zere Jangoikoak? Eta ekusiko dezu egin zinduela ongi nai ustez, ta bat ere zure bearrik etzuela; bada izandu zuea zure Jangoikoa, zu bage, leneko bere eternidade guzian: bazuen zu egin zinduenean, ta izain zuen zu ez eginagatik sekula guzian izan al adina on, ondasun ta atsegin. Ori ekusi ondoan, ekartzu gogora zertako egin zinduen zu, zure bearrik bage, zure Jaun andiak; eta ekusiko dezu egin zinduela zere onerako, edo bizitz on batekin irabaz zenezan eternidade guziko atsegin-kontentua, ta zeruko gloria.

Begira zazu gero zer ote den zuk zere Jangoi-koari zor diozuna, zeren eman zizun dezun izatea; ta eman zizun, dezunerako; ta ikusiko dezu Jangoikoarena zarala zu, zaran guzia, ta zor diozkatzula begiz, gogoz, itzez ta alde guzietara dagizketzun gauza guziak; eta beartua arkitzen zarala, zere zorrari eranzun nai badiozu, guziak ongi ta zuzen egitera: ta ori ezagutu orduko, asiko zara biotzez apa ta muñ egiten Jaun beraren esku egillari, ta eskerrak ematen, eman dizun izateagatik, eta zeren eman dizun zerua irabazteko: asiko zara bera maitatzen, egite onetan agertzen dizun bere amore andiagatik; eta zere zorren alde, ta glorian beti bera maitatzen dezula egon naiez, emanen diozu itza, bizi zaraño zere gauzak zuzen egiteko; ta eskatuko diozu lenago ori ez eginaz barkamentua; ta, bertatik egiten asteko, bear dezun laguntza ta grazia. Orra, zuk, eta nornaik dagiken gauza; ta orra gogozko otoitza.

Era berean egin dezakezu beste edozein aldetara begiratzen diozunetan. Barkatzalleari bezala begiratzen badiozu, ekusi bear dezu bein nor zaran zu, bekatugille txarra, ta nor den zuk

zere bekatuekin aserretu dezun zere Jainkoa. Ekusi bear dezu gero zein gauz itsusia den, zu bezain gauza txar batek, eta bere izate ta gauza guziak Jangoikoari zor diozkanak, Jangoikoa bezalako bati bekatuz erantzutea, ta txarkeri arrigarriz begitan ematea. Ekusiko dezu azkenean, bekatu bakoitzarekin galdu dituzula grazia, animako edertasuna, ta zeruko gloria; ta irabazi dezula betiko sulezea, ta an erretzen sekula guzian egon bearra ere.

Onelako ekusteak, arrizkoa ezpada, beratuko du zure biotza, ta beteko du beldurrez ta ikaraz; ta eramain zaitu Jaunaren oñetara, an umilki zere gaizki izugarriak aitortzera; an ari eskerrak ematera, zeren bota etzaituen sekulako sutara, zure gaizkiak eskatzen zuten bezala; ta zeren, ori egin lekuan, ara etzindezen, egin zen bera gizon; ta anitz neke gogorren buruan ill zen Gurutze batean; ta damuz beterik zere lengo egiñaz, eskatuko diozu gaizki guzien barkamentua; emain diozu (ta zinki ala ere) gaizkirik berriz ez egiteko, ta gaizkibide guziak uzteko itz osoa; ta eskatuko diozu, orretarako ta zere gauzak

zuzen egiteko, bear dezun bere laguntza ta grazia.

Au egiten badezu, egiten dezu gogozko otoitza; ta otoitz ederra Eta badagikezu, dakusazun bezala, ais-aski, edo anitz nekatzen etzarala; bada au guzia besterik ez da, baizik gogoz ta adimentuz astiro ekustea zere zorrak eta bearra; ortik atera zaitzaken zere Jainkoagana, animako oñak zuzentzeko, ta biotzez humilki, len bera-gandik artuen eskerrak eman ondoan, eskatzeko bear dezuna, bidenabar erraten diozkatzula zere izenean, ta nai dezunen alde, ume onak, maite duen gurasoari erran oi diozkan gauzen erako gauzak.

A! baña (errain dezu noski), nik ez asmatuko ekuste orietarako bear diran gauzak; eta, gogozko otoitza egiten asiagatik, bereala iges eginen niri nere gogoak etxeko bearretara, edo bear ez diran beste gauzetara. Balitzake ori ere; ta orregatik moldatu ditut Libru oietako otoitz-gaiak. Oriek adituz (irakurtzen ezpadakizu) kongregazioneko egunetan ta beste zenbaitetan, naiz elizan dela ta naiz itxean, ikasiko dituzu orretarako

bear diran gauzak; eta egin dezakezu zere gogozko otoitza.

Au errazago dagizun, artaratzen zaranean, belaunikatu orduko eginen diozu, bertan dezun zere Jaungoikoari, buruz ta biotzez agur andi bat. Eskatuko diozu bere argia, ekusi nai dituzun gauzak garbiro ekusteko; baita bere laguntza ere, ongi ta bear bezala, zere gogozko otoitza egiteko. Asiko zara gero, begiak bildurik, gozoz ta adi-mentuz ekusten ekusi bear dezuna: ta, ekusi bear badezu urruti gertaturikako gauzaren bat, naiz dela Jesusen itz egitea, Jesusen mirakullua, Jesusen nekea edo beste edozein, begiratutako diozu bertan, edo zu zauden tokian, gertatzen baliz bezala; bada orrela begiratzeak anitz laguntzen dio biotzari Jaunaren amorearen sua artzen, ta egin bear dituen gauzak egiten.

Gauza ongi ekusi orduko, asiko zara zere Jaungoikoari biotzez itz egiten, ta eramazu orretan otoitz-denborako zatirik andiena: orretarako da alabaña lenagoko ekustea. Zerbait eskatzean, obeki erdisteko zere Jaunagandik, eska zagozu batzuetan bere ontasunagatik, bere urrikaltasun andiagatik, edo erakutsi dizun bere

amore bazterrik ez duenagatik. Eska zaiozu besteetan Jesus maitagarriaren neke ta tormentuak-gatik, edo Jesusek gure guzien alde egin, ta eraman zuenagatik; eta nai dezunean, eska zaiozu Jesusen Amaren izenean, edo zere Aingeruaren, zere Santuaren, edo zere debozioko edozeinen izenean: ta eska zaiozu, emain dizulako uste osoarekin. Buka zazu zere otoitza, emeki mintzatzzen zarela zere Jainkoarekin; ta mintza zakiotza, batzuetan ume ona Aita maiteari bezala, besteetan beartsua emalle onari bezala, ta besteetan zorduna artzekodunari bezala, gaistagiña Juez beratxari bezala, edo otoitzgaiak dakarren eran.

Otoitza bukatzean ekusiko dezu: zer izandu den geienik zure biotza berotu duen gauza; ta noizean bein ekarriko dezu gero eginaz, berriz ta berriz zere gogora, sendor dedin, ark ar erazi dizun asmoa; ta lagun dagizun zere gauzak zuzen egiten, ta, Jaunari emanikako itz onak ateratzen, edo betetzen. Ori da, baratzetik ateratzean, lore eder bat artu, ta ari usai egiten zaio-la eguna ederki eramate bat bezala. Bidenabar ekusiko dezu kontuz egin dezun, edo nagi ta lasai, zere gogozko otoitza; egin dezazun, urren-

go artaratzen zarenean, orrelako utsik bage edo zīñez, eme, ta bear bezala.

Irakurzen badakizu, ta gogoak iges egiten badizu beste gauzetara zere otoitz denboran, ar dezakezu librua; ta zoaz andik ekusiz, ekusi nai dezuna. Arkitzen dezunean biotza ukitzen dizun gauzaren bat, utzazu librua; ta, begiak bildurik, adi zazu Jainkoak adiratzen dizuna, ta errazu, erak dakarren biotzezko on guzia. Zabal zazu gero librua, ta zoaz irakurriz geldi-geldi biotza beratzen dizun zerbait arkitu artean. Au arkitzean, egizu len adirazi duguna, ta era berean gañerakoa; ta egizu beti, biotzez erraten dezula, begiak libruan ekustea ta irakurtzen dutena. Orrela zuk, edo liburik bage, otoitz au egitea gauz erraz bat egitea da, dakusuzun bezala; ta egitea gauz ekustera zoazen bezain ondasunduna.

B.

Gauz ondasunduna da gogozko otoitza

Bai, gauz ondasunduna; bada ongi ta maiz zuk otoitz egitera, maiz berrituko dituzu zeruko sinistek, zeruko itxedateak, usteak, edo esperantzak; baita Jaunaren maitatzeak ere. Berritze bakoitzean irabaziko dituzu Jaunaren graziaren zati berriak, eta zeruko glori-gaiak. Oriek berritzean, berrituko da zure biotzean Jaunaren beldurtasuna, edo bekaturatzeko, Jauna aserretzeko, ta sulezea irabazteko beldurra. Oriek berritzearekin, oituko zara bear orduan zere Jauna billatzera; ta, bekatu-bide bat ekusi orduko, arganako zara, beldurtze den aurra amagana bezala; ta artuko zaitu zere Jainkoak, bere etsaiaren igesi doakion ume maitea bezala; ta, zuk nai dezuia, berekin idukiko zaitu andik etsaiak iges egin artean; ta etzaitu utziko, grazia ta laguntza berririk bage.

Oriek berritzean, sartuko zaizkitzu ondu, edo obetu-nai berriak, era orretarako bear diran gau-

zak egiteko gogoa edo asmoa; ta gauzak egitean, aziko dira zure birtuteak, zure irabaziak, zure Animako ondasunak eta edertasuna; ta egunoro egin ditzaketzu irabazi andiangoak eta andiangoak; eta egunoro neke gutiagorekin: bada zenbat bat gogozko otoitzera geiago oitzen den, anbat arintzen zaio bere Legeko karga, ta anbat aisago egiten ditu zeruko bideko gauzak; eta ibilliaren eran, azitzen dira ibillerako irabaziak.

Eta, beste alde, otoitz onetara oitzen ezpazera, gertatuko zaitzu gertatu oi dena, edo Profetak diona. Zer? Lur, maneatzen ez denari, gertatzen zaiona, edo bekatuen osinez, laarrez, kardo galduz, belar gaiztoz, ta sasiz zure biotza betetzea: bai, dio Jeremias profetak: bai, galduak daude lurrekoak, zeren sartzen ez diran beren barrunbean, gogoz ekustera ekusi bear lituzkeen bideak eta gauzak; eta biotzez eskatzera beren Jangoikoari bear dutena, bizitz on bat egiteko, ta, ongi dabilzala, zeruan sartzeko.

Ekusi zazu bada, onen kaltear ez gelditzeagatik; eta, kaltear gelditu lekuan, adirazi ditugun ondasun guziak irabazteagatik, oitu nai dezun gogozko otoitz on-erraz onetara. Artara zaitez,

arren, Jesusi zor diozun amoreagatik, eta gal ez ditzazun ortik datozen ondasunak, ordu laurden-txo batez bada ere, egunoro. Ez da anitz, ez, anima gaisoari orrenbat ematea, egun guzia gorputzari, ta oni dagozkan gauzei ematen diezun ezkerro. Badagikezu zere egunoroko otoitza elizan, etxean, edo al dezun lekuan; ta bestela ezin dezunean, bidez zabiltzanean gelditxo zabiltzala ta begi alik bilduenekin. Jai egunetan, edo asti geiago dezunean, bazaudezke zerbait geiseago zere gogozko otoitzean: zuretzat izain da orretan egiten dezuna; ta aldian badagikezu, Indietako urre, zillar, diamante ta perla guziak baño gei-ago balio duen gauza bat. Ekusi zazu zein ero-galgarria zu, ori dagikezula, egiten ezpadezu.

Lasterrago oi zaitezten gogozko otoitz ondasundun-erraz onetara, badaramakezu, mezara zoazenean, libru txikietatik bata edo bestea, beintzat azkenekoetatik; eta mezakoan bazau- deke artan ixilik irakurtzen, ta adirazi dudan eran zere gogozko otoitza egiten; bada meza da Jesusek gugatik egin ta eraman zuenaren berri- tzea, ta bere betiko, ta orain ere, digun amorear- en agertzea: ta librutxoetan arkitzen diran

gauza guziak dira Jesusen amore-nekeei dagoz-tenak; eta bere amore-nekeakgatik Jesusi zor diogunari erautzunbideak; eta orregatik dira mezarako ere bear bezalako gauzak. Azkenekoan arkituko dezu meza berari dagokan otoitz-gaia; baita mezaren entzunbide labur erraz bat ere.

Jesusen Biotzaren deboziona da gu elizara zuzenerazteko, au mezak entzunez, askotan komuniatuz, ta biotzeko ta gogozko otoitzak egi-ten ditugula, ager dezagun maite dugula, gure amoreakgatik eliz berean gau ta egun dagoen gure Jesus maitea; ta damu dugula, gugatik len ekusi zuenaz, baita amore-toki berean orain ere ekusten dituen txarkeriez. Eta, jakiñaren gañean dagizun egiten dezuna, kontuz ta maiz irakurri bear dituzu bostgarren libruko otoitzgaiak; baña gañerakoak aldebat utzi bage; bada edozeinetan arkituko dezu Jaunaganako amore-gai andia, ta Jesusi zor diozunaren erantzun-bidea; ta bide erraz ondasunduna. Jesus berak dizula au artze-ko gogoia, or irauteko grazia, ta orretan irabaizi-ko dezun sekulako bere gloria. Bai arren, bai!

LENBIZIKO LIBRUA

Gutztiz andia da munduko guziek Jesusi zor diogun amorea ta ongi naia; baita ongi nai-amore onek gugatik Jesusi eragin ziona ere. Au guzia guri adirazteko dira ta, adiraziz, guri arerarezi naiez Jesus beraganako amore alik andiena ta oni dagozkan gauzak, emen ekusiko dituzun otoitz-gai guziak. Gure zor andi au guk obeki ezagutzeko, ta geren zorraren alde gogoz-ago dagigun al duguna, anitz lagunduko du lenik ekusteak nor garan gu, ta nor den Jesus gure ain maitari maita-garria: orregatik lenbiziko Libru onetako otoitz-gaietan agertuko dugu, bein gure ezer-eza ta txarkeria; ta gero Jesus Jaungoikoaren izate, ta ontasun ezin andiagoa.

I.ko OTOITZ-GAIA NOLAKOAK DIRAN GURE GORPUTZ-ANIMEN ASIERA TA GURE JAIOTZEA

A.

Berria ta txar-itsusia da gure gorputzaren asiera

Asi berriak diran, ta asi orduko zikinduak arkitzen diran gauzak nai, ta ez, denboraz laburrak dira, ta asiera txar itsusia duten gauzak. Orrelakoetatik gara gu guziok; eta orregatik labur-txar itsusia da gure asiera. Orrelakoetatik gara, bai, munduan garan guziok: bada ezin uka asi berriak garala gu; ez-eta orduko alde guzietatik zikinduak geundela ere.

Ez, ezin uka dezakegu beinik bein asi berriak garala gu. Errazu ezperen munduan noiz agertu zinan zu, edo noiz izandu zen lurreko zure asiera? Baziñan zu orain zazpi milla urte, edo Adanen denboran? Baziñan andik bi milla urtetara,

edo Jaungoikoak mundua ubeldez bete, estali, ta ito zuenean? Baziñan zu Jesusen jait-orduan? Ez oraindik. Baziñan S. Ignazio Loiolan jaio zenean? Ezta orduan ere. Baziñan orain eun urte? Ez-eta geroz, ta geroz are. Noizdanikakua da bada zure izatea? Jaio zinanetik bederatzi illabetez lenago-koa. Eta, zer dira gerozko zure urteak, illak, eta egunak, Jaungoikoaren betiko izate, ta eternidarearen aldean? Ezer-ez bat adiña, edo ez beintzat anitz geiago.

Orregatik dio lurreko guzien izenean Job Santuak: *atzokoak gara, garan guziok*. Ekusten dezu zein asi berriak? Lenbizitik, eta lenbizi aldean mundura ziran gizonen bizitza, fit aski ta laster bukatu oi zen bizitza zen; baña agitz lasterrago bukatzen dena da geroztik etorri diran gizonen ta emakumeen bizitza; ta arere lasterrago, azken alde onetan lurreratzen diranena: bada orain bakan-bakanak dira, naiz gizonak izan, ta naiz emakumeak, larogei urtetaraño bizitzen diranak; eta lenbizian, ta lenbizi aldean, izandu ziran bederatzi eun urtez ta geiagoz irauten zutenak, Orrenbat ezpazen ere, azken aldekoak baña agitz geiago iraun oi zuten Joben denbora-

ko gizonak eta jendeak; eta alere, egun batekoa, edo atzodanik egundañokoa, dirudiela zion Job Santuak aren beraren ta arekin bizi ziranen bizi-tzak. Eta zer ote dirudi Jaungoiko ekuslearen begietan urte gutizko gure bizitza labor txarrak?

A galdu zoratuak adiñetan guti bat sartu orduko, arrotasuna ta antustea besterik etzarazten gizon ta emakumeak! Eta, ez ote naz ni ere orietatik bat? Beldur naz baietz: bada, neronek ekusten dudan bezain laborra da nere bizitza; ta, norena nai adiñakoa, nere antuste galdua ta arrotasuna! Ni ez diñakoei, dakidan bezala, nik ez diet begiratzen ere. Munduko guziak, nai nuke nik, legidazten al diran ongi etorri ta agur guziak. Erretzen nan ni gazteagoaren edozeiñ utsek, edo ez-ekusi egiteak. Guzia zor zaiela deritzat nik nere adiñari, nere urtei, ta nere izate ta eskuei: ta ezin eraman ditut bein ere ni utzi, ta besteri egiten zaizkan agurrak, edo begitarte onak. Ai, au aur-kontua! Oraindik ez ditu munduak zortzi milla urte beteak. Zer dira, orien aldean, nik ditudanak? Eta zer nere guziak, eternidade guzitik onaraño joan diranen, ta konturik ez duten urte

guzien aldean? Ordu laurden bat bezala, ta alere agitz eta agitz gutiago!

Ekusten dezu zein asi berria, zein laburra den, munduan arkitzen den zarren-zarrenaren bizia? Ezagu bazeneza berandu, edo orain bade-re, aurrak garala, zu ta ni biok, baita mundu guzian arkitzen diranak ere; ta asi berriak izanen garala munduan garaño; bada au guk bear den eran ezagutzera, aur batez baño kaso geiago gutaz ez egiñagatik gurekin bizi diranak, ez genuke guk asaldaziorik, ez eta sumintzerik ere; bada aurrak orrelako gauzakgatik ez dira sumintzen, ez eta asaldatzen ere; ta aurren gisa utzi bear ko ditugu guk emengo erakeriak, igan nai badugu zerura, Aingeruen lagun izatera. Jaungoiko maiteak digula, ekuste on au egiteko on den argia ta laguntza. Bai, arren, bai!

B.

Zein itsusia da gure guzien asiera

Aisago zuk eskura dezazun lurreko gauza galduetarako zere gogo galgarri eroa, zere asiera

txarraren berritasuna ekusi ondoan, ekusi zazu asiera beraren zikintasuna; bada orretarako, asieraren ekustea bezain ona da, ta agitz ere ohea, zere asierako zikintasan loi-galdu onen ekustea. Ez dezu siñisten? Begira egiozu kontuz, ta ekusiko dezu.

Zenbat ondasun zenituen zuk, zere ezer-eza utzi, ta izaten asi ziñanean? Edo zenbat gauza zirala deritzazu zuri zere Jaungoikoak emanika-koak, eman zizunean dezun izatea? Orain elkar arturik arkitzen diran, baña fite, ta laster elkar uzteko dauden zure gorputz-animak. Bietatik zein zen lenbizikorik zuri zere Jaungoikoak eman zizuna? Gorputza, edo anima? Gorputza.

Zertazkoa zen zure gorputza au, edo zer oia-
lez, edo zer gaiez eginikakoa? Etzenekien? Autsez ta loiez moldaturikakoa, edo lur utsez egina; bada gai onekin egin zuen gure Jaungoiko iakiutsuak lenbiziko gizon Adanen gorputza; ta Adanen gorputza baño, segai obezkoak ez dira zure ta nere gorputzak. Eta, au ongi dakienak bezala, Elizak erraten digu bakoitzari auster-egunez, edo Garizumaren lendabiziko goizetik,

len Jaungoiko berak Adani esan izandu ziona, edo: *autsa zara, ta autsetan gelditu bearra.*

Baña zer autsetan? Aldia datorrenean, agertuko zaitzuna bezain zikin loi itsusi galduan; edo bere gaiari dagokan bezalakoan. Orain zuk, zere gogoeta arin-galduak galerazteko egin bear dezuna da: zere gorputz usteldu bearraren asiera ustel zikinari, edo auts edo lur loituari begiratzea. Orduoro zuk, edo egunean zenbait aldiz badere, begiratzen badiozu, ez dizute nekatuko, ez, nekatu oi dizuten adina zure gogo txar ori zere barreneko antuste arro galgarriak. Eta alere gutiago nekatuko dizute, gorputzaren asiera zikinari begiratzean, begiratzen badiozu zere animaren asierari ere.

Nolakoa zela, uste dezu, zere gorputz orretan arkitzen zaitzun anim-orren asiera? Gorputzarena baño ere agitz zikin loi itsusiagoa. Ori ere artu zenuen zuk, gorputza bezala, zere Jaungoikoaren esku emalle onetatik. Eta zorionekoa zu, zuk artu orduko, ori ez egotera zegoen eran, edo egondu baliz ori, egoin zen bezala, bizitzera Adan bekataria bizitu zen bezala!

Ezer-ezetik egina, ta espiritu uts berez garbia, zen gure Jaungoiko ezin-altsuagoak guri emanikako gure anima. Badu gure anima onek bere adimentua, edo gauzak ezagutzeko burua; badu bere naimendua, edo nai duena maitatzeko edo ez maitatzeko; ta, bere Jaungoikoak laguntzen diola, gauz anitz on eder egiteko bear den indar ta esku guzia. Jaungoikoak eman dio gure animari au guzia, gorputz berean bizi den artean, zuzen egiteko gure lege onak erakusten diguna; ta gero eternidade guzian dagoen zeruan, Jaungoiko berari begira amorez, atsegin, ta kontentuz betea. Eta au guzia deusez bat bailiz bezala, eman zion Jaungoikoak gure animari bere iduria ta antz ederra.

Baña (gauz arrigarria!) Jaungoikoak egin orduko, arkitzen zen gure anima, zenbat ere berez ederra den, zikinkeriz ta itsustasunez betea; bada arkitzen zen gorputzean sartua; ta, gorputzean sartu zeneko, bere bekatu etorkiarekin, edo Adanegandik datorkigun bekatu orijinalarekin; ta orregatik arkitzen zen bere Jaungoiko egillearen etsai egina.

Baña zein zikin itsusia utzi ote zuen orduan zure anima bere bekatu etorkia edo originalak? Nork au adirazi? Ongi beintzat ez niork. Guk dakiguna da Jeremiasek diona, edo *gau illuna baño illunagoa dela, ta ikatza baño beltzagua uzten duela edozein bekatu larrik anima. Zer? Beltzagoa baizik ez? Ikatzak elurra dirudi, ta illunberik andienak eguzkiaren argia, animako illunbe ta belztasun onen aldean; ain zikin itsusia da, bekatuan arkitzen den anima! Au badakit nik; baño nere jakite au guzia deus ez jakite bat bezala da, itsuskeri galgarri onen gañen jakin ditekenaren aldean. Alakoa da gure asiera! Ain loi zikin beltz izugarria!*

Nola-ere-bait au barruntatzeko, zaude emen apurtxo bat, eta erradazu zer erakoa, edo nora-ñoakoa ote zen zure gorputz ori, zere Jaungoikoak eman zizunean orain dezun anima? Geienaz ere okabil bat adiñoakoa, ta ori ere baldan, loi, itxura gaistozkoa. Eta, gorputz txar orretan sartu zenean, zure anima (ta anima orren zikin loi beltz itsusia) nolako ekuskarria gelditu ote ziñan zu zere Jaungoikoaren begietan?

Bil bitez leku zabal batean lurreko mamorro zikin, armiarma beltz, apo begi gorri, zakur ustel, dragoi andi, suge, basurdetzar, ta gañerako animal izugarri guziak. Bebiltza gainbera: urra bezate elkar atzapar-orzekin: bete bezate lurra izerdiz, ta odolez, ta aizea aunkaz, orroz, marraskaz, ta txistuz. Zer deritzatzu? Ez lizake au ekuskari ederra? Bada anitz, eta askoz itsusiagoa ziñan zu zere Jaungoikoaren begietan, zure anima-gorputzak elkargana ziraneko. Orra nolako den zure asiera! Orra zein ederra!

A nere Jaungoiko maitagarria! Onen itsusia nintzan ni zure begietan lenbiziko nere asieratik; ta alere ez ninduzun ito, ez ninduzun bertan ill, ta ondatu, orrela iltzen diranentzat dagoen linboan! Zein ona zaran zu, ta zein maitagarria! A zorigaistoko Adanen bokadu, nere bekatu etorkigalgarria! A bokadua, zere ialea ta gure animak onen zikinduak, onen loituak, onen beiztuak, ta onen itsusiak utzi zenituena! Etziñan nonbait usteldu bearra, Adanen ortzetara baño len! Usteldu baziña, etzen arkituko, ez, gure anima, arkitu den bezain itsusi galdua, ez eta gure Jaungoikoa ere ikuskai onen itsusi-zikin gaistoarekin!

Begiratzin ezpanio zure ondoren, zu nigan-
dik kenzera, etorri zaidan nere Salbatzale Jainko
maitagarriari, aski ziñake zu, bokadu loi, bekatu
beltz itsusia, niri ezezik, biotzik andiena duenari
ere bizia kentzeko! Ez zuri eskerrak, zeren
bataioan utzi nazun! Eskerrak, bataioko iturrian
zure beltztasun loi-galdua kendu zidan nere
Jesus maitagarriari; ta eskerrak orain, ta beti, ta
sekula guzian!

C.

Txar itsusia da gure jaiotzea

Goazen asieratik jait-ordura; ta ekusiko degu
zein elkarren idurikoak diran bata ta bestea. Bai,
asieraren erakoa izandu zen gure jait-era edo
gure jaiotzea: txar-zikin-loi-galdua zen ura; ta au
ez bat ere ohea! Bekatu etorkiarekikoa, ta loiez
betea izandu zen gure asiera; ta bekatu-loi-odol
artekoa gure jaiotzea!

Gizakiak eta emakumeak dira jaiotzen diran
guzien artean, beren jait-egunean bekatuz loitu-
rik arkitzen diranak; baita nekerik geiena izan oi

dutenak ere. Arraiak ezkatatuak jaiotzen dira, ta animaliak beren soñekoarekin; gu gara, gu baka- rrik, larrugorrian edo soñekorik bage jaiotzen garanak. Animaliak jaio bezain laster oin gañean daude; ta badabiltza batetik bestera oriek, eta itsasoko ta edozein urpeko arrai jaio berriak: baña gu jaio giñanean, norbaitek ez jasotzera, ezin igituz lurrean etzain giñan, ill artean. Aiek bertatik dakite nola billatu, bizitzeko bear dute- na: aur jaio berriak, jaio berrian ezezik, gero ta gero ere ez daki billatzen bear duenik; eta artaz urrikaldurik, garbitzen ezpadu norbaitek, aur jaio berria darion loiak eta duen bearrak au bertan laster bukatu bearra da. Orra zer den mundura datorrenaren jaiotzea, naiz izan dedilla gizonik aberats andienaren semea.

Egia au aitortu zuen lurrean izandu den erre- gerik andienak, eta gizonik jakintsuenak. Badaki- zu zein den au? Salomon. Jaio zen Salomon bere aita errege Dabiden etxean. Agertu orduko, egin zioten eginala emagiñak eta erregindarrak, izan etzezan aur jaio berriak izan oi duten nekerik, edo aren orduko nekeak arindu naiez: «baña lur- loiezkoaizan ni (dio berak) besteak bezala; ta asi

bear nik ere, nai ta ez, gañerakoen eran. Orregatik artzen asi orduko ni, guziak artzen duten lurreko aize au, asi nintzan ni ere negarrez ta karrisiz, besteak bezala: orduan nik ezin negiken au besterik; au da alabaña Erregeen, ta gañerakoen asiera. Ez da zertan ibilli (dio azkenean): onetan ta bukaeran bat dira ta berdin, batak eta besteak». *Sapient. 7.*

A zein txar-itsusia zen (erran dezakegu orain guk) gure jaioberriko ezer-eza, ta aurkeri loa! bada, naiagatik, ezin egin genuen ezkalu jaioberriak eta mamorroak ere bertatik egiten dutena! Eta, a zein andia den (erran dezakegu denbora berean) Jaungoikoari gure jaiotzetik guk zor diogun amore! Ekusten zuen zein ezer-ez galduak giñan gu, jaiogiñanean: ekusten ginduen loiez ta zikinkeriz beteak: ez ginduen deusetako ere bear gu: ta gauza andiren bat bagiña bezala, edo gure bearrean egon baliz bezain begi onekin begiratu zigun gure Jaungoiko maiteak geren jaiotze txarrean ere!

Nornai arritzekoa da (ezin uka dezakegu) gure Jaunari guk ordutik zor diogun begiratze ona, ta amore. Ez lizake orren gauz andia gure

Jaunaren begiratze on au, ekusi ezpalu gure jaiotzean ekusi zuen gure gorputzeko zikinkeria ta loia beste loirik, baña ekusi zituen gure gorputzeko zikinkeriekin batean, gure animako loiak ta bekatua ere; ta zikinkeria guzien artean, bekatua-rena da Jaungoikoari geienik begitan ematen dion zikinkeria. Orregatik, arrituak baño arritua-goak utzi bear gaituen gauza da, Jaungoikoak guri geren jaitorduan begiratu zigun bezain ongi begiratzea; ekusirik, orduan ekusi zuen bezala, gure animak zuen itxura gaisto beltz izugarria.

Ken dezoke bere emagiñak aurrari aurrak dakarren gañeko printza ta zikinkeria; ta utzi dezake, arpegira begira dakikeon bezala; baña, bere garbitze ta apaintze guzien ondoan, uzten du Jaunarekiko len bezain beltz zikin itsusia; bada uzten du bere bekatu etorkiarekin; ta, au kendu artean, guztiz arrigarria da Jaunarentzat aurraren itsuskeria. Alere urrikaldu zen gutaz gure Jaungoiko maitea; ta utzi zigun kendu gabe, nai izatera kenduko zigun bizitza; ta au da gure gauza guzien artean gu geienik arritu bear ginduzken gauz ikuskaria.

Zergatik uste dezu, onen itsusiak gu ikusita ere, utzi zigula gure Jaungoikoak oraindik irauten digun geren bizi au? Zeren, zenbat ere andi-galdua zen orduko gure itsuskeria, andiago zen Jaungoikoak guri zigun ongi naia ta amorea: ta amore onek garaiturik gure Jaungoikoa, itzulerazi ziozkan gugana bere begi onak, urrikal zakigun ta utz gaintzan bizirik, edo geren bizia kentzen etzigula.

Ongi: ta, ez ote da aski gure biotzak garaitzeko, Jangoiko guzia garaitu duen beraren amore-bazterrik bageko au? Askia ezezik, sobera, ta sobera da! Bada, noiz garaitu bear ote ditu gure biotzak? Noiz zuzen-erazi gure asmo-gogobegiak Jaungoiko maitagarriagana? Berandu noski, ta bear bada sekulan ez, oraindañokoan baño geiago begiratzen ezpadiogu, ta orain artean bezain aztuak bizi bagara geren asiera txarraz ta jaiotze galduaz. Lenbaitlen, bada, zuzen ditzan nere begiak eta biotza zure amore bazterrik bagekoak, indazu, Jesus maitea, amore beraren ekuste bizi argi bat; bada, ongi-ongi ekusi ezkerro, batetik nere ezer-eza ta txarkeria, ta bestetik zuri zor dizudan amore ezin-andiago

au, asiko nazala deritzatbear den era zuzenean, ta zuk eskatzen dezun gisan, egiten zure ume on batek egin bear duen guzi-guzia. Ala gerta dedi-lla. Bai arren, Jainko maitea, bai!

*Putredini dixi... mater mea,
et soror mea vermibus*
Job 25. 4.

Autsa, usteltasuna ta lola da nere gurasoa, ta arrak dira nere senideak. Auts-loietik egiña da, ta autsetan ta arretan gelditu bearra nere gorputza. Gorputz txarra, begira zaiozu zere asierari, begira zere bukaerari! Maiz begiratzen badiozu, aisa utziko dezu zere autustea ta arrotasuna: aisa artuko dituzu, zuri dagozkizun asmo ta gogoeta umil-garbiak. Artu-izkitzu bertatik, geia-go luzatu gabe. Prest dago, bai, zure Jaungoikoa, zuri laguntzeko, zenbat ere loitsu zikiña zaran, ta usteldu bearra.

*Nunquid potest...
apparere mundus natus de muliere?*
Job. 25. 4.

Geren asitzean artu genuen loiarekin jaio giñan guziok. Loi-utsa zen gure orduko asiera; ta loi-odoltua gure jaiotzea. Orra, guk geren amaren sabeletik atera genuen edertasuna! Orra, Jauna, guk geren jaiotzean agertu genizun ekuskaria! Onen txar loi-itsusia izanik ere, begiratu zenion zuk, bai, gure Jaungoiko maitagarria! Baña nola ote? Urrikaltasunez ta amorez beterikako begiekin! Zorionekoak gu, amore onen ondasunak galtzen ezpaditugu! Ez ditugu galduko, garbituz bagoaz egunoro, ta birtutez apainduz, geren animak. Ala gerta dedilla, gure Jesus maitagarria, bai arren, bai!

*Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum,
et in peccatis concepit me mater mea.*
Ps. 50. 7.

Zikinkeriz, ta bekatuz betea nengoen ni, nere anima-gorputzak elkargana ziraneko. Bakarrazen orduko nere bekatu etorkia, edo bekatu originala; baña beste anitz bekaturen sustrai gais-toa zen orduko nere bekatu au. Onek nastu zituen nere oroimentua, nere adimentua, ta nere naimentua, edo borondatea: onek asaldatu ta berotu zituen nere pasioneak; ta bekatu galgarri onen zikintze, naste, asaldatze ta berotze gaistotik asi zen nere maite ta neke guzia! Zorionekoa ni, asi banintz nere bizitzan obenik gabe, ta pekatu etorkiaren kutsurik ez nuela! Txarra izainzan alere, bai, nere asiera, txarra nere jaiotzea; baña etzen izain, izandu den bezain beltz-itsusi arrigarria!

A! baña etzen orduan ageriko, orain adina, nik nere Jaungoikoari zor diodan amore andia ta bazterrik bageko ongi naia! Besterik ezin dudanean, elduko natzaio nere Jaungoiko maitatzalle maitagarriari; ta errain diot: Jauna, ez begiratu nere asitze loi, beltz, gaisto-galgarriari; begirazaiozu zere izate eder-andi bazterrik bagekoari; begira egiozu izandu didazun zere amoreari; ta, amore onegatik indazu arren ongi, bizi nazaño,

bizitzeko ta obeki nere egunak bukatzeko bear
dudana. Damuz nago, bai; ta ziñez alere, orain-
dañoko nere txarkeriez; ta eskatzen dizut guzien
barkamentua, erraten dudala itzez ta biotzez:
Nere Jesukristo jauna...

II.garren OTOITZ-GAIA GURE GORPUTZAREN AZITZEA, TA BUKAERA

A.

Txar itsusia da lurreko gure azitzea, ta izatea

Zein gauza txarrak garan obeki guk ezagutzeko, begiratu bear diogu jaiotzetik obirañoko gure ibillerari ere. Jaio, ta bereala trosatu ginduzten ta lotu ezur eterarikako, edo autsi bat lotu oi den bezala. Lotu, edo trosatu ginduzten, elbarriak edo galduak geldi gindezen beldurrez; ain minberek zeuden orduan gure ezur-aragiak. Lokarriak kendu, ta illabete ta ill osoak joan ondoan ere, ezin baliatu giñan gu geren oñeskuz. Asi giñan noizbait ibiltzen, baña lau oinka edo arrastan; ta ezurak autsiak daduzkan sugea bezain nekez ta nagi.

Urtea ta illak beteagatik, abel gorriak bezain mutu geunden gu: ta, erausiagatik zerbait guk

orduan, etzuen niork aditzen guk geniona, edo geransana. Orduan, ta geroz ta geroz ere, guk genekiena zen oialak eta soñekoak zikintzea, ta bazterrak marraskaz betetzea. Egiten ezpaziguten nai genuena, marraska ta negar. Gose baginñan, edo egarri, negar ta marraska. Lotatik gen-tozenean, negarrez. Bakarrik uzten baginduzten, negar ta negar. Etxean, kanpoan, ta bazter guzietan eskanbilla, ta negar. Amak, etxekoak, eta zaitzen ginduztenak, erdietan beintzat, ezin burutu zuten gurekin. Guziagatik ere gure Jauna guri begira, ta guri ongiak eta ongiak egiten! Noiz pagatuko diogu zor diogun amorea? Noiz ezagutu ere guk amore au?

Aurtasun guzian bagenuen zer edo zer. Bage-nuen bein ortz-aginen agertzea; bein baztanga edo nabarrera; gaur txisariak, bigar gornia; ta egunoro, edo beintzat ardura ta maiz, buruko, sabeleko, ezurretako, ta gorputz guziko miña ta oñazea. Bitartean ematen genien etxekoei, nork daki zenbat egiteko; ta gurasoei berei, gurekin zuten nekearekin, aitzen zitzaien, askotan bein-tzat, guganako naia ta amore guzia. Anbat ziran orduko gure ezinegonak, gure kezkek, gure

negarrak eta aldarteak. Jaungoikoaren amorea da, bein ere aitu ezten amorea! Jaungoikoa da bakarrik, gure txarkeri dollorrai asarratu gabe, begira zegozana. Zorionekoak gu orain badere, asitzen bagara gure Jaun maitagarriaren amore oni, gure alegin guzian, amorez erantzuten!

Atera ziñan aurtasunetik; baña ez miñen, oñazeen, ta gaitzen azpitik. Gazte sendorra ziñanean ere, izandu zenuen egunoroko, edo bitik beingo sukarra, saietz-miña, odolixurtzea, tabardilloa, edo zuk dakizun eritasuna. Garbitu, edo ill ezpazinduen ere, utzi zinduen, zenbait egunez, argizagi oriaren itxuran, edo karea, edo galzina bezain errezuria. Gaitz bat aituagatik, etzaizkitzu aituko gaziak. Bein joan zena, itzuliko da agian; ta onek ezpada, besteren batek utziko zaitu, bai, eriotzaren sabel ustelean.

Noiz ote? Ez dakigu. Zenbat beranduago, anbat obeki ageriko da gure deuseza ta txarke-ria. Adiñ onaren muga ukitu orduko agertuko da, lenago agertu ezpada, illartean iraun bear duen bularreko, buruko, gerriko, edo beste oñaze, miñ edo gaitzen bat. Gaitz onek ekarriko ditu egunoroko aldarte txarrak, indarren galtzea, zañen

gogortzea, ta begien itsuera, edo ekuste laburra. Geroz urratuko gaituzte aldapak, nekatuko gaituzte bideak, eta ezin egiñen degu, egin oi genuen lanaren erdirik ere. Asiko dira erortzen ortz-agiñak, eta buruko illeak. Makurtuko zaiku lepoa, astunduko dira oñak eta belaunak; eta joan gara meartuz, galduz, ta bukatuz.

Au guzia ongi ezagutua zedukan Gorgias zeritzan gizon jakintsuak, eta jakiñak bezala, eman zion gure gorputzari bear bezalako izena. *Gorputza zela, zion, urratuz ta eroriz doan etxe txar ustela.* Egia zion; bada oartu ezkerro, ekusiko degu, olak eta zuajea usteldu zaizkan etxea bezala eroriz doala, ta puskaka galduz, gure gorputza.

Urratuz doa, bai; ta biziro alere gure gorputza; bada egunoro ez ongitzera, edo egunoro ematen ezpazenio bear duen jan-edana, zortzi baño len lurrean lezake illotza, ta animarik gabe. Etxolarik txarrenak ez du ongigillerik bear, urte askotan; ta aste batez ere ezin iraun dezake gure animaren etxe txar, gorputz ustelak, estaltzen ezpadira egunoroko jan-edanarekin, izerdiz ta bestela galtzen denak uzten diozkan zuloak.

Urratuz doan etxe txar, gurputz au etxe uste-la da; orregaitik usteltasuna ta loia dariola dago orduoro, ta lenago ere. Oartu ezpazara, begira zaiozu kontuz ezpañ-belarrietara, sudurretara, ta beste edozein aldetara; ta ekusiko dezu dario-na. Zein loia, zein zikiña guzia! bada izerdia bera umore likits zorrizua da; ta izerdia da, darion gauzarik usteldu-gabeena.

Gaztean, ta sasoi onean, estaltzen da arpegi-ko printzarekin ta soñeko apainduarekin barre-neko usteltasuna ta loia; baña nekeak eta urteak makurtzen dituzte zañ-ezurak, galtzen dute soñekoa, zikintzen ta zimeltzen dute larrua, ta erakusten dute barrenean dagoena. Barren loi au arpegira agertu ezkerro, izutzen du begiratzen diona, ta nekez arkituko da orrenbat-orrenbat naiko dionik.

Gure Jaungoikoak ezagutua daduka gure ezer-eza ta loikeria. Egin ginduzeneko, ta eterni-dade guzian ere, bazekien zer giñan gu, ta nola egon bear genuen bizitza guzian. Ezin izutu izan-du gure Jangoiko maitea, gugan ekusten zuen gure loitasunak. Lagundu dio irauten gure izate txar loiezkoari; ta lagundu ezezik, eman ere

diozka indarrak bere lan onekin irabaz dezan sekulako gloria. Zorionekoak orretan ari diranak! Orain ezpada ere, egunen batean ezagutuko dute Jaungoikoari, barren txartasun ta loikeri guzien artean zor diotena, ta pozik eta pozik egoin dira sekula guzian, ari eskerrak eta esker-rak ematen. A! nere Jesus maitea! izan banendi ni ere langille on, esker emalle orietatik bat! Izain naz, bai, neronek au ziñez bai dudala, ta artarako zugandik uste ditudan laguntza ta graziarekin batean. Indazu bada zure laguntz andi sendor, ta grazi au; baita nere lan on oriek egi-ten lenbaitlen asitzeko gogo bortitz bat ere. Bai arren, bai!

B.

Txar itsutsia da gure eriotza, ta illondoa

Ekusi ondoan ekusi dituzun gauzak, begira zaiozu, irrista batean badere, zere eriotzeko, ta illondoko izateari ere; ta ekusiko dezu zein txarra den, ta zein izugarria! Gañerakoak garaitua-

gatik, etorriko da zuk garaituko ez dezun azken-eritasuna. Onek batetan kenduko dizu bizia, edo luzeenaz ere kenduko dizu nekezko egun gutiren buruan. Zerbait luzatzen duen eritasunak bukatzan baditu zure egunak, egunoro urtuz joanen da, ta galduz ta galduz zure izate txarra, edo gorputza. Azken alderako indarririk gabe utziko zaitu zere eritasunak; eta agian erdi aur biurtua.

Geroz ez du eriak jakiten gertatzen zaiona. Galtzen ditu dituen maindireak, eta tresna guziak. Zaitzen dutenak ezin eraman dute, era onetako eriak usten duen urrin edo usai gaistoa. Ondatzen zaizka eri berari bere begiak, zorrozten zaio arpegia; gorazten zaio bularra, ta nekez artzen du, biziko bada, bear duen asnasea, edo zerbait aize. Geroz ez du aditu oi ere erraten zaionik; eta, anitz neke ta kez karen artean, illtzen da tristea! Orra zein ikuskari andi-ederra den illtzeko dagoen edozein! Ez dakit bada, ondoan bat ere ederragoa gelditzen ote den. Goazen ekustera.

Ill orduko betetzen du illak illuntasunez etxe guzia. Gazteak izutzen ditu illaren erioak, edo onen oroizapenak; eta zarrak ez dute urbildu nai

gorputz illa dagoen tokira. Guziak nai lukee, eram-
man lenbaitlen elizara, ta bere obira; badakite
alabaña, agerian balego illa zenbait egunez,
zakur ustela bezain galdua legokela, ta agitz-gal-
duagoa.

Galdu-izugarria gelditu oi da, ill orduko, illa-
ren gorputza; baña galdu-izugarriago arkitzen
da, bere obian zenbait egun egin, ta ondoan;
bada arkitzen da ezurra ez bestea, ar, txitxar, loi,
ta usteltasunutz egiña. Orra zertara-bearra den
gure antuste ta arrotasun guzia! ta orretara-bea-
rra da egun gutiren buruan! jaio orduko artzen
dugu guziok eriotzeko bidea; ta, urrutitik itsaso-
raño gelditzen ez den ura bezala goaz, bein ere
gelditu bage, geren erio garbitzallearen eskueta-
ra. Illtzen dira bada, ta obira doaz guziak; ta
orien ondoren arako gara gu ere, ur geza itsaso
gaziratzen den bezala. Agertzen deneko igartzen
den lorearen bizia dirudi, gure gorputzaren bizi-
tzak, dio Job Santuak. Atzokoak gara, dio Jobek
berak, lenago ekusi dugon bezala: ta erran gene-
zake noski guk ere, illen bizia dirudiela gure bizi-
tza guziak! ain laburra da alabaña au, edo ain

laster erio garbitzallearen trantze txar orretara-
bearrak gara munduan garanok.

Ongi: ta onengana txarra, ta gauz onen
labur-likits bat zer izan diteke gure betiko Jaun-
goiko andiaren aldean? Deusez bat bezala, dio
Dabidek. Geiago dio Isaias Profetak; bada dio,
gizon bat ezezik, munduko guziak ere, ezpalira
bezala dirala, gure Jaunaren begietan.

Eta ezer-ez onen zati apur loi, nere buruari
begiratzen dio, izatez, edertasunez, ta eskuz
bazterrak betetzen dituen nere Jangoikoak? Bai;
ta ez bein edo berriz, baizik beti ta beti ere. Nola,
uste dezu? Nai, ta maitze andiarekin: bada, anitz
balio duen gauza bat bagiña ere, ezin begira
lezakegu gure Jaungoikoak, begiratzen digun
baño begi obeeikin! Jaungoikoaren begiratze on
au ezagutzeko, oar zaitetz zer egiten duen olloak
txitoekin, aurzaiak aurrarekin, ta amak bere
semearekin.

Erne dabilta, ta anitz begiratzen die, daki-
zun bezala, oiloak, azitzen dituen txitoei; aur-
zaiak, besoetan dakarren Jaunari; ta amak,
maite duen bere semetxoari: baña orien erneta-
sun, ibillera, ta begiratze guzia ez da deus, gure

Jaungoikoak guganako duen begiratze maitearen aldean. Adi zazu onen gañean bere Ebanjelistaz ta Profetaz Jaungoiko berak erraten diguna. Anitz aldiz, ta askotan, dio bere Ebanjelistaz: *Bildu nai izandu zaitut*, emakume txar, edo gizon prestueza; ta bildu nai izandu zaitut nere biotzean gordetzeko, *olloak txitoak egopean bezala*; baña zuk naiago izandu dezu ibili sulezeko miruaren atzaparretan.

Banekien, dio Jaun berak bere Profetaz, zerez ta ni gabe ezin zenbiltzken aur txarra ziñala zu, anditu ta ere; ta, zutaz urrikaldurik, artu zindudan nik nere amorearen besoetan ta belaun gañean aurra, zaitzen duenak artu oi duen bezala. Oni guziari guti baderitzatzu, oraindik geiago egin naiez nago; bada, nai badezu, maite duen semetxoa amak palakuz, beso-bular ezpañartean estutuz, ta buruko illea leunduz, lotara eraman oi duen bezala, eraman zaitut nik, emen bear dituzun, ta zeruan arkitzen diran atsegin ta kontentuetara. Orra zein andia den gure txartasun guziaren artean, gure Jaungoiko zein-andia-goari guk zor diogun amore! Orra zer gauzak

eragiten diozkan gure Jaungoikoari bere guri-ongi naiak, eta amore bazterbagekoak.

Ezagu zaitzakedan baño andi-ederragoa zara zu, bai, nete Jaungoiko maitea; ta anitz amore zor dizut, zeren zuk, nere bear etziñala, ezer-ezetik atera, ta egin ninduzun egin ninduzun bezala! Baña ez dizut gutiago zor, ez, zeren, izanik ni nazan bezain gauza txar loi laburra, begiratzen didazun, begiratu didazun eran! Zer ez die zor txitoak olloari, aurrak bere zaitzalleari, ta semeak amari? baño orien zorrak artzekoak dira, nere zukanako zorren aldean! Nere ondoan zabilta zu! gal nadin beldurrez zaude! gorde nai nazu zere biotzean! auts egin nai nazu zere amorez; ta eraman nai nazu zuk zere erresumara, an izan nadin ni aingeru guzien lagun, zure maitatzalle, ta zekula guzien zorioneko doatsu! Gauz arrigarria!

Nondik niri, asitze loa, jaiotze zikiña ta bizi urratu galdua izandu dudanari, onenbat ondasun ta ontarte? Zure eskutik, zure amore andiegitik, nere Jaungoiko maitea! Semeak, aurrak, eta txitoak, anditu ezkeru, erantzun dezoke beren zorrari; ta egin ditzake artzekoak ere; baño nik,

ez txikitan, ta ez andituagatik, erantzun dezoket nere zor andiei: bada, orretarako zerbait egiten dudaneko, egiten derozkidatzu zuk, nere Jaungoiko maitagarriak, on ta ondasun berriak, eta lenak baño ere ontarte ta fabore andiagoak!

Zer egiñen dut bada, nere ongille andi, Jaungoiko maitagarria? geldirik egon, ezer ere egin gabe! Ez Jauna, ez: eskergabetasun andiegia lizake ori! Aitortuko dut egunoro nere txartasuna; aitortuko dut zuri zor dizudana, ta egiñen dut alegiña, umiltasun andiarekin zu gaurgero ta ill arte guzian serbitzatu ta maitatzeko. Indazu zerorrek onetarako bear dudan laguntza ta grazia. Bai arren, Jaungoiko maitea, bai!

*Homo natus de muliere, brevi vivens tempora,
repletur multis miseriis.*

Job. 14. 1.

Laburra da, bai, jaio giñanetik ill arterañoکو gure bidea; baño ez dira laburrak, ez eta txikiak ere, bide onetako gure lanak ta nekeak! Gosea ta egarria, bearra ta premia, kezak, aserreak,

eritasun gaistoak, eta egunoroko naigabeak, dira gure bizitza laburraren betiko lagunak! Guzien artean aisa ta erraz galtzen dute gure osasuna, ta aisa ta arin daramate gure gorputza lurpera, edo bere obira! Onenbat etsaien artean gure Jauna da bakarrik, guri laguntzeko prest dagoena. Lagun zakizkit, bada, nere Jaun andi on maitagarria, andi ta txiki guziak garaitzen, edo guzien txarkeriak zure izenean emeki ta bear bezala eramaten. Bai arren, nigatik ezpadere, zor dizudan zere nai ta amore andiagatik, bai!

Omnēs morimur, et quasi aquae dilabimur.

2. Reg. 14. 14.

Egunoro, orduoro, ta asmaldioro galtzen dugu guk gerok geren bizitzaren zatiren bat edo beste; bada zenbat asmaldi, edo denboraren puntu doazen, anbat gure bizitzaren zati doaz. Ill zen atzoko gure bizitza: gaurkoa ere illaz doa: ta zenbat ere geiago gabiltzan, anbat erioaren alderago arkitzen gara. Iturriko ura bezala da gure bizitza: zenbat geiago dabillen, anbat zati

geiago galtzen du; ta, bere ibillera guziarekin, itsasoan ondatzera doa! Eriotza da gure itsasoa: Ara baño len galtzen ditugu zati anitz; eta, galtzen diran nekezko zatiekin, azkenean an ondatu bearra gara! Zorionekoak gu bizitza txar onek dirauño bear den eran egiten baditugu, beti iraun bear duen, zeruko gure bizitzak eskatzen dituen, gauz onak.

*Spiritus meus attenuabitur,
dies mei breuiabuntur,
et solum mihi superest sepulcrum.*
Job. 17. 1.

Nere ezaguera laster laburtuko da; laburtzera doaz nere egunak; eta obia da nere gorputz txar loiak izan bear duen jauregia, ta ondasun guzia. A, asmo eroak lurreko nere asmoak! aizez bera beti gure burua, ta aizetan ta aizetan gure asmo ta gogoeta txarrak! Ezkontzak, ondasunak, etxe berriak, bazterrak eta irabaziak gau ta egun gure gogoaren muñetaraño sartuak; izanik ere guzi-guziak emen gure bizitzarekin batean,

ondaturik gelditu bear duten gauzak! Ustelduz joan gure gorputza! erioaren ortzetan arkitzen gure bizitza; ta sekulan bizi-bearrak bagiña bezala, geroko neurriak, eta neurriak asmatzen gu gau ta egun ta beti!

Erotu zara zu? Nastu zaitzu buru txar ori, edo zer gertatu zaitzu, gaur, bigar, edo denbora laburrean iltzeko zauden gizon edo emakume zoratua? Beude, beude aldebat, ketan gelditu bearrak diran zure asmo eroak! Etorri da zentzatu-ordua! Urbil dabil, bai, zure erioa! Begira zazu, zu jaio ziñanetik zure begira dagoen zere obira! Zurekin emen usteldu bearrak dira, zerurako balio ez duten zure gogo-asmoak; zere Jaungoikoarekin dituzu zuk zere kontuak. Ema ten dizu oriek zuzentzeko diña denbora. Artu zazu bada bizitza berri bat. Utzazu zere gogotik, fite utziko zaituen mundu txarra! Oraindaño baño, begitarte ohea dagizun zuri zere Jaungoikoak ill artean, ta sekula guzian, garbi zazu damuzko negarrez zere biotza; eta esazu itzez ta biotzez: Nere Jesukristo, etc.

III.garren OTOITZ-GAIA

NOLAKO IZAN OI DEN

GURE AURTASUNEN BIZIERA

Ekusi dugu zein txar urrikalgarria den, lenbizitik azkeneraño, gure gorputzaren izatea. Ez dakit bat ere ohea ote den, denbora bereko gure bizitza! Gure izate txarrari begiratzeak lagundu digu gure zorrak agertzen. Agertze berriak egiteko, begiratu bear diogu geren bizitzari ere. Begiratzen badiozu urratsez urrats edo pausuz pausu, ta dabillen bezala; edo bein aurtasunean, bein gazte denboran, bein bere sasoiean ta gero bere azken-aldian, ekusiko dezu zer zorrak agertzen dituzun, ta zein andiak! bada ekusiko dituzu zere txarkeriak, eta Jaunaren eskutik arturika-ko ondasunak. Asi zaitetz bada lenbiziko zere pausutik, edo zere aurtasunetik.

A.

Zorrez betea da gizonaren aurtasuna

Ez dira andienak, ez, aurtasuneko gure zorrak: ez da zordunen zatirik gaistoena aurtasuneko beren zatia: ta alere baditu aurtasunak gizakumearen txarkeria ongi adirazten duten lanak, ibillerak, eta zorrak.

Barkatzen zaiku geren bataioan bekatu etorkiaren edo orijinalaren zorra; ta kentzen zaiku bekatu berak zekarren loi zikin, ta beltztasun itsusia, baña etzaiku kentzen bekatu artatik datorren gaitzerako griña ta makurtasuna: ta orregatik, adinetara orduko, gertatzen zaiku ategaztiari, ibiltzea asi dediñeko, gertatu oi zaiona.

Atea bere griñak urera darama, oñen gañean asi orduko; ta aurra bekatuaren loiera eraman oi du gaitzerako bere makurtasunak. Ateak ez du onik urean ez dabillenean; ez eta aurrak ere, ezpadabil bere gogora ta bear ez bezala. Zoaz ateari ura utzeraztera; ta ekusiko dezu nola dabillen batetik bestera krazka ta krazka, andik ez atera naiez, edo aterazi badezu, ara berriz

itzultzeagatik! Zoaz aurrari aurkeriak eragozte-
ra, ekusi nai badituzu orduko aren naigabeak.
Urerako jaioa da atea; ta gaitzerako egiña dirudi
aurrak; ain makurtua utzi du gaitz aldera bere
bekatu etorkiak, edo bekatu orijinalak. A esker-
gabeko makurtasuna! zugatik ezpaliz, etzen
izain, ez, izaindu den bezain galdua nere aur-
denbora, ez eta gañerako nere bizitza ere!
Garaituko al zaitut nik datozen egunetan, gal ez
nazazun beti ta betiko!

Makurtasun au aski, ta sobera ezpaliz bezala
aurra galtzeko, aurrak, Eskritura Santak dionaz,
biotzean, korapilluz bezala, lotua daduka erake-
riaren naspilla guzia. Urrikarizko lokarria! ta
alere aurrak utzi nai ez duen lokarria! Ez daki
aurrak bere lokarri zuen korapillu gaistoak aska-
tzen; ta ez du nai ere aska dezozkan lan ori egi-
ten dakienak: orrekin aur gaisoaz egiten du etsai
galgarriak nai duena.

Ez du nai aurrak, ez, bere erakeriaren korapi-
lluak bestek askatzea: askatzen dira alabaña
adituz, ta ikasiz, adituz ikasten diran gauzak; eta
erakutsi naiagatik gurasoak, edo gurasordeak
aurrak ikasi bear duena, ez du aurrak aditu nai

ikas-konturik. Aurrak aurdanik ikasi bear lituke ongi bizitzeko diran gauzak eta egitekoak. Ikasi bear lituk: mandamentuak; baita bertze anitz gauz on ere; baña ori guzia dakienak aurrari erakusi naiagatik, ez du aurrak ikasi nai orrelakorik bat ere; ta, bere jostaerak kentzen badiozka norbaitek orretarako, sumintzen da bertan aur txarra, ta gelditzen da negarrez, edo gutienez illun ta zaputz.

Erran bezo nai adiña erakusle onak aurrari, sinisterazteko, erakusten dioten guzia dela beraren onerako; naiz erran dezola onez ta palakuz, ez du aurrak siñetsiko; ta siñesten badu ere, ez du naiko ikasten asi. Aurraren nai guzia aur artean da. Ango aur guzien erausia, ango ibille-ra, ango jostatzea, ango aurkeria da aurrak jakin nai duen guzia; ta ez du aurrak onik bein ere, bere kideen artera iges egin artean. Erakuslearen begietatik gorde orduko, uzten du aurrak aldebat erioaren, sulezearen, zeruaren ta gañerako gauzen gañean aditu duena.

A, zer asiera, ikaste zuzenak eta gauz on anitz aurrak egiteko! A! zer griña aurraren griñau, aurrak zorrik gabe bere aurtasun txarra iga-

rotzeko! Zorioneko aurrak, onelako aurkerietara bage, beren aur-denbora eraman dutenak! Egunen batean ezagutuko dute, ori eragotzi zien gurasoai zor diotena, bada ez eragoztera izain ziran, seguru ere, orietan ibilli oi diranak bezain aur zordunak, edo aur gaistoak!

Zein gaistoak ote dira nai duten eran dabil-tzan aurrak? Erran dezala Espiritu Santuak. Andituz doazenean, dio, ageriko da. Nai bezala dabil-len aurrak beteko ditu, dio, alkez, damuz ta nai-gabez, bere Ama ta gurasoa. Gaistoen artean izain da orrela dabillen aurraren bizitza; ta zen-bat ere gaist-artean aurra geiago sartzen den, anbat geiago izan oi dira, ta anbat gaistoagoak Jaunaren obenak, lanak, zorrak eta bekatuak: eta arrituak geldituko dira ekusten dituztenak gaizki asi zen aurraren egitekoak ibillerak, eta bukaera gaistoak. Orra zer zion Espiritu Santuak bein aur txarren gaistakerien gain.

Anitz ote dira, oneiako bizitza txar gaistoa dakarten aurrak? Bai egiakin; ta siñesten ezpa-nazu, zoaz zerori ekusiz non ta zertan dabil-tzan aur geienak; bada, zein diran onak, zein gaisto-ak, ekusteko, ez dezu, dio Espiritu Santuak,

dakazten egitekoetara begiratzea besterik bear. Begira bekie bada aur guziei beren egitekoetara; ta orduan ageriko da, onak diran edo gaistoak aurrik geienak.

Begiratzan bazaie aurren lanei, ekusiko da orien ona dela sagar, urdarez, goisoz, ta gaitz egiñen dien gauzez, edozein ordutan sabela betetzea, ta denbora berean loiez ta bekatuz anima. Aur batzuek galtzen dute beren osasuna ta bizia aurtasunetik atera gabe; ta, bizirik gelditzen diran aur geienak, edo beintzat anitz, gelditzen dira, adinetara orduko, bekatuz ta zikinkeriz animan galduak.

Biltzen ikasi orduko, asten dira aurrak kalez kale, baztarrez bazter, ta zokoz zoko. Baña nola? Neska-txar mutikoak nasteka. Ez dakite geldirik egoten: indar gutikoak dira ta moldakaizak: erortzen dira au, ta ura; ta, aldi onetan ta beste zenbaitez, agertzen dituzte estaliak egon bear duten gauzak; eta beren griña gaistoz, ta etsaiak sua emanaz, asitzen dira lan txar itsusi gaistotan; ta galtzen dute bataioko beren ondasuna ta grazia; ta gelditzen dira bekatupean, Jaungoikoren etsai egiñak, sulezeko nekeak merezi dituz-

tela, ta len baño gaitzerako griña ta makurtasun agitz geiagorekin.

Geroz etsaiak eragiten diezte, bereei bezala, nork daki zenbat gaistakeri ta lan itsusi. Onik ez dute aurrak, gauz-onetan arkitzen diraño. Ezinbestez doaz elizara, ta lan onetara. Orietan daudenean, ezinegonez daude; sutan bezala daude; ta, geldirik egon bearrean, oñez, eskuz, itzez, ta aitz aldetara bazterrak nasten dituztela. Andik atera bezain laster, beren jostatze, ta egiteko txar lizunetan dira. Gabaz loa, egunez negarra, gaiztakeria, ta bidegabea da aur geienen atsegin, ta egiteko guzia. Orra zein txarra, ta zein zortia mundukoen aurtasuna!

Ez ote da izandu nere aurtasuna ta asiera ere era berekoa? Joan ote dira nere animatik orduko nere loiak, eta bekatuak? Ez ote dago oraindik konfesatzeko bat edo bat? Noiz eta nola konfesatu ote nituen gañerakoak ere? Zertan arkitzen dira orduko nere kontuak? Bukatuak daude? Zordun nago? Edo nola nago, ta non? bear bezala ote, ta bear den tokian? Ez dakit nik, ez eta munduan denek ere! Jakiñen dut egunen batean! Gaitzerako ote, edo onerako? Ez dakit ori ere!

Gauza guzien berria dezun nere Jaungoiko jakintsua, atera nazazu arren nere itsutasunetik, erakusten didazula nola arkitzen garan zu ta ni biok. Bakean bagaude, barkatuak daude, bai, nere aurtasuneko gaizkiak; baita gerozkoak ere; ta, aserre bazaude zu, nerea da oben ta kulpa guzia. Zer gerta ere, ona ni prest zuk nai dezuna gaur egiteko. Baña dagidan zure gogara, zuk nigandik gaur nai dezun au, egin ditzagun biok berriro edo bertatik bakeak. Urrikiturik nago, nere Jaungoiko maitagarria, nere aurtasuneko erakeriez! Begitan artuak daduzkat gerozko nere aurkeriak; guziak ematen didate damu ta pena; ta barkatuak ezpadaude, barkatu bear dituzu diranak. Orretarako ez da zer niri begiratu: begira zaiozu zere prestutasunari ta zor dizudan amoreari. Bai, arren: Jaungoiko maitea, bai!

Tumultuabitur puer contra senem.

Isai. 3. 5.

Ekusi bide zituen Isaias Profetak nere aurtasuneko gogortasuna ta txarkeriak. Asaldatuko

zela, zion, aur txarra zarren kontra; ta, orien erranak egin bearrean, beteko zituela bazterrak negarrez ta eskanbillaz. Ez da au nik nere aur denboran egiten nuena? Zenbat naigabe nigatik orduan nere gurasoak! Zenbat kezka ta gau illun! Eta guraso utsak dira, nigatik naigabetu ziranak? Nere aideak, nere auzokoak, eta nerekin ziarduketen geienak, nere aurtasunean ez ote zuten izandu nigatik zer ekusi zer edo zer? Baña nor etzuen mindu orduko nere mukerkeriak, eta gogortasunak? Nor etzuen illuntasunez ta tristuraz bete noiz edo noiz?

Zorionekoa ni, lurrekoak baizik aserretu ezpanitu orduko nere aurkeriekin! Baziran orien artean, nere Jaungoikoa aserretu zuten txarke-riak ere; ta Jaungoikoaren aserreak dira orain ni beldurtzen nautenak; bada oriek dira betiko nere negar damua, ta sulezeko erretze ta urratze gogorra dakarkeen aserrera! Ez, arren, nere Jaungoiko maitea, ez! Ez dedilla orrelakorik gerta! Damuturik nago egiñaz; ta, eginkizunak baleude orduko nere txarkeriak, etzeunke ekusi-ko, ez, nere aurkeri gaistorik! Zuri zor dizut damu au ere, oraingo nere ondunaiarekin

batean: ta zorko al dizut, au bezala, nere gaizki guzien barkamentua, ta berririk ez egiteko grazia! Bai arren, Jaungoiko maitea, bai!

Usquequo, parvuli, diligitis infantiam?

Prov. 1. 22.

Aurrak, noiz artean izain zarazte aur txareroak? Noiz artean ibilli bearrak zarazte zeren aurkerietan? Noizdaraño iraun bear ote dute zuen gogortasunak eta loikeri galduak? Au da nere Jaungoikoak bein baño geiagotan nere biotzari adirazi ziona. Baña Jaunaren adirazte on onek izandu zuen enzulerik? Egin nuen nik, bein batean ere, nere Jaungoikoak aldi orietan adirazi zidana? Utzi nituen nik orregatik nere gogorrek, nere aurkeri txarrak, eta ibiltze zikiñak? Utzi izandu banitu bein, betiko utziak gertatuko ziran agian, ta onduko nintzan ni bertatik, edo bat ere luzatu gabe; ta gaur arkituko nintzan ditudan aztura gaistoak eta obenak bage.

Ez ote dit orain ere erraten niri nere Jaungoikoak, aurtasunean erran oi zidana? Ez ote dira,

lengo aurkeriak bezain aurkeriak oraingo nere gauzetatik geienak, edo beintzat anitz? Noiz artean iraun bear ote du era onetako nere aurta-sunak? Guztiz maitagarria den nere Jaungolkoa nik aldebat utzirik, maitatu bear ote dut gaurgero begitan artu bear nukeen, lenen erako, nere aurkeria? Ez, ongi izatekotz! Ez, Jaungoiko maita, ez! Ez, zure graziarekin batean! Zorigaistotan maitatu dut oraindañokoan ere! Ez zuen maitatuko, ez, lenago ezagutu banu, orain bezala, gaizki egiñaren itsuskeria! Ezkerrak zuri, palakuz, argiegiñez, eskua emanaz, ta dakizun gisan, onetara nazun ongille maitea! Ez dezazula utzi, artu dezun bidea. Bide onez eraman nazazu zu ziñez emen maitatzera, ta emendik atera orduko, zere zerura. Bai arren, bai!

*Fili mi, inclina aurem tuam,
et audi verba sapientum.*
Proverb. 22. 19.

Nere semetxoa, zion bein Jaungoikoak, eta orain ere dio; nere semetxoa, adi zazu zer dio-

dan, ta adi zazu nere ordez dauden jakintsuak erraten dizutena. Nik Eskrituran, ta jakintsuen ezpañez erraten dizudana, ezinobea da, ta guztiz ederra. Egiten badezu, etzaitzu, ez, damutuko. Nik eragin dizudalako, ta zuk zerorrek egin dezulako atsegin andiak mintzaraziko dizu, eskerrek eskerren gain niri emateko. Zorioneko semea zu, finki ta zuzen egiten badezu adirazten zaitzuna, edo egiten badezu gogoz, itzez ta eskuz, egin bear dezun guzia.

Maite nazun Aitak bezala itz egin didazu gaur, nere Jaungoiko maitea! Erdiratu didate zure itz leunak nere biotz guzia; ta ez dakit zer negiken, seme onaren eran zure erranik txikiena ere ongi ta zuzen egiteagatik! Lenago ori egin bageak ematen dit neke ta damu! Gel bitez barkatuak oraindño nore aurkeri eroak, eta gañerako utsak! Barkatu dituzulako pozarekin, saiatuko naz edozein gauzetara; ta den gogorre-na izanagatik ere, egin uste dut, zuk laguntzen didazula. Ni onetara ekarri naiez zabilta zu gau ta egun, ta beti, nere Jaungoiko maitagarria! Ona bada ni, nai dezun guzirako prest, zuk barkatu ezker, oraindño nore utsak eta obenak. Bar-

katuko al dituzu, nere Jaun maite urrikariz bete-rikakoa! Bai, arren! Ori da nik orain, nere gaizki egiñen damuz, ta zuk nai dezuna egiteko gogoz beterik, eskatzen dizudana; bein ta berriz erra-ten dudala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

IV.garren OTOITZ-GAIA

NOLAKOA IZAN OI DEN

MUNDUKOEN GAZTETASUNA

A.

Zorrez betea da gizonaren gazte-denbora

Zenbat ere gaisto zortiak diran aureen egunak, ez dira izan oi gazteen egunak bezain zortiak eta gaistoak: bada, lar txiki berritik anditura doana, badoa aurren zorretatik gazteen zorretara. Larrak, asi berrian, arantz bakanak ditu, ta dituenak ere, min guti ematen dutenak dira, ta beratxak: baña, andituz doan bezala, betetzen da larra arantzez; ta orduko gogortzen dira guziak, eta odoltzen ta urratzen dute ukitzen dutena. Aurrak ere, aur-denboran ez du gazteak adiña arantz, edo oben ta kulpa; ta, dituenak ere, ez dira gerokoak bezain oben-kulpa gogor gaistoak.

Gazteen bekatuak, ezaguera osoagoarekin, ta gaistakeriz egiten diran bekatuak dira; ta orregatik dira bekatu gogor itsusiak: baña aurren bekatu-obenak, larrienak diranean ere, aurrenak dira, ta adimentu laburrarekin egiñak; eta zulatuagatik, edo damu ta atsekabe Jaungoikoari emanagatik, ez diote gazteen bekatu-obenak bezalako damurik eman oi.

Aurrenak baño, gogor itsusiagoak ezezik, geiago ta geiago dira gazteen obenak edo kulpak. Zergatik ote? Zeren aurrak baño su ta indar andiagoak dituen, gaizerako, gaztekiak; eta, urtetan sartuz dijoan eran, arkitu oi den gaztea odol, aurtasunean baño, berotuagoarekin, ta gaistakerietarako griña ta esku, lenagokoa baño, agitz andiagoarekin. Beste alde anditzen asi orduko, emen, ta au, ta bazter guzietan dabil gaztea; ta zenbat geiago dabillen, anbat bide ta zoko geiago arkitzen ditu bere gaistakerietarako. Egiten dituen gaistakeriak anditzen diote gaitzerako bere griña ta makurrera: ta, oni su emanez, eragiten diozka gero bere bakartasunean, beti darraikon etsaiak, al dituen gaistakeri berriak. Lagun arteratzen bada, batzen ditu gazteak au,

sulezeko bere etsaiaz bezain etsai gaistoak; eta batak irriz ta farraz, edo bere itz lizunekin; besteak bere eskuz egiten duenarekin, onek alde batera, ta bertzeak bestera, erakusten diote nork daki zenbat gaistakeri edo gaistakeri bide.

An bertan ez egiñagatik gazteak an ekusten ta ikasten duen gaistakeria, egin oi du gero, bakartzen denean; bada, bakartu ezkerro, gal-tzen du lagun artean artarako izan oi duen alke ta lotsa guzia; ta egin oi du bakartzen denean, zeren lagunarteko gauza gaistoen oroitzapen lizunak nasten dion batetik bere barren guzia, ta bestetik, etsai gaistoak ematen dion suarekin, irakiten dion odolak, eta garaitzen duen atsegin zikinetarako bere naikunde, ta griña gaigarriak: eta, bein orretara ezkerro, gazte bekatariak, presa urratu duen ubeldea dirudi; bada ubeldea ur gaziraño bezala, gelditu bage joan oi da gaztea bekatuz bekatu aztura gaistoen osin andira, edo itsasora: anbat dira artara oitzen denetik itzez, eskuz, begiz, biotzez, ta bertze anitz alde-tara egiten dituen gaistakeriak.

A gazte-denbora zoratua! Obenez ta kulpaz beterik arkitzen zaran gazte denbora! Zorigais-

toan ikasi nuen nik adin orretan ikasi oi den atsegin gaizto, plazer lizunetarako bide loi likits au! Nik neronek dakizkit gerozko nere ibillerak, eta bekatu zikiñak! Baña ote dakizkit ere? Beldur naz ezetz: ibilli naz alabaña ni anbat denboraz, itsu baten eran, edo non ta zertan nenbillen, bear bezala beintzat, ezagutzen ez nuela. Ejeo deritzan, ta geienez asaldatua dagoen itsasoa bezain asaldatua egondu da nere biotz au, era orretan ni nenbillen denboran; ta aurtasuneko nere obenen bagak gaztetasunaren ondarrera ziraneko, agertu ziran nere biotz txar galdu onetan, gaztetasun bereko nere oben-kulpen bagak; baña bagak, ordukoak baño bizi gaiztoagoak; eta arriz arri, ta perellez perell nere animaren ontzi erdi-urratu au eraman oi zuten bagak.

Ontzi gaisoa! ta zer egin ziran zuk zere bataioko Indian artu zenituen grazia, ta zeruko ondasun eder andiak? eta zer zere Jaungoikoak geroztik eman dizkitzun gogargi, ta naikunde onak? Ai ene! geiago ta geiago izan balira ere, galduko nituen nik erotzarrak, bein ezezik anitz alditan ere, edo bekatu larriren bat egiten nuen

aldi guzietan! eta egin dut nik bekatu, nori daki zenbat eta zenbat aldiz ta bider.

Sinisten zaitut bai, gazte txar zentzugabeko galdua; indar gutizkoa da alabaña lurrekoen gaztetetasuna; konsuelorik bagez eri dagoen sasoia da gaztetasuneko sasoia; bekatuaren sukarrak erretzen dadukan gauza da gaztetetasuna; onez erraten zaionik ere ontzat artzea ez duen adina da gaztetetasuna: ta orregatik gaztetetasuna da atsegin galgarrien izurritzko iturritik edaten, ta edaten ari den egartia. Zer anitz bada, bekatuz bekatu, malurez malur, ta gaitzez gaitz gazte bat, beti ezpadere, geienez edo maiz askotan beintzat ibiltzea!

Irur gauza dira, gauza guzien artean, erraten du gizon jakintsu errege Salomonek, ezagutzeko gaitzak; eta laugarrena nik ez dakit, dio, nola den ere. Irur gauzak dira arranoaren edo agilarren aize gañeko egoa, edo egaka; lurreko sugearen ibillera; ta itsasoko ontziarena: laugarrena da gizonaren gaztetasuneko bizia. Ezagutzen dituzu zuk? Begira zaiezu nola dabiltzan, dabiltzanean. Sugea ez dabil zuzen bein ere: ibilliko bada, jiraka dabil, ta aldebat burua, ta buztana

beste darabillea. Geianean inguruka dabil arranoa: ta itsasoko ontzia batera darabilte ta bestera, bein bagak, bein aizeak. Orra zein makurra orien iruren ibillera.

Zuzenagoa ote da gaztearena? Zenbait aldiz ateratzen dute zeruko bidetik gaztea bere griña gaistoak, atsegin-naiak, eta gaitzerako makurtasunak? Non dabil gaztea geianean? Elizan? Eriak ekusten? ta deboziazko gauzetan? A zein guti! Non, bada? Jan-edanean; ongi ez dirudien bazterretan, dantzan, jokoan, izketa ta eskuka zikiñetan, ta bear ez diran lanetan! Zer ateratzen du gazteak bere egiteko ta lan orietan? aldioro, edo askotan beintzat, anima galtzea; ta denbora berean oroitzapen ta gogorazio zikiñak, naikunde loiak, begiratze likitxak, eta asm-al adiña gaistakeri, ta zor!

Atozea orain: zer du zer-ekusi arrano suge, ontzien ibillera makurrak, era onetako gaztearen ibiltze makurrarekin? Ezinbestezko makurtasuna da sugearena; ta nai ta ez ateratzen dituzte beren bidetik aizeak arranoa, ta aizeak edo itsasoaren bagak ontzia; ta orregatik iruren makurtasunak, ezinbestezko edo bortxazko makurta-

sunak dira. Berariazko makurtasuna gaztearen makurtasuna da; bada, nai badu, badebilke gaztea bere zeruko bidean zuzen-zuzen, edo bat ere galtz aldera makurtu gabe; ta orregatik gaztearen makurtasuna da eskergabeko makurtasuna; ondotik darraikon sulezeagatik, arritzekoa den makurtasuna! ta makurtasun, Salomon jakintsuak ezin adirazi zuen bezalakoa.

Bein edo berriz baizik makurtzen ezpaliz bere gaistakerietara gaistakerietan dabillen gazte txarra, noizbait agian zentzatuko litzake, eta egiñaz damuturik, itzuliko litzake eraman bear den zeruko bide zuzenera; baña, makurtzen asitzen denetik, izan oi da aldapa gogor garbi baten erpiñetik erortzen den zunbil edo aitz biribil bat bezala. Gain orrelakotik amiltzen den zunbil andi, edo zur, edo aitz biribilla, erortzen bein asizkero, ez da gelditzen azpiko erreka, leku zelaia, edo beste zerbait arkitu artean; ta atsegin-gaistoen mendetik malkortzen den gazte txarra gelditu ez oi da, sulezean sartu arteraño, baldin eritasunen batek bere osasuna, edo ezkontzak eror-bideak eta gaitzerako beatztopak kentzen ezpadioza; edo Jaungoiko maitagarriak

egiten ezpadio, noiz edo noiz egiten dituen animako gauz andietatik bat edo bertze.

Ekusten dezu zein zortsua, zein obendun-galdua den, mundura dotozen geienen gazte denbora, edo gaztetasuna? Ez ote zen era berekoa zurea ere? Zergatik gertatzen dela, deritzazu, gazte zoratuena onenbat itsumen ta onenbat oben-kulpa? Atoz ekustera.

B.

Nondik datozen gaztearen gaistakeriak

Gaztearen gaistakeriak datoz Jaungoikoaren beldurtasunari lekuri gazteak bure biotzean ez egitetik: Atsegin loien aldapan limurtzen ta irrishan asi ezkerok, ez du bekatariak, gelditzeko, Jaungoikoaren beldurra ta umiltasuna bertze tokirik; eta gazteak, osasuna duen artean ta indarrak osoak badaduzka, ez du kezkarik edo beldurrik bat ere, S. Anbrosiok dionaz, ez eta umiltasunik ere. Antustez ta eratasunez beterik daduka bere burua; odolak irakiten dio bere

zañetan; ta, orrela dabillen artean, ez du gazteak atsegin jostatzeak eta aragi zikiñaren loikeria baizik bere gogoan, ez eta bere biotzean ere. Orien ondoren dabil gazte txarra gau ta egun, ta aldarteak ematen dionetan, edo beintzat anitz eta asko aldiz; ta dabil, bere Jainkoaz ta sulezeaz aisolarik etzaiola.

Au dakienak bezala, oju egiten die S. Agustinek gazte guziei; ta erraten die: gazteak, begira ongi nora zoazten! Adin guzien artean, zuen adiña da adiñik ederrena; ori da alabaña adin guzien lorea: baña da denbora berean adiñik izugarriena, zeren den adiñ animak errezkien galarazi ditzakena.

Ala da, Doktore andia, ala da; egia diozu! Min onetan ill bagiña gu, non arkitzen ziran gaur gure anima gaisoak? Arkitzen ziran noski, orduan guk anitz aldiz ta aldetara irabazia gendukan sulezean! bada, Jaungoiko gureak guri orduan emanagatik, orduko geren gaizkiez damaturik gelditzeko lekua, ez dakigu bear den damurik artuko genuen guk orduko geren eritasunean; ez eta ezagutuko, edo siñestuko ote genuen ere, aldi artan ill bearrak giñala: bearba-

da bizi-usteak, eta sendatu-naiak kenduko zigiten ill gindezkelako uste ta beldur guzia. Eta siñetsiagatik ill-bide zuzena generamala, egiñen ote genuen bear den eran, iltzen diranak azken orduan egiten dutena?

A, nere Jaungoiko maitea! beldur naz ezetz! sartuegia zegoen nere gogoan adin artako era-keria ta atsegin zikiña, niri orduan orren lan andi on bat egiten uzteko! Begiz, eskuz, ezpañez, belarriz, ezur-zain, aragi-larruz eginak neduzkan, nork daki zenbat oben ta gaistakeri; ta guziak, lotua neudukaten burutik oñetaraño! Nondik nuken nik, ordu ain estuan bear zen indar guzia, lokarri orren sendoak au bertan urratzeko? Zu ziñan bakarrik, nere Jaungoiko maitagarria, lan onetan niri lagun zenizakedana? baña beartua zenduzkadan nik zu orduan orretarako? Zure gogargiari begiak itsirik, eta zure deitze maiteari ez-aditu egiten niola, egiñak ziran nere orduko zikinkeri ta kulpa guziak! Eta zer kulpak? Damuz ta atsekabez zu, Jesus maitea, bete zinduzten kulpak! Bada zer laguntza itxedan nezaken zugandik nik, gisa onetan nik zu zenduzkala?

Zuri eskerrak eskerren gain nik, nere Jaungoiko maitagarria, zeren nere gazte denbora zorti, bizitza loi, adin obendun artan igorri etzenidan nere eriotza! Bada orduan zuk au igortzera, galdua nintzan ni, bai segurki; ta galdua sekula guzirako! Ez al naute galduko azkenean, orduko nere erakeriak, eta urrats edo pausu gaistoak? Ez baldinbere! Ez arren, nere Jesus maitea, ez! Gal ez nazaten, eman bear didazu orain orduko nere, ta geroztik, nik egin ditudan utsegite guzien ziñezko damu bat eta barkamentua. Ori da bearren dudana; ta gogo guziarekin gaur nik eskatzen dizudana. Ez arren ukatu au, ez, nere Jaungoiko maitagarria!

*Sensus, et cogitatio humani cordis
in malum prona sunt ab adolescentia sua.*

Gen. 8. 21.

Gure gaztetasunetik galtzera makurtuak dira gure begiak, gure belarriak, eta gañerako gure animaren lelo, edo sentidu guziak; baita buruko gogorazio, ta biotzeko asmoak ere. Malur doaka-

be au Adanen bokadutik datorkigu; ta malur onetatik datoz gazte-denborako gure loikeri ta oben guziak! Zorioneko gazteak, malur onen etorkera, edo onetarako griñ gaistoa, garai otean garaitu zutenak! bada garaitu zuten, gogo makurra zuzenduz, ta gauza onetan beren egunak zera-maztela: ta, orrela gaztetasuna eraman dutenak, anitz nekatzen ez dirala, izan dezakee zartze zuzen birtutetsua, ta zeruko bukaera.

Oriek baizik ez? Baita gañerako nai duten guziak ere; bada birtuterako aski da, aztura txarrak utzi, ta lan onetan ibiltzea; ta au ta ura egiteko, prest dagoen graziaren laguntzaz baliatzea; ta laguntz au ez dio Jaungoikoak ukatzen ongai ta ziñez eskatzen dionari, gaisto-gaistoa izandu badere, bere eskatze on au egin arteko denbora guzian.

Ori orrela bada: ona ni, nere Jaungoiko ongi-ilea; ta ona ni, gazte denbora galdu bateko nere zor guziekin! Orduko nere aztura gaiztoak anitz geiago gaistatu dira geroztik: eta galdua baño galduagoa dago orain oriekin nere anima gaisoa! Zugana nator ni, nere Jaungoiko maitea, zuzendu naiez nere oraindañoko utsak eta gauza

makurrak; eta nator, eman didazulako uste oso-arekin, lan onetarako bear den indar ta laguntza guzia. Ziñez eskatzen dizut, eta leneko nere gaizki guziez ongi damaturik. Erdisten badut gaur orien barkamentua, ta orain eskatzen dudan zure laguntza ta indar au, egin uste dut gaurgero, beren gaztetasuna ongi eraman zutenak egin oi duten guzia edo bizitza on, garbi, birtutezko bat. Ala gerta dedilla, Jaungoiko maitea, bai arren, bai!

*Memento Creatoris tui in diebus juventutis tuae,
antequam veniat tempus afflictionis.*

Eccle. 12. 1.

Oroi zaitez, erraten dizu zere Jaungoiko maiteak; oroi zaitez zere Egilleaz zere gaztetasunetik, eta nekezko zure egunak etorri ditezen baño len. Oroi zaitez, bai; zere Jaungoiko egilleari, egin zinduen egunetik egungo eguneraño zor diozun guziaz. Oroi zaitez zertako egin ote zinduen zu, edo nora eraman naiez, egiña zaduzkan emen zere Jaungoiko maitagarriak. Baña oroi

zaitez, diodan bezala, bertatik eta gerorako utzi gabe oroitze on, gauz onen eragille au. Oraingo zure otoitz onek (bein ta berriz, ta askotan otoitzen zarala) urrundoko zaitu zere Egillea berrero aserretzetik, edo bekatutik; eta zuzenduko zaitu, Egille berak emain dizun graziarekin, egin bear dituzun gauza onak egitera; ta azkenean, oriek zerekin dituzula, zere zerura. Zorioneko oroitza, onetan gelditzen den oroitza! Orain badere nere gogoan sar baledi oroitz on eder ongille au!

Esker-gabe txarra! Oroitzen zara zu gabaz, egunaz, ta orduan anitz aldiz ere, zure anima galtzeko diran gauzez; ta ez dezu gogoan artu nai, gogotik utzi bear etzenuen zere Jaungoikoaren oroitza! Gauz arrigarria! Ez dezu gogoan artzen, gauza guzietarako bear dezun zere Jaungoikoa; ta, nai dezu erabil zaitzan zu zere Jaun andiak, bere gogotik utzi bage bein ere! Zure Jaungoiko egilleak ez du zure bearrik bat ere ura bage ezin dagikezu zuk, egin diteken gauzarik txikiena: ta ala ere zure Jaungoikoak oroitu bear du zutaz, ta zuk zere Jaungoikoaz ez? Ekusi dezu onelako erakeririk? Utziko dezu? Bai baldinbere, nere Egille, Jaun andia! Lenago ez utziaz dut

damu; ta zinez alere! Etzaitzadala zu gaurgero
nik nere gogotik utzi! Ez, nere Jaungoiko maitea,
ez! dagidan gaurdanik ill artean, beti egin bear
nukena, ta zuri zor dizudan guzia. Ala gerta dedi-
lla, bai arren, bai!.

*Delicta juventutis meae, et ignorantias meas
ne menineris: secundum misericordiam tuam
memento mei tu, propter bonitatem tuam.*

Ps. 24. 7.

Ez da, Jaungoiko maitea, ez da zer begiratu,
nere gaztetasuneko oben-erakeriei! Gaizki egi-
ñak dira; ez dut ukatzen; baña egiñak dira, gaz-
tearen erakeriz, ta oarkabeen bezala: ta orrega-
tik, gaistakeriz egiten diranak baño aisago barka
ditezkeenak dira. Barka ditzatzun bada guziak,
nik nai ta bear bezala, begira zadazu urrikarizko
begiz, nigatik ezpadere, zere bazterrik bageko
ontasun ederragatik.

Gal nazakezu noiznai, orduko nere txarkeri
loiakgatik: eta etzenuen orain artean zer itxedan
orretarako: baña zer irabaziko dezu ni bezain

gauza txar errumes bat galeraztearekin? Geroz ezin eginen liket ongirik bat ere zure urrikaltasunak edo miserikordiak. Ez da bada obe izain, nere Jaungoiko maitea, zuk zere urrikaltasun ongillari, ni gazte denbora eroko obenpetik atera nabelako, atsegin andi bat egitea? Egiozu bada bertatik; eta bidenabar egindazu niri ere, nik ar dezakedan atseginik andienetatik bat: bada, nik lur gañean ar dezakedan atseginik bada, da bekatuen barkazioa, ta orrekin datorren zure grazia ta adiskidetasuna. Indazu arren bata ta bestea; ta indazu, bat ere luzatu gabe; bada eskatzen dizut damua beterik, eta biotzez ta itzez erraten dizudala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

V.garren OTOITZ-GAIA

NOLAKOA IZAN OI DEN

GIZATASUNeko GURE IBILLERA

A.

Zorti itsusia da gizonaren bizitza, ta ibillera

Gaztetasunarekin bukatzen balira gure obena, edo adin onean sartu orduko uzten bagenitu guk ordurañoko geren erakeriak, aztura txarrak, eta bear ez diran gauzak, iltzen diran geienak, arkitu oi diran baño zor gutiagorekin arkituko lirake beren eriotzeko azken-asnasean. Baña gaztetasuneko asiera txarrari askotan datxeko andi denborako ibillera txarragoa; ta, lenak utzi bearrean, arkitzen dira gizonak eta emazteki eginak zor berriz ta bekatu kulpez beteak: gertatzen zaie alabaña lar berriari, anditu ondoan, gertatzen zaiona.

Larrak anditzean, ez du zotz edo zigor zuzen bat eta zenbait arautza-punta besterik agertzen,

edo erakusten; baña bein anditu ezkerro, abiatzen da adarrak eta adarrak botatzen; ta botatzen dituen adar guziak datoz arautza gogorrez beteak: eta urteroko arkitzen da larra adar-arrantza, ta sugai geiagorekin. Gizonak ere baditu bere gazte-denboran oben-kulpen arantzak; baña geienez beintzat, era bateko arantzak edo kulpak; eta kulpa-arantz ez orren gogorak. Anditu ta ondoan betetzen da gizona aztura gaiztoen adarrez, ta oben kulpen arantzez ta elorritz: edo su-gai zorrotz igartuz. Ez da au egia? Begira egiozu zere buruari, ta ekusiko dezu.

Atozea; arkitzen zihan zu, gaztea zihanen, oraingo kulpen erdiekin ere? Urte berrietan bezala, etzara sartu zu zor berrietan, ta oben gaistoetan? Bai egiaki; ta orregatik egunez egun, ondu bearrean. gaistatu izandu zara zu; ta, egin dituzu dakizun bezala, lenen gain, nork daki zenbat kulpa, oben, bekatu ta zor berri! Ori da zuk, zere zorpetik ateratzeko, arkitu izandu dezun bidea? Zuzen zabilta; bai segurki! Obe lizake, bakarrik bazenbiltza: baña anitz dira zurekin batean bide berez dabilta gizonak!

Badakizu zuk, bide galgarri orretan zenbat zabilzten? Jeremias profetak ekusi zituenak adina bazarazte, ez da erraz ori zuk siñistatzea. Zenbat ziralara, deritzazu, profetak ekusi zituenak? Adi zazu gauz onen gain Jaungoiko berak erran-erazi ziona. Ez da bat, dio, egia dionik: ez da bat zuzen ta bear bezala mintzatzen denik. Gaizki dabilta guziak; gaistoak dira; ta gaizki egiñaz etzaie urrikitzen bein ere, bear bezala beintzat; eta ezer-ez bat dela, diote, egiten duten edozein txarkeri, oben ta kulpa. Ekusten bazenitu zenbait aldiz, usteko zenuke damaturik daudela beren gaizkiez: baña ez da ala: bada fite itzultzen dira beren lanetara; ta, zaldi berotua arm-artean bezala itsuak, sartzen dira beren bide gaistoko lokatzean ta bekatu artean.

Aize gañean dabillen miruak ezagutzen du dagokan denbora; ta, ona ezpada datorkiona, uzten du bere egaka, ta gordetzen da nonbait, bat ere trikatu gabe. Otzaren beldur diran egaztiak, etortzeko dagoela otz-denbora ezagutu orduko, igesi doaz bazter beroetara; ta bazter otzetan gelditu baño, lenago joain dira itsasoaren alde artakoetara, edo edozein beste leku

urrutietara; ta ez dira itzuliko, itzuli artean denbora bero-epela: baña mundukoak ez diote begiratu nai beren Jaungoikoari; ta, ezpaliz baño geiago ansiatzen ez dira onen eskutik datorren sekulako nekez. Txikitik asi ta andirañoکو guziak lurreko atsegin ta gauza txarren ondoren dabilta. Orra zenbat ziran Profetak bide gaistotan ekusi zituenak; edo orra zein guti bide gaistotik kanpoan arkitzen ziranak. Eta non arkitzen ote zara zu? Zerorrek dakizu; edo ikas dezakezu. Ikasi zazu bidenabar, nondik datozen adin onetako bekatu gaistoak.

B.

Adin onetako bekatuen sustraia, edo zaña

Oartu zara noski Profetak dionara, edo lurrekoei orren gaizki, ta bekatuz bekatu, ibiltze au non dabiltzan ez ezagutzetik datorkiela? Ezagutzen balute lurreko gaisoak, zein gaistoa den, ta zein zikin-itsusia, bekatuz bekatu dabiltzanean berak daramaten bidea, laster utziko lukee, bai:

ta artuko lukee, ongi dabiltzanak eraman oi dutena: ta au artean gaistotik dabilta, nondik dabiltzan ezagutu gabez. Begira niri, nere jendeak; adi zazue zer diodan, dio Jaungoikoak Dabiden ezpañez, aditzen badituzue zuek nere hitz onak; eta oartu ezkerora nora zoazten, ortik zabiltztenak laster aterako zarazte, bai; ta etzarazte sartuko, ez, esker gaistozko bide makurretan: ta orietan berriz egiñen ez dezue nik nai ez dudan pausurik txikiena.

Baña gauza arrigarria! dio Jaungoiko berak: ez dute aditu nai gaizki dabiltzanak nik erraten diedanik; begi bat goratzeari ere, zer nai dudan nik ekusteko, geiegi derizte. Gelditu gabe, ta lasterka bezala, doaz berren bidez. Utzi diet nik, dabiltzala nai duten eran. Beren naikunde gaistoak arrastatu ditu; ta egunoro ibilliko dira gaizki baño gaizkiago, ta lan loi zikin gaiztoagoak egiten dituztela.

Orra gure Jaungoiko maiteak Dabidez diona, edo aditzera ematen diguna: ta orra nondik datorren gaistoen bekatutik-bekaturako ibillera galdua: beren berariazko itsuera gaistotik. Berekin dakarren itsuera galgarri au baizik ezpalu ere

bekatu gaistoak, bekatua lizake, dio San Joan Krisostomok, gauza gaisto guzien artean gauzarik gaistoena. Eta egia dio; bada itsuera au da, len genuen zeruko argia guri kentzea, edo agitz laburtzea; ta argi au guri kentzearekin, edo agitz laburtzen digula, uztea gu barurik edo adimenturik bageko eroak bezala. Eta zer itxedan diteke, adimenturik ez duen, edo bururik bageko bategandik? Bere griña gaistoak eragin dezoken guzia. Eta non arkituko dezu au baño gauza gaizgaiztoagorik?

Anitz alegin oi du gure etsaiak, erraten du Alexandriako Klementek, gazteei gaizkiak eragiteagatik. Eragiten diezte gazteei beren gaizkiak laur gauzetarako; bada, eragiten diezte, beinik bein, Jaungoikoari atsekabe ori eman naiez; badaki alabaña, guztiz maite dituela Jaungoikoak bere gazte on-garbiak. Eragiten diezte, gero, lenbaitlen ta aisa gazteak beretu naiez; zeren dakien aisa sar ditzakela bere kateetan; ta, bere katean bein gazteak sartu ezkeru, nekez andik ateratzen dirala. Eragiten diezte, gazte berak errazkiago gaistarazi naiez; badaki alabaña, gaistakerian asitzen diran gazteak ibilli oi dirala

gaizkiz gaizki, loiez loi, ta bekatuz bekatu. Baña, guziakgatik baño, geiago (ta laur-garren lekuan) eragiten diezte gazteei gaztedanik beren gaizkiak, zeren gazte-denborako gaizkiak egiten duten bizitza guziko bekatuetarako bide zabal erraz bat.

Bai, dio Espiritu Santuak, bai: gazteak, ez anditzen denean, ta ez zartuagatik, utziko ditu bere gaztetasuneko oitura gaistoak; eta besterik ezin duenean, bere gaztetasunean gaistoa izan du zen zarrak, ezur-muñetan erabilliko ditu orduko erakeriak, eta aztura gaistoak; eta berekin eramain ditu guziak bere obira, edo lurpera.

Gaztetasuneko bekatuak, bada, sartzen dute bat bekatu bidean, ta uzten dute erdi-itsutua. Urteetan ta bekatuetan sartuz bezala, itsutuz ta itsutuz doa gaztetasun gaistotik aterarikako gizona; ta, animako ekustea laburtzen zaionetik izuzen ez dute bere bekatuak, itsusiak izanagatik oriek, eta guztiz arrigarriak; eta orrekin egiten ditu bekatu berri andi itsusiak, egarri andia duenak ur otza edan oi duen bezain aisa. Itsuera, ta illunbe au ezpalekarte bekatu gaistoak,

bekatu artean nola leudeke bekatariak, dauden bezain lasai ta ansia gabe?

Gizon batzuek ez dira jai-igandeetan, ta al duten guzian, jokoa ta jan-edana besterik. Beste batzuek ez diote miiz niori barkatzen, beren erako jolasdunekin arkitzen diranetan. Zenbait ez dira boto, juramentu, ta maldiziona bertzetik. Bertze batzuek galtzen dituzte mezak, urratzen dituzte jaiak eta baruak, edo egiten ez dituzte egin bear diran beste gauzak. Zenbaitek ez dituzte egiten amarren-primiziak, edo gaizki ta txarki egiten dituzte egiten dituztenetan. Loitzen dituzte beste zenbaitek beren gauza likits zikin anitzekin beren anima-gorputzak; zikintzen dituzte era berean beren eskontzak, edo eskontzarako bideak. Etxean, langubietan, jendartean, ta non-nai ereintzen dute bertze anitzek jolas lizunen biia, ta alea. Begiratze likitsak dituzte orietatik ez gutik, eta gog-asmo, oroitzapen, ta naikunde zikiñak. Loiez loi dabillen animalia baño galduagoak daude beste anitz, eta asko. Beste anitz ez dira bein ere zorpetik ateratzen: ta ortik atera lekuan, ebasten dute al dutena, beren saldu-erosietan, ta beste anitz aldetara.

Konfesatzen diranean era orietako gizon ta emakumeak, konfesatzen dira, elurra bezain otza dadukatela beren biotza, edo ontzeko asmorik bage; ta alere, beren ustez ongi ta bear bezala konfesatzen dira; ta orregatik dira frenesiz, edo berak ezagutzen ez duten gaitzez, iltzen diran erien erako bekatariak.

Zenbat, bear ez den apaintze, ez da arkitzen Andre arro ero-txarren artean? Zenbat arrotasun ta antuste? Erriertak, eskanbillak, eta gorrotuak daramate orrelakoen artean nork daki zenbat ordu, ta denbora. Elkar ezin-ekusia, guzia bere-tu-naia, ta gañerakoak azpian idukitzea, da Lurreko anitzen egitekoa, edo beintzat naia ta gogoia. Kargudunak, kargurik bage baleude bezala aisa bizi dira asko lekutan beintzat, eta agian geienetan: ta bizi dira orren lasai ta aisa, zeren ez duten uste errikoen edo beren menekoen gaizkiez eman bear dutela bein ere konturik bat ere beren Jaungoikoaren aitzinean. Beren naiezko itsu gaisoak!

Jai-igandeak, gure Jaunaren egunak izanagatik, urteko egunik loituenak eta galduenak dira geienendako, edo anitzentzat beintzat; eta, zen-

bat ere andiagoak diran egun oriek, anbat galdu-loituagoak dira orien artean. Orduko dantza zikiñak, gazteen jan-edanak, nastekak, eta gañerako gaizki dabilzanen gaistakeriak, kendu naia-gatik eliz-Artzai kontuzko zenbaitek, eman nai ez die eman bear lieken eskua ta laguntza erriko kargudunak, nagusiak, edo gurasoak; eta gelditzen dira gauzak len zeuden toki berberean, edo agitz gaistoagoan.

Norbaitek erraten badie, onela dabilzanei ez dabilzala ibilli bear duten eran, ta zuzen ibiltze-ko, egin bear dutena ez-aditu egiten dute, edo irri ta farra. Berriz ori bera, edo beren onerako den zerbait erraten bazaie, sumintzen dira, ta irugarren aldian adituagatik ongi dagotena, gelditzen dira len bezain itsu-gogor gaistoak. Bada-kizu zer-nola? Zeren oriek eta gu oituak gauden txikidanik, dio San Agustinek, gaistoen lanak ekustera, ta ematen ez diguten begitan bat ere, beintzat orietara oituak gaudela, urteetan sartu ezkeru. Orregatik bada zenbat ere zarragoak diran gaistoak, anbat zordun-itsuagoak izan oi dira, bizi diraño.

C.

Gaistoak, beren gain artzen ditu besteren bekatuak ere

Gaitzera oitzen diranak ez dira, ez, debozio-
nezko lanetan anitz nekatzen; ta lan orietaratzen
diranean ere, au ezpaleude bezala daude, edo
gogo guzia barraiturik dadukatela, ta nagitasu-
nez beteak. Orrelakoak, berekiko diranak izan oi
dira bertzeekin ere, ta erakutsi ez oi die etxeko-
ei, ta gañerako beren menekoei jakin bear dute-
naren laurdena. Erakustean diranak, dira gañe-
rako gauzetan; ta eragin bear likeena baño anitz
gutiago eragiten die beren eskupean, edo
menean, dituztenei. Eta berak gaistoak izatea, ta
itxekoak eta gañerako bere menekoak gaista-
tzea aski ezpaliz bezala, gaistatzen dituzte auzo-
koak, eta berekin diarduketanak ere, hitzez ta
erranez; eta, orien begietaratzen diran gañera-
koak lanez, ibilliz, ekuskariz, ta exenplo gaistoz;
ta ez doaz berak mundutik, mundua ondorengo
gaistoz beterik utzi artean.

A gurasoak, gurasoak! a guras-orde, buru, edo zenzugabeak! Egunen batean ekusiko dituzue zuen nagitasunak eta aisola-gabeak dakartzien malurrak eta kalteak! Zaitu ta maneatu gabez, galdu dituzue Jaungoikoaren mintegiko landareak, edo itxeko umeak eta erriko gazteak, bada utzi dituzue guztiz makurtuak, edo gaitzera oituak; eta oitura gaiztoak, eta gaztetasuneko makurrerak ez oi dakar sekulako sugaia, ta sugai arrigarria besterik.

Errazue ezperen: zuek zerok dituzuen oraingo kulpak nondik dakarte beren asiera? Ez ote dakarte aurtasuneko, edo gazte-denborako zuen asitze txarretik? Zenbat ikusi dituzue anditu ondoan gaistatu diranak, gaztetasuna ongi ta garbiri eraman ezkerok? Zer nai dezue bada gerta dakien, zuek bezala gaizki aziak dauden zuen gazteei? Anditu orduko gaistatuko dira noski zuen erara; ta orien orduko gaistakeriak ere zuen gain izain dira. Zer zorrak orduan zue-nak.

Arrigarriak, nere Jaungoiko maitea, ta bertatik ni ikaraz nadukatenak! Orain, bai, orain asitzen naz ezagutzen, zein andia den zor dizudan

niganako zure amorea! Ni naz autsetik egiña, ta autsetan gelditu bear duen gauza txarra! Ni naz nerez betazal bat ezin gora dezakedana! Ni naiz bekatu etorkian jaioa! Ni nere naiez bekatu ta gaizkietara anitz aldiz makurtu nazana! Aurdanik asi nintzan ni nere gaistakerietan! Agiz geiago gaistatu nintzan gazte denboran; ta gaitzetik gaitzera ibilli naz ni, bizitu nazan denbora guzian.

Zenbat ote dira, nere Jaungoiko maitea, zenbat aldetarakoak eta zein itsusi-andiak aurtasunetik oraindañoko nere obenak eta bekatuak? Begiz, ezpañez, eskuz, itzez, bellarriz, biotzez, zenbait bekatu salla ez ditut egin izandu nik, sortu nintzanetik orain artean? Aurtasun loiaren ondotik etorri zen nere gaztetasun loiagoa; ta biei darraizte gerozko nere urte galdu-galgarri-zikiñak!

Au guzia badakusazu zuk, nere Jaungoiko maitagarria? Ongi kontatuak daduzkatzu, bai, nik oraindañokoan egin dizkitzudan txarkeri andi-txikiak: bakoitzak agertzen dizu nere esker-gabetasuna: ta guziak eskazen dizute pagu gogorra; bada eskatzen dizute aurtiki, edo bota

nazazula, aspaldian nik ongi irabazia nedukan zere su-lezera, au beti ta beti nekez ta negarrez beterik zuk idukitzeko ni: ta alere, ori egin lekuan bizirik nadukazu, ta, ori egin lekuan, egiten dizkidatzu niri, nere Jainko maitagarria, nork daki zenbat ongi, ondasun, fabore, ta ontarte!

Zergatik ote? Zere bearrez, edo zeren nigan-dik zerbait uste dezun? Bat ere! Nioren bearrik ez duena da gure Jaungoikoa; ta, egiten digun guzia ongi naiez egiten diguna.

Badakizu zuk au, errebes txar eskergabea, ta alere etzara bertan iltzen alkez, damuz ta naigabez? Onegia zurekiko, zure bearrik ez duen zure Jaungoikoa; ta ni ezer-ez beartsu txar, bat izanik ere, nioren bearrik ezpazenu bezain zere galgarri gaistoa. Eskerrak Jaungoikoaren amore andiegiari; bada, onelakoa ez izatera, oroituko ziñan zu gaur ezezik, sekula guzian ere. Ezaguzazu bada, berandu badere, zere erakeria ta bizitza gaistoa! Zoazkio, orrenbat maitatu zaituen zere Jaungoikoari; ta negarra dariozula biotz, damuz erdiratuarekin, eska zaiozu oraindañoko utsen barkamentua; ta, berririk egin bage, ta zere nagitasun, uts guzian sustrai galgarria zeregan-

dik ateratzen dezula, beraren amoreari bizitza on batez, ta amore andiz, erantzuteko grazia.

*Vae nobis, quia peccavimus:
propterea maestum factum est cor nostrum,
ideo contenebrati sunt oculi nostri.*

Thren. 5. 16.

A, gure Jaungoiko maitagarria, ta nola galdu ditugu guk geren buruak? loitu dugu bekatuz geren anima, ta damuz, ta tristuraz bete ditugu geren biotzak! Zergatik au? Zeren, zure erran errazak egin bearrean, egin ditugun aurkeri ero batzuek! Orretan ari giñanean, gauz andiren bat egiten genuela uste genuen guk: baña azkenean eroen ustea zen gure uste guzia! Egin orduko, ezagutu genuen geren erakeria; bada etzigun utzi geren egin galgarriak, egin genuelako damua ta naigabea beste gauzarik! Berriz, ta berriz ere artara giñan gu, ero txar galduok; baña, geren buruak geiago galtzea, ta zuri atsekabe andiagoak ematea beste ondasunik atera

gabe. Orra gure ibillera galgarrial Orra zorigais-
toko gure ibillerak!

Onetan galduak dira, ongi bizitzeko niri nere Jaungoikoak eman zizkidan egun ederrak! A nere egun, damu gaistoan nik neronek gaizki galduak! galtzeko bazendeuzte, etzinduzket, ez, galduko, galdu zaituztedan bezain aisa! Zuek galtzeko egin ditudan txarkeri loiak illundu didate nere barren guzia, ta alkez beteak utzi dituzte gaur nere begiak! Nola nik gaurgero begiratu-ko diot, onen txarki eranzun diodan nere Jaungoiko maite ongillari? Zer dakit bada! Urrikalduko al zait, alkez ta damuz beterik ekusten nabe-
nean, orain ekusten naben bezala! Bai baldinbere! Bai, nere Jaungoiko maitea, bai; urrikal zaitez gaur errumes txar bekatari gaisto galdu onetaz. Eginaz damuturik nator ni, dakusazun bezala; ta berriz lengo gauza txarretatik bat ere egiten ez dudala, ta al ditudan on guziak egiten ditudala, zuzen bizitzeko gogoz ta asmoz beterik nator. Zuri zor dizut oraingo nere gogo-asmo au ere. Bete dezadan osoro, edo dagidan zuzen egin uste dudau au guzia, indazu bertatik nere orain

arteko gaizkien barkamentua, ta zere laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Laetantur cum malefecerint,
et exultant in rebus pessimis, quorum
viae perversae sunt, et infames grosus eorum.*
Prov. 2. 14.

Gaistoen on guzia gaitzean da, ta gaistakerietan (ala izandu da beintzat nerea, ta zorigaistoan alere!). Zenbat andiagoa den, gaistoak egiten duten gaistakeria, anbat geiagokoa gaistoen atsegin-kontentua!

Gaistoen bideak bide makur, galdu, galgariak dira; orietan dabilzanen pausuak pauso loi beltz-itsusi-gaistoak dira; ta su-lezeko urkabera edo neke arrigarrira daramaten pausuak! Ara ninjoan ni ere nere pausu ta bekatu gaistoekin; ta, den bezain ona ez izatera nere Jaungoiko maitagarria, an nintzan ni, nork daki zenbat urte onetan; ta an urratua nintzan ni, ta urratu bearra beti ta beti sekula guzian!

Au badakit nik: eta etzait alere damuz lertzen nere biotz au? Lertu zitzaien, edo damuz ill ziran, ni bezala obendun etziran zenbait, berea bekatuen ta Jaungoikoaren zerbait ezaguera artu zuteneko. Etzait niri lertzen nerea, edo iltzen ez naz ni, ezagutu gabez zein izugarri galduak diran nere bekatuak, eta zein andia Jaungoikoari zor diodan amorea! Ezagutu banintza orain badere! geroz pausu garbiekin ibilliko nintzake ni, ta zeruko bide zuzenean: geroz maitatuko nuke nik guztiz ni maite naberen nere Jainko maitagarria, ta azkenean izain nintzake ni zorioneko doatsuetarik bat. Ala gerta dedilla: bai arren, bai!

*Iniquitates suae capiunt impium,
et funibus peccatorum suorum constringitur:
ipso morietur, quia non habuit disciplinam,
et in multitudine stultitiae decipientur.*

Proverb. 5. 22.

Gaistakeriak eta bekatuak dira gaistoaren arrapatzalleak. Oriek dira onen soka-lokarriak. Zenbat bekatu geiago dituen bekatariak, anbat

obeki estutzen dute au bere bekatuak, eta uzten dute era ta tranze agitz gaistoagoan. Garai onean urratzen ezpaditu, edo oitzen ezpada bekataria, gaistoak utzirik, gauza onak egitera, mundutik aterako da bere bekatuen sok-artetik atera gabe, ta arkituko du bere burua erakeriz, obenez, ta bekatuz bete-lotua. A zer arkiera!

Orduan errain du, bai, bekatariak; eta errain du damuz, urrikiz, ta naigabez beterik arkitzen dela: ona zertara nauten ni nere aisa bizi-naiak, eta nere ibillera galduak! Ona zer dakarren, onez erraten diran gauzak ez artu naiak! Ez-aditu egiten nien nik nere gurasoei, predikariei, ta bear bezala itz egiten zidaten guziei! Nere gogo gais-toa zen, eskergabeko lanak niri erakusten zizkidan nere maisu-nagusi galgarria! Maisu-nagusi onek agintzen, edo manatzen zizkidan gauzak ziran, nik pozik egiten nituen gauzak; eta, gauz orietara oitu nintzanetik, begitan artuak neduzkan barurak, otoitzak, konfesioneko lanak, lagun onak, eta bizitza onera eraman nintzakeen gauza guziak: eta kristau artean bizi banintzan ere, jentil ta turko bat bezain gaizki bizitu nintzan, maisu onen eskolan nenbillen denboran!

Ona, orain nik ezagutzen ta, bortxaz badere, aitortzen dudan nere kontrako egia!

Egiaren arrigarria! Ez al dezu zuk ere, nere erako bekitaria, ill artean utziko onen aitorrera! Ez nuke nai beintzat, nere Jaungoiko guztiz maittea: ta oraindanoan urriki-damu au artu bagez nago orain nagoen adiña bekatuekin! Bekatuz beteak daude nere begiak, bekatuz beteak nere oñak, bekatuz beteak nere eskuak, nere ezpañak, nere belarriak, nere miia, ta nere biotz guziguzia! Bekatuz bekatu nabillela (ta ala gaizki) joan dira oraindanoa nere egun guziak! Nik urratu-alak baño sendorrangoak dira, era orretan ibilli nazan denboran egin izandu ditudan nere bekatuzko kateak! Kendu bear dizkidatzu, nere Jaungoiko maitagarria, zugana nadin damuz ta urrikiz, ta negarra dardiedala, zugandik uste dudan barkamentuaren, ta zure graziaren eske; ta bata ta biak erditsi ondoan, bien eskerrak ematera. A! zein gogo betez, zein ziñez emain nizkitzuketan esker oriek! Egizu anbeste, geiegi nigatik egin dezun Jaun on maitagarria. Bai. arren, bai!

VI.garren OTOITZ-GAIA

NOIZKOA DEN GURE JAUNGOIKOA, TA NOIZ-DANKAKOA JAUNGOIKO BERAK DIGUN AMOREA

Oraindañoko bortz otoitzgaietan ekusi dugu gure ezer-eza ta txarkeria; oraingoan, ta urrengoetan ekusi bear dugu Jaungoikoaren izatea ta ontasuna; ekusirik, bein gugandik Jaungoikoagana dijoana; ta gero gugatik Jaungoikoak egiten duena, ekus dezagun azkenean zein andia, ta zein bazter-bagekoa den guk geren Jaungoikoari zor diogun amorea; baita amore onek ordez gugandik eskatzen duena ere; gure ekuste ta ezagumentu onek eraman gaitzan egin bear duguna zuzen egitera.

A.

**Beti-betikoa da, ta beti bat,
gure Jaungoiko maitaria**

Ez da Jaungoikoa, ez, gañerako gauzak bezalakoa: berez dabillen gauza da, ta parerik ez duena. Gañerako gauzak asiberriak dira; bada geiena duenak es ditu oraindik zortzi milla urte; ta Jaungoikoa, urteak baño lenagokoa da; asieraik ez duen, Jauna da; beti ta beti dena da, ta eternidade guzi-guzikoa. Orregatik, bere izenaz galdegin zion batean Moisesek, erantzun zion Jaungoikoak: *Ni naz beti-beti nazana.*

Jaungoikoak egiñak dira guk ekusten ditugun, ta zure begietatik gordeak dauden gauzak; eta gauz oriek Jaungoikoak egin artean, etzen mundurik, etzen munduko gauzarik, ez eta besterik ere baño bazen Jaungoikoa; ta Jaungoikoa zen, orain den berbera, ta orain bezalakoa; ta zen gauzen egillea, edo nai zuenean nai zituen guziak egin zitzakena. Oraindik munduak beteak ez ditu zortzi milla urte; ta beste zortzi milla urtez lenagotik ere bazen gure Jaungoikoa; bazen Aita eternoa; bazen Seme Jaungoikoa; bazen Espiritu Santua: edo bazen, irur Persona den Jaungoiko bakar bat.

Baña ote zen Jaungoikoa, berak mundua egin zuenetik eun milla urtez lenago? Baita lenago

ere. Eun milla milloi urtez lenagotik ote zen gure Jaungoikoa? Baita orduan ere. Eta zeruan izar, lurrean belar, itsasoan are-pikor, ganaduetan ille, aritzetan ostoa, itsasoan ur-tanta adina milloi urtez lenagotik ere bazen gure Jaungoikoa? Baita lenago ta lenago ere.

Asma ditzakezu, asm-al adiña milloi ta milloi urte: beste anbesteka egin ditzaketzu zere kontuak edo asmazioak; baña zure era orretako asmazioak eta kontu guziak ez dira pits bat adiña Jaungoikoaren egunen aldean. Ez du alabaña Jaungoikoak asierarik; eternidade guzikoak da gure Jaungoikoa; ta konturik bagekoak dira eternidadearen urteak, milloika, ta eun-milloika, ta milloi-milloika, ta nai den eran atereagatik: bada Aingeruak bezain kontari onak balira ere munduko guziak; eta Aingeru ta gizon guziak ariagatik Jaunaren urteak sumatzen ta sumatzen; ta ariagatik bere lan orretan eun milla milloi urtez; ta ariagatik, bein ere gelditu bage, orien guzien sumazioak elkarri iratsiagatik, sumazioko urte guziak ezer-ez bat bezala lirake, Jaungoikoak iraundu duen urteen aldean; bada urteen sumazioak, naiz lizakela sumazio, lizaken

baño andiagoa ta andiagoa, izain luke bere asiera ta bukaera; ta Jaungoikoaren urteak ez dute asierarik, ez eta bukaerarik ere: beti-betikoa da alabaña gure Jaungoiko maitaria. Izatearen luzea! Izatearen ikaragarria!

Baña nola egondu ote zen gure Jaungoikoa orrenbat urtez, edo eternidade guziko urteetan? Oraintxe bezala, ta beti-beti bat. Ez du Jaungoikoak eritasunik, ez du aldarterik, ez du zartzerik. *Jaungoikoa naz ni; dio berak Malakias Profetaz, ta ez naz mudatzen bat ere.* Beti-beti arkitzen da Jaungoikoa era ta gisa batean; beti-beti berak nai bezala; ta beti-beti atsegin-kontentuz betea. Etzen zerurik, etzen Jaungoiko bera beste gauzarik, berak egin zituen gauzak egiten asi artean, ta eternidade guzi-guzian: ta ala ere, orain zeruan bezain aisa ta ongi zegoen orduan gure Jaungoikoa: zegoen alabaña bere baitan; ta Jaungoiko bera da bere toki, bera egolle, bera da bere atsegin garbi-eder ezin andiagoa; ta bera da, den ta asma ditekene guzi-guzia baño anitz eta anitz geiago ta agitz ohea.

Etzuen Jaungoikoak zeru bearrik, ez eta gure bearrik ere, ezin geiagorañoko doatusunez, ta

atsegin-kontentuz beterik bizitzeko. Egin bagin-
duen gu, gure onagatik egin ginduen, ta gu atse-
gin-kontentuz beterik sekula guzian idukitzeko;
ta ori guri irabaz-erazi naiez, Jaungoiko berak
egiñak dira zeru-lurrak, eta gañerako gauzak
ere. Au ongi, ta den bezala, ezagutzen dute, bai,
orain zeruan arkitzen diranak, eta, ekusiaz arri-
turik, zer egin ez dakitela daude, onenbat egite
ta ontartegatik eskerrak Jaungoikoari emateko.
Ezin kendo dituzte Jaungoiko beragandik beren
begiak; eta beti daude Jaunaren laudarioka ta
esaten dutela: guztiz ona, guztiz ona ta santua
zara, nai dezun guzia dagikezun, ta beti ziñan,
gaur zaran, ta eternidade guzian irauteko zau-
den gure Jauna ta Jaungoikoa.

Orra: gure Jaungoikoa da bakarrik bere izatea
besterik zor ez diona; ta gañerako gauza guziak
Jaungoikoari zor diote beren izatea. Bai: Jaungoi-
koak egiñak dira, dio Dabidek, lurra ta mundua
beste gauza guziekin; ta Jaunaren eskuetako
lanak dira zeruak; baita zeruan arkitzen diran
izarrak, eta edertasun guziak ere.

Orra: gañerako gauza guziak zartzen diran
gauzak dira, ta berez bukatu bearrak; eta, irau-

ten duteño ere, diraute zeren Jaungoikoak esku-
tik uztera, bertan geldituko lirake ezer-ez egi-
nak, eta, izandu ezpalira baño geiago ageri ez
dirala. Ezin buka diteken, ta beti-beti bat dena,
eta era batean beti azkitzen den gauza Jauna da,
dio Dabidek berak, edo aren ezpañez Espiritu
santuak. Ala da, dio san Pablok ere; ez da, ez,
Jaungoiko bera baizik, ezin buka diteken gauza-
rik. Gañerako guziok Jaungoikoari zor diogu
geren izatea, ta geren irautea. Ez giñan izaten
asiko, Jaunak gu geren ezer-ezetik ezpagindu
atera izandu; ta ezer-ez bererako giñake, eskutik
Jaunak utzi ezkeru.

An itzez aitortzen du bekatariak, dio san
Pablok, baña eskergabe gaistoa da bekataria; ta
egiaz, lanez, ta ibilleraz ukatzen du guzia; ta bizi
da bere eskukoa bailiz bezala, ta Jaunaren bea-
rrik ez duenaren eran. Jesus! zein guti dion orre-
tan Apostoluak, dio san Bernardok! Bakarrik nai
luke bizi, edo Jaungoikorik bage, bekatariak,
gaizki ta bere gogora bizitzeagatik; eta ezin era-
man du Jaunaren betikotasuna, etorkizunaren
beldurrez: ain galdu amurratua da bekatuaren
gaistakeria!

Orrelakoetatik ote naz ni ere? Izandu naz beintzat, bekaturatzen nintzan guzietan; ta ala naz orain ere, orain ere ni bekatutan arkitzera, ta Jaunarekin bakeak eginbagea. Au badakit; eta ez naz negarrez urtzen oraindañoko nere erakeriak-gatik? Bekaturik egin ez duten Aingeruak, eta beren Jauna beti ta beti maitatu dutenak ikara daude, ta begiak ezin jaso dituztela, Jaunari begiratzeko! Zergatik ote? Zeren ekusten duten batetik beren ezer-eza, ta asiera berria; ta bes-tetik Jaunaren izate andi eternidade guzikoa; ta nik, gauza zirtzil, bekatari loiak, bekaturatzen nazan aldioro oinpean bezala dakart, eta begiratz-en ere ez diodala, eternidade guziko nere Jaungoiko bera!

B.

Bera denetik, edo eternidade guzian bere gogoan iduki gaitu, ta gaduzka, gu gure Jaungoikoak

Zere txarkeria ta eskergabetasun au obeki ezagutuko dezu, oartzen bazara sekula guzian

zuk zere Jaungoikoari zor diozun gauza batera. Zer gauza ote da gauz orren argigille ori? Iduki zaituen bezala, zu zere Jaungoikoak beti bere gogoan idukitzea. Bai: eternidade guzi-guzian, edo asierarik bage, ta beti ta bei gogoan iduki zaitu zu zere Jaungoiko beti-betikoak, bein ere-bein ere bere gogotik utzi bage.

Jaungoikoa Jaungoiko denetik, ni nere Jaungoikoaren gogoan? Bai: ta denbora pits batez ere aren gogotik atera bage! Ez bide zekien Jaungoikoak? Zein txarra, zein galdu-gaistoa izain nintzan ni, berak egin ondoan? Bai: bazekien ori guzia; ta bazekizkien, egin ditudanean bezain ongi, eternidade guzian nere gaistakeri guziak, nere oben-kulpak, eta nere uts andi ta txikiak! Eta ala ere bere gogoan nendukan ni nere Jaungoiko maitagarriak? Baietz. Zertako ote? Denbora zetorreanean, niri emateko eman zidan osasuna ta grazia: bekaturatzen nintzanean, andik lenbaitlen irteten, edo ateratzen niri laguntzeko; ta gauz onak eraginez, ta egiten lagunduz, ni azkenean bere zerura eramanaiez.

Baldin bazeneki, gogoan zaduzkala zu zere erregek gau ta egun, goiz-arrats, orduoro, ta beti ta beti; ta gogoan zaduzkala, bere denboran ondasunez zu betezeko, zere gaizkiak zuri itzez ta biotzez barkatzeko, gaizkien barkamentua zuk ziñez eskatu orduko, oriek zuri barkatzean ondasun berriak zuri zerorri emateko, ta azkenean, zu nor bazara, bere erreinuko zaldun, ta prinzipie egiteko: baldin au guzia bazeneki, zer agurrak eginen zeniozke errege onen onari? Zein ziñez serbitzatuko zenuke? Eta zenbat eginen zenuke, naigaberik txikiena ari ez emateagatik; eta nai duen guzia, nai duen orduan, ta alik zuzenena egiteagatik?

Eta zer lizake zure erregeren oroitze ori guzia, ta ongi naia, zuk zere Jaungoikoari zor diozun, eternidade guziko zutaz oroitze, ta ongi nai aren bazterrean? Zeru guziaren aldean amets bat, edo pitsik txikiena baño anitz eta agitz gutiago. Bada anbat zorko bazenioke zuk zere erregeri, orren gauza txikiagatik, zer zor ez diozu zere betiko Jaungoikoari, adirazi dugun bere ontart andiagatik; eta eternidade guzian zu,

iduki zaituen bezala, bere gogoan idukitzeagatik? Munduan denek ezin adirazi dezaken adina!

A betiko nere Jainko ongille maitagarria! Ni gogoan nadukazula zu beti ta sekula guzian, beste egitekorik ezpazenu bezala! Eta ezpaziña baño geiago zuri begiratu bage ni, geiengan beintzat! Gogoan arturik zuk ni, bein ere gogotik ez uzteko, ta noizbait nik zu nere gogoan artuagatik, artu oi, oztasun andiarekin, ta bertan edo laster gogotik uzteko! Zure asmo, ta egite guziak ez naute ni atera izandu zure gogotik eternidadean; ta ni, zu gogotik uzten zaitudala, edozein zikinkerri edo zirtzilleria nere gogoan erabiltzeagatik! Zuk ni zere gogoan beti, niri ongi naiez; ta nik zu ez erabilli nai nere gogoan nere onagatik, eta eskerdun onaren legez bada ere! Ekusi du niork oraindik onelako erakeririk?

Ni banintz ere beti-betikoa, Jaungoikoa den bezala; ta Jaungoikoa baliz ere ni bezain urte gutikoa, erakeri andia lizake ni artaz, oroitzen nazan baño geiagotan, ez oroitzea. Ekus zazu bada zer erakeri den, izanik ni nazan denborakoa, ta Jaungoikoa Jainko denekoa, edo eternidade guzikoa, Jaungoikoak ni, narabillen bezala, ta

beti gogoan erabiltzea; ta nik ura, darabildan bezala bakan ta txarki, erabiltzea!

Bukatu al da nere oraindañoko erakeri galgarrri au? Artuko al dut gaurdanik gogoan maiz, ziñez, ta bear bezala nere betiko, ta beti ni gogoa iduki naberen Jaungoiko maitagarria? Bai, nai ezpadut aren gogotik laster atera, ta galdu nazan nere esker-gabetasunak edo oni darraikon bizitza gaistoak! Ala izatera, egin du nereak; eta geroz niri nere Jaungoikoak begiratuagatik, beti ta beti begiratuko dit begirune gogorrarekin, ta nekez ta tormentuz beterik sulezean idukitzeko.

Ez nere Jaungoiko maitea, ez! Orrela zu nik ez ekusteagatik, artuko zaitut alik maizena nere gogoan: emain dizkizut alik ongiena nere esker-rak: eskatuko dizut zere legearen, ta egin bear ditudan gauzen berria: eskatuko dizut, oriek eskatzen duten laguntza ta grazia; ta onekin batean egiñen dut alegiña, guzi-guziak zuzen egiteagatik. Ala gerta dedilla; bai arren, bai.

*Apud quem non est transmutatio,
nec vizissitudinis obumbratio.*

Jac. 1. v. 17.

Lurreko gauzak gauza txarrak dira, ta ez daude luzaro, ez, era batean. Gaur loretan bezala arkitzen diran gauzak bigarko, edo laster, igartuak daude, ustelduak daude, illak dautza, edo ez dira arkitzen leneko eran. Gaur nai dugunaz aspertuak gaude bigar, orain ongi deritzagunari ezin gero begiratu diogu; ta askotan begitan arturik dadukagu len ezin-geiagorano maitatzen genuena. Eritasunak, edo naigabe batek, illuntzen ditu egunik argienak, edo kezka betetzen ditu biotzik ariñenak. Aurtasunari darraiko gaztetasuna, oni urrengo sasoi; sasoiari zartasuna; ta zartasunari eriotza; ta askotan eriotzak urratzen ditu, zartasunerako, sasoiarako, edo gaztetasunerako bideak: eta, bizi dedilla bat luzaro, edo ill dedilla lenago, beti dabil aldarteka ta era edo estadu batetik bestera. Asierarik bagekoa, aldarerik ez duena, ta beti ta beti era batean, ta nai bezala arkitzen dena, Jauna da bakarrik, dio Santiagok.

Zorioneko umeak gu, onelako Jaun baten Legean bizi garanok; bada, lege au zuzen gordezera, edo egiten badugu bere Legean Jaun onek manatzen digana, eramain gaitu bere Erreinura,

ta an idukiko gaitu bere eran, edo eritasunik, zartzerik, eta aldarterik bage, ta atsegin-kontentuz beteak eternidade guzi-guzian! Uste onekin nork ez ditu pozik artuko Jesusen Legeko nekeak eta naigabe guziak? Ni beintzat prest nago, nere Jaun eternidadekoa, zuk nai dituzunak artzeko; ta eraman uste ditut guziak, zerorrek laguntzen didazula. Ala gerta dedilla, sekulako nere Jaungoikoa: bai arren, bai!

*Cogitavi dies antiquos,
et annos aeternos in mente habui.*
Ps. 76. 6.

Jaunaren lenagoko egun urrunak, eta beraren eternidadeko urte luzeak goiz aski barraiatzen zuten Dabiden begietako lo guzia, ta orien oroitzapenak, eta iraute arrigarriak zedukaten gau guzian, non arkitzen den ez dakienaren eran. Gisa berean idukiko ninduke ni ere, aren eran nik oriek gogoan erabiltzera, edo urte orietara, ta orien Jaunak egin duenari begiratzen niola, nik erratera: eternidade guzi-guzian nere Jauna ni

bein ere bere gogotik uzten ez nabela! Eternidade guzi-guzian ni bage nere Jaun andia, ta ekusten duela ere, ez orduan ta ez bein ere bearko nabela ni pits baterako, nigandik begiak ezin kenduz bezala, ta ni gero, egin ondoan, ondasunez ta ondasunez betetzeko asmoan! Eternidade guzi-guzian ekusten ta ekusten nere Jaungoikoa nik nere denboran eginen niozkan txarkeriak, eta bidebageak, edo nere bizitzako oben-kulpa andi ta txiki guziak; eta alere uzten etzuela ni egiteko asmoa, ta ni ondasunez beterik utzi-naia! Eternidade guzi-guzian Jaunaren gogoan nere berarekiko eskergabetasuna, nere artaz ez oroitzea, nere antuste galdua ta arrotasuna; ta guzi-arren asaldatu bage nere Jaungoikoa, ta, aserretu bearrean, nondik niri eginen zizkidan, eskura nintzaten onak, ongiak, eta ondasun andiak! Ez da au guzia nornai, Dabiden eran arri-turik uzteko dina, ta anitz geiago! Ala da, bai, nere Jaungoiko maitea! Baña ez ni oraindañokoan orretara oartu! Ni nere erakerietan oraindañokoan gogoz ta biotzez ibilli izandu! Eta ni lotan egondu gau ta egun ta nere bizitzan, edo bein ere gogoan artu bage, bear bezala beintzat, nere

Jaunaren eternidadea, ta eternidade guzian zorizandu diodan ongi naia ta asmoa! Gaurdanik badere ar banitza, ez uzteko nere bizitzan, ez eta eternidadean ere! Ala gerta dedilla. Jaungoiko maitagarria; bai arren, bai!

*Ecce mensurabiles posuisti dies meos,
et substantia mea tanquam nihilum ante te.*

Ps. 88. 6.

Ongi ezagunak dira, erran dezaket Dabiden eran, ta ongi laster bukatu bearrak, nere egunak; bada, geien geinaz ere, ez dira eun urte betetzeko diña: ta millaren betegarriak izan arren, zer lirake guziak, eternidade guziko Jaunaren egunen aldean? Ez eta ordu-laurden baten millagarren zatitxo bat ere. Eta ala ere nere gogoan nik nere egunak: nere gogoan nik nere egunetako lan txarrak eta asmoak! eta ez gogoratzen ere nioiz niri eternidade guziko, Jaunaren egunak, eta egun orietan izandu dituen nere onerako asmoak eta asmoak!

Ezer-ez bat izan ni Jaunaren begietan; ta gauz andi bat banintz bezain artoa ni nere begietan, ta nere ustez! Ez da au, ekus dezakedan erakeririk andiena? Norako nau ni nere antustetzarrak? Zer biilatzen ote dut nik onen ibillera makurrarekin? Zer billa dezaket? Beti-betiko nere Jaungoikoa betiko galtzea! Eternidade guziko nekeak nere gain ditudala, erretzen ta urratzen beti ta beti egotea! Au da nik billatzen dudana nere ibillera galduarekin. Nere erokeria! Ez, nere Jaungoiko maitea; ez gaurgero nik one-lakorik! Nik bertan artuko dut beste biderik. Nik artuko dut zure mandamentuen bidea, baita lenagoko nere ibillera gaistoen damu ta urriki-mentua ere, erraten dudala: *Nere Jesukristo Jauna ta Jaungoikoa, etc.*

VII.garren OTOITZ-GAIA

NORAÑOKOA DEN

JAUNGOIKOAREN IZATEA

Zenbat ere andiagoa den ontarte-gillea, anbat geiago balio du aren eskutik artzen den ontarteak: orregatik agitz naiago du batek, zaldun batena baño, Enperadorearena, edo munduan den gizonik andienarena. Ekusteko bada, norañoakoak diran Jaungoikoari zor diozkagunak; eta oriek dakazten zorrak, ekusi bear dugu norañoa den Jaungoiko beraren izatea.

A.

Ezin neurri ditekena da,

ta ezin andiagoa Jaungoikoaren

izatea

Nai bezain astiro, ta nai adiña denboraz ariagatik gu Jauna neurritzen, edo norañoa den ekusten ta ekusten, pits bat bezala izain da ekusten dugun guzia, ikuskizunaren aldean: ain

andia da alabaña, ta ain bazter-bagekoa gure Jaungoiko ongille-maitagarriaren izatea. Eta ekusten duguna ere ekusi beariko dugu, bein Jaungoiko berak egiñikako, ta egin lizakeen, gauzen argiarekin; ta gero fedez ta sinistez. Ar dezagun lenbiziko lekuan Jaunak egiñikako gauzak ematen digutena.

Andiak dira, dakizun bezala, itsasoaren osiñak eta bazterrak; andiak dira lurreko nabak edo zelaiak, baita aldapak eta mendiak ere: andiak dira aizeko odeiak; andiak izar-eguzkiak eta zero guziak. Eta Jaungoikoa? Oriek guziak baño andiagoa. Bai, dio Job Santuak: *Zeruaren erpiña baño goragokoa da Jaungoikoa; infernuaren ondoa baño ondaragokoa da: garaitzen ditu lurraren neurriak, eta itsasoa baño zabalagoa da.* Ekusten dezu, norañokoa den Jaunaren izatea, berak egiñikako gauzak adirazten dutenaz. Bai? Bada zure ekuste ori guzia guztiz laburra da, Jaungoikoak eginkizun daduzkan gauzen ekusteak adiraziko dizunaren aldean. Adi zazu, eta gogoz ekusi, gauz onen gain erratera noana.

Zeruaren gañean, edo zeroak bukatzen diran lekutik goiti, egin litzake Jaungoikoak toki

berriak; eta toki orietan egin litzake, zeruan, lurrean, itsasoan ta baster guzietan arkitzen diranak adiña gauza, ta gauzetatik bakoitza, oraingoak bezain andia, ta oraingoak adiña bazter ta toki dituen. Egiten balitu gauza ta toki oriek guziak, beteko lituke gure Jaungoikoak oraingo tokiak eta gauzak betetzen dituen bezala. Berebat gertatuko lizake oraingo ta orduko mundu, toki, leku ta gauza guziak baño, eun milla milloi aldiz ta asma al adiña bider andiagok egiten balitu ere, egin litzaken bezala; bada guziak beteko lituke; ta bat ere bete ezpalu bezain betetzallea gelditzen lizala gure Jaungoikoa.

Au ezaguturik, Baruk deritzan profetak galdezen du: ta, *nork arkituko du*, (edo neurrituko) *Jaunaren tokia?* Niork ere, Jaungoiko berak baizik: bada Jaungoikoaren izatea ez da gañerako gauzak bezala, besoz, begiz, edo gogoz neurri ditekena; ta, gauzak neurritzeko, ez dugu guk oriek beste biderik. Ez da, ez, gure Jaungoikoaren izatea gañerako gauzen izatearen erakoa. Jaungoikoak egiñak dira izarrak; Jaungoikoak egiñak eguzkia ta itsasoa; Jaungoikoak eginak

lurra, mundua; baita munduan arkitzen diran gañerako gauzak ere. Eginkizunak, edo Jaungoikoak egin litzakenak, egiten balitu, izain lirake, oraingoan erakoak: bada izain lirake gauz egiñak, eta zein bere neurrian sartuak; eta orregatik izain lirake oraingoak bezain neurrigarriak. Baña Jaungoikoa ez da egiña: egiñak baño lenagokoa da; ta beti ta beti, ta eternidade guzian, berez izandua: ta orregatik da neurri guziak baño andiagoa, luzeagoa, ta zabalagoa. Orrela ez izatera, edo neurrigarria baliz, ez lizake gure Jaungoikoa Jainko; bada Jainkoa da asm-al ditek-en baño gauz andiago bat; eta neurri ditezken gauzen artean ez da orrelakorik bat ere.

Ari zaitezke bada nai adiña denboraz Jaungoikoaren izate andi-luze-zabala neurritzen ta neurritzen; baña eun, ta eun milla bider milla urtez orretan zu ariagatik, asi ziñanean bezain berri egoin ziñake zere neurri-kontuetan; zeren ez asierarik duen, ez bukatzerik, eta ez bazterrik gure Jaungoikoaren izateak; eta asierarik, bukaerarik, eta bazterrik bageko gauza, sekula guzian onetan, ari-alak ariagatik, ezin neurri ditek-en gauza den. Orra norañokoa den gure

Jaungoikoa, edo Jaungoikoaren izatea! Ezin andiagoa, ezin neurri ditekena, ta bazterrik bagekoa! Baña, zein ere ona den neurri-bide au, ohea da fedezkoa; ta ori bukatu ondoan, goazen emendik ere gure Jaunaren izate berari neuraldi, edo begiraldi bat egitera.

B.

Non nai arkitzen da Jaungoikoa, non nai ta beti gu zentzarazi naiez

Aldebat utzirik ezin atera ditezkeen kontuak, eta Jaungoikoak egin litzakeen lekuak, begira dezogun orain gure Jaunaren izate andiari, egiñik dauden toki edo gauzetan; ta ekus dezagun zertako den orren orko egoera. Begira dezogun, bai: bada zenbat ere gorde-estalia dagoen gure Jaungoikoa, ekus dezakegu fedearen, edo zeruko siñistearen argiarekin. Onela ekusi zuen Moise-sek, San Pablok dionaz; ta gisa berean ekusi zuen, beste anitzen artean, errege Dabidek ere. Zoaz bada, argi au arturik: zoaz, oñez ezpadere, gogoz: zoaz, zoaz zerura, zoaz lurpera, zoaz itsa-

sora, zoaz munduaren bazter guzietara: guzietan idiroko dezu, Dabidek bezala, zere Jaungoikoa; ta errazu onekin batean: «zerura banoa, an zaude zu (nere Jaungoiko maitagarria:) infernura jaisten banaz, au arkitzen zaitut; eta egaztia bezala, goizean, egoak arturik joaten banaz itsasoaren urrutieneko bazterrera, antxe arkituko dut nik, niri laguntzeko, prest zure eskua».

Gero erran dezakezu: ta a! zein bazter gabe-koa den, ta zein andia, gure Jaungoikoa! Nabillela nai dudan tokian, ezin nabilke, ezpada Jaungoikoak artua dadukanean: bada Jaungoikoak artuak daduzka leku guziak, eta guzietan egon bear du beti ta beti! Erne dabilta, ta guztiz oartuak, lurreko erregeen etxean edo gelan dabil-tzanak! Bururik gabea bear dut izan nik, ezpanabil ni era berean non-nai, ta beti: bada nagoela ni, edo nabillela; beti arkituko naiz erregeen Errege, nere Jaungoikoak, beretzat artua dadu-kan tokian, ta gelan!

Siñisten badut au, ta alere banabil, siñisten ezpanu baño geiago nere Jaungoikoaz oroitu gabe, ta oraindañokoak bezalako txarkeriak egi-ten ditudala, gure Jaungoikoa Jaungoikotzat artu

nai etzuten, zenbat Indietako gaisto baño, agitz gaistoagoa naz ni: bada oriek baño geiago desonratzen dut nik nere Jaungoikoa! Indietar zenbaitek, aditu zutenean arkitzen dela, zeruan ezezik, munduko bazter guzietan ere gure Jaungoikoa, etzutela nai au, erran zuten, beren Jaungoikotako «bada Jainkotzat artu ezkerro (zioten) bazter guziak betetzen dituen Jaungoikoa, ez da non egin gezurrezko juramentu bat, non edan bear baño geiseago, edo non artu zillegi ez diran atsegin edo gustoak; eta ez gaude gu gauz oriek eta orrelakoak uzteko asmoan».

Au zioten Indietar gaistoak. Eta zer ote da zuk zere siñeste guziarekin erraten dezuna? Zuk diozu, nai dezula zere Jaungoikotako bazter ta toki guziai: betetzen dituen zure Jaun andi au: ta: Indietarrak erran zutena bazenio baño geiago begiratzen ez diozu zuk zere Jaun andi oni! Bada, zu zauden lekuan ezpalego bezala, egiten dituzu Jaun oni begitan ematen dioten anitz gauza txar itsusi, ta orregatik zuk au zere Jaungoikotzat artzea da, zere alkegabetasuna obeki erakusteko, ta beren Jaungoikotzat artzen ez dutenak baño gaistoago izateko: zeren gaistoago den,

arrotzari baño ezagunari edozein ekarkeri egitea; ta alere gaistoago beste edozeñi baño Jaungoiko berari ori egitea.

Ala da, nere Jaun andia: ala da, bai! Nere ezaguna ezezik, nere Jaungoiko zera zu; ta nere Jaungoiko serbitzu, agur, ta maitatze guzia zor zaitzuna; ta zutaz, deus zor ezpanizu bezain aztua bizitu naz ni oraindañoko geienez, edo beintzat anitz denboraz! Eta, au guti baliz bezala, egin dizkitzut nik txarkeri anitz, lenagoko nere txarkerien gain; ta izandu naz ni Indietako jentilak, eta alderagoko Turkoak, ere baño gaistoagoa! Au, adimentudun edozein arritzeko den gauza da; baña, onek baño geiago arritzen nau ni orain ekustekak, ekusten dudan eran, egin ditudan adiña gauza gaisto-itsusi egin ondoan, biziak nadukazula ni zuk!

Zertako ote nadukazu zuk bizirik ni, nere Jaun andia? Gauza gaistoagoa egiteko lekua niri emateagatik? Ez, baizik ezagu dezadan orain arteko nere erakeri zoratua. A! orain badere sar banendi ni, ain ongi dagokidan ezaguera onetan! Geroz, uste dut ez nukela txarkeri berririk egiñen; ta, txarkeri-lekuan, egiñen nitukela zure

lege garbiak eskatzen dituen gauzak. Lenago au egin bageaz dut damu; ta ziñez alere. Barkatu, arren, nere Jaungoiko maitagarria; barkatu niri oraindañoko nere utsak, eta oben-kulpa guziak. Eta indazu, utsak eta kulpak nigandik urrun aienatzeko, nik egin bearrak diran gauza guziak zuzen egiteko, ta zein andi-ona zaran zu gogoan dudala, beti bizitzeko grazia. Bai, arren, bai!

*Magnus est, et non habet finem,
excelsus, et immensus.*

Baruch. 3. 25.

Andia zara, bai, ta guztiz alere, nere Jainko maitea; bazterrik gabekoa zara, baita neurri guziak baño luze-zabalagoa. Bazter guziak betetzen ditu zure Jaungoikotasunak; eta non-nai arkituko zaitu, zuzen billatzen zaituenak. Arritzen nau, bai, zure izate ezin andiangoak; eta, izateak ere baño agitz geiago, zor dizudan zure amoreak! Zure amore ta izate andi onegatik eskatzen dizut, non-nai ta beti, zuk nai-eran nik bizitzeko bear dudan zure laguntza ta grazia.

Indazu bada, luzatzerik bage; bai arren, nere Jaun andia: bai, bai!

*Ecce Deus magnus, vincens scientiam nostram:
numerus annorum ejus inaestimabilis.*
Job. 36. 26.

Zerorrek dakizu, gure Jaungoiko maitea, zein andia den zure izatea; gure jakite guzia ez da araño erdisten. Izatea diñakoa da zure irautea. Urtez ezin neurri ditekena da iraute au: betikoa da ala-baña, ta asierarik bagekoa. Ezin besarka ditzake zure izat-irauteak nere adimentu txar zirtzillak; ez eta biotzak ere. Zer egiñen dut bada, zeretzat egin ninduzun sekulako nere Jaungoiko andia? Begiratuko dizut noizean bein badere; ta begiratuko dizut arrituaren eran, ta alik umilkiena. Maitatuko zaitut alegiñean, edo nere biotz-anima guzi-guziarekin: baña zerorrek artan laguntzen didazula; bada, zuk ez laguntzera, ezin dagiket nik orrelarik, ez eta agitz gutiago ere. Lagun zakizkit bada, nere Jaun andia, nere lan on au zuzen egiten: bai arren, bai!

*Nunc itaque Deus noster Magne...
custodiens pactum, et
misericordiam, me avertas
á facie tua omnem laborem, qui invenit nos.*
2.— Esdr. 9. 32.

Aitortzen dut nere Jaungoiko maitea, ta pozik alere, izatean ezezik, gañerako gauza guzietan ere andia zarala zu, ta guztiz zuzena. Zuzen gordetzen dezu beti bein eman zenuen zere itza: ta emana dadukazu lagunduko didazula nere lan ta neke guzietan, zugaratzen banaz umilki, ta bear bezala. Ona bada non nazun ni zere oñetan. Urrikaltasuna ta miserikordiada zure eskuetan geienik ekusten dudan egitekoa. Ez dezazula utzi bein ere zere egiteko au zere esku urrikaltietatik. Begira zadazu gaur ta beti zuk zere begi onekin: begira zaiozu nik eraman oi dudan nere nekeari ere; bada nekez betea bizi oi naz ni askotan, dakusazun bezala: nekeak arkitzen ditut etxean, nekeak etxez kanpoan, ta nonnai ere!

Bada nere neke guzien artean, egitekorik geiena ematen didaten nekeak dira barreneko nere nekeak. Batzuetan beintzat agitz nekatzen naute nere barrengo aztura gaistoak, nere ezinegonak, nere biotzaren erre-egosteak; maiz aski erortzen zaizkidan nere erraien dardariak, eta, bear ez diran gauzen oroitzapen lizun taugar gaiztoak. Urrikal zakizkit bada, nere Jaungoiko maitagarria, ta zere izate prestu andiagatik atera nazazu, animako kalterik babe, nere neke ta estutasun guzien artetik. Bai arren, bai: eskatzen dizut, lenaz damaturik eta ziñez erraten dudala: *Nere Jesukristo, etc.*

VIII.garren OTOITZ-GAIA

NORAÑOKOA DEN

GURE JAUNAREN EDERTASUNA:

TA ZENBAT GURE ONERAKO

A.

Ezin andiagoa da Jaungoikoaren edertasuna

Andia bezain ederra da gure Jaungoiko maitea. Izatez ezin neurri ditekena da, ta ezin andiagoa, ekusi degun bezala, gure Jaungoikoa; ta gisa berekoa da beraren edertasuna; edo, ekus diteken baño ekusgarriagoa. «Erregeen Erregea da gure Jaungoikoa, dio san Pablok: manatzen dutenen manatzallea da, ta emengo batek ere ekusten ez duena, ta ekusi ere ezin dezakena, ekusi diteken adiña, ta duen ekusgarritasunari dagokan bezala».

Eta zeruan arkitzen diranen ekustea, onen ekuste laburra bada, zer-nolakoa izan diteke lurrean arkitzen denarena? Agitz laburragoa ta

gutziz illuna; bada lurrekoak ez dute beren Jaungoikoa ekusten emengo figuren ta gauza txarren ispilluan ezpada. Baña zein ere labur-illuna den emengo gure begiratze au, aski ta sobera da guri adirazteko guttiz andia dela, ta ezin andiagoa, gure Jaungoikoaren edertasuna.

Nola ekusten da emen (erran bear didazu) gure Jaunaren edertasuna? Ekusiz lenik lurreko gauzak, eta andik gero begiak zuzenduz gure Jaunagana. Ala dio san Pablok. Adituz gero sulezekoak diotena edertasun berarekin zerukoei gertatzen zalena.

1. Atozea: ez dira ederrak arrosak, klabellinak eta gañerako loreak? Ez dira ederrak itsasoko perlak, mendiko diamanteak, eta meatzeetan arkitzen diran urre zillar, topazio, ta beste arri fiñak? Ez dira ederrak zeruko izarrak? Eta ez da ederra, izarrak berak beren erregetzat ezagutzen duten eguzkia? Ederrak dira (ezin uka diteke) au, ta gañerako erran ditugun gauzak. Baña ez du zer-ekusi orien edertasunak Jaungoikoaren edertasunarekin; ta Jaungoikoaren edertasunaren aldean gauz orien edertasunak itsustasuna

dirudi, ta illunbea: aĩn andia da gure Jaungoikoaren edertasuna.

Au ezagutzeko, aski lizake, ez-da-bai-da batean guk ekustea gure Jaunaren edertasunaren zatirik txikiena. Bein Kristo jaunak agertu ziozkan santa Teresari bere eskuak. Eskuak ekuste au ekuste laburra izandu zen; ta ala ere zoratuaren eran ibilli zen Santa egun artan, ta beste anitz eta anitz egunez ere. Etzitzaion orrelakorik gertatu ekusiagatik, ekusi zituen bezala, bein ta geiagotan ere zeruko izarrak eta eguzkia, itsasoko perlak, lurreko loreak, eta mendietako diamanteak eta gauzak: eta ori gertatu lekuan, gertatuko zitzaion san Ignazio Loiolakoari gertatu oi zitzaiona, ta errain zuen oren eran: «a, zein zikin-itsusia iduritzen zaidan mundua bere gauzekin, Jesusen eskuak ekusi nituenetik!».

Ongi ta onen ederrak badira Jesusen eskuak, zein ederra izain ote da Jesusen gizatasuna? Eta onenbat edertasun ematen badie Jesusen eskuei, gorderik dadukan bere Jainkotasunak, zein ederra ote da Aita Eternoaren, Semearen, ta Espiritu Santuaren Jaungoikotasuna? Ori bage-neki, arrituko ez giñake, arritu oi garan bezala,

aditzen dugunean sulezekoak edertasun onen gain adirazi dutena.

2. Konjuroetan ziardukala, Fraide batek galdetu zion bein infernukoari zein andia den, edo nolakoa gure Jaungoikoaren edertasuna? ta sulezekoak erantzun zion: «ezin adirazi ditekena. Galdetu zion beniz Fraideak; eta zer egiñen zenuke zuk edertasun au ekusteagatik? Begi-iste-idekitze batean begiratu nion bein Jaungoikoari, erantzun zion sulezeko etsaiak; eta berriz alako begiratze bat egiteagatik, artuko nuke zurea bezain gorputz minbere bat: eta arkitzen banu, bide lekuan, lurretik zerurañoako pillare bat, guzia kanibet zorrotzez, lantzez ta ezpataz inguratua, asiko nintzake bertatik oñ utsak ezartzan orien puntetan; ta puntaz punta joain nintzake zeruraño, trikatu gabe, ta biziro alere. Zeruan sartzeko nengoenean amiltzen, edo malkortzen banintz, naiz dela mundu onetako erre-karaño, urratuak geldituagatik lurrera baño len ere nere ezur-zañak, eta orduko nere gorputz guzia; ta geldituagatik ni milla zati, ta odol egiña, berriz, osatzen banindute, asiko nintzake au bertan igaten; ta ez nintzake geldituko, bide

guzia egin, ta Jaungoikoa ekusi artean, jakiñik ere, ekusi orduko ondatuko ninduela nere sulezean, ta leneko neke tormentuetan».

Orra gure Jaungoikoak, guri bere edertasuna agertu naiez, Infernukoari idarokia! Orra Infernukoak edertasun onegatik egin nai zuena! Eta orra zuk ere egiñen zenukena, ark bezala ezagutzen bazenu nolakoa den zure Jaungoikoaren edertasuna. Eta zer etzenuke egiñen zuk, ezagutzen bazenu edertasun au, ez infernukoaren eran, baizik dena dan bezala?

3. Infernukoak etzuen ekusi bein ere gure Jaungoikoaren edertasuna, orain zerukoak ekusten duten bezala; ta alere eramain zuela, zion, aditu dezun guzia, lenaren gisako ekuste illun labur bategatik. Zer eramain ez luke zerukoaren ekuste argi betikoagatik? Eta zer ez dezu eramain bear zuk, ez ekuste bategatik, baizik zeruan beti ta beti Jaungoikotasun ederrari begira-begira egoteagatik?

Baña zer gertatzen zaie zerukoei, Jaunari onela begira egotearekin? Gauza arrigarria! Gauzegunak ezezik, asteak, illak, urteak eta urteak ere joaten zaizte, oartu gabe bezala: ain andiak

dira, zerukoei Jaungoikoaren edertasunak ematen diezten, atsegin-kontentuak. «Milla urte Jaungoikoari begira dagoenarentzat, joan den atzoko eguna bezala, dira, dio Dabidek».

Ekusi zazu nolakoa izan diteken, milla urte igaro den eguna adiña laburtzen dituen edertasuna! Ori da Jaungoikoarena: ta ori da oraindik zure gogoan, bear bezala beintzat, sartu ez den edertasuna.

B.

Gure gogoa zerura zuzenerazteko da gure Jainkoaren edertasuna

Jaungoikoaren gauza guziak andiak dira, ta ezinobeak gure gogoa zerura zuzen-erazteko, ta beste anitz gauzetarako ere; baña guzien artean Jaungoikoaren edertasunak orretarako egina dirudi; ta, zure gogo txar ori zeru berera zuzen-erazten ezpadu, ari zuk begiratu bagez da, ta zeren geiegi begiratu oi diezun liluratzen zaituzten lurreko gauzei. Bai, zentzugabea, bai: itxura

zerbait duen lurreko gauzaren bat ekusi orduko, an dira bereala zure begiak; an da zure gogoia; an da zure biotza, ta an bertan dira zure oroitzapen, gogorazio ta naikunde guziak; eta, orrekin ez dituzu goititzen ere zere begiak zere Jaungoikoaren edertasuna ekusteko! Emengo gauzarik ederrenak itsusia dirudi ta guztiz loia, Jaunaren aldean; ta ala ere emengoei begira zaude erditxoratu liluratua, ta zere Jaungoikoaz kasorik egiten ez dezula! Asma zazu asm-al adiña, adituez osterontzean, Jaunaren edertasunaren gain; baña ez dezu, ez, asmatuko zure Jaungoikoaren edertasunak dituen milla milloi zatietatik erdi bat ere. Eta zuk ezer ez asmatuagatik gure Jaunaren edertasun onen gain, adirazi zaitzuna bera aski ez ote da, edozein biotz Jaun eder maitagarri onen amorez urtu-betea bertan uzteko? Baña aditu dezunak orretaratzen ezpadu zure biotz txar ori, adizazu orain agertzera noana.

Zauden tokian agertzera zuri zere Jaungoikoak bere izate ederra, edo duen izatearen edertasuna, au zuk ekusi orduko, geldituko zinake non zeuden etzenekiela; geldituko ziñake kontentu ta atsegin utsez betea, ta geldituko ziñake Jaun-

goiko beraren amorez urtua. Aldamenekoak orduan zuri zere belarrian oin ta oiu egiñagatik, arriak baño kaso geiago egiten etzenieke orien oin guziei. Baña oriei baizik ez? Lurreko kantari ta musika guziak elkar arturik balerausate ere zure aldamenean, emendik Indiak bezain, zugandik urrun baleude baño geiago adituko etzenuke oriei erausia ta kanta guzia.

Nai dezu geiago? Ori bada. Jaungoikoaren edertasunari begira zeunden denboran, sartzen bazinduzte zu, ogia sartzeko punturaño berotua dagoen labe batean, edo egun ta erdi sutan dagoen karobian, au zure gorputz guzia kiskildu, ta errea geldituagatik, arrizkoa baziña baño geiago etziñake oartuko, zure gorputzak orduan leramaken neke arrigarrira. Badakizu zergatik? Zeren ekusten zenduen zere Jaunaren edertasunak itoa ta urtua bezala idukiko zinduzken bere amorearen itsasoan. Aditzen dezu orain nolakotsua den zure Jaunaren edertasuna? Bada guziguzia zuri erakusteko daduka zure Jaungoiko maitagarriak; eta zuri erakusteko, ez bein edo berriz, baizik sekula guzian; ta onenbat atsegiñezko ekuste onen berri au aldi onetan ematen

dizu zere Jaungoiko maiteak, zure gogo txar ori bertatik beragana zuzenerazi naiez.

Zorionekoa zu, au orain ta bizi zaran arte guzian egiten dezula, ill ondoan bein edertasun au ekusten badezu! Bada bein zeruan au zuk ekusi ezkeru, ez dizu zere Jaungoikoak zere begietatik bein ere kenduko, ta ordu beretik betiko kenduko dira zure ai-kezkak, zure neke-izerdiak, zure naigabeak, zure otzikarak, zure gosagarriak, eta munduko lan ta atsekabe guziak! Ez da, ez, gure Jaungoikoaren edertasuna emengo edertasun txarrak bezalakoa. Emengoak laster igartzen diranak dira; ta igartu baño len ere begiratzen dienak asperturik utzi oi dituzten edertasunak; bada, den andiena izanagatik lurreko edertasuna, etziñake egoin ari begira gau ta egun aste batez jan ta edan gabe, ta lorik egiten etzenuela; ta Jaungoikoaren edertasuna ekusten duten zerukoak, asteak ezezik, illak, eta illak, urteak, eta urteak, betiko denborak, eta eternidade guzi-guzia eramain dute Jaungoikoari begira ta begira, bein ere begiratzeez aspertu gabe, ta beren begira-aldi bakoizean, lenbizikoan adiña kontentu, ta kontentu berriak eta gus-

toak artzen dituztela; ta beti-beti egoin dira deusen ere bearrik gabe, ta bein ere den naigaberik txikiena ekusten ez dutela.

Onenbat atsegin ta kontentuz animak betetzen dituzun gure Jaungoikoaren edertasuna, noiz ekusiko ote zaitugu, emen neke-ta-neke gabiltzan gaisook? Baña ekusiko ere ote zaitugu nioiz? Nioiz ere, oraindanoan adiña arrastazen bagaituzte geren gogoeta txarrak, eta lurreko gauzak! Gauz orietan ongi nastuak iduki gaituzte askotan ta luzaro geren etsaiak; eta iduki gaituzte, bere sarean armiarmak euliak daduzkan bezala. Ez ote gara gauz orien sare galgarritik, eta gure leneko naspilletatik orain badere aterako? Ez ote gara saiatuko, etsaiaren eskuak garaiturik, eta lurreko edertasunak eta gauza txarrak gogoz badere aldebat utzirik, zeruko bidea artzera, ta Jaungoikoaren arpegi ederra billatzera? Guregan dago ori guzia; ta, nai dugula, badagikegu guk, gure Jaunak ematen digula bere laguntza ta grazia; ta Jaunaren laguntza au ta grazia prest daude, bear bezala eskatzen dituen edozeiñendako. Nai dugu bada guk, eta nai dugu bertatik, eta luzatu bage, lan au egiten asi; ta

iguzu, gure Jaungoiko emalle maitagarria, prest dadukakazun zere laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Beati qui habitant in domo tua:
in saecula saecularum laudabunt te.*

Ps. 83. 5.

Zorionekoak, gure Jaungoiko maitea, zorionekoak zure etxean, zure jauregi eder, edo zure zeru orretan bizi diranak: bada badute or nai duten guzi-guzia; ta ekusten ez dute atsegina ta kontentu ematen ez dien gauzarik bat ere! Bai, badute nai dutena; bada or ekusten dituzte zure Aingeruak, ekusten dituzte Santuak, eta ekusten dute Santu-Santen, ta Aingeru guzien Erregina; ta ez da guzien artean bat ere doaiez, ta edertasunez betea ez dagoenik. Baña zenbat ere ederrak diran or ekusten dituzten guziak, ekusten dute bidenabar deus ez bat bezala dela orien edertasuna, zure edertasunaren aldean, gure Jaungoiko maitagarria! Oni begira daude beti, liluratuen eran: beti daude laudatzen zu ta

bedeikatzen; beti ta beti zumaitatzen ta ones-
ten. A ni ere or berean banengo orien lagun egi-
nik! Arako al naz egunen batean! Ongi bizitzea
da arako biderik zuzenena, ta, orretarako, maiz
gogoratzea Jaungoikoaren edertasuna. Au da nik
gaurgero egin uste dudana. Indazu, Jaun ederra,
indazu zerorrek orretarako bear dudan laguntza
ta grazia. Bai arren, bai!

*Concupiscit, et deficit
anima mea in atria Domini.*
Ps. 83. 1.

A zein maitagarriak diran, dio Dabidek, Ain-
geruen bizi-tokiak! Ara naiez nago, nere Jaungoi-
ko maitagarria! Noiz ezarriko ote ditut nere oñak
orien jauregi ta palazio ederreko atari orretan!
Ara bear dudalako oroitzen berak urtzen dit
biotza, ta uzten nau naiez ta amorez betea. Orra
Dabidek diona! Baña zer diogu guk, edo zuk, eta
nik? Ez ote da noiz ere bait sartu bearra gure bio-
tzetan ere onelako naikunde ta zerurako gogo
sendor ta nai bizi-bizi bat? Aisa, ta laster sartuko

lizake, guk emen gauza bat zuzen egitera. Zer? Noizean bein badere, oroitzea Jaungoikoa dala, nai duten guziak zerura daramatziena: ta, arazten diran guziak bere edertasunarekin beti ta beti atsegin-kontentuz betetzen dituen; ta nai badut, ni ere era berean eramain nabela atsegin-kontentu berez beterik uzteko. Non arkituko dezu zuk oroitz au baño, oroitz erraz leun asegarriagorik? Non bearrago dezun oroitzarik? Eta alere, ezpaliz baño geiago etzara oroitu zenbait egunen, ta geiagoan ere, zere Jaun andi eder maitagarriaz! Ez al zaitzu berriz onelakorik gertatuko? Ez, arren, nere Jaungoiko maitea: ez, ez!

*Heu mihi, quia incolatus meus prolongatus est!
habitavi cum habitantibus Cedar:
multum incola suit anima mea.*

Ps. 119. 5.

Ai ene! dio Profetak; noiz artean bizi bear ote dut nik nere zerutik erbestatua! Agitz luzatu da emengo nere bizitza! Bizitzaren txarra ta nekezkoa! Ez nago ni emen, ez, niri dagokidan tokian.

Gain orretako zerua da nere erri ona, ta betiko nere egontokia. An ekusi artean nik nere Jaun maitagarriaren arpegi ederra, edo edertasuna, ez dut nik, ez, onik uste! illunbean bizi diranen artean bizitu naz ni oraindañoko nere urte guzietan: bada illunbea da lurreko egunik argiena, Jaunaren edertasun argiaren aldean! Edertasun au ekusi naiez berandetsia dago, bai, nere anima! Noiz-noiz bada, ekusi bear ote dut nik arpegiz arpegi bezala, ta deusek eragozten ez didala? Zorionekoak, gorputzeko presondegitik iges eginik, zeruan arkitzen zarazten animak; bada badituzue zuek, nik nai nitukeen ekuste garbiak! Noiz artean luzatu bear ote du zuen arterako nere aldiak?

Au zion, edo, zionarekin au adirazten zigun Profeziak, eta orobat errain, edo adiraziko nuke nik ere, baldin banu, ark adiñako zeruaren, edo zeruko gure Jaungoikoaren edertasun ezin ederragoaren zerbait berri. A zero ederrak, nere begiak ekusten etzaituzten zeruak! eta a zero orretan ta mundu guzian arkitzen zaran nere Jaungoiko, ederra baño ederragoa! noiz-noiz ekusiko zaitut nik arpegiz arpegi! Orain ekusten

bazindut nik, bertan ni atsegin ta kontentuz illen nintzake! Zorioneko eriotza, zure edertasunak, eta onen ondoren etorriko lizaken nik zu maitatzeak lekarken eriotza! A, baña ez dut au nik merezi! Irabaziko al dut, zu beti gogoan erabiltzearekin, ta erabiltze onek eragiñen didan bizitza on garbiarekin, zorioneko eriotz on au ezpadere, ill ondoan zu zere edertasun guziarekin ekusteko grazia! Bai, nik nai dudala. Nai dut, bada; nai dut, orain badere nai au zuk emanik, nere Jaungoiko eder-maitagarria! Nai onetan nai dut iraun ill arte guziak: indazu arren orretarako bear dudan laguntza ta eskua; baita orain itzez ta biotzez errateko ere: *Nere Jesukristo, etc.*

IX.garren OTOITZ-GAIA

NOLAKOA DEN GUREKIKO

GURE JAUNGOIKOA

Azkeneko irur otoitz-gaietan ekusi dugu nola-ere-bait *noizkoa den izatez gure Jaungoikoa, norañokoa den, ta nolakoa*. Urrengo iruretan ekusi bear dugu *nolakoa den gurekiko* Jaungoiko bera; *zer den Jaungoiko berak gurekin egiten duena; ta nola egiten duen, egiten duena*; au ekusi ondoan nolere-bait ezagutu dezagun zein andia den, guk gure Jaungoikoari zor diogun amorea. Asi gaitezten lendabizikotik; eta ekus dezagun; nolakoa den gurekiko gure Jaungoikoa, edo nolakoak diran, guri begira dogozkigun Jaunaren *jakiundea*, Jaunaren *ontasuna* ta Jaunaren *eskua*.

A.

**Luze-zuzen-betikoa da
gure Jaunaren jakiundea**

Ez gizonak dakite, ta ez Aingeruak, jakin ditezkeen gauzetatik bat edo bertze besterik; eta ori ere etzekiten erakusteetatik, edo Jauna-gandik ikasi artean: baña Jaungoikoak badaki jakin diteken guzi-guzia; ta guzia daki lendabizitik, edo joan den eternidade guzian. Gizonei denboraz azten zaizte, jakin izandu zituzten gauzetatik geienak, edo beintzat anitz, eta dakiztenez ere ez dira beti oroitzen. Etzaio Jaungoikoari orrelakorik gertatzen, ez: guzia daki beti ta beti; ta beti begira dagoka jakin diteken guzi-guziari, naiz dela berezkoa, naiz Jaunak egiña, naiz egin-kizuna.

Begira dagoka beti, bai, gure Jaungoikoa bere berezko izateari, edo bere izate andi-on-maitagarriari; ta, izate batean dituen atributo ta perfekzione guziei. Begira dagoka beti ta beti bere adimentuari; begira dagoka beti-beti bere ontasunari, baita bere aalari, edo gauza guzietarako duen bere eskuari ere. Ekusten ta ekusten dago beti gure Jaunaren jakiundea, nola diran Jaungoiko bat, eta berdiñ berdiñak, Aita, Semea, ta Espiritu Santua. Ekusten du nola den Aitagandik Semea, ta Aita ta Semeagandik Espiritu Santua;

ta alere ez dela Aita Semea baño lenagokoa; ta Espiritu Santua baño lenagokoak ez dirala Aita ta Semea. Ekusten du gauza bereziak dirala Aitatasuna, Semetasuna, ta Espiritu-Santutasuna; ta alere Jainkotasun bat baizk ez dela Irurtasun, edo Trinitade au guzia.

Ekusten du gure Jaungoikoaren jakiundeak edo Jaungoiko berak bere jakiundez bazterrik bageko bere izatea; ekusten dita txikiagoaz ez diran, ta izate berarekin bat diran, bere atributo ta perfekzione guziak; ekusten du, guziak diñako den, ta ezin galdu diteken, bere edertasuna: ta ekusten du zertan dagoen edertasun au, ta nola bere naiez ta amorez berea dadukan bere biotza, bere naimendua edo borondatea. Etzaio gordetzen Jaungoikoaren jakiunde ekusteari bere gauzetatik bat ere; ta ekusten ditu guziak, eta ekusten du bakoitza ezin geiagoraño.

Bere burua, edo bere gauzak onela ekustean, ekusten ditu Jaungoikoak gañerako guziak ere, ta ekusten ditu guziak ezin ederkiago. Ekusten du beragandik datozela diran gauza guziak; eta ez dela eginkizun guzien artean bat, Jaungoiko berak nai ezpadu, edo ura geldirik dagoela, egin

ditekenik. Ekusten du nolakoak diran gauz oriek; baita zenbat diran ere, izanagatik Aingeru ta gizon guziak konta-ala baño geiago ta geiago, ta kontu guzien gain.

Badakit Jaungoiko berak zenbat diran, len izandu ziran, ta oraindik dirauten gauzak. Badaki noiz artean iraun bearrak diran dirautenak: badaki zein ta zenbat diran, azken juizioko eguneraño, ta eternidade guzian, berak eta gañerakoak eginen dituzten gauzak. Orain diranak bezain ongi ekusten dita etorkizunak; etorkizunak bezain ongi bein ere etorriko ez diranak; ta aitu ziranak. Gure Jaungoikoak zabalduak daduzka beti bere begiak. Beti-beti, ta batetan, ekusten ditu, dio Eskriturak, eternidadetik eternidaderañoako gauzak, edo gauza guziak: guziak alabaña arkitzen dira eternidadeen artean, ta ez da laburragoa Jaungoikoaren ekustea ta bista.

Bai, bai: gauza guziak ekusten ditu gure Jaungoikoak, bakoitzari emateko bear duen era ta bidea; ta gureei sekulako sua edo sekulako gloria. Bai, ero-txarra: gañerakoen artean, ekusten gaitu gure Jaungoikoak zu ta ni, biok; eta ekusten gaitu geren gauza guziekin batean. Ekusten

ditu, bai, gure asmoak, ekusten ditu gure gogotak, gure lanak, gure egitekoak, gure gauz onta gaisto guziak. Gorde ditzakegu guk, emen bizi diranen begietatik gure oroitzapenak eta gauza gaisto itsusiak; baña, jend-artean ta egunaz egingen diran gauzak baño ageriagoan daude gure Jaungoikoarentzat zure, ta nere gogoraziorik estalienak ere. Zoaz mendietara, sar zaitez lurpean, zabilta zokoz zoko, ta nai dezun sasi zuloetan; au izain dezu, bai, zuk zerekin zere Jaungoikoa; ta, orain zauden lekuan arkitzen baziña bezain ongi ta klaro, ekusiko zaitu zu ark an.

A nere ero txar zoratua! Onetara oartu gabez egin ditut nik bein, ta berriz, ta askotan ere, orain alkea ta damua baizik, ematen ez didaten anitz gauza ta gaizki! *Galtzez galdua dago mundua, dio Profetak, zeren ez den bere buruari, ta zuri bere Jaungoiko-ekusleari, begira dagoenik.* Ni beintzat zutaz ez-oroitze onek galdu nau oraindañokoan, nere Jaungoiko maitagarria! bada nik, ongi oartuz ekusi banu norañokoa den zure begiratze zuzen ekustea, ez nuen, ez, arpegirik izain, egiteko egin ditudan utsak eta txarke-riak. Nereen gisakoak, edo lurrezkoak balira

baño, kaso geiago egiten ez nuen nik zure begi ekusleez; ta uste nuen, lurrekoen begietatik gorde ezkerro, ez nuela zugatik zer beldurtu. Zoratua ni berriz ta berriz ere; ta sekulako galdua, oartzen ezpanaz emendik aitzina zure ekuste, ta begiratze zuzen-garbi-luzera!

Zentzatuko al naz orain badere? Ez al dut eginen berriz zuri ongi iduriko etzaitzun gauzarik bat ere! Oroituko al naz ni gaugerero gauza bakoitza egitera noanean, zu begira zagozkidala! Ori da, bai, guziak ongi egiteko, ta zure aserre gogorrean ez erortzeko, bidea.

Begira bada, nere anima gaisoa, begira: ez da zer itsutu; ez da zer uste-kabetu; zuk egin orduko, zure Jaungoikoaren begietan daude zure gauza txiki ta andi guziak. Beraren Tribunalera bearrak dira, diranak. Jaungoiko berak izan bear du zure testigu; ta berberak zure juzgalari. Ez dizu barkatuko, ez, zere Jaungoikoak deus ere, zere bizitzako kontu guziak artzen dizkitzunean. Zere zor, ta uts guzi-guziak agertuko dizkitzu, izandu diran bezala. Gauz onetatik bakoitzari (onekin zu orduan au agertzen bazara) emain dio, bai, zure Jaungoikoak, dagokan pagu guzia;

baita geiago ta geiago ere. Baña, gaistoekin zu an agertzera, betiko presondegi gogorrean, ta sulezeko etsaien artean, izain da eternidade guziko zure bizitza.

Onela nori berea emateko, begina dagokie beti gure Jaungoikoa onen ta gaisten gauza guziei. Ez dagizula bada gaurgero, mundu guzia begira dagokizula, egiñen etzeunkenik: bada mundukoak, Aingeruak, eta Eguzkiak berak baño ere, begi argiagoak eta ekusleagoak ditu zure Jaungoikoak; eta ez ditu bein ere zugandik kenduko, zu emendik kendu artean. Zorionekoa zu, egia au gogoan dadukazula egiten badituzu zere gauza guziak; bada egiñen dituzu, Jaunaren laguntzarekin batean; eginen dituzu, bear den eran ta ongi, garbiro: egiñen dituzu bake onarekin, geroko gloriarako irabazi andiak egiten dituzula. Orrela dagizkitzun, oroi zaitez orien asieran, bukaeran, ta egiten ari zaranean, zere Jaunaren jakiundea, jakiunde luze zuzen betikoa dela; bada ekusten ditu zure gauzak, eman dakien bere denboran, dagoten zerua edo sulezea!

B.

Ezin andiagoa da, ta guztiz zuzena, guganako gure Jaunaren ontasuna ta ongi naia

Ezinobea da, dakigun bezala, bazterrik ez duen gure Jaungoiko maitagarria; ta orrelakoaren ontasuna, ta guganako ongi naia edo naikundea, naitaez, beraren jakiundea diñako ongi naia, naikundea ta ontasuna da; ta orregatik da guztiz zuzena, edo ezin-zuzenagoa. Ala ez izatera, ez lizake gure Jaungoikoa Jaungoiko, edo ez lizake ezinobea ta bazterrik bagekoa. Orra bada ekusia, ekusi nai genuen egia. Baña ekuste au ekuste labur illuna da, gu eskerdunon-beroak eginik uzteko. Orretarako, ekusi bearko dugu zer bidez, edo zergatik den onen andi-zuzena gure Jaunaren ontasuna, ta guganako beraren naikundea edo ongi naia.

Gure Jaungoikoaren aldean txarrak dira gañerako gauza guziak. Gauzen erakoa da orien ontasuna; ta orregatik da ontasun txar guztiz laburra; ta, gañerako gauzak duten ontasun

labur-txar ori ere, gure Jaungoikoarena da, edo Jaungoikoak bere naiez gauzei emanikakoa. Gure Jaungoikoak duen ontasuna da Jaungoiko bera bezalakoa, ta berezko ontasuna; au da alabaña asierarik ez duena, ta bukaerarik eta bazterrik bageko ontasuna; ta ontasun, izandu diranak, etorkizunak, eta asma al ditezkeen ontasun guziak garaitzen dituena; da alabaña Jaungoiko bera diñakoa; ta orregatik da ontasun ezin andiagoa, ta ontasun uts-utsa, edo utsen nasterik bagekoa.

Agertzen balitzaigu guri geren Jaungoiko, onenbat ontasunekin arkitzen den au, erdizka baliz ere, edo Moisesi mendian bezala, nola-erebait ezagutuko genuke beraren ezin geiagorañoko ontasun eder au! Baña ez izan birtutez ni Moisesen erakoa, onenbat ontarte ta mesede nik nere Jaunagandik emen artzeko. Iganen al naz egunen batean zeruko mendira, au Moisesekin, ta gañerako gizon on ta Aingeru guziekin, ez erdizka, baizik arpegiz arpegi ta oso-osoro nere Jaun on maitagarri au ekustera; ta nolakoa den Jaun onen ontasuna, ta beraren guganako ongi naia ezagutzera! Bitartean egiten ditudan ager-

tze ta ikaste guziak, eta Jaunaren ontasunaren gañeko ezagumentuak, ongi laburrak izain dira, ta agitz illunak!

Nik badakit, bai, ez duela lurrean parerik, ez eta zeruan ere, Jaunaren ontasun onek, eta Jaun beraren guganako naikundeak edo ongi naiak. Lurrekoen ontasun ta naikunde guzia, ontasun ta naikunde laburra da; ta ez da anitz andiagoa zerukoena, gure Jaunarenaren aldean. Gure nairik andiena, ta gure ontasun guzia ez da, ez, gauz on anitzen egillea; ta, gauz on zenbait egiten ditunean ere, egiten ditu utsegite anitzekin nastuak. Jaungoikoaren ongi naia edo ontasuna da nai adiña on, ontarte, ta fabore egin ditzakena; ta ontasun, egiten dituen ontarteak, ongi ta zuzen ezpada, ezin dagizkena: bada bat bakarrik eman al baleza, bear ez bezala, ez lizake izain gure Jaungoikoa Jaungoiko; edo ez lizake izain, Dabidek dion bezala, ona ta birtutez betea: bada ematen duen gauzarik txikiena gaizki eman al baleza, izain lizake, izan gabez, ongi gauzak emateko, bear den zuzentasuna ta birtutea: ta, gañerako birtuteak izanagatik, au ezpalu, ez lizake izango birtute guzientz Jauna ta Jabea. Badu,

bai, birtute au gure Jaungoikoak: baditu, bai, gañerakoak ere; eta ezin eman ditzake gauzak, ezpada bear bezala, edo utsik gabe, ongi ta zuzen; ta orregatik da, ontasun guziarekin arkitzen den Jaungoiko maitagarria gure Jaungoikoa.

Bai: baditu au ta gañerako birtute guziak ere gure Jaungoiko maitagarriak. Nola uste dezu? Santuen, ta Aingeruen eran? Ez, baizik berak bezala, ta neurrik gabe. Santuen ta Aingeruen birtute andienak ere, birtute laburrak dira; ta dira, Jaungoikoaren birtuteekin ekustekorik ez duten birtuteak: bada Jaungoikoaren birtuteak bazterrik gabeko birtuteak dira; ta orregatik dira parerik ez duten birtuteak.

Begiratuak dira Aingeruak, zuzenak dira, emalleak dira, urrikaltsuak; maitatzalleak eta humillak dira Aingeruak; baña ez Jaungoikoa bezala; bada ezin-geiagorañoakoak dira, orretarako ta gañerako gauza guzietarako Jaungoikoa dituen birtuteak; eta Aingeruenak, orien aldean, ageri ere ez diran birtuteak dira. Aingeruen birtuteak ez dira berdiñak; baña berdiñak dira Jaungoikoarenak; eta bakoitza andiagoa baño andiagoa da, ta neurri guziak garaitzen dituen. Au

guzia badakit nik; eta au da nik dakidan guzia Jaungoikoaren ontasunaren gañean. Berak naramala au obeki ezagutzen den tokira, edo bere zerura! Bitartean aski da guk au ezagutzea, ezagutzeko onenbat ongiz ta birtutez betea dagoen Jaungoikoaren biotza, borondatea, edo naimendua, naimendu edo biotz ongille zuzena dela; ta dela, biotz, eta naimendu edo borondate, zerbait nai duenean, ongi ez dagoan gauzarik naiko ez duena.

C.

Ezin geiagorañokoa da gure Jaungoikoaren aala, ta eskua

1. Gauza guzietarako du Jaungoikoaren bere aala, ta eskua; ta du aal-esku bere Jakiundearen, ontasunaren, ta naimenuduaren edo borondatearen erakoa; ta orregatik du esku-aal ezin geiagorañokoa. Au ezagutzeko, aski da Jaungoiko berak egin dituen gauzetara begiratzea; ta zertako, ta zertaz, egiñak diran kontuz ekustea. Zoaz guzia ekustera; ta lenbilziko aldiak ekusi

bear dituzu Jaungoikoak eginik daduzkan gauzak berak.

Zer gauzak dirala, uste dezu, Jaungoikoak eginikako gauza oriek? Zeruaren erpilñetik asi ta lurraren ondarañoko guziak. Goazen orietatik zenbait ekustera. Jaungoikoak bakarrik egin zuen, guk ekusten dugun arako zero ura; ta egin zuen, ekusten dugun bezain andi eder zabala. Zeru berean egin zuen egunoro agertzen zaikun eguzkia; ta era berean, edo berez egin zituen, zero bera betetzeko diña izar, beren illargiarekin batean. Jaungoiko berak daki zenbat diran izar oriek; eta ez da guzien artean bat, zegokan ize-narekin arkitzen ez denik. Guziak egin zituen gure Jaungoikoak zein bere neurrian; ta, egiñ orduko, ezarri zuen bakoitza bere tokian edo bere bidean. Zeruak, eta zeruetako gauz oriek egiteko, aski izandu zuen gure Jaungoiko egi-lleak, *egin bedi au, egin bedi ura* errate bat: Eta oriek bezain aisa ta erraz egin zituen itsasoko ta iturrietako urak; egin zituen aisatasun berarekin sua ta aizea, mendiak, zelaiak eta lurra; edo egin zuen mundu guzi-guzia bere bazter guzietako gauza guziekin; ta egin zuen bakoitza, zegokan

anditasunean, ta bear zuen pisuan ta neurrian. Orra norañokoa den gure Jaunaren aala ta eskua: ta orra, ekusten dezu zenbat diran, zein andiak diran, ta zein aisa ta erraz egiñak, Jaungoikoak egiñikako gauzak?

2. Baña zein ona denbora berean, ta zein maitagarria gure Jaungoiko egillea! Au guk nolerebait ekusteko, ekusi bear ko dugu zertako egiñak diran gure Jaunak egiñikako gauzak. Ez dakizu? Bada guziak dira gure onerako egiñak: era orretarako Jaungoiko berak eragiten dio bakoitzari nai duen guzia. Ez daduka, ez, gure Jaungoikoak geldirik bere eguzkia; ez daduzka geldirik, ez, izarrak; inguruan darabiltza gau ta egun guziak; eta era berean erabilliko ditu, munduak dirauneko.

Orra: zu lotan zautzanean ere, ez datza lo zure Jaungoiko egille maitagarria. Zu zere janedanetan ari zaranean ere, zure osasuari, zure lur-zelaiei, zure sagardiei, ta gañerako zure gauzei laguntzen ari da zure Jaungoikoa; bada zure ta orien gañean, ta zuen onerako, darabiltza beti, berak egiñikako izarrak eta eguzkiak; ta oriek beren beroarekin, argiarekin, ta beste anitz

aldetara laguntzen dizute zuri, ta laguntzen die zure gauzei ere, beren egitekoetan ta ibillera guzian.

Ori egiten duen denbora berean, aizez ingurutua zaduzka zere Jaungoikoak; ta asnasearekin sar dakizun zure barreneraño, eman dio bere astuntasuna ta pisua. Aize berean darabiltzi bere odeiak, zuk bear dezun urarekin. Neurrituak daduzka odeietako tira ta itsasoaren bazterrak; eta ezin ar dezake elementuak, Jaungoiko berak erakusten diona beste biderik.

Itsasoaren erraietan darabiltza guk bear adiña, ta anitz arrai geiago: ta itsaso beraren bizkarrean emendik Indietara, ta batetik bestera, ontziak eta ontziak; eta ontzietan oialak, perlak eta ondasunak. Lurrari erakartzen dio guk bear degun jan-edana ta soñekoa: ta suari eragiten diozka etxeak egiteko, janaria maneatzeko, ta bizitzarako bear ditugun beste anitz gauza. Orra zenbat gure onetarako diran Jaungoikoak egini-kako gauzak; eta orra zein ongille maitagarria gure Jaunaren esku aaltsua.

3. Baña obekiseago ekus dezagun norañokoa den gure Jaunaren aal andi au, ta onekin egin

duenagatik zor diogun amorea, ekusi bear dugu zertaz eginak diran, gure Jaungoiko alsuak egini-kako gauzak. Zertaz egiñak? Ezertaz ere, ta gairik bage: bada ezer-ezetik atereak dira gure Jaungoikoak eginikako gauzak. Eta ori da, Jaungoiko berak baizik, ezin dagiken gauza bat. Aingeruak eta gizonak egin dezakee loreren baten, edo zerbaiten itxura zurean, olean, urrean, zillarran, edo beste edozein gaietan; baña ez ori, ta ez besterik, egiñen dute, egin-gaia arkitu artean.

Jaungoikoa da bakarrik, gairik bage gauzak egin zituena, ta nai duen aldi guzietan egiten dituena, ta egin ditzakena: ta egin ditzake nai adiña, itz bat esan, ta besterik bage. Ala egin zituen, egiñak ekusten ditugun gauzak eta anitz geiago ere; bada, ekusten ditugunak baño agitz geiago dira, ta anitzez andiangoak, Eskriturak dionaz, gordeak dauden gauzak. Ekusten dezu nolakoa den, ta norañokoa, Jaunaren aala ta eskua? Baña itxozu: ez erantzun ekusi artean ekuskizuna; bada, ekusi dezuna baño agitz eta agitz andiangoa da len, ukituz adirazi dudana, ta orain, nik agertzen dizudala, zuk ekusi bear dezuna.

Zenbat ere anitz eta andiak diran, oraindano-koan gure Jaungoikoak egin dituen gauzak, gei-ago ta geiago, ta suma al adiña baño geiago, dira eginkizunak; eta ez da eginkizun guzien artean bat, Jaungoikoak ezin egin dezakenik. Nai balu, egiñen lituke gure Jaungoikoak izar berriak, eguzki berriak; eta bakoitza, oraingoak baño eun aldiz argi geiagokoak. Nai balu, egiñen lituke zero berriak, mundu berriak, gauza berriak eta berriak: eta, egunoro egiñagatik, oraindano egin dituen adiña gauza, ta guziak oraingoak baño andi-ederragoak; era orretan ariagatik beti ta beti, ta sekula guzian, ez lirake aituko gure Jaungoikoaren indarrak, ez eta nekatuko ere beraren eskuak; bada, nekatzen ez den eskua du gure Jaungoikoak, eta, Eskritura Santak dion bezala, nai adiña gauza egiñagatik, egingarri guzien egille gelditzen den eskua: eta eskua, ezer-ezetik eginkizunak egiteko, eginak egin zituen bezala.

Gauza berriak egiteko ezezik, nai duena, len berak eginez egiteko ere, badu Jaungoikoak nai duen eskua; ala dio Jaungoiko berak bere Eskrituraz. Aizeari, ta aizeko odeiei eragiten diezte gure Jaungoikoak nai dituen jirak eta inguruak.

Nai duenean isil-erazten du Jaungoikoak, orroz dagoen itsasoa; ta bere bagekin odeietaraño igan nai duela dirudienean, ta bazterrak iritsi naiez dabillenean, uzten du Jaungoiko berak, asaldatu ezpaliz bezain geldi-palakatua. Suari Jaungoikoak, nai duenean, kentzen dio erretzeko indarra; gelditzen du bidean eguzkia edo arrezten dio gibelat bere bidea; ta eragiten diezte gañerako gauzei, nornai arritzeko diran gauzak. Eta orobat egiñen luke, berriro egiten lituken gauza guziekin ere. Orregatik dio Eskritura Santak, arrigarria dela gure Jaungoikoa; guztiz dela izatez, ta egitez andia; ta asm-al diteken baño ere geiago, ta geiago, dezaken eskuarekin arkitzen dena.

Ekusten dezu orain, nolakoak diran, Jaungoikoaren indarrak, edo zein andi-arrigarria den, nai duen guzirako gure Jaungoikoak duen aala ta eskua? Non arkituko da gure Jaungoikoa bezalakorik? Non au bezain jakintsurik? Non au bezain on-maitagarririk? Non onen erdirik, non onen laurdenik, eta non onek egiten dituen gauzarik txikienaren zati bat ere egin dezakenik. Nion ere, nere Jaungoiko altsu maitagarria! Zu zara baka-

rrik zu, guzia dezakezuna: zu zara, zu, jakin dite-
ken guzia dakizuna: zu zara, zu, onak eta ongiak
baizik egiten ez dakizuna: ta zu zara gure Jaun-
goiko zuzen, on, maitagarri, eskudun-indartsua.

Oraindano zuri nik zor dizudanaz, ta zutaz
ere, azturik bizituaz dut nik pena ta damu! Ez
bear adiña! Gaurdanik nere naiez, ta ustez, ber-
tzerik izain da, zure laguntz eskudun-altsuarekin
batean. Bai arren, nere Jaungoiko maitea; eman
bear didazu zere laguntz onen indartsu au, nik
zuzen egiteko gaurdanik egin gogo dudana.

Ni bezala bizitu zarazten lurreko ero-galduak,
atozte zuek ere, nerekin batean lan au egitera.
Atozte, gure Jaungoikoari zor diogunaren berriak
ikastera: ta atozte, nora begiratzen duten Jaun-
goikoaren jakiundeak, naimenduak, eta esku
altsuak, ekustera. Ekusiko dezue, bai, nai bade-
zue (ta ais-aski alere) nola dauden gau ta egun,
ta beti, guri ta gure gauzei begira-begira. Ekusi-
ko dezue, guri begiratzea, ta guri ongiak eta
ongiak egitea, beste egitekorik ezpalu bezain
ongi ta zuzen, egiten dituela Jaungoiko gureak,
guri dagozkigun gauzak: eta ekuste onek beartu-
ko gaitu, bai, arrizkoak ezpagara, gure Jaungoiko

begirune onezko indartsu-ongille au zinez ta zinez maitatzera.

Maita bazintzat bada, nere Jaun egille-maitagarria, bear bezala ez izan arren, nere alegiñean ta beti-beti, bizi-nazaño! Ez nuke nik besterik bear, zorioneko bizitzan emen, ta gero, ta Aingeru artean beti bizitzeko! Bizitz onetarako egia ninduzun zuk, nere Jaun andia; ta onetan geldituko naz, bai, nor banaz ni, edo era onetan nik maitatzera zu, nere Egille ona, ta Emalle ohea! Zer maitatu bear dut nik, ero galdu zoratuak, zu ziñez maitatzen ezpazaitut? Ez, nere Jaungoiko maitea, ez; aski da, aski oraindañoko nere erakeri galdu-galgarria! Zurea da gaurgero nere biotza; ta, beste maitatze txar guziak utzirik, zu maitatu uste zaitut gau ta egun, ta nere ill-arte, edo bizitza guzian. Maitatze onari maitatzez erantzuten zaio. Beti zuk gogoan nazu ni, nere Ontasun utsa; ta beti zuk maitatzen nazu ni. Nere gogoantza txarra da: gogoantzaren erakoa da nere maitatza: ez dut oberik, dakitzun bezala: dudanarekin badere erautzun uste diet zure gogoantza, ta maitatze andiari. Erantzute txar au ere ezin dagiket nik, zuk laguntze ezpadida-

zu. Indazu bada zere laguntza, ta eskua. Badakuzazu, gauz onerako eskatzen dizudala. Ez arren ukatu, ez, nere Jaungoiko maitea, ez!

*Cognovit Dominus omnem scientiam,
et inspexit in signum aevi, annuntians
quae praeterierunt, et quae superventura sunt:
non praeterit illum omnis cogitatus,
et non abscondit se ab eo ullus sermo.*

Eccl. 42. 19.

Badaki, bai, nere Jaungoiko maiteak, jakin diteken guzi-guzia. Gauza guziak ekusten ditu Jaungoikoak eternidadeko bere ispillu ederrean, edo bere Jaungoikotasunean. An agerian daduzka, oraingoak ezezik lenak, eta etorkizunak ere. Orietatik zenbait agertu dizkigu guri ere. Agertu dan batzuetan, izandurikako gauzetatik; baña geiagotan oraindik etorri ez diranak. Etzaio gordetzen, ez, gure Jaungoikoari, den gauzarik txikiena; ta badakusatza oraindañoko gure itz asmo gogorazio guziak; eta ez daduzka, ez, beti gorderik idukitzeko.

Egin ditzagun bada, eginkizun arkitzen diranak, nork-nai ekus ditzaken eran, ta zertan ari garan dakigunak bezala. Egin ditzagun bada, gogotik utzi bage, begira dagokigula gure Jaungoikoa, gu oriek egiten ari garanean, ta dakigunak bezala, egunen batean agertuko dizkigula, begira dagokigun Jaungoiko berak, Aingeru ta gizon guzien artean, naiz onak izan, ta naiz ez, orain ta gure bizitza guzian guk egiten ditugun gauzak. Zein andia, gaizki bizi diranen, orduko lotsa ta alkekizuna! Zein andia, bana zein eskergabekoa, orduko gaistoen damu urrikia! Oraingo urriki-damua da orduan balio duen damu-urrikia. Ar dezagun bada gaur bertatik; eta ez dezagun gaurgero egin gure Jaungoiko jakintsuari atseka-bea, ta geren buruei alkekizuna, eman dezoken gauzarik txikiena ere; ta egin ditzagun egin bear diran gauz on guziak. Iguzu arren, gure Jaungoiko ekusle garbia, orretarako bear dugun zere laguntza ta grazia: bai arren, bai!

*Glorificantes Dominum
quantucumque potueritis,
supervalebit adhuc, et
admirabilis mangificentia eius...
major est enim omni laude...
Ne laboretis, nom enim comprehendetis.*
Eccl. 43. 32.

Eman dakizkiola gure Jaungoikoari eman al
adiñ esker, laudario ta alabantza; ori guzia eman
ta ere, ezer-ez bat bezala izain da ematen zai-
ona, zor zaionaren aldean; zeren zor zaion mun-
duan den guzia; baita ori guzia baño geiago ta
geiago balio duena ere; bada zor zaio ori eman-
erazten dion guganako bere ontasuna ta amo-
rea, edo ongi naia: ta ongi nai, eman-eraziaz
kontent ez dagoena; bada deusez bat bailiz
bezala eman diguna, izanik au dakusazun adiña-
koa, prestarazia daduka gure Jaungoikoa, bere
orduan guri emateko guk bizi garaño bear dugu-
na; ta gero, Ark emanaz gu ongi baliatzera, seku-
lako doakundea edo zeruko gloria. Ekusten dezu
norañokoa den zere Jaungoiko maitagarriak era-
kusten dizun ontasuna ta naimentua? Atotzea;

ez da, egin dizkizun gauzak baño, milletan ta milletan geiago balio duena, ta, zuk ezagu deza-kezun baño agitz eta agitz andiagoa? Bai; andia-
goa da, ta Jaungoiko berak baizik ongi ezin eza-
gutu dezaken diñakoa, Jaungoiko beraren guga-
nako ontasuna ta ongi naia.

Utzazu bada zere Jaungoikoarentzat bere ontasunaren ezaguera, edo ezaguntz andi ori; ta, zuk dezunak eskatzen duen diña badere, maita zazu zuk Jaungoiko bera, bere ontasun andi-ongilleagatik gaur, ta bigar, ta beti. Ez dezu maitatuko, ez, biotz obeko, ta geiago nai dizun gauzarik bat ere; ez eta bearrago dezunik ere; bada bear dezu bizitzan, bear dezu eriotzan, ta bear dezu zuk eternidade guzian zere Jaungoiko maitagarria; ta, au badezu, besterik ez izan arren, badezu betiko bear dezuna.

A! nere Jaungoiko, guztiz ongille, ezin maita-
garragoa! ta noiz asi bear ote dut nik, nere ale-
giñean, zor dizkitzudan eskerrak zuri ematen, ta biotzez zu, ta ziñez maitatzen? Noiz gelditu bear ote dezu orretarako nere gogoan sartu-sartua? Izan bedi bertatik, eta geldi bitez bat egiñak zurea ta nere gogoan. Ai, au ala gerta baledi!

geroz ez nuke naiko nik, zuk nai ez dituzun gauzetatik bat ere: naiko nuke zuk nai dezun guziguzia, ta geldituko lirake zurearen-erakoak nere naimentua ta gogoia, edo geldituko lirake bearden aldera zuzenduak, eta zure gauzei begira. Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitea; ta ez dezatela gal bein ere, beñ artzen duten zuzentasuna ta grazia. Ez arren, ez, Jaungoiko birtutesu on maitagarria, ez!

*Quoniam judicas das
locum in peccatis poenitentiae
et debitos morti... liberasti, dans tempus
et locum, per quae possent mutari á malitia.*
Sap. 12. 19.

Bekatu bat egin orduko, ondatu zituen sulezean millaka ta milloika Aingeruak, gure Jaungoiko, beren Egilleak. Aiek bezala ondatu bearrak giñan gu ere lenbizikoa egin genueneko ta oraindik bizirik gaduzka ta lur gañean gu egin ditugun guzi-guziekin. Anbat zuzentasun ta justizia Aingeru ederrarekin gure Jaungoikoak; eta gu beza-

lako loiez jaunzian gauden gauza txarrekin onen-
bat urrikaltasun ta leku? Bai, egiaki! Orra zenbat
asti ta epe zor diogun, Aingeruetatik bati ere
eperik eman etzion gure Jaungoiko maitagarria-
ri!

Adanen bekatuagatik garbitu bearrak ginan
gu geren amaren sabelean, edo andik sortu ta
laster! sekulako su-garretarako geunden gu,
geroz gerok egin ditugunakgatik! Bazuen gure
Jaungoikoak, ara gu botatzeko bear zuena, ta
agitz esku geiago; ta ala ere, au gu ondatu
lekuan, eman digu gure Jaungoiko maiteak,
damuz ta negarrez geren biotzak garbitzeko
bear den berria, ta tokia! Aingeru bekatariak
bezain aisa, ta laster onda gintzaken gu geren
Jaungoikoak bere gaistategai sulezean! Ondatu
zituen an Aingeru bekatariak, orien bearrak
etzuenak bezala! Ez gaitu gu, Aingeruak baño
bat ere bearrago; ta alere ondatzeko gaduzka
gu: ta ez gaitu, ez, ondatuko ere, oartzen baga-
ra bear den garaiean, ta eskatzen badiogu,
gogoz ta ziñez, egiñen barkamentua. Ori egin
ezkero, gu ondatu lekuan, emain digu gari gure
Jaungoiko maiteak bere grazia ta adiskidetasu-

na; ta oriek ez galtzera bekatu berriekin, sekulako doakundea ta gloria.

Baña, saiatzen ezpagara, geren lan au bear den denboran ta eran egitera, beldur izan gaitezke, jira dedin gure kontra gure Jainkoaren esku indartsua, gurekin egiteko oraindaño egin ez duena, edo gu Aingeru gaistoen artera aurtikitzeko. Ez arren, ez, gure Jaungoiko maitea, ez; etzaitezela izan gurekin Juez kastigagaillea; izan zaitetz on-beratxa ta urrikaltsua. Ez dezazula erabilli zere esku altsua, ezpada gure biotzari urrikizko kroskadak edo ukierak emateko. Indazu orain andi-andi bat, asi nadin erraten damuzko itzez, ta gogoz. *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

X.garren OTOITZ-GAIA

GUREKIN GURE JAUNGOIKOAK

EGITEN DUENA

A.

**Eman dizkigu Jaungoikoak:
zeruaren berria;**

**zerua irabazteko denbora ta tokia;
ta bizitzeko bear deguna**

1. Gauza guzietarako da gure Jaungoikoaren letarta edo probidenzia; baña, gure ona baizik gogoan ezpalu bezala, artuak daduzka bere neuriak, eta egin izandu ditu, ta egiten ari da, guri dagozkigun gauzak. Egin gintzaken gu, berak nai izatera, emen beti bizitzeko; ta egin izandu gaitu bere zerurako. Ara igaten garanean, arki ditza-gun guk geren gogora, edo ongi-ongi ta gerok nai bezala, ezinobeki apainduak daduzka ango toki guziak; edo apaindurik daduzka, guk asm-al baño agitz eta agitz ederkiago. Arako gogoia guri sar-erazi naiez, eman digu Jaungoiko berak zeru-

ko gauzen zerbait berri: ta, Jaunaren berriak dionaz, ta egia dio, urrea, zillarra, kristalak, perlak eta diamanteak gauza loi itsusiak dira, ango gauz ederren aldean.

Zeruari, ta zeruko apaintz ederrari dagokan bezalako da zeruko maia. Bakea, atsedetea, atsegin ta kontentu utsa da ango janaria ta edaria. Maiaren erakoa da etxekoen bizitza; bada da ezinobea. Ez da an otzik, ez da an berorik, ez da eritasunik, ez da nekerik, ez da kezkarik; ez eta iltzerik ere. Betiko bizitza, betiko osasuna, ta gau ta egun, ta beti nai bezala bat arkitzea da zeruko lan guzia. An ez da ekusten begitarte ona baizik: ez da alabaña Aingeruak, Santuak, Jesusen Ama, ta Jaungoiko bera besterik. Beren biotza bezain maite dute elkar ango guziak; eta alere oztasuna da ango guzien elkar maitatzea. Jaungoikoak bakoitzari dion maitatze ta amorearen aldean.

Ekusten dute zerukoak elkarren, ta beren Jaunaren maitatze au. Ekusten dute zein ona, zein ederra, zein maitagarria den guzien Jaungoikoa. Jaungoiko berari begira-begira daude, liluratuen eran, ta amorez urtuak beti ta beti; ta

berebat egoin dira beti-beti, ta sekula guzian. Zerurako bada, ta zeruko bizitza naigarri onetarako, egiñak gara lurrean garan guziok. Egin gintzaken gu gure Jaungoikoak gauz obetarako? A, Jaun ongille nere maitari ezin andiagoa! Zorionekoak gu, uts-egiten ezpadegu, egin diguzun arako bidean!

2. Gauza andiegia, ta baliotsua da, gure Jaungoikoak egin digun, ta apaindurik dadukan, bere zeruko bizitza zorioneko au, guri doairik emateko. Nai du, irabaz dezagun, au guk geren oñak sartu baño len. Baña badakit ezin irabaz dezakegula gerez, ta berak laguntzen ez digula; ta, irabaz dezagun, eman digu irabaztokia bizitzarako bear ditugun gauza guziekin batean.

Eman digu, bai, beiñik-beiñ irabaztokia. Baña nolako tokia? Zerorrek ekusiko dezu, zere begiak zerbait zabaldu ezker. Zabal izkitzu bada bat ere luzatu bage, ta begira zazu eguzkira, begira illargira, begira izarrez betea dagoen gañ orretara: begira zazu lurreko laur bazteretara; begira aizera; begira itsasora; ta begira alde guzietara. Orra zure irabaztokia! Orra zein galanta, zein betea!

Etxe onen *tellatuak*, izarrez beteak dauden zeruak dira. *Etxazpia* da, zere oin-pean dadukazun mundu guzia; *paretak*, elementuak dira; ta *gelak* erriak. Etxe onetako *krisellua* edo *argia*, egunaz eguzkia da, ta gabaz illargia zeruko izar guziekin. Tellatuak ez dira bein ere urratzen; txutik daude beti *paretak*; eta etxeko argia, Jaungoikoaren kontura dago. Ez dezu ekusten zein ederki apaindua eman dizun zere Jaungoikoak, zerura irabazteko eman dizun tokia?

Noren kontura ote dago, edo nork zaitzen ote du toki galant, ederki apaindu au? Beraren egille, gure Jaungoiko maiteak. Bai; Jaun onek, Isaias Profetak dionaz, airean bezala daduzka irur erirekin egiak, aldapak, mendiak, itsasoak, eta mundu guzi-guzia. Mundua bezala, daduzka eguzkia, izarrak, bazter guziak, eta zerua. Berak daduzka, zeren berak egiñak diran, eta berarenak: eta daduzka bere eri edo beatz egillekin: ta Jaungoiko egille berak ez idukitzera, ta ark utzi orduko, auts edo ezer-ez egiñak lirake guziak. Orra orretan ere zere Jaungoikoari zuk zor diozun ondasuna.

Zer dirala uste dezu, Jaungoikoaren eri, edo beatz oriek! Oriek dira ekusi ditugun: Jaunaren *jakiundea*, *ontasuna* ta *eskua*. Noiz, nola, ta zertako gauzak egin, bere jakiundeak erakusi zion gure Jaungoikoari. Bere ontasunak, bere naimenduak edo ongi nai zuzenak eragin ziozkan bear zen garaiean; ta egin zituen, ben bezala bere esku indartsu-ongillearekin; ta utzi zituen gure onari begira. Jaungoikoaren beatz oriekin egiñak dira gauza guziak: oriekin egin zuen gure Jaungoikoak, zor diogun munduko etxe galant au. Baita geren izatea ere, bada gu ere gañerako gauzak bezain ongi, gure Jaungoikoak egiñak gara. Ekusi zazu zenbaterañokea den, zere egite onegatik, eta, zerua irabazteko eman dizun tokiaren alde zuk zere Jaungoikoari zor diozun amore! Baña, au ezagutzeko, bada oraindik beste biderik ere. Atoz ekustera.

3. Egin gindueneko, ekusi dugun bezala, Jaungoikoak eginik apaindua zedukan munduko etxe andi eder au; ta onetan sartu giñan gu, jaio giñaneko. Baña ez giñan sartu, ez, etxe apaindutsean. Etxea ta gu egin ginduen gure Jaungoikoak bazekien, ezur-aragiz jauntziak egin gin-

duela gu, ta etxea ez beste gauz anitz ere bear-ko genituela, luzaro biziko bagiñan gu etxe onetan, ta zerurako irabazi andi onak egiten genituela. Orregatik, etxea egin orduko, egin zituen lurpean urrezillarrak, diamanteak, eta arri fiñak; lur gañean beiak, ardiak, eperrak, ollaskoak, eta, illez ta lumaz jauntzirik dabilzan egaztiak eta gauzak. Egin zituen iturriak, egin zituen ibaiak, egin zuen itsasoa; ta au, ta ibaiak, edo ugaldeak ere egin zituen, ez utsak baizik arraiez beteak.

Au guzia ezer-ez bat bailiz bezala, eman zien gure Jaungoikoak lurrari, aizeari, suari ta urari bear adin indar, berez edo laguntzen zaiela, egiteko geren jan-edanetarako, geren soñerako, ta bertze geren gauzetarako bear digun guzi-guzia. Emen, gure bazterretan, arkitzen ez diran, ta Jaun berak egiñak daduzkan gauzak, arkitzen dira besteetan; ta, andik ekartzeko, idorrez ekarri bearrak diranean, badira bideak, badira zaldiak, badira mandoak, eta badira gurdiak; eta itsasoz ekartzekoak diranean, badira ontziak, eta ontziak. Bearrean arkitzen bada norbait, izain da, berak egin gabez egin bear duena: edo zeren ori den orduan, ari ongiena dagokan zerurako

bidea: bada, orregatik ez izatera, ez die gure Jaungoikoak ukatzen zerurako egiñak daduzkan bere umei, arrei, txoriei ta mamorrei ere ukatzen ez dien jan-edana ta soñekoa.

Idikitzazu bada noizbait zere begiak, eta begira zaiezu, lotan bezala zauden gizatxarra, edo emakumea, emen bizi zaran arteko zere Jaungoikoak eman dizun etxeari, etxearen apaintzari, ta etxe onetan, edo mundu guzian, zure onerako egin dituen gauza guziei: ta, orien izatea, egokura ta edertasuna ekusi ondoan, igan zaitez, naiez ta gogoz zeruraño, angoak ere, al dezun eran ekustera. Artzen badezu bide au, bidenabar ezagutuko dezu ezinobea dela zure Jaungoikoaren letarta, gobernua, ta probidenzia, bestegatik ezpaliz ere, zeren eman dizun mundu au bezain zeruaren irabaztoki ederra; ta toki onek adiña apaintze ta onek bezalako gauzak dituen: bada ezagutuko dezu, zure Jaungoikoak adiña ontasun ez duenak, ezin lekizkela onelako tokia, ta tokirako gauzak; ezagutuko dezu, ongi siñetsgarria dela Apostoluak diona, edo asm-al baño gauz andi-eder-apainduagoa dela zerua; bada emengo, onen irabaztoki andi edo beteari,

ez dagoka gutiago: ta denbora berean ezagutu-ko dezu, eroak baizik ezin utz dezakela egin gabe onelako gauza bat, edo zerua irabazteko egin bear duena.

Ezagutzen dut, bai, nere Jaungoiko maitagarria, ezagutzen dut nik au guzia; ta orregatik, bat ere luzatu bage, asi nai dut (eta ziñez alere), zure zeru ondasundun au irabazteko egiten diran lanetan. Artuko dut orretarako zuk zerorrek, Maisu onak bezala, erakutsi zenigun bide zuzen, bear den erakoa. Bide au artu, ta nere lan orietan nabillenean, ekusiko dut ezin-zuzenagoa dela, ta ezinobea zure gobernua, zure letarta, edo zure probidenzia. Ekuste, ta ezagutze onek berotuko didala deritzat, orain ozturik arkitzen den nere biotz txar eskergabe au; ta, biotzaren berotze onarekin asiko nazala nere gauzak zuzentzen, ta maitatzen Zu alik zinkiena, edo oraindañokoan ez bezala. Indazu zerorrek, nere Jaungoiko maitagarria, lan on onetarako bear dudan zere laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

B.

Bazuen Adanek, eta badute gañerakoak ere, gure Jaungoikoak emanikako bidea

Ekusi ditugun baño obeki ekusteko, gure Jaungoikoaren letartari edo gobernuari guk zor diozkagun ontarteak, begiratu bear diogu, zerua-
ren irabaztokiari bezala, eman digun irabazbi-
deari ere; bada zerurako irabazbidea, emengo
bizi-tokia bezain ekustekoa da; ta, tokiak baño
ere, agitz obeki, gure Jaungoikoari guk zor diogu-
na agertzen digun gauza: bada bide au ere, bizi-
tegia bezala, gure Jaungoikoaren eskukoa da; ta
bidenabar da guztiz zuzena; ta nai duenaren-
ko agitz ondasunduna; bada igialdi oro edo ortik
dabilienak egiten dituen gauzetatik bakoitzare-
kin, zerurako bil dizake ondasun andiak, edo ira-
baziak.

Gure Jaungoikoak eman izandu zion Adani,
gurea baño zerurako bide leun errazago bat; eta
ori Adanek ez galtzera, edo Adanek egin izandu
balu, bere bide leun orretatik atera gabe, Jaun-

goiko beraren erran-manua, aisa ta nekerik gabe sartuko zen zeruan, artarako ordua etortzen zitzaionean; ta, ura an orrela sartzera, aren bide bera izain zen gure guzien zeru berarako bidea; ta gu ere au bertan sar gindezken aren eran, ta ura bera bezain errazki, edo aisa; bada jaioko giñan gu guziok zeruko graziaz ta doaiez beteak; jaioko giñan gaitzerako tirriarik bat ere gabe, ta onerako guztiz jaioak, edo egokiak. Baña etzuen Adanek egin izandu bere Jaungoikoaren errana edo manua; ta, uts egin orduko, galdu zuen berea, ta geretako gure Jaungoiko maiteak zedukan grazia: baita zeruko bide erraz au ere. Orrekin asaldatu ziran Adanen aragia ta pasione gaistoak; baita gureak ere; ta asi ziran, okabilka bezala, anima gaisoarekin; ta ala dabilta, aldar-teak ematen dien guzietan.

Andik datoz, izan oi ditugun gure eritasunak, nekeak ta gaistoen tentuak. Andik artu zuen sulezekoak gu garaitzeko, len zuena baño agitz esku ta indar geiago; ta Adan, ta gu gelditu giñan Paradisutik sekulako erbestatuak, eta denbora berean, beartuak zeruaren billan, negarrezko bide latz batez, ibiltzera: ta, etsai au ta neke

andiak garaituz ezpada, ez da geroz guretzat zeruan sartzerik: ala dio, egia baizik ezin erran dezaken gure Jesus maitagarriak. Ai, au nekea! Ai au galtzea!

Orduko bide leun errazaren ordeaz da, orain gure dugun Jesusen Lege berriko bide au. Au ere gure Jaungoiko maiteak emana da. Bide onetan zuzen, ta erori gabe, ibilli nai dutenak garai onetan artu bear dute beren pausua, edo dagoen bizi-modua. Orrela ibiltzeagatik, gelditzen dira batzuek ezkondu-gabe; ta sartzen dira bertze anitz paret-artean, edo konbentuetan, aragi gaistoz jauntziak daudela, au egiteko, aragirik ez duten Aingeru garbien erako bizitz on-eder bana. Zorionean jaioak, Jaungoikoak deitzen dituela, bizimodu au artzen dutenak, era onetan garbi beren egunak bukatzen dituztenak! bada orieta-tik izain dira, bildots eder Jesus-maitagarriarekin zeruan ibilli bear duten anima garbi, ta birjineta-tik geienak edo beintzat anitz, eta asko!

Gisa berean, edo zuzen ibilli-naiez zeruko bide berri, Jesusen bidean, egiten dira beste anitz eliza-gizon, edo Apez. Orien ibillera, edo biziera (bear bezala bizi dirala) guztiz ederra da,

ta Jaunari atsegin anitz egiten diona. Gañerako guziak artzen dute ezkontzako, edo alarguntasuneko bizi-modua. Bata edo bestea artu duenak, egin bear du, zeruan sartzeko, bere bizimoduari dagokana; bada ez da bestela au sartuko sekulan, egin bear diranetatik zenbait gauz on, edo anitz eginagatik.

Baña oraño artu ez duenak, kontuz begira beza zein ote den, ari dagokan bidea edo bizi-modua; bada bizi-modu, edo zerurako bide guziak, zein ere zuzenak diran, ez dira guzientzat; eta, ez dagokan bizimodu ona artu, ta sulezeratzea baño, obe da ezkondu ta zeruratzea. Ez dakienak zer egin orretarako, edo zein ote den ari dagokan bizi-modua, bjoa bere Jaungoikoa-gana; bada Jaungoiko berak dio: atozte nigana, nondik artu ez dakizuenak; nik agertuko dizuet etorkizuna, ta bakoitzari erakutsiko diot dagokan bidea, edo bizi-modua.

Gure Jaungoiko maiteak, bortxarik gabe, eraman nai gaitu guziok bere zeruko atsegin-kontentuetara. Orretarako adirazten dio bakoitzari zein den, guzien artean, ari dagokan arako bidea; ta adirazten dio, berez datorrela dirudien

naikunde batekin, edo bertzearekin; ta naikunde au ark ez aienatzera, artzen du, Jaungoikoak bereitzen dion bere zerurako bidea; ta, au ark artzearekin, beartua bezala uzten du bere Jaungoikoa, bere bidearen asieratik bide beraren bukaerañoko egin bear dituen gauzak nola egin erakustera, ta gauzak berak egiten sendorki laguntzera. Baña ez dute orrelako irabazirik egiten bere gogora dabiltzanak; eta, beren biotzean itz egiten dien Jaungoikoari ez-aditu egin, ta gogo gaistoak erakusten dien bideren batean sartzen diranak, or barrena igan uste dute gaisoak zeruko atsegin-kontentuetara; baña ez da erraz, Jaungoikoak erakutsi etzien bidez, edo bizimoduz, oriek ori erditstea.

Jaungoikoak egiten dien biotzeko edo animako itz eme au aditzen ez dutenak, edo itz onen berri guti dutenak, bijoaz Jaungoiko berak bere lekuan daduzkan gizon jakindun birtutetsuetara. Oriei erakutsiko die zein den artu bear duten bidea edo bizimodua. Au egin gabez, galdu ziran, Isaiasek dionaz, Israeldarrak. Buren buruz, ta Jaungoikoaz kasorik egiten etzutela, artu zuten oriek beren bidea; baña alako bidea! gogo gais-

toaren bidea! bide makur-galgarria! bide onez erditsi uste zuten nai zuten guzia; ta erditsi etzuten, ezagunen ista, ta beren lotsa, ta alkea beste ondasunik.

Zenbati, ta zenbati gertatu oi zaie ori bera egungo egunetan ere? Gazte ariñak arkitu uste du zerurako bere bidea, ez dagokan, edo Etsaiak zuzentzen dion, ezkontzan. Ez du aditzen, ezkontzari dagozkan gauzetan, guratsoen ta ongi nai diotenen erranik bat ere. Egiteko berean Jaungoikoak egiten diozkan itz onak itotzen ditu bere barreanean. Jaungoikoaren lekuan daudenen igesi dabill beti, bere burutik ken ez dezoten, gogoan sartu zaion bere ezkontza galgarria. Sartzan da azkenean kontrako bere ezkontzan, ta ez du gero bere ezkontzan arkitzen kezka, negarra, damua ta loia besterik.

Aberats-bidea da, diruzalearen iduriz, zerurako biderik zuzenena. Orobat gertatzen zaio oho-rezko bidearekin, antustez burua beterik dadukan gizon arroari; baña bide oriek bien galbideak dira, ez zerurako bide zuzenak.

Ez dela bide zuzena, uste du bearsuak, bearez, nekez, gabez, lanez, ta izerdiz batea dago-

en bidea; ta ori da bide bat, umilki artzen dute-
nak zuzen-zuzen zerura daramatziena. Jaungoi-
koa da siñis nazazu, zerurako bideen, ta gure
guzien bear bezalako berria duena. Ikas zazu
bada beragandik otoitzez, erreguz, bizitza gar-
biz, ta gald-eginez, zein den zurea, edo zuri
dagokizuna; ta beste guziak utzirik, artu zazu au,
artu nai badezu berez bukaera on bat dakarren
bidea, edo bizi-modua.

Nai dezu zuk erditsi bide on onen bukaera on
au? Bada zabilta ortik zuzen; edo zabilta, zere
begiak kendu gabe, zeruko zere Lege garbi argi-
egilletik. Egizu beti Lege bereko mandamentu
guziak diotena; artu izkitzu Jaunak gogargiz adi-
razten ditzkitzun gauzak, eta Jaun beraren orde-
z emen daudenen erranak, edo konsejnak; eta
azkenean zuk erditsiko dezu zere zeruko bidea-
ren bukaera.

Emengo bideetan, edo egitekoetan, alkar
engaña dezakee gizonak, edo jendeak; baña ez
du nior Jaungoikoak engañatuko zeruko bidearen
gañean; ez da alabaña Jaungoikoa gizonak beza-
la, gauza baten lekuan, bertzea erran dezakena:
dena, den eran, erakusten dio gure Jaungoikoak

ikasi nai duenari. Artzen badugu guk eskergabe-ko bide makurren bat, ez da ori izain gure Jaungoiko maitagarri zuzenak erakutsia; erakutsia izain da, edo gure etsai galdu amurratuak, edo gure gogo edo naigabe galgarri gaistoak.

Ez al naz sartuko ni orrelako bide galgarri errebesetan? Ez, nik neronek nai ezpadut, edo ni banabil zeruko argiari begiratzuz, ta Jaunaren lekuan daudenen erranak egiten ditudala. Orrela dabillenari Jaungoikoak ematen dio bear duen bizimodua, ta zeruko bidea; baita bere eskua ta laguntza ere. Indazu niri ere, Jaun ongille-maitaria. Bai arren, bai; ta ibilliko naz, gaistoak utzirik, zuk erakutsi didazun bidez, ta bein ere ori uzten ez dudala.

C.

Ematen digu Jaungoikoak (eta anitz aldetara) geren biderako bear duguna

Baditu zeruko bideak bere sasiak, baditu bere aldapak, baditu bere mendi gogorak, edo

baditu bere nekeak; eta askotan neke gogorrek. Indar laburrak dira berez gure alegin ta indarrik andienak, orrenbat neketarako. *Jesus* bat, bear bezala errateko diña ez gara gu gerez, dio San Pablok, Adanen bekatuak azpira ginduenetik; eta azpira ginduen, bizitzen asi orduko. Ez gara indartsuagoak gelditu gerozko geren bizitza txarrarekin; bada, Profetak dionaz, gelditu gara kargatzar andi baten azpian datzan bat bezala, edo erdi-lertuak, eta zauriz ta aztura gaistoz beteak. Gure zauriak, guk artara begiratu gabez, andituz ta ustelduz joan izandu diran zauriak dira. Erakeriz bete da gure burua. Tirrikazio gaistoen suak artu ditu gure giltzurriñak eta biotza; ta lazeri uts-egiñak, eta gaitzera, agurea lurrera bezala, makurtuak gelditu gara. Orra nolakoak gelditu garan gu geren bekatuakgatik! Eta orra zein txarrak gerozko gure indar guziak!

Nola guk onen indar gutirekin, ta lagunik bage generamake geren legeko uztarri astuna, ta karga guzia? Nola, ta noiz guk egin genezake, zerua irabazteko egin bear den egiteko nekezkoa? Ez eta sekula guzian bizi bagiña ere. Baña, gerez ezin dagikegun lan andi, ta egiteko gogor

au, aisa egin dezakegu gure Jaunak laguntzen digula, ta beraren graziarekin batean. Ala dio Jaunak berak: *atozte* dio, *neketan zabilten gaisoak*: atozte, nik emain dizuet zeren lanean iraunteko bear dezuten janari indartsu, nere grazia. Onen indarrarekin, ariña iduriko zaitzue berez astuna den ta zeren soñean daramazuen nere legeko karga; ta, kargapean ibilliagatik, ibilliko zarazte atsegin, ta kontentuz beteak. Ala gerta dakigula, gure Jaungoiko maitagarria!

1. Badakizu non edo noiz ematen duen gure Jaungoikoak animako janari indartsu au? Ematen du Elizako Sakramentuetan; baita beste anitz aldi ta lekutan ere. Ematen du, bai Elizako Sakramentuetan; bada edozein Sakramentutan, bear bezala, artzen duenari ematen dio Jaungoikoak artze berean, bere grazia; eta gero beartzen denean, otamen indartsu, edo graziaren laguntza, *auxilioaren* izena duen bat; eta zuen indarrarekin, nai badu, garai ditzake bere etsaiak; eta bere kargarekin, anitz nekatu gabe, badabilke zerurañoko bere bide guzian. Zenbat geiagotan, ta obeki konfesa-komekatzen den bat, anbat laguntza geiago ta indar andiagoak ira-

bazten ditu, anbat lasterrago doaz dituen, animako zauriak, edo aztura gaistoak; anbat indartsuago arkitzen da, ta ariñago dabil zeruko bere bidean. Orretarako da, Sakramentuetan Jaungoikoak ematen duen animako janari indartsu au.

2. Janari onen, edo Jaungoikoaren laguntza-ren beartzen garan guzietan, ezin goazke konfesa-komekatzera; ta, ori dakien gure Jaungoikoak, ematen digu, eskatu ezkeru, bertze anitz aldiz ta lekutan ere; bada ematen digu *libru onak irakurtzean, ta predikuetako denboran*; ematen digu illberria, ta ill-ezkillu aditzean; iltzen dagoena nekez, kezka, ta izerdi otzez betea ekustean; ill-mezan, ill-ortzietan; erraietako, buruko, ortzeta-ko, sabeleko edo bertze edozein miñ datorkigunean; eskuetako gauza gaizki ateratzen zaikunean: naigaberen batekin arkitzen garanean, begitarte txarra egiten zaikunean; esker gaistoak, eta arpegi illuna baizik, ekusten ez ditugunean, ta onelako bertze anitz alditan: bada aldi orietan eman oi digu gure Jaungoikoak bere inspirazionea edo gogargia. Gogargi onek ematen digu batzuetan ondu-nai on bat; eta geienetan beldurtzen gaitu. Egiten du gure Jaungoikoak

bata, ta bertzea, guri eskarazteagatik eman nai digun bere janaria, edo graziaren laguntza; ta ematen digu beti, guk au ongi eskatu ezkerro.

3. Orrelakorik ez izan arren, ez dago, ez, gel-dirik gure Jaungoikoa: billatzen ditu, bai, eman-bide berriak. Badaki gure Jaungoikoak, biotza noizean bein illuntzen, edo berotzen ezpadigu, joain zaizkigula orduak eta orduak ere zerurako deus egiten ez dugula, ta Jaungoikorik den ere oroitu gale. Badaki Jaungoikoak, bai, gu gerez, ta ark zerbait egiten ezpadigu, oituko garala alferkerira ta zabartasunera; ta, orietara oitu ezkerro, aisa garaituko galtuela gu, gu galdu naiez dabilen, gure etsai amurratu gaistoak. Gal ez gaitezzen bada, ta eme, ta biziro gabiltzan zerurako geren bidean, *ematen digu* batzuetan *bera maitatu nai andi bat*; eta bertze zenbait aldiz *illuntzen digu biotza*, ta uzten gaitu kargapean, edo naigabez itotzen bezala; ala badere dagigun egin bear duguna, edo dagigun, urean itotzen dabillanak eta kargapean lertzen dagoenak egin oi dutena.

Badakizu zer egiten duten oriek? Oiuz, ta deiez daude bazter aietan dabillena berei lagun-

tzera erakarri naiez. Eskatzen diote negarrez ta umilki, lagun dakiela eskuz, igeriz, ta alde guzietara; ta ez ditzala utzi, arripetik bata, ta bestea uretik atera artean. Orra oriek egiten dutena; ta orra, zuk dagizun, zure Jaungoikoak nai duena.

Animako premian arkitzen zaranean, ots egiozu zere laguntzalleari, ots egiozu zere Jaungoikoari. Ez dezu arkituko, ez, au baño alderago dadukazun laguntzallerik; ez eta oberik, eta urrikalsuagorik ere. Ez dizu niork ere, onek bezain ongi ta laster kenduko zere barreneko pisutasuna etzaitu, onek bezala, batek ere aterako zere neke-kezkeen ur-petik. Ortik ateratzeagatik zu, ta bidenabar zuk ar dezazun zeruko bidean irauteko bear dezun janari indartsu, graziaren laguntza, ematen dizkitzu aldi orietako berriak, naigabeak, eta biotzaren ukierak; orrela badere zoazkio, biderako janariaren, edo graziaren eske; ta, eskatu ezkeru umilki ta bear bezala, emain dizu, gutienez, bear dezun guzia.

Orra zenbat aldiz Jaungoikoak eman oi duen bere grazia ta laguntza. Bada zenbat ere anitz diran, aguertu ditugun aldiak, ez dira, orretarako bereziak daduzkan guziak; ez eta erdien laurde-

nak ere. Guziak banaka agertzea gauza luzea lizake: itz bian adiraziko dizkitzut nolerebait.

Non-nai arki dezakegu guk geren malkortegia, edo amildu-lekua; non-nai urrats, edo pausu gogorren bat, non-nai etsaiaren tentazionea ta zerua galtzeko bidea: baña an bertan arkituko dezu, nor bazara zu, zere erakusle zuzena, eskuemalle ona, ta, etsai guziak garaitzeko diña den Laguna; bada bertan, ta bazter guzietan arkitzen da gure Jaungoikoa; ta Jaungoiko, eskatzen dionari, argia, eskua ta laguntza bertan emateko prest dagoena.

Malkortzen bazara bekatuaren errekarra, itozten bazara tentazioaren urean, uzten badezu egin gabe egin bear zenuen gauza, izain da, artu naigabez zuk, zere Jaungoikoak eskeintzen dizun janaria, eskua, laguntza, ta grazia; bada eskeintzen dizu etxean, eskeintzen dizu mendian, eskeintzen dizu bidean, sasian, auzoan, urrutian, lanean, atsedentegian, gabaz, egunaz, goizean, arratsaldean, ta ordu ta puntuoro; ta, bear adiña zuri emateko, ez dizu, biotzez eskatzea, besterik eskatzen. Eskatze au askotan zuri zere gogora erakarteagatik, berezi dizkitzu Jaungoiko berak,

beste anitzen artean, milla aldetara, ta maiz aski egin ditezken urrikarrizko edo miserikordiazko amalaur gauzak.

Non arkituko dezu onen usu ta merke bidez-koei bear duten janaria ta edaria prestatu dien erregerik? Non, berez, bearrean dauden guziei laguntzen dienik? Nion ere! Ez da misterio: ez da alabaña, gure Jangoikoa bezalako erregerik; ez da au bezela bazter guzietan arkitzen denik; nai duen guzia egin dezakenik, eta eskatzen zaion, ta gure onerako den, guzia egin naiez dagoenik.

4. Nai au agertzen digu, erran diran gauzekin ezezik, *egiañak daduzkan munduko guziekin ere*; bada guziekin deitzen digu, beti prestaturik dadukan bere graziaren maiera. Txoritxo kantariak, aritz mutuak, loreak, iturriak, belarrak, oinpeko arriak, izarrak, eta gañerako gauza guziak adirazten digute beren moduan, Profetak diona. *Begira*, dio Profetak: *Begira, gizona, begira emaztekoa: ez zara zerez etorri zu, ez, mundura: zere Jaungoikoak egiña zara*. Orretan erraten digu: ez zara etorri, ez, zere Egille onaz azturik bizitzera. Jaungoikoak egiña zara. Egin zinduen, zerua irabazteko. Eman zizun irabaztegia. Eraku-

tsi dizu irabazbidea; ta ematen dizu irabazteko bear den indarra, laguntza, ta grazia.

Etzaitzala izutu maudamentuen kargak, eta zere legeko gurutzeak. Graziaren janari indartsuarekin, ta Jaunak laguntzen dizula, arinduko da guzia; fite ta laster bukatuko dira zere munduko lanak, eta bideak; eta ez da bukatuko bein ere, bide onez, irabaziko dezun doakundea, edo beti iraun bear duen zeruko atsegiña ta kontentua. Zoaz bada zuzen zere bidean; ta zoaz, noizean bein zere egille on Jaungoikoari agur egiten diozula. Zoaz, ta zabitza, Jauna serbitu-naia, ta, zor diozun maitatzea gogotik utzi gabe. Orrela bazabiltza, sartuko zara zuzen, ta anitz nekatu gabe, zu zere Zeruan.

Au guzia, ta anitz geiago adirazten dizu itz bian Profeta Dabidek; eta au berau adirazten dizue, berak egiten dutenarekin, munduko gauzarik mutuenak ere; bada bakoitzak egiten du gau ta egun, ta beti, Jaungoikoak nai duena, edo bere egitekoa; ta egiten du, edo Jaungoikoak eragiten dio, guri eragin naiez gerena, edo egin bear duguna. Gu ez, beste gauzak zuzen dabil-tza, zein bere bidean dabil-tza, astunak izanaga-

tik eta pisuak. Eguzki bera, ta izarretatik anitz astun-astunak dira, edo lur-mendiak eta itsasoguzia baño, anitz andiagoak dira; ta, luma bat bezain ariñak balira bezala dabilta, Jaungoikoak bakoitzari eman dion bidez, bein ere gelditu gabe, ta egunoro millaka ta milloika legoak egiten dituztela. Iturrietako, ta ibaietako, edo ugaldeetako urak ez dira gelditzen itsasoan sartu artean, kentzen ezpazaie beren arako bidea. Batetik bestera dabill itsasoa, bere ur ta baga guziekin, Jangoikoak nai duen bezala: ta ez da munduan gauzarik Jaungoikoak nai duena, ta Jaungoikoak nai duen bidez, egiten ez duenik.

Guziak bada beren itz egite mutuarekin erraten digute, Apostoluaren ezpañez: *egizue, gizonak, egizue zuek ere zeren egitekoa*. Zoazte, trikatu gabe, zeren bidean, doatsuak izan nai badezue sekula guzian; zabiltzte zuzen, zeren Jaungoikoa ekustera zeruan sartu artean. Orretarako egiñak zarazte, zarazten guziak. Ongi zuzena da zeruko bidea; bidezkoak bear dituzten janariz ta gauzaz ongi beterik dagon bidea da zuen zerurako bide au. Ezin-jakintsuagoa da ekusi dugun bezala, ezin-egilleagoa da, ta ezino-

bea gure Jainkoaren gobernuia, letarta, edo probidenzia: probidenzia onekin guziarekin artu ditu Jaungoikoak, gure onerako diran, bide onetako neurri guziak; eta prestatu ditu jaiotzetik zeruraño bear ditugun gauzak: orregatik zor diogu guk geren Jaungoikoari, al dugun begiratze on, agur, esker, ta maitatze guzia.

Begira zaiozu bada, esker utsez beterikako begiekin, gauza guziak zure onari begira utzi dituen zure Jaungoiko begiratuari. Egiozu agur ta agur begiz, buruz, biotzez, ta alde guzietara. Zure Jaungoikoa, ezer-ezetik atera zinduen, ta zerurako zaduzkan Jaun ta Jabe ezin-andiagoda. Emazkiotzu bada eman-al adiña esker, ontartez ta mesedez bete zaituen, ta ontart berriak eta berriak zuri eman naiez arkitzen den zere ongille, ezin-ongilleagari. Maita zazu; baña maita zazu aleginean; bada beti onak maitatzen dagona, gaisto guziak ondu nai litukena, ta guziguziak zeruan sartu-naiez dabillena da zure Jaungoiko ezin-maitagarriagoda.

Ezin dagikezu maitatze au baño gauza obeagorik; ez eta bearrago dezunik ere. Zorionekoa zu, zuzen ta bear den eran au egiten badezu!

bada bidenabar egiñen dituzu zeruko bidean zuzen ibiltzeko egin bear diran gauzak: eta egunen batez sartuko zara zero berean, an zure Jaunari zuganako bere gobernu ta letart onesgarriagatik, emen ez bezalako eskerrak ematera; ta, emen baño agitz eta agitz garbieroago ta obeki, zor diozun guziagatik, bera maitatzera. Eta non arkituko dezu gauz obeagorik? Non, au baño bearrago dezunik? Ez al dezu zere egiteko au utziko aldebat, oraindañokoan bezala? Ez baldinb-ere! Ez arren, ez! Ez dagoka eskergabetasun txar ori, bere letarta ta probidenzia guziarekin zure onaren billa dabillen zure Jaungoikoari: ez, eta zure onari ere: eskergabetasun orretan bukatzen bazenitu zere egunak, zu izain ziñake zorigaistoko maluras, doakabe bat; bada, zeruan egon lekuan, egon bearko zenuke beti ta beti usteltzen, ta erretzen sulezean.

Ez, nere Jaungoiko maitea, ez da neke arrigarrri au niri ongi dagokidana; ez, eta onara dararaman bide zabal gaistoa ere! Niri dagokidan bidea, zuk erakutsi diguzun bidea da. Au da nik gaurdanik artu nai dudana. Au da nik orain nai dudana, naiz dela berekin dakartzien bere lan ta gurutze guziekin. Guziak eraman uste ditut zure

graziaren indarrarekin batean, ta zuk laguntzen didazula. Indazu zere laguntza, indazu zere grazia; ta goazen, nere Jaungoiko maitea, nondik-nai ta zuk nai dezun bezala. Atsekabeen mendiak, naigabeen aldapak, asmazio gaistoen larreak, gorrotuen sasiak, eta gañerako urrats-pausu gaistoak, ez naute izutzen, zure grazia nerekin dudaño, ta zuk eskutik naramazula. Goazen, goazen bada, nere Jaun eskudun maitagarria; goazen nondik-nai: bada ezin eraman nazarkezu zuk, ezpada bide zuzenez. Zure letartak trazatu duena da nerezat biderik onena. Au nai dut nik ere. Zurea da oraingo nere nai au ere, nere Jaungoiko maitagarria; bada nere biotz txarrak ez luke berez artuko onelako asmorik. Nai onekin nai dut ibilli, nabillen artean; ta, aai au utzi gabe, nai dut sartu zure probidentzia zuzenak apaindua dadukan zure zeruan. Ala gerta dedilla, nere Jaun on-andia; bai arren, bai!

*Tua autem, Pater, providentia
ab initio cuncta gubernat.*

Sap. 12. 3.

Zure gauzak ekusteko, gure Jaun andia, itsuak gara munduko geienok. Berez balebiltza bezala, begiratzen diegu ekusten ditugun gauzei. Guziak dabiltza zure letartaz ta probidenziaz, edo zure probidenzia daramatzien moduz ta bidez; ta ezpaliz baño geiago ez gara oroitzen gu zure probidenziaz! Arritzen gara munduko bazterrak, eta zeruko izar-eguzkiak ekusten ditugunean; ta ez dugu begiratzen ere, guziak egin zituen ta eskutik daduzkan, zure letarta gobernarira. Au gertatuko ote da emendik aitzina? Ez, zuk nai badezu, eskergabe txarra. Nai au gogotan sar dakizun, begira zazu, gizon dongea; begira zazu emakume zentzugabea, begira zazu non arkitzen zaran, ta zertarako zauden tokian! Arkitzen zara Jaungoikoak egin zizun, ta bere letartaz ongi zuzendua dadukan, munduko etxean. Etxe edo toki onetan arkitzen zara, doakundez betea dagoen gain artako toki ederra irabazteko. Eskerrak eman ez, ongi biziz, ta lanak zuzen egin ez irabazten da zorioneko toki ura.

Ai ene! ta nere zoratu galdua! Nigatik eginak zeru-lurrak, eta munduko gauzak! Jaungoikoaren eskuan gauza guzien gobernu! Nere Aita on

maiteari eginik nere Jaungoikoa: Niri begira, niri zeru guzia eman naiez Jaungoikoaren letarta, edo probidenzia: ta ezer zor ezpanio bezain aztua ni nere Jaungoikoaz, ta Jaungoikoagandik arturik dadukanaz! zerurako jaioa ni! Zerua irabazteko Jaungoikoak ekarria ni, nagoen tokira! Ongi bizi bearra ni! lan on anitz egin bearra ni! ta alferkeria, gaizki bizitzea, ta zerua galtzea bailiz bezala nere egiteko guzia, lotan ni geienean, bekatuaren loiean ni, ta zerutik urruntzen nauten gaizkiak eta gaizkiak egiten nituela ni! Non dut nik, non, burua? Non dut nik, non ezaguera? Ez ote naz ni, noizbait-noizbait nere kontura-bearra!

Baldinbere bai, nere onerako letartaz, ta probidenziaz betea zauden nere Jaungoiko maitagarria! Ezagutu dut, bai, berandu badere, artarako ekarri ninduzula zuk nagoen lekura! ta ezagutu dut, bai, zertako darabiltzan zure probidenziak, darabilzan bezain ongi ta zuzen, munduko gauzak! Guziaz baliatu uste dut gaurgero nere onerako. Bizi uste dut bein ere nere begiak kendu gabe, zure gobernu zuzen-ongilletik. Orri onela begiratze onek eragiñen al dit, zerurako banaz

egin bear dudana? Beartuko al nau eskerrak zuri ematera; ta, zerua irabazteko egin bear den guzia egitera? Ori da nere egitekoa. Au negien, egin ninduzun zuk, nere Jaungoiko-egille-gobernari maitagarria. Erakus zadazu, zuzen egiteko, artu bear dudan bidea. Bai arren, bai!

Misericordia, et veritas praecedent te.

Psalm. 83. 16.

Jaungoikoak egin litzake gurekin ere, beste anitzekin egin dituen kastiguak: baita andiagoak ere: bada kulpa andiz ta obenez, oriek ez bezala, ta askotan, loitu diogu guk zerua irabazteko berez egin, ta onez eman zigun munduko bere etxe galant au. Baña urrikariegi gaitu gu geren Jaungoikoak, eta geiegi nai digu, ori ark gurekin egiteko; ta, era orretako kastiguak egin lekuan, erakutsi digu kastigu guzietatik iges egiteko bidea: bada erakutsi digu nola geren loiak kendu, ta nondik artu, zerua zuzen, ta uts egin bage, irabazteko.

Kentzen dira gure loiak (gure Jaungoikoak guri erakutsi digunaz), gaizki eginen damuz ta urrikiz: bada gaizkiez urrikiturik, eta egin ditugun txarkeriez damuturik ekusi orduko gu geren Jaungoikoak, urrikaltzen zaiku eta ematen digu, bekatuaren loiak kentzeko bear den ura ta grazia. Gu bekatuen loiera orduko, andik atera gu, ta garbitu naiez dabil gure Jaungoiko urrikaltsua. An sartuaz damutu dakigun, zulatzen dizkigu bere beldur santuz geren biotzak; eta adirazten digu zer bidez artzen den gaizki eginen bear bezalako urriki-damua, ta laguntzen digu artzen ere. Atozea; ta ez da gure Jaungoikoaren erakuste au erakuste ezin-urrikaltsuagoa? Orra bada zuk zere Jaungoikoari zor diozun erakustea!

Baña ez azkenekoa: bada loietik ateratzen ezezik; erakusten dizu zuri zere Jaungoikoak, nondik bear den artu ere zerua irabazteko; bada bein Predikariz, bein libruz, ta askotan gogargiz agertzen dizkitzu bere Legeko mandamentuak, eta, zuk goiz-arrats, eta egun guzian egin bear dituzun gauzak. Zorioneko umea zu, zuzen bazabiltza, ta bide au galdu bage; ta zuk egitera, ikasten dituzun gauzak! Ala gertatzera, etzara

zu, ez, berriz bekatu larrien loierako; txoil, edo txit urrunduko zera zere Jaunaren kastiguetatik; irabaziko dezu zuk zerua; ta an egoin zara beti, Jaungoikoari, bere urrikarizko erakusteagatik eskerrak eta eskerrak ematen. Ala gerta dedilla, nere Jaun maitagarria: ta, gerta dedin, indazu bidea bezala, biderako bear dudan indarra ta laguntza. Bai arren, bai!

Virtuti brachii tui quis resistet?...

Sed misereris omnium, quia omnia potes.

Sap. 11. 22.

Gure Jaungoikoa baliz, gizatxarren erakoa, gaizki bat egin orduko, galduko luke gaistagillea, naiz lizala den andiena. Bai, dio Eskritura Santak: ez da Jaungoikoak ezin dagikenik; eta nai balu, bidal litzake gaistagiñagana, onek bekatu bat egin orduko, nai adiña artz eta otso, nai adiña leoi, oraingoetatik, edo oraingoak baño ausardi ta irain geiagokoak: bidal litzake, oraingo basurde, ta larretiar izugarriak baño agitz izugarriagoak; baño bidal litzake, aizezkoaren

lekuan, suzko atsa edaten dutenak, sudurretatik kea, ta begietatik sua darienak, eta, bere itsustasunarekin, begiratzen liena illotza utziko lukeenak. Ez du orrenbat bear gure Jaungoikoak, nornal ta munduko guziak illak uzteko; bada guziak daduzka eskutik; eta, utzi ezkeru, illak dira diranak. Ez da, ez, gure Jaungoikoari besoa biurtuko dionik: ez da ez, egin nai duena oni eragotziko dionik: eta alere ez da, bera bezalakorik: bada bere besoa, ta besoko indarrak gure onerako daduzka, ez gu galzeko.

Gaistoak gara gu, dakizun bezala; gaizkitik gaizkira gabiltza aspaldiko denboran: sulezea maiz askitan irabazia dadukagu geren oben-kulpekin: utz gintzake gu gure Jaungoikoak bertatik an ondatuak. Ondatu gaitu? Ez egiazki!, ta, ondatu lekuan, lagundu nai digu geren egitekoetan, ta zeruko bide guzian. Urrikari gaitu alabaña, ta, bide au utzirik, sartzen bagara bekatuen sasian, luzatzen du bere beso altsua, andik ateratzen guri laguntzeko, ta gu geren bidera itzulerazteko. Ori ezezik, prestatua daduka, guk geren biderako bear dugun jan-edana, edo zeruko grazia. Bideratzen garanean gurekin da, bai,

gure Jaungoikoa; ta eskatzen diogun aldi guzietan ematen digu bere eskua, ta bere laguntza. Esku oni ongi itsatsi ezkerro, ez da etrortzerik, ez da, garaitzen ez den pausu gaisto, edo aldapa gogorrik.

Andia da, bai, gure legeko gurutzea; baña andiagoa da gure Jaungoikoaren laguntza ta graziaren indarra. Kezkaz, ta naigabez beteak ekusten gaitueneko, ematen digu guri geren Jaungoikoak atsedeen tokia, ta geren barreneko sosegua: bada sartzen digu geren biotzeraño, ezpadioguk gerok eragozten, bere gogargia, ta ukiera leuna, gure gaizkien damu beroa, zoruan sartu naia, ta Jaungoiko beraganako amorea. Guri geren illuntasunetan, ta egiteko bakoitzean laguntzeko dago gau ta egun, ta beti, gure Jaungoikoa; ta laguntzen digun baño geiago laguntzen ezpadigu, gure naigabez da, ta guk ori ari eskatu faltaz, bada guzia dezakena da gure Jaungoikoa, ta gu eskalle baño, emalle ohea.

Ala da, nere Jaungoiko maitagarria: ala da! Egin ditudan gauzak, zure laguntzari zor diozkadan gauzak dira; ta, egin bage daudenak, eginkizun arkitzen dira, nik egin naigabez; bada, nik

nai izan banu, zurekin batean aisa egin nitza-
keen; zu prest zeunden alabaña, nik eskatu
ezkero, guziak egiten niri laguntzeko. Laguntz au
eskatu gabez, egin ditut nik oraindaño koan egin
ditudan txarkeriak; eta, zuk eskutik iduki ezpa-
ninduzu, egiñen nituen egin ditudanak baño
agitz eta agitz andiagoak ere. Iduki nazazu, utzi
gabe, ill arte guzian, ez dagidan berririk, nere
Jaungoiko maitea; lagun zakizkit egiten, zerua
irabazteko egin bear ditudan nere egiteko
guziak; eta, ariñago noan nere zeru-bidean, ken
zadazu egin ditudan bekatu guzien karga.
Damuzko naiez beterik eskatzen dizut grazi au,
ta, itzez bezala, biotzez erraten dizudala: *Nere
Jesukristo Jauna, etc*

XI.garren OTOITZ-GAIA

NOLA EGITEN DUEN JAUNGOIKOAK GUREKIN, GURE ONERAKO, EGITEN DUENA

Non garan gu, ta nor den gure Jaungoikoa; ta Jaunarekiko gure txarkeriak, eta Jaunari guk zor diozkagun ontarteak ekusi ezkerro, ekusi ditugun bezala, ekusia dago ezin geiagorañokoa dela guk geren Jaungoikoari zor diogun amorea. Ala ere, obeki au ezagutzeko, ekusi bear dugu, nola egiten dizkigun gure Jaungoikoak, egiten dizkigun ontarteak eta faboreak; eta au ekusiko dugu, ekusiz *non arkitzen den, ta zer eran* gure Jaungoikoa, oriek guri egitean; zer *asmoak* diran orduko gure Jaunaren asmoak; eta *zergatik* egiten dizkigun egiten dizkigun onak.

A.

**Gurekin dago beti,
gu diñakoa baizik ezpaliz bezala,
gure Jaungoiko ongille maitagarria**

Ez da gure Jaungoikoa, gu bezala, gorputzarekin arkitzen den gauza. Espiritu uts-utsa da gure Jaungoikoa; ta orregatik sar ditekena da gu, geren gorputzakgatik, ezin sar gaitezken lekuetan, tokietan, ta gauzetan ere: bada gu ezin sar gaitezke, Jaungoikoaren milagrorik bage, zulorik ez duen arri oso, edo aritz batean; ta gure Jaungoikoa sarturik dago arizetan, arrietan, ta arkitzen da edozein gauza txiki ta andi, lasai, estu, zabal, mear, bera, ta gogorren barrenean. Ongi izateko, bear du non-nai gure gorputzak bera diñako tokia; ta bear du toki, beste gauzak beterik arkitzen ez dena: bada oin bat ere ezin ezar dezaket nik, zuk zerea dadukazun tokian. Or nerea nik ezartzeko, lenik kendu bearko dezu zuk ortik zerea.

Gure Jaungoikoak ez du bear bera, beste tokirik, ongi, aisa, ta, nai duen eran egoteko, egondu den bezala joan den eternidadean, edo zerulurrak eta munduko gauzak egiten asi baño lenago denboran, ta sekula guzian; bada orain amar milla urte, ta geroz ere etzen oraindik mundurik, ez eta Jaungoiko bera beste gauzarik ere: ta bera

baizik etzen lenagoko denboran ta eternidade guzian, arkitzen zen gure Jaungoikoa geroko urteetan, ta orain ere, arkitzen den bezain ongi ta aisa.

Baña, berak gero egiñikako leku ta bazterren bearrik ez izanagatik, ongi, ta bear bezala egote-ko, badagoke gure Jaungoiko maitagarria, gauza ta toki edozeinetan; ta, tokiak, bazterrak, eta gauzak egin zituenetik, guzi-guzietan dago. Bai; berak egin zituen, ta dirauten gauza guzietan arkitzen da gure Jaungoiko maitagarria; baita gure baitan ere; ta emen arkitzen da gure anima bere gorputzean bezain barren, ta barrenago ere sartua. Zatirik ez duen espiritu-uts osoa da gure anima; ta, gure gorputzean dagoño, sartua dago gure ezur muñetan, ta gure gorputzaren gauza ta leku guzietan. Nola uste dezu? Oso-oso.

Bai; zure anima guzia dago zure buruan; guzia dago edozein zure eskutan, guzia zure oñetan, ta guzi-guzia zure oñ-eskuetan, buru-besoan, ta zure gorputzeko gauzen zatirik txikien-txikienean ere. Luzatzen ta zabalzen da zure anima, zure gorkutza luzatzen ta zabaltzen

denean; ta zure gorputza noizbait meartzen, edo laburtzen bada, au bertan biltzen da zure anima ere; ta arkitzen da beti zure anima, zure gorputzak adiña toki baizik ez duela. Orra gure animaren gorputzeko egoera: ta orra urrutitik, eta gaizki badere, Jaungoikoaren guregango, ta gañerako gauzetan, duen egoera adirazten duen egoera bat.

Bai; gure Jaungoikoak mundu guziaren anima dirudi; bada gure animak gure gorputza bezain ongi, ta agitz obekiago ere, betetzen ditu mundu guzia ta munduko gauza guziak. Ez da, ez, zeruaren gañetik lurraren ondoraño guzian gauzarik bat ere; ez da itsaso guzian, ez da iturrietan, ez da ibaietan, ez da nion ere ur-tantarik; ez eta den pits txikienik ere, bere izate andiarekin Jaungoikoak betetzen ez duenik; bada ez du uzten bat ere, naiz dela den txarrena, den txikiena, ta den itsusia beregana artu, ta bere izatez ezin-geiagoraño bete gabe.

Gauza arrigarria! Ekusi degun diñakoa, ekusi degun bezain andia izaki, edo ezin andiagoa gure Jaungoiko maitagarria; ta ala ere Jaungoiko, den guzi-guzia, nere animan den guzi-guzia nere

gorputzean; ta dena, den bezala, ta deus ere gelditu bage, nere biotzaren erdi-erdian! Jaungoiko guzia, bai: Aita, Semea, ta Espiritu Santua emen nere gorputz txar onetan, nere anima onetan! nere biotzean! ta emen nerekin Jaungoiko, den guzia, bestetan arkitzen ezpaliz bezain osoro! ta au guzia deusez bat baliz bezala, Jaungoiko guzi-guzia nere buruan, nere eskuan, ezurzañetan, ta nere gorputzeko zatirik txikienean; ta, den guzia nere zati, edo gauz orietatik edozeinetan, besteetatik batean ere arkitzen ezpaliz bezain osoa! da alabaña gure Jaungoikoa zatirik bagekoa; ta, non nai arki dedilla, egon bear du oso-osoa, ta den guzia.

Ez dezu ekusten zein aldean dadukazun zuk zere Jaungoikoa? Ez dezu ekusten, zere aldean ezezik, zeregan edo zere baitan dadukazula zuk zere Jaungoiko guzia? Ez dezu ekusten guzi-guzia dadukazula zere animan, ta guzi-guzia edozein zure gorputzeko puskan, ta zatitan? Zu, ta Jaungoikoa biok bat ez izatera, ezin dakoke zure Jaungoikoa, dagoen baño zure alderago: ta orrela dago, alderagotik zuri ontarteak eta fabore andiak egin naiez.

A, nere Jaungoiko ongille maitagarriai Galdu ez nadin ni, ta niri bertatik lagundu naiez, nerekin zu! nere animan zu! nere gorputzean zu! nere biotz txar onen erdi-erdian zu beti, ta beti! ta denbora berean (dakizun bezala) zure igesi ni! bekaturen ondoren ni! ta etsaien atzaparretan ni! Non nuen nik oraindañokoan nere burua? Non adimentua? Adimenturik ez duen baten eran, edo bururik gabeko bat bezala, bizitu naz ni oraindañoko nere denboran! Ai nere Jesus maittea! Orretaz dut damu, ta ziñez alere! Ez al naz berriz sartuko ni era bereko erakerietan! Ez nuke nai beintzat, nere Jaungoiko maitagarria! Nik orain, ta beti, ta gero nai nukena da, zu nere biotzean bezain barren, ni zure gogoan, edo amorean sarturik bizitzea!

Oraingo nere nai on au nik ez galzera, ez dut bekatu berririk egiñen, ez, bizi nazaño; ta lenik eginak daduzkadanak zuk niri barkatu ezkeru, zurea izain naz ni, nazan guzia. Ni zurea naz izatez, dakizun bezala; ta, ongi izateko, zurea bear dut izan alde guzietara. Jabetu zaitetz bada nere biotzaz, nere animaz, ta nazan guzi-guziaz, biotz nerean, nere animan, ta ditudan nere zati guzie-

tan sarturik arkitzen zaran Aita, Semea, ta Espiritu Santu, nere Jaun andia: bai arren, bai!

B.
Gurekin dagoen
gure Jaunaren asmoak
gure onerako asmoak dira

Gure Jaun andiak etzuen toki bearrik, ekusi dugun bezala, nolana, ongi, ta aisa beti bizitzeko. Berak ala nai izanik, egin izandu ginduen garan guziok. Beregan artuak gaduzka egin ginduetik; eta gurekin arkitzen da bera guri ongi naiez, ta guri alderagotik begiratzeagatik; eta begiratzen digu, animak gorputzari baño agitz zuzenago, ta ezinobeki. Anima berandu asten da gure gorputza zaitzen; asten da alabaña, gorputzduna adiñetan sartu ezker; ta gure Jaungoikoak zaitzen gaitu gu, egiten galtuen puntutik. Bere egitekoak egiñen baditu gure animak, bear du, gorputzean dagoño, gorputz beraren laguntza ta eskua, ta alere ez du zaitzen bear bezala, beti beintzat, gure animak bere gorputza. Gure

Jaungoikoak ez du deus-etako ere gure bearrik; eta, gure bear baliz bezain ongi ta kontuz gau ta egun, ta beti zaitzen gaitu gu geren Jaungoikoak. Naiagatik, ez daki askotan animak zer egin, gorputza sendatzeko, edo, eritzen zaionean, gal ez dezan duen osasuna: ta zenbait aldiz, jakiñagatik, ez du egin nai orretarako egin bear lukena. Ezin-jakintsuago da gure Jaungoikoa. Badaki gure onerako ta gaitzerako den guzia: ta, izandu ezpada zeinbait aldiz, izandu den baño obea gure osasuna, gure kulpaz izandu da ori, edo gure onerako; bada onetarako ematen dizkigu guri geren Jaungoikoak, ematen dizkigun gauzak, naiz leunak izan, ta naiz latzak; jakintsua bezain ona da alabaña gure Jaungoikoa, ta, guri dagokigun eran, bere gauzak egiten dituen. Au onela dala, den bezala, ez da anitz gu geren Jaungoikoak zaitzea, animak bere gorputza zaitzen duen baño obeki, ta obekiago ere.

Obeki au zuk ezagutzeko, jakin bear dezu, Eskritura Santak dion gauza bat: *Eguzkiaren argia baño argiagoak dira* (dio Eskriturak) *Jaungokoaren begiak; eta ekusten daude beti begi oriek gure bideak, eta itsasoaten osiñak*. Bai:

bertatik ekusten ditu gure Jaungoikoak, non-nai arkitzen diran gauzak, eta edozein bazterretan gertatzen den guzia; arkitzen da alabaña gauza, ta bazter guzietan; ta begira dago beti-beti gauza bakoitzera, ura baizik ezpaliz bezala; ta ez da, gure Jaungoikoaren ekuste garbia eragoz dezaken illunberik.

Ganaz bada, ta egunaz, beti ta beti begira dagokie zure Jaungoikoa zure gorputzari, zure animari, zure eskuari, zure oñari, zure biotzari, ta zuri, zaran guzi-guziari. Ekusten du zure Jaungoikoak gaitzerako zure makurtasuna; ta ekusten du, zere bide-txarrak berak galerazten ezpadizkitzu, bilduko dituzula zuk keñada zikiñak, gogoeta loiak, asmo lizunak, eta bear ez diran lanak, obenak, azturak, eta gaizkiak.

Zure gaizkiak bezala, ekusten ditu Jaungoiko berak zuk egin ditzaketzula, nai badezu, gauz onak eta irabaziak ere. Guziei zure Jaungoikoak begiratzen die, zure gaizkiak eragotzi naiez, ta on anitz zuri eragiteañatik. Orretarako sasoiaren, ta orduaren begira dago zure Jaungoikoa, begiak bein ere zugandik kentzen ez dituela. Ala dio berak; bada dio: begietatik, eta gogotik utz

dezake amak besoetako bere umetxoa, baga nik etzaitut utziko zu bein ere nere gogotik eta begietatik.

Bai, beti ta beti dago gure Jaungoikoa guri begira, ta beti dago gure ona zaitzen bezala. Guk geren esker gabez, edo ekarkeriekin, aragozten ez diogunetan, zuzentzen ditu gauza guziak gure ongira, ta gure doakundera. Au da oraindañokotan guk ekusi duguna, edo, oartu bagiña, ekusiko genuena, ta orain ere ekusi dezakeguna. Begira zazu, siñesten ezpadezu nik orain adirazten dizudana, begira zazu gertatu zaizkitzun gauzetara; ta ekusiko dezu zer erraten dizun zure Jaungoiko maitagarriak zere biotzean; bada errain dizu: *Atozea*: ta zenbat aldiz adirazi dizut nik egin ditzatzula gauz au, ta ura, edo besteren batzuek? Baña zuk ez-aditu egiten zenuen, askotan beintzat: eta ala ere ez ditut nik zugandik kendu bein ere nere begiak. *Nik* nai nena, ta zuri zegokizuna, zen zuk bere orduetan egin bear zenuena: baña zu, ori egiteko iratzarriaka erne egon bearrean, egondu zara geienetan, edo anitz aldiz beintzat, lo ta lo zere bekatu galgarrrien oatze gaistoan: ta, au bertan nik, zuri bizia

kendu-lekuan, eman izandu diozkat kroskadak, eta kroskadak, zure biotz txarrari; ta kroskada oriek ematen niozkan, esna zindezen lenbaitlen; ta, iratzartzen zu, edo konturatzen asi orduko, zuri sartu naiez nenbillen ni sulezeko nekeen beldurra, ta zeruko atsegin-kontentuen gogo: gogo onek, eta zerua galtzeko beldurrak atera zintzaten zu zere oatze loi gaisto galgarri orretatik. *Alere* etziñan zu ortik ateratzen; edo, atera ondoan, itzultzen ziñan berriz, ta berriz, ta askotan ere ara bertara, ta zere bekatuen lo gaistora; ta orregatik ere etzaitut kendu izandu nik nere gogotik; ez eta nere begietatik ere: zure barreanean arkitzen nintzan beti; ta beti nengoen ni zuri begira-begira, noiz konturatzen ziñanean, ondu-bidean zu sarrerazi-naiez.

Orretarako eman izandu nizun (dio oraindik ere zure Jaungoikoak), dezun anima, dezun gorputza, ta dezun izate guzia. *Onetarako* nik oraindañokoan iduki zaitut, eta orai ere zaduzkat, bizirik. Nik ezpazindut egin zu, etzinan bizitzen asiko sekulan; ta, uzten bazindut, orain bertan bertan illen ziñake; ta, ill ezezik, izandu ezpalira baño geiago ez lirake geroz ageriko zure gorpu-

tza ta anima: bada biak, sua ke-aizetan bezala, ezer-ezean geldituko lirake. *Egin dituzun txarke-rien ondoan, bizi bazara, niri eskerrak; bada bizi zara, zeren zurekin nagoen, ta, eskutik bezala, dadukadan bein eman nizun zere bizi ori. Zabitzeanean, nerekin zabilta, ta zeren nik, eskutik bezala, zaramatzidan, bada batela bertan illotza eroriko ziñake. Egiten dituzun gauza guzietan ari zara zu, zeren zurekin nagoen ni; zeren nerekin zaduzkadan zu, ta zeren nik zuri kentzen ez dizkitzudan, bein eman nizkitzun izatea, bizia, ta indarrak. Oriek zure onera zuzendu naiez nago beti zurekin ni; ta nago, zu zuzentzeko sasoi on baten begira. Orra Jainkoak ixil-ixiltxorik zure barren orretan diona.*

Ez dezu ekusten zein erne dagoen, ta zein ona den zerekin dadukazun zure Jaungoiko mai-tagarria? Oartu zara bein ere zu, betiko Jaungoikoaren zure zaitze, zure onari begiratze onetara? Ez dut uste; bada, oartu ezkerro, etzen erraz Jaun onekiko izatea zu, izandu zaran bezain eskergabe gaistoa! Badezu nonbait zuk zere Jaungoko idukitzalle, erne, onari adiña zor diozunik? Badezu, au baño bearrago dezun gauzarik? Eta alere

gabak eta egunak, asteak eta illak, urteak eta urteak doazkitzu, zere Jaungoikoari zor diozun betiko begiratze onez ta ontasunaz oroitu ere gabe? Edo burutik irauzia zaude, edo arrizko biotza dezu, edo ez dakit, zer dezun zuk! Ekusi zazu zuk zerorrek; eta, gaistoak utzirik, artu zazu ongien dagokizun bideren bat. Orretarako da, zaduzkatzen bezala, zere Jaungoikoak zu bere eskutik idukitzea, ta, begiratzen dion bezala, zure onari begiratzea; baita ematen dizkitzun indar berriak ematea ere.

C.
Gure onagatik da
gure Jaungoikoak
gurekin egiten duen guzia

Bai: izatez, ta begiratzez bezala, esku ta indarrak eman ez ere, zurekin da beti zure Jaungoikoa; ta zure onerako da Jaungoikoak zurekin egiten duna. Jaungoikoak egin ezpazindu, ezer-ezean egoin zihan egun, ta eternidade guzian ere, ta orobat gertatuko zen, utzi bazindu zu

egin ondoan, edo edozein orduz ta denboraz. Badaranzu oraindik, eta bizi zara zu, zeren zere Jaungoikoak zaduzkan bere eskutik, iutzi gabe. Zertako egin ote ginduen zu ta ni, biok, gure Jaungoiko maitagarriak? Zertako ote gaduzka gu Jaungoiko berak bizirik gaur? Anitz gauz on egiten ditugula, zerua irabazteko. Gauz oriek ezin ote genegizke geren indar utsekin? Ez. Nork emain digu bada, orretarako falta zaikun, indar-eskua? Bere barreanean, ta eskutik gaduzkanak, edo gurekin arkitzen den gure Jaungoikoak. Bai: guri, bear ditugun indarrak emateko, ta, egin bear duguna guri eragin naiez, arkitzen dugurekin gure Jaungoikoa: ta arkitzen da gurekin, gure anima gure gorputzaren baño, gure on agitz andiagorako.

Gorputzak deus-bat ezin dagike, ezpada animarekin batean; ta, animak gorputza iutzi ezkerro, lurrean datza gorputza; ta lurrean datza, datzan lekutik, arri bat baño geiago igitzen ez dela. Geroz badoazke gorputzagana zakurrak; baita arranoak ere, nai dioten guzia egitera; bada oriek ari bere tripako esteak, bere gibela, bere biotza ta begiak ateratzen ariagatik, ez die,

ez, gorputzak eskurik goratuko; ez eta keñatuko ere; ta, zernai oriek ari egiñagatik, ixill-ixill egoin da; ta, txoriaren oinpean dagoen aitzia edo zura baño geiago igitzen ez dala. Egiñen badu zerbait gure gorputzak, bear du bere anima ta animaren laguntza: ta onekin batean egiten ditu egiten dituen gauzak.

Au guzia zor dio zure gorputzak zure animari. Zor andia dela deritzazu? Bada agitz andiago da zuk zere Jaungoikoari diozun zorra. Bai, agitz andiagoa; bada zuk zere anima zere gorputzean idukiagatik, ezin dagikezu keñu bat ere, edo den gauzarik txikiena, orretan Jaungoikoak ez-laguntzera zure gorputz-anime. Berebat gertatuko litzaioke, bakarrik egonagatik, zure animari; bada, animarik gabeko gorputza bezain geldi egoin lizake orduan zure anima, Jaungoikoak laguntzen ezpalio bere gauzak egiten; ta, animak egiten duen guzia, bere gorputzean arkitzen den denboran, ta gero gorputz au ill ondolan, egiten du, ez bakarrik, baizik bere Jaungoikoarekin batean.

Jaungoikoak laguntzen ezpalizu, ez luke maitatzerik zure biotzak, ez luke ezaguerarik zure

adimentuak; ez eta oroitzapenik ere zure gogoak. Dituzun oroitzapenak, ezaguerak, eta maitatze guziak, zere Jaungoiko onak laguntzen dizula, egiñak dira. Oroitzen bazara noizbait aditu zenituen gauzez; ezagutzen badituzu len ekusirikako gauzak, eta gauzak maitatzen badituzu, egitan dezu zuk au guzia, zere Jaungoikoak emanikako indarrarekin, ta berak laguntzen dizula.

Zerbait ekusiko badute zure begiak, bear dute zure Jaunak emanikako indarra ta laguntza. Jaunaren indar au ta laguntza bage, ez dezu adituko itzik, ez dezu adituko otsik; ez eta soñurik ere. Jaun berak laguntzen ezpadie, ez dute artuko zure sudurrak loreen usairik, edo bertze urriñik; ez dute ortzak txikituko jatekorik; eta ukituko ez dute zure eskuak, munduan diran, gauzetatik bat ere. Guzirako bear dezu zuk zere Jaungoikoaren laguntza ta indarra; ta, indar au dator-kizun artean, ura aitu zaion errota bezala, geldigeldirik egoin zara.

Bear dezu, Jaungoikoaren indar au ta laguntza, asnasea artzeko, lo egiteko, ta oarturik eta oartu gabe egiten dezun gauza bakoitzerako. Amets bat ere izain etzenuke zuk, zere Jaungoi-

koak laguntzen ez liola, lotan nastua dabillen zure buruari. Ez lizake zure barrenean janaria bein odol, ta gero ezur-zain, aragi, printz, larru, ezkazal, edo ille egiñen, zurekin batean ari ezpaz, onetan ere, zure Jaungoikoa.

Au guzia deusez bat dela deritzat nik, orain erran nai dizudan gauza baten aldean. Orainda-ñokoan ekusi ditugun, ta, zuk egiten dituzun gauz onetan ezezik, gaistoetan ere bear dezu zuk zere Jaungoikoak emanikako bizia, ta indarra; bada au bage, ezin dagikezu bekatu bat ere. Ez die Jaungoikoak gaistoei kentzen indar au, ta bizitza, gauza gaistoren bat egin nai dutenean: lendabizitik egin ginduen gu geren eskukoak, nai dugula, irabaz dezagun geren zerua; ta ez da bere eskukoa, nai duena egiteko, bear duen indarrik bage arkitzen den gizona.

Ez luke nai gure Jaungoiko maiteak, ez, egin zenezan zuk bekatu bat ere: baña, egin bear dituzun gauz onak utzi, ta gaistoetara makurtzen bazara, gogoaren kontra badere, ta, bide onean zu idukitzeko egin bear duen guzia egin ondoan, uzten dizu gauz onetarako eman zizun indarraz gaizki, ta beraren kontra, zu baliatzea.

Idikitzatzu noizbait zere begiak, eta ekusi zazu zere Jaungoikoari alde onetatik ere zor diozuna! Aingeruei, gizonei, ta gañerako gauza guziei laguñtzen die Jaungoikoak beren egiteko andi ta txiki guzietan; ta, zu baizik munduan ezpaliz bezain astiz ta kontuz, laguntzen dizu zuri zereetan. Guziak, nai luke gure Jaungoikoak izan litezen onak, eta zeruan irabazleak; baña egiten dituzunak egin ditzatzun biotzez, ta nai dezula, ez dizu bortxaz eragiten bat ere.

Adirazten dizu, ongi dagokizuna; adirazten dizu aldioro zer ta nola egin bear zeunken. Alde orretara zuzentzen zaitu biotza ukituz, bidea erakutsiz, ta uts-bideetarako beldurraz ere gogoan sartzen dizula; ta onerako naikunde bat zuk agertzen asi orduko, ematen dizu bertan, ta gogoz alere, ara egiteko bear dezun indarra ta laguntza. Au egin orduko, ta puntuoro ekusiagatik zu zure Jaungoikoak naikunde on berriarekin, ez dizu ukatuko guzi-guzirako bear dezun indarra ta laguntza: au bertan emain dizu, bai; ta ori eman ondoan, arkituko dezu zuk zere Jaungoikoa, grazia ta laguntza berriak eta berriak eman naiez betea. Nekatzen ez diranak dira Jaungoiko-

aren indarrak; ezin-emalleagoa da gure Jaungoikoa; ta ematen digun baño geiago ematen ezpadigu, izaten da guk eskatu gabez, ta zeren gure txarkeriak eragozten dioten ematea.

Arkitzen balu diruzaleak, nai duen guzirako, gure Jauna bezalako indar-emalle ta lagun on bat, aisa aski ta laster aberastuko litzake: bada emallearen indarrekin aterako lituke lurpeko urre-zillar, ta diamanteak; baita itsasoan ondatuak dautzan ondasunak ere, au azitzen diran perla guziekin batean; ta, oriek bildu ezker, Españako, Franziako, ta munduko errege, enperadore, ta gañerako gizon aberats guziak baño aberatsago izain lizake diru-zalea.

Ez da munduan orrelako indar-emallerik, eta bere indar-laguntzak artzalleren onerako, besterik bage, ematen dakienik. Ez da, gure Jaungoikoa baizik, bear den guzirako indarrak orrela ematen dakienik. Munduko ontasun guziak baño geiago balio du *Abe Maria* bat ongi errateak. Goizetik arraseraño erran ditezke, dakizun adiña; edo, orien lekuan, egin ditezke oriek adiña, ta agitz geiago, balio duten bertze anitz gauza. Egunaz bezala, gabaz ere ari zaitezke gauz onak

eta onak egiten. Orretan ari nai badezu gau ta egun, ta beti, zere ill-arte guzian, emain dizu zure Jaungoikoak, eta pozik alere, guzi-guziak egiteko bear dezun guzia: ta, zeruko zure doakunderako bear baliz, lurpeko, itsasoko, ta bazter guzietako ondasunak biltzea, oriek bildunaiarekin Jaungoikoak zu ekusi ezkeru, emain likezu, orretarako bearko zenuen indarra ta laguntza; ta emain likezu zure onerako, bada ez du Jaungoikoak zure gauzen bearrrik bat ere.

Orra zertako dagoen zurekin zure Jaungoikoa: egiten dituzun zere gauza guzietan zuri laguntzeko dago, naiz txarrak izan ditezela, ta naiz andiak. Ez luke nai zure Jaungoikoak, egin zenitzan zuk, onak baizik. Egiten du egin bear duen guzia, gaistoak eragozteagatik; baña adirazten dizunari belarriak itsirik, sartzen bazara zu zere gauza gaistoetan, etzaitu uzten zu bakkarrrik; ez: zurekin da orduan ere zure Jaungoikoa, ta eskutik zaduzka, ta laguntzen dizu, eroturik dabillen semeari amak bezala, edo damu ta neke andiarekin Profetak dionaz: ta ala ere denbora berean, edo laster, ematen dizkitzu gaizki egiñaren damua, biotzaren illuntasuna, ta bere gogar-

gia edo inspirazionea, ezaguturik zere erakeriak eta galbidea, itzuli zaitezzen gauz onetara; ta orietako bear dituzun indarrak eman naiez-ta-naiez dago zure Jaungoiko maitea.

Nai onek daduka Jaungoikoa zure biotzean, zure animan, ta zure ezur-zain ta zatirik txikienan. Nai onek daduka alerta, erne, ta beti zuri ongi au, ta beste anitz gauz on eragiteko, aldi onak eta sasoa galtzeko beldurrez bezala. Ondasun-zaleak ez dio bere aberasteari, Jaungoikoak zuri adiña, begiratzen. Lo datzanean, ta beste zenbait aldiz uzten ditu ark, begietatik ezezik, gogotik ere diruak, gauzak, ondasunak eta aberats-kontuak: baña Jaungoikoak ez du loorik, ez du begiak zugandik kentzeko ordurik: beti dagokizu begira, beti zaduzka eskuik; eta beti dago, nondik arreraziko dizkitzun zere gauzetarako bear dezun indar sendoa ta lagunza.

Zorionekoak gu, ta doatsuak, gure Jaungoikoak guri bezala, guk begiratzen badiogu geren Jaungoikoa guk ziñez ez maitatzea, ekusi ezker, nola dagoen gurekin gure Jaungoikoa; zein ongi begiratzen digun guri geren Jaungoikoari, bada ez da erraz gure Jaungoikoa guk ziñez ez maita-

tzea, ekusi ezkerro nola dagoen gurekin gure Jaungoikoa, zein ongi begiratzan digun guri guren Jaungoikoak; eta gurekin gure Jaungoikoak egiten duena: ez eta, egin bear ditugun gure gauza guziak ere zuzen ez egitea, Jaungoiko berak gure onerako eman nai dizkigun indar, ta laguntzarekin batean.

Indarrez, ta ondasunez ni betetzeko, prest zauden nere Jaungoiko maitagarria, noiz artean izan bear ote dut nik, eroa baño eroagoa? Eroak pozik artzen ditu ongi dagozkan gauzak, gauza dagozkanak eskeintzen zaizkanean; ta ez ditut nik artu nai, zuk eskeintzen dizkidatzun ta ongien-ongien dagozkidanak: bada urtean, illean, astean, ta egunoro; ta, egunean anitz aldiz ere, uzten ditut nik, eman nai dizkidatzun indarrak; eta, emen, ta bertze munduan animak bearren dituen gauzak. Ez da au, ni eroa baño eroagoa izatea?

Ala da, nere Jaungoiko maitagarria; ezin uka dezaket au nik! Baña ez da izain, ez, orobat emendik aitzina, ta datorren denboran. Nik utziko ditut emendik aurrera oraindanoan itsutu edo liluratu nauten nere erakeriak. Nik artuko

ditut, bai; ta bat ere galdu bage, zuk eman nai dizkidatzun indarrak, laguntzak, eta ondasun guziak. Ez ditut, ez, nik zugandik kenduko nere begiak, oraindañokoan kendu izandu ditudan bezain aise. Ezaguturik biziko naz gaurgero nere egunetan, nerekin zaitudala zu, ta zureak dirala nere izatea, nere bizia, ta gañerako nik ditudan nere gauza guziak. Noizean bein badere sartuko naz ni, naiez ta gogoz, nere biotzean, an zuri agur humillak egitera: sartuko naz, bai, au zuri zor dizudanaren alde, al ditudan eskerrak ematera; bear dudana, ta zuganako amore andi bat, zuri eskatzera, emen bertatik egiten asitzeko, zure zeruan beti egin gogo dudana. Indazu nere asmo on onetan ill arte guzian irauteko grazia; bai arren, bai!

Domine Deus virtutum, quis similis tibi?

Ps. 88. 9.

Jauna! ta non arkituko dugu guk, zu bezalakorik? Zuk egiñak dira ifarra, ta beste aizeak, zuk eginak itsasoak, eta zuk egiñak munduan arki-

tzen diran gauza guziak. Guziak dira zureak. Zureak dira lurreko toki, ta bazter guziak; zureak dira zeruak; eta zurea da azken-zeruko Tronua, edo egontokia. Baña zer egontokia, ta nolako Tronua! Eguzkia, ta illargia, ta izar guziak baño milla bider ederragoa. Au guzia dezula, ezer ez duen, ta non egon ez dakien errumes bat baziña bezala zaude nere biotz txar onetan! ta emen zaude, gau ta egun, ta beti! Aski litzake, ni amorez txoil urtua edo ni bertan zoraturik uzteko, zure ontart andi au guti bat ezagutzea. Egin didazun ere ez nekiena bezala, bizitu naz ni oraindañokoan; ta, zure barrenean nengoela, ta zu nere biotzean arkitzen ziñala, oroitu ere gabe! Orregatik bizitu naz ni, bizitu nazan gisan ta eran. Ez berriz, nere Jaungoiko maitea, ez onelako dongekeririk! Ni biziko naz ni, nere Jaun on maitagarria, zu gogoan zaitudala, ta zu bein ere nere bistatik utzi gabe. Nik egin uste ditut gaurgero nere gauzak zure gogora, edo alik ongiena. Indazu arren orretarako bear dudana: bai, Jaun andi on-ongillea, obrari!

*Quis tibi imputabit, si perierint nationes,
quas tu fecisti? non enim est alius Deus
quam tu, cui cura est de omnibus.*

Sap. 12. 12.

Gal ditezke, nere Jaungoiko maitea, bai, gal ditezke, zuk egin zenituen gizonak eta bazterrak: baña ez dira galduko, ez, zeren zu izandu zaran orien galtzallea. Ez da alabaña nion arkitzen zu bezalakorik, edo, zuk bezala, gauza guziak zaitzen dituenik. Bai, nere Jaungoiko maitea, bai; egin ninduzunetik orain artean ez dituzu zuk bein ere nigandik kendu zere begiak, eta asmo zuzenak! Zure begiratze onari zor diot nik, egin ditudanak baño bekatu geiago oraindano guzian ez egitea; bada, zuk zuzendu ezpaninduzu, makur ibilliko nintzan beti, ta bekatuz bekatu! Noiz ezagutu bear ote dut zuri nik onetan, ta gañerako gauza guzietan zor dizudana? Noiz begiratuko ote dizut nik zuri, zuk niri bezala? edo noiz geldituko ote naz ni bizitz on batean, ta nere gauza guziak zugana zuzentzeko, ta zure gogara egiteko asmoan? Izan bedi bertatik, nere Jaungoiko maitagarria.

Ai! au gertatzen baliz, orain diodan bezala! A!
zein doatsua ni ordutik, eta zein zorionekoa!
Nork niri eragotziko dit doakunde ta zorion au,
nik nai izatera? Sulezeko nere etsai galga-
rriak? Onen lagun mundu eroak? nere aragi loi
berotuak? Ez eta, nik nai badut, irurak elkar
artuagatik ere; bada zurekin batean, irurak eze-
zik, irureun balira ere, aisa garai ditzaket nik
zurekin batean, nere lagun on Jaungoiko maitea.
Garaitu naiez nago, ta orretarako nere aldetik
egin bear den guzia egiteko asmoan. Zuk emana
da, bai, oraingo nere asmo au ere, nere Jaungoi-
ko maitea: lagun zakizkit bada, gal ez dezadan,
len galdu ditudanen eran: edo lagun zakizkit, au
galerazi nai didaten nere etsaiak garaitzen: ta
bidenabar zai nazazu oraindaño bezala; ta adira-
zi zadazu bere aldietan, nik egin bear dudan
guzia.

Bai arren, bizirik nadukazun nere zuzentzalle
on-maitagarria: bai!

In ipso onim vivimus, et movemur, et sumus.

Act. Apost. 27. 28.

A nere Jaungoiko andi on maitagarria! bekatuan negoen guzietan (eta ez ote nago orain ere?), ni nintzan zure begietan, munduan den gauzarik itsusiena; ni nintzan zure etsairik andiena; ta alere nerekin ziñan zu! nere animan ziñan zu! nere gorputzean ziñan zu! baita nere biotz ustel gaistoan ere; ta emen arkitzen ziñan zu, beste gauzetan edo tokitan arkitzen ezpaziña bezala; ta emen arkitzen ziñan, ta arkitzen zara, zaran guzi-guzia. Au zer da, nere Jaun andia? Etsaien igesi dabilta gizonak; eta zu zere etsairik andienaren barren-barrenean sartua? Zertan zaude, ta zertako emen, nere biotz txar onetan; edo zer billatzen dezu emen, nere animan?

Zer billatuko du, geiegi nai digun gure Jaungoiko maitagarriak, ezpada gure ona ta ondasuna? Gure biotzean dago gure Jaungoiko maitagarria, ta gure animan dago: ta bietan dago, gure onerako diran naikundeak guri gogoan sartzen dizkigula; ta denbora berean dago, sasoiaren begira bezala, guri ontzen laguntzeko, gauza bakoitzerako bear ditugun indar guziak guri emateko; ta, egiten ditugun gauz onakgatik

zeruko ondasunez beteak gu iuzteko. Zorionekoak, sasoi naigarri onetaratzten bagara gu! Ez du, ez, galduko sasoi au geiegi nai digun gure Jaungoiko andiak, guk gerok galerazten ezpadiogu: erne dago alabaña; nai duena dagikena da; guk bear ditugun indarrak eman ditzakena da; ta bere jakiunde, ta indar guziarekin guk artu-aldiña ongi egin naiez dagoena da. Ongi eroak gara gu, onelako sasoietatik bat ere galerazten badiogu geren Jaungoiko ezin-ongilleagoari!

Ez arren, nere biotzean arkitzen zaran nere Jaun andiai orrenbat oraindaño koan zor dizudan ezkerro, ez nazazula erortzen iutzi, erakeri onen galgarrian! Indazu, gaurgero zutaz maiz, ta bear den eran, oroitzeko grazia. Indazu nere onerako nai andi indartsu bero bat; eta lagun zakizkit, ongi ta zuzen egiten, orretarako diran nere gauza guziak; eta indazu bidenabar, oraindaño koan ori egin ez dudalako damu ta urriki ziñezko bat. Urriki-damu, ta zure laguntz onen eskean nator, itzez ta biotzez erraten dudala: *Nere Jesu-kristo, etc.*

BIGARREN LIBRUA

JAUNGOIKOAREN GIZON EGITEA, TA AUR-DENBORA

Nolerebait ekusi dugu, batetik geren txarkeri galdua, ta bestetik gure Jaunaren betiko izate ezin-andiago eder betea; ta alere Jaun berari guk zor diogun ongi naia, ta amore bazterrik bagekoa. Orain, au obeki ekusteko, ekusi bear ditugu, Jaungoiko berak, gure onerako gizon egin zenetik, egin dizkigun zenbait gauza ta ontarte, ta lenbiziko lekuan, edo oraingo bigarren Libru ontan, Jesusen gizon-egitea; ta, gizon egin zenetik ogeita amar urtetarañoko denboran gugatik egin izandu zuena. Asi gaitezen *gizon-egitetik*; eta ekus dezagun *zertarako zen gure Jaunaren gizon egitea*.

XII.garren OTOITZ-GAIA ADANEN UTSAK ATERATZEAGATIK, EGIN ZEN GIZON GURE JAUNGOIKO MAITAGARRIA

Adanek bere gaizkiarekin, edo Jaunaren Legean egin zuen uts arrigarriarekin, galdu zuen bere on anitzen artean beretzat, eta geretako, guziok (zerurako bagara) bear dugun Jaunaren grazia, ta adiskidetasuna: ta Adanen uts au ateratzeagatik, edo guretzat irabazteko argatik guk galdu genuen grazia, ta graziak dakarren eskua ta deretxa, egin zen gizon Jaungoiko-Semea, ta gizon egin zenetik ill arte guzian egin zuen libru onetan ta urrengoetan adiraziko duguna. Bera lan onetan Jesusi zor diogun amorea ezagutzen asteko, asiko gara Adanen bekatutik; eta otoitz-gai ontan ekusiko dugu *Adani bere bekatuagatik gertaturikako nekea*.

A.

Anitz da bere bekatuagatik Adanek galdua

Ill bage bizi bearrak ziran gure guraso Adan ta Eba, Adan-Ebak egin ezpaliote beren Jaungoikoari, egin zioten txarkeria. Egin zuen gure Jaungoikoak Adan, egin zuen Eba, ta biak egin zituen bere zerurako. Egin orduko eman zien biei, lurrean bizi-ziraño aisa ta ongi bizitzeko bear zutena; bada eman zien lurreko paradisua, ta zeruko inozenzia, justizia orijinala ta grazia. Bazuten Paradisuan (ta doarik alere) Adanek eta Ebak jateko, edateko, ta gauza guzietarako nai adiña, baita anitz eta anitz geiago ere. Etzuten orduan gaitzerako makurtasunik bat ere; eta gauz onak aisa egin zitzaken beren inozenzian, ta zuten graziarekin batean. Egiten bazituzten zenbait denboraz, eramain zituen beren egille Jaungoiko berak emengo paradisutik zeruko paradisura, ta eramain zituen erioaren ortzetara gabe; ta emain zien an eternidade guziko atsegin-kontentua, ta sekulako gloria. Orobat gertatuko zekien bien ondorengoei, ondorengoak ere,

biak bezala, ongi bizitzen baziran beren aldartorduraño; ta kontatuak izain ziran ondorengo artean, gaitzera makurtuko ziranak, Eba ta Adan ongi bizitzera.

Orra lendabizitik guk geren Jaungoikoari zor diogun ontarte ta fabore arrigarria. Zorionekoak gu, lendabiziko gure gurasoak ain aisa, ta añ ezer-ezagatik galdu ezpaligute! Oriek ori guri galdu arren, dugu, zerua irabazteko geroz guk daramagun neke ta pena guzia: ta on alaere irabazten badugu azkenean, geren neke ta pena guziekin badere!

Emen bizi zeño, etzuen jan bear Adanek Jau-nak berezi zion arbola baten frutatik (onaren ta gaitzaren jakiundeko arbola zen, arbola debekatuaren izena). Onetatik jaten baduk, erran zion lendabizitik gure Jaungoikoak Adani, galduko duk, nik nere naiez eman diedan grazia ta ino-zenzia; galduko duk, ere graziak iri ematen dien zerurako eskua ta deretxa, galduko duk ik ere bizitza, ta ill bearko duk ere ume ta ondorengo guziekin; ta (Jesus, ta bere Ama ez) beste guziak egoin dituk, bizitzen asi orduko, ire bekatuaren loiean itsustuak eta galdu-zikinduak; eta, ik ori

ez egitera, jaiko dituk oriek inozentian, ta graziaz beteak. Begirok bada zer egiten duen. Itz bian adirazi zion gure Jaungoikoak Adani au guzia; baita anitz geiago ta geiago ere.

Nork etzuen usteko, Jaungoikoaren meatxu onek beldurtuko zuela Adan; kenduko ziola arbola debekatuagana urbiltzeko gogoia; ta etzuela aren frutarik probatuko mundu guziagatik ere? Baña zer gertatu zen? Gauz arrigarri bat! Meatxu au aditu ta laster, Jaunaren erranaz, Jaunaren eginaz, ta Jaunagandik uste zituen lurreko ta zeruko ondasun andiez kasorik egiten etzuela, jaten du Adanek arbola debekatutik; eta gertatzen zaizka, aditu dituzun malur ta kalte guziak; baita agitz geiago ta geiago ere: bada aren jate galdutik datoz Adanek berak ekusi zituen, ta geroz gertaturikako, ta oraindik etorkizun arkitzen diran, neke guziak.

A nonbait, Adan, Adan! orren guti begiratuko zenien zere buruari, ta guri tristeoil Orren aisa galduko ginduzun, ta bokadu bategatik! Anbat kostatzen zekizun bear etzenuen sagar edo fruta bat uztea, eskuetan zenituela Paradisuko beste guziak? Kontuzko gauzaren bat izan baliz ere ori

zuk ustea, etzen askiko anbat zor zenion zere Jaungoikoak zuri ala manatzea? Zure eskergabetasunaren txar itsusia!

A nere Jesus maitea! ta agitz ederragoa da nik askotan, ta anitz aldiz, erakutsi izandu dizudana? Ez nezake egin nik ere, zenbait aldiz beintzat, Adanek bezain aisa, edo, anitz nekatu gabe, zere Legean niri zuk eskatzen didazuna? Etzen aski, ta sobera bere bekatuagatik Adani gertatuaren berria, ni zentzarazteko, ta Lege garbi orrek diona niri eragiteko? Zertan nabill bada, edo zeren begira nago? Ez ote naz orain badere mudatuko? Bai, baldinbere: bai, Jesus maitea, bai, zuk sendorki laguntzen didazula.

B.

Andi-arrigarria da Adanen bekatuaren kastigua

Arbola debekatutik jan orduko, ezagutu zuen Adanek; baita, berak jan ondoan, Adani janerazion Ebak ere, bere bearra, ta erakeri ezin-galgarriagoa; bada ezagutu zuten, batak eta besteak,

galdu zutela beren Jaunak doaiez emanikako grazia, ta zuten inozentzia; ta arkitzen zirala bekatupean, ta Jaunaren etsai egiñak; eta, oarturik etzutela soñean deus, lotsatu ziran biak; eta, beren alkekizuna kenerazi naiez, estali ziran nolerebait, pikutik arturikako zenbait ostoren soñeko zirtzillarekin. Onetan daudela, aditzen dute, an zebillen beren Jaunaren otsa, edo itza; ta ematen diote bertan igesiari, ta gordetzen dira al duten betala. Orra gaizkiaren lagunak! orra gaizkiaren ondorengoak! Lotsa, alkekizuna, ta beldurra. Ez dituzu ekusi zuk ere zere baitan noiz edo noiz? Bai noski, ta gaizkiren bat egin dezun aldioro ere, naiz itzezkoa izan zedilla, edo lanezkoa, naiz gogo utsezkoa, zure gaizkia ta txarkeria.

Itz egin zien Jaunak bizi beren gorde-tokira; ta adirazi zien, egin berririk arkitzen zen beren utsaren itsustasuna; ta eman zion bakoitzari zegokan sententzia. Esan zion bein Ebari: bai? Jan dun erorrek, eta jan-erazi dion Adani nik biei debekatu nizuen, arako sagar edo arbolatik? Oroituko az bada, bizi azaño. Ik izain ditun bai ere denboran nekeak nekeen gain, kezkek kez-

ken ondo; ta erditze gogorrak gogorrekin: ta, zeren ere buruz ibilli azan, ta gaizki, ta galdu duan erekin batean ere gizon au, gizonaren eskupean egoin az beti, ta egiten ditunala, nai ez ituken gauzak eta lanak.

Itzultzen da gero Jaun bera Adanegana, ta erraten dio oni ere: ik, nere erranak aldebat utzirik, egin duk ere andre galgarriaren errana; ta jan duk ik ere, nik iri debekaturik utzi nien arbolatik? Orain artuko duk, orain, ere lan eder onen irabazia. Lurrak i nor izatera, berez, edo maneatu ta ondu gabe, ekarri bear zien zuek ongi ta nolanaiz bizitzeko emen lurrean bear zenuten guzia. Ez az izandu i, ez, izan bear uena. Ez duk ik egin, ez, nik manatu nienik. Egin duk ik ere gogo gaistoak eman diena: ta, nere grazia ta adiskidetasuna galdurik, egin az i ere bekatuagatik nere etsai gogor beltz-itsusi, ta galdu. Bada ik egiñen dituk, bai, emengo aldiak; eta, paradisutik aterarik, nik utziko aut i nekezko bazterrean ta lur madarikatuan: jan-edanen baduk, an billatu bearko dituk ere janaria ta edaria; ta billatu bearko dituk, maiz eta galanki nekatzen azala. Izerditaraño ariko az lurra maneatzan, ta alere,

zenbait aldiz beintzat, arantzak, elorriak, eta bidegabeko gauzak emain derozkik ere lurrak, labore-lekuan; eta orduan ire janaria izain duk ganaduarena, edo belarra, edo anitz-anitz ohea ez den gauzaren bat. Ire neke-izerdiak, ogi zati bat, edo bear den beste zerbait biltzeko, iraun bear dik ill adin artean: ill bear duk ik; eta illen dituk ire ondorengoak ere, ire jate txar, ta bekatu galgarriagatik. Orra Jaungoikoak egin ziezten karguen mamia, ta sustanzia; ta orra Jaungoikoak Adan naigabetuari ta Eba galgarriari emanikako sentenzia ta kastigua! Ekusten dezu zein izugarria!

Gaur agertzen baliz Jaungoiko bera gure kontuak artzera, zer errain ote lioke gutatik bakoitzari? Zer karguak egiñen lizkiguke, oraindanoan guk egin ditugun utsegite ta txarkeriakgatik? Zenbat eta zenbat bekatuarekin emain lioke bakoitzari bere begietan! Zein itsusiak agertuko ote lirake oriek, eta zein bidegabekoak! Adanek bat egin orduko, an zuen bere gain bere Jaungoikoa, ta aditu zuen nornai arritzeko den, ta zuk zerorrek ekusi dezun, sentenzia. Agertzen baliz orain, guri dagokiguna guri ematera, gutaz zer

izain ote lizake? Bertan noski geldituko giñake illotzak, eta betiko galduak. On utsez, orain ixillik dago gure Jaungoikoa; ta begira bezala dago zentzutzen ote garan, geren gauzak garai onean prestatzen ditugula, kontu onak emateko. Zorionekoak mugaz, ta luzatu gabe, orretaratzen diranak! Orietatik izain gara, gaizki egiñaz damuturik, ongitzen baditugu geren egitekoak. Ori da, guk emen beti egin bear duguna. Nik beintzat egin uste dut, eta bertatik alere, nere Jaunak artan laguntzen didala; ta erditsi uste dut, artarako eskatzen diodan bere laguntza. Indazu bada, nere Jaun maitagarria, bai arren, bai!

C.

Latz illun-gogorra da Adanek bere bekatuagabik izandu zuen damu-urrikia

Manatzen dio bere Jainkoak Adani atera dakiola Paradisutik, eta doala bere bekatuari dagokan sentenziak diona egitera, edo lurra maneatz, ta nekezko izerdiarekin bere jan-

edana, ta gañerako bear dituen gauzak, billatze-
ra. Ateratzen da andik Adan ixill-ixillik, eta bere-
kin bere andre Eba daramala. Baña zein illun ta
triste atera ote zen andik Adan? Zenbat naigabe-
rekin? Ez ote zerien negar-malkorik aren begiei?
Eta zer asmoak ote ziran, aren gogoan orduan
zebiltzanak? Nork au adirazi? Jakintsua zen
Adan, izandu bada munduan bat ere: ta bertatik
ezagutu zuen, galdu zuen Paradisutik, eman zio-
ten bazterrera zijoana. Paradisua zen alabaña,
Jaungoikoak bere adiskide maiteei prestatu zien
toki eder bat; eta toki gizon batek, atsegin-kon-
tentuz beterik bizitzeko, desea zitzakeen gauza
guziak zekartziena: ta, toki onen lekuan, Adanek
zuen lurra, lur maradikatua zen; ta lur, gauz on
zenbait dakartzienean, nekez ta izerdiz erakar-
tzen zaizkana.

A zer trukada trukada au Adan bekatariaren-
dako, ta onen ume galduentzat! Ekusi zuen Ada-
nek zer zen Paradisua. Bazekusan, onen orde-
z ematen zitzaion bizi-tokia: ta ezagutu zuen, guk
ez bezala, bere bekatuagatikako trukada; ta tru-
kada onetan ark, eta guk galtzen genuena; ta
galtzen genuela beti-betiko; ta galtzen genuela,

kalte arrigarriak andik zetozkigula; bada Adanen trukada gaistotik datozkigu izaten ditugun eritasunak, naigabeak, kezkek, eta malurrak; baita umeen eskergabetasunak, auzokoen erriertak, gertatzen diran eriotzak, eta gañerako, bekaturtik datozen, bidegabeak, eta ekusten ditugun lan gogorak, auziak, gorrotuak, eta neke-izerdiak. Oriek gogoan artu ezkeru (artuko zituen bezala), zenbat izain ziran, Adani bere biotza ingurutuko zioten illuntasunak, ai! gogorak, eta tristurak? Nor au adirazi? ta nork ezagutu ere?

Eta bitartean zer egin ote zuen andre gaiso, Eba minberek? Zer egin zezakeen? Negar, ta negar! Ezagutzen zuen alabaña, berak zuela trukada gaistoan obenik geiena: bera zela lenenik uts egin zuen bekataria: bera zela Adan tentatu, ta bekatari eragin zuen emazteki galgarri gaisto; ta bera (Jaunak zionaz) neke, ta perellik gogorrenak ekusteko zegoen emakumea.

Paradisutik ateratzean errain zuen Eba minberek; eta errain zuen negarra zeriola: nork arindu ninduen ni, senarra utzi, ta bakarrik au Paradisuan ibiltzeko? Egondu banintz ni Adanen begietan, edo onen bistan, ta bazterrean, sugea,

edo sugearen itxuran sulezeko etsai madarikatua etzen asiko nerekin itzketan, asi zen bezala; ta ni gaur egoin nitzan nere Paradisuan, atseka-berik bage, ta birtutez ta kontentuz betea! Arindu nintzan, bakarrik ibiltzeko; ta, Paradisuko bazterrak ekusten nenbillela, au agertu zen nere etsai engañaria; ta, ongi nai zidalako idurian, ta urrikaldurik bezala, galdegin zidan, nola bada ta zergatik debekatu diezue zuei zeren Jaungoikoak arboletako fruta? Arbola bakar batekoa debekatu digu; eranzun nion nik; eta ori ere debekatu digu, gerta ez dakigun andik jatetik iltzea. Erakerria da ori, erran zidan au bertan nere etsaiak, eta engañu ageria: ori gertatu lekuan, ortik zuek jan orduko idikiko dira zuen begiak: ikusiko dezue zer den ongia; ta zer den gaizkia; ta izain zarazte zuek, Jaungoiko bera bezalakoak. Orrenbat zuen on ezin ekusiz, debekatu diezue zeren Jaungoikoak zorioneko zeren jate ori; jan zazue ardurarik edo beldurrik bat ere gabe ta gertatuko zaitzue, nik orain zuri erraten dizudan guzi-guzia.

Ai! etsai galgarri madarikatua! nik orduan ari erratera; eta eman banio bertatik igesiari, ta iges egin banu Adan arkitzen zen tokiraño, etzen

gertatuko, ez, gertutu zaidana, ta egoin ez nintzan gaur, nagoen tranze gogor onetan! Baña berez arintzen denak, aitzina eramane bere arinkeria! ta ongi eritzi emaztekiak laudarioari, edo lausenga eroari! Goratzen ditut, argandik nik au aditzean, nere begiak (ez nintzan itsutuko, orretara baño len!). Ekusten dut arbola debekatuko fruta: ta, ekusi orduko, iduritzen zait gutiz eder-goisoa. Begien ondoren au zen bereala nere gogo gaistoa ta jangura; ta, biei zerraikiela, nere esku, ara baño len errerik gelditu bear zukena! Artu, ta jaten dut nik neronek; eta neronek janerazten diot nere senar Adan, nere kiko beraegiari! Jan orduko, idikitzen dira senar-emazte bion begiak. Zertako ote, baldin badakizu? Galduak garala gerok, ekusteko; ta ekusteko bidenabar, galdu ditugula geren ondorengo jaio-kizunak.

Nork (ekusi ezpalu) erran zezaken, nik nere egin berrian; nik, naturalezaren ta graziaren doai ederrez apainduak; nik, gaitzerako bat ere makurtasunik gabekoak; nik, onerako jaioak, nai zuen guzia nere eskuetan nuenak; nik, naigaberik etzen Paradisuan bizi bearrak, eta nik, Para-

disutik, ill gabe, sekulako gloriara igateko egi-
ñak; nork (diot berriz ere), nork erran zezaken,
nik au guzia nere naiez galdurik, etorri bear
nuela, orain dadukadan egoera illun beltz galga-
rri onetara?

Orra bada: onetara naz ni; ta laster alere, edo
Jaungoikoak egin ninduenetik ordu gutiren
buruan; bada guti dira Paradisuan nik egin ditu-
dan orduak. Onetara naz ni, bai; ta ez ezinego-
nez zorioneko nere Paradisuan: bada banuen nik
au, bear nuena, ta geiago; ta ez niuduen ni nere
Jaungoikoak andik aterako, utzi banio geldirik,
eta ukitu gabe, bear ez nuen ta berak debekatua
zedukan arbola bakar bateko frutari. Onetara-
naz, bai; ta onetan nik neronek ekusi bear ditut
nere Jaun zuzenak adirazi dizkidan neke-izerdi,
erditze gogor, ta ezin erran-al-adiña lan ta
oñaze; ta, oriek ekusi ondoan, ill bear dut nik nai,
ta ez; usteldu bearra da, ta, izandu ezpaliz baño
geiago ageri ez dela, gelditu bearra nere gorputz
txar au; ta au erioaren ortzetan utzirik, joain da
nere anima... nora ote? Ai au pena! au, bizi
nazan arteko nere nekea! ez jakin nik, ez-eta
jakinen ere, bere gorputzetik au atera artean!

Eta zertara joain ote da, sulezeratzen bada? An kiskiltzen ta erretzen beti ta beti egotera. Orra Eba gaisoaren orduko kezka ta naigabezko beldur izugarria! Eta bekatuan arkitzen den edozeinena? Daraman bidea utzi artean, era berekoa. Utzi ote dut nik, nere bekatuak ar-erazi zidate-na? Bai, baldinbere! Ala gerta dedilla, nere Jaungoiko maitagarria: ta gerta dedilla, nik berriz or oñik sartu gabe, mundu galgarri onen atzaparretatik iges egitea: bai arren, bai!

*A muliere initium factum est peccati,
et per illam omnes morimur.*

Eccl. 25. 3.

Lenbizlko emaztekiak galerazi zuen bere senarra; ta, bere senarrarekin batean, galdu ginduen bien etorki guziok; eta aurtiki, edo bota ginduen erioaren atzapar gaistoetara! izan nai ez dutenak lenbiziko galgarri onen erako galduak, utzi bearko dituzte era bereko beren ibille-rak eta begien arinkeriak: bizi bearko dute beren tokian, edo beren Jaunaren legea beren gogotik

uzten ez dutela. Bebiltza bada, emaztekiak ezezik, gizakiak ere beren bidez; ta bide ta lagun gaistoen igesi. Ori zeren egin etzuen, galdu zen Adan lurreko Paradisuan, ta galdu zen bere emaztearen itz bi aditu orduko, beste tentaziorik gabe. Zer gerta dakioke bada, Paradisutik urrun, ta etsai galgarriz ta griña gaistoz inguruturik dabillenari, erne ibilliz, ongi begiratzuz, ta orduoro eskatzen duela bere Jaunaren laguntza ta grazia, uzten ezpaditu zerura begira bere asmoak, ara zuzentzeko gero bere oñak eta gauza guziak?

Nork daki zer? Arkitzen da alabaña alde gais-toetara guztiz makurtua, ta aragiaren loikerietarako tirrikazioz betea. Zorionekoak, oriek garaituz, begiak itsiz: okasione txarretatik iges egiñez, ta, alik ongiena pausuak zuzenduz, garbiro bizi diranak! A, ni, gaurdanik badaere, egiten baninz orietatik bat, edo orien lagun! Indazu arren, nere Jaungoiko maite, nigatik gizon egiña, orrelakoetatik izateko, bear dudan zure indar guzia, ta laguntza. Eskatzen dizut, bai, nere oraindañoko utsegite guzien damu andiarekin, ta uts berririk ez egiteko asmoz ta gogoz beterik

arkitzen nazala. Ez niri au ukatu, Jesus maitea; ez, arren, ez!

Emisit eum Dominus Deus de Paradyso voluptatis, ut operaretur terram, de qua sumptus est.

Genes. 3. 23.

Orra bere bekatu eskergabekotik Adanek atera zuen ondasun guzia! Bere Jaunak on-utsez emanikako grazia, ta zeruko doaiak galdurik, errumes beartsu baten itxuran, Paradisutik ordu-gaistoan ateratzea! Zertara? Lurra maneatzera! Nola uste dezu? Ongi nekatuz, ta izerditan goizetik arratseraño dabillela; ta dabillela, bere gogotik utzi bage nondik datorkion lan gogor au: ta bere neke-lan-izerdi guzien buruan, berari gertatu bearra, edo zertan gelditu bearra zen, berekin zeraman bere gorputza. Nondik zuen, baldin badakizu, Adan gaisoak bere gorputza? Lurretik. Eta zertan gelditu bearra zen Adanen gorputz au? Gelditu zenean: edo lurretan, ta auts egiña.

Ai, Adan, Adan! A zori tristeko gizona! Paradisuko atsegin-gusto guzietarako jaioa zu; ta, orko

zere gusto-atsegin-kontentuen artean bizitzen baziñan zenbait denboraz bear zen eran, eta zure Jaungoikoak eskatzen zizun bezala, zerura bearra zu; ta zerura bearra ill-ere bage, ta kontentuz beterik arkitzen ziñala! Eta galdu zuk au guzia, deusez bat bailiz bezala; ta galdu zuk, bokadu txar bategatik! Non zenuen zuk orduan zere burua, edo non zuk zere adimentua?

A nere Jesus maitea! ta non nuen nik nerea, Adanen ondoren nenbillenean, edo, nere gogo galduari atsegin egiteagatik, galtzen nuenean, Adanek bezala, zeru bera, edo zerurako eskua ta deretxa dakarren grazia? Ta galdu ezpanu, Adanek baño, geiagotan edo bein baizik, etzen izain, izaindu den bezain buru-bagekoa, aldi artako nere erakeria! Baña nik galdu dut au, nere Legeko gauza larrietan uts egin dudan aldioro, edo bekatu larri bakoitzarekin! ta galdu dut, deusez bat baizik galtzen ezpanu bezala, ta atsegin-kontentu ta poz andiarekin! Ai Jesus! ez luke, ez, galduko Adanek, galtzeko baleduka, bere Paradisua! Ez eta nik ere nere bekatu berriekin zerurako nere deretxa ta grazia! Ari urrikitu zitzaion bere bekatuaz; baita niri ere nere guziez. Guzien

damuz beterik nator gaur zure oñetara: barkamentu esker nator, ta ongi bizi naiez-ta-naiez betea. Indazu onetarako bear dudan guzia; baita nere oraindañoko utsen barkamentua ere. Bai arren, Jesus maitea, bai!

*Ipsi autem, sicut Adam,
transgressi sunt pactum:
ibi praevaricati sunt in me.*

Oseae., 6. 7.

Len batean Profetaz erraten zuen gure Jaungoikoak; Orra Israelko jendeak egiten dutena! Adanen gisan urratu dute, ta autsi, beren itza ta nere Legea! Bada promisloko bazterretan bizi dira, jentil batzuek bizi litezkeen bezala, ta nitaz kasorik egiten ez dutela! Elkar ezin ekusi dutela daude, ta, mindurik, gizon odoltsuen eran! Nori berea kendu naiez dabilta; aragizko loiez zikin-
duak dabilta; ta, ni aldebat utzirik, artu dituzte beren Jaungoikotzat, maite dituzten gauzak! Orra zein arritzekoa den, nere Israeldarrak egiten dutena!

Au da Jaungoikoak orduan bere Profetari erranerazi ziona. Eta zer ote da egungo egunetan adirazi litzaikeguna? Ez da munduan arkitzen orduko israeldarren erako jenderik bat ere? Ez da geroz jendartean lapurreririk? Ez da aserretzerik? Ez da gaistakeririk? Ez da zikinkeririk? Ez da beste gisako bekaturik ere? Ager bitez, zer-bait orrelako beren bizian egin ez dutenak; eta ekusiko dugu, zein bakan-bakanak diran oriek, eta zenbat eta zenbat gañerako bekatari gaistokak! Zeñetatik ote zara zu? bear den eran bizi diran onetatik; edo bekatari txar gaistoetatik? Gaistoetatik, Jaungoiko maitea, gaistoetatik; eta gaistoen artean ere gaistoenetatik! Bada kontatuak dira, zure mandamentuetan bein, berriz, ta askotan nik urratu ez ditudanak!

Eta zer izain zennitaz, edo non egoin nintzan ni gaur, ta, etorkizuna den gereko sekula guziguzian, zu, nere Jaungoiko maitagarria, ez etortzera, etorri zaran eran, edo gizon eginik, ni ta ni bezalako tristeok geren gaistakerien kateetatik ateratzera! A baña! atera ote naz ni alere orrelako kateen atzapar artetik? Nere naigabez izandu da ni ez ateratzea, orrelako katetan arkitzen

banaz orain ere; bada nornai ortik atera diteke zure laguntzarekin batean; ta zuk, nai duten guziei ateratzen laguntzen diezu, naiz gabaz dela, ta naiz egunaz; baita edozein orduz ta puntuz ere. Orain beintzat autsi naiez nago ni era orretako nere kate izugarriak. Lagun zakizkit zu, nere Jaungoiko maitagarria, oraingo nere lan on onetan; ta indazu damuz ta urrikiz errateko grazia: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XIII.garren OTOITZ-GAIA

GIZON EGIN BAÑO LEN AGERTU ZUEN

GURE JAUNGOIKOAK BEKATARIENGANAKO

BERE URRIKALTASUNA

Andia bazen ere, etzen zuzenbiderik bagekoa Adanen ta Ebaren bekatua. Zuzenbidea zen gure Jaungoikoa gizon-egitea, ta, gizon egin ondoan, artu zituen neke gogor ta odolezko eriotzazekin, bekatuaren zorrak ateratzea. Jesusen neke eriotz au izandu zen, jentilen iritziz, erakeria, ta Judu arrotuen eskandaliza: baña bekatuaren zor andiak eskatzen zuten bezalako erremedioa, edo zuzenbidea. Denbora joan zen, Adanen bekatutik gure Jaungoikoa gizon egin zeneko; ta, beren zuzenbidez etsirik, gal etzitezzen Adan bera ta beraren ondorengoak, agertu zuen Jaungoiko berak denboraz, edo bear zen sasoiean, lan edo gauz onetan egin gogo zuena, oraingo otoitz-gai onetan ekusiko degun bezala.

A.

**Bekatariez urrikaldurik,
agertu zien gure Jaungoikoak,
bein Adani, ta gero bertze anitzi,
bere gizon-egin bearra**

Urrikari gaituen, gure Jaungoikoak, ekusi orduko Adan ta gu, aren bekatuagatik betiko galduak, berezi zuen, bear bezalako gure zuzenbidea edo erremedioa; au da, adirazi dugun bezala, Jaungoiko beraren gizon-egitea. Gure zuzenbide au etzuen Jaungoikoak gorderik iduki bera gizon egin artean: agertu zuen agitz eta agitz lenago; baita, bein baño geiagotan ere. Agertu zuen, bai, agitz lenago; bada millaka jua izandu ziran urteak Adanen bekatutik, Jaungoikoa gizon-egin zeneko; ta bekatuaren ondoren, laster adirazi zuen gure Jaungoikoak egiteko andi, ta zuzenbide guztiz eder au: adirazi zuen alabaña, Ebak eta Adanek bekatu egin zutenetik, Jaun bera bere sententzia, ta bien desterrua ematen asi bitartean: ta bitarte laburra izandu zen, Eskritura Santak agertzen digun bezala. Eta, orduan ezezik, geroz ere, bein baño geiagotan agertu

zien gure Jaungoikoak Adanen ondorengoei erre-
medio bera, edo beren zuzenbidea; bada agertu
zion Abrani, agertu zion Jakobi, ta agertu zien
anitz Errege ta Profeta andiri ere.

Ez dezu ekusten, zein ona den gure Jaun
andia, ta zein urrikaltia? Egin orduko Jaunak
Adan, Adan Jaunaren kontra; ta alere Jauna Ada-
nen billan ta ondoren bezala! Zergatik uste
dezu? Adanen bearrez, edo bere premiaz? Ez
bada, baizik Adani ongi, ta geiegi naiez; Adan
eroria bere bekatuaren loietik ateratzeagatik;
eta sekulako kaltear geldi etzitezzen Adan beka-
taria, ta Adanen ondorengoak. Orregatik bada;
ta, ez Adanen edo onen ondorengoan bearrez,
billatu zuen gure Jaunak Adan bekataria; ta adi-
razi zion Adani, Adan beraren ta gure guzien
onerako egin gogo zuena, edo bere gizon-egite-
ko gogo, ta asmo artua. Au beran adirazi zien
bein ezezik, askotan ere Adanen umeei, ta
umeen ondorengoei, bere gizon egiteko ordua ta
denbora etorri artean. Zenbat urtez, uste dezu,
egondu zela ordu onen begira gure Jaungoikoa,
Adanek uts egin ezker? Zenbat urtez? Lau
millaz ta geiagoz. Orrenbat denboraz, ta eterni-

dade guzi-guzian iduki zuen gure Jaungoikoak, bein ere bere gogotik utzi gabe, gizonen zuzendu-naia: ta nai, Jesusen anitz neke-izerdi ta odol ixurtze erakarri bearra!

Aitu zaio gure Jaungoikoari gu zuzen-erazi nai andi au, Jesus gugatik gizon egin, jaio, ta ill zen ezker? Ez egiazki! ta, gure galduak, guganako gure Jaunaren nai on ori ari aitzera! Gerozko denbora guzian, ta denborako gau-egun ta puntuoro ere, arkitzen da gure Jaungoikoa guri begira; ta arkitzen da, gu ongi ekusi naiez ongi betea. Ongi gabiltzanean, ala gabiltza, zeren laguntzen digun gure Jaungoikoak geren egiteko andi ta txiki guzietan, ta, Amak umea bezala, eskutik garamatzien zerurako geren bidean. Kentzen badiogu guk geren eskua, bide au utzi, ta bekatuaren ondoren erotu-galduak ibiltzeko, gure ondotik, eta gure billan bezala, dabill gure Jaungoikoa: bein, berriz, ta askotan deitzen digu, bere amorezko itzekin, ta adirazten digu berez batzuetan, ta bertze zenbait aldiz bere lekuan daduzkan gizon jakintsuz, gure alde, nagusiz, edo bertze zenbaitez, egin bear duguna, geren bidera berriz itzalzeko, bide berean zuzen ibilze-

ko, ta doakunde zerukoak aisa eta erraz irabazteko. Eta aldi orietan ez aditu guk egiñagatik, ez da aspertzen bat ere gure Jaungoikoa guri deitzez; ta deitzen, ta deitzen digu berriz eta berriro, aren erranak egin, edo geren buruak txoilgaldu artean.

Eta ez da au len, ta gero, ta beti, guri ongi naiez beterik, gure Jaungoikoa arkitzea? Bazter bageko ontasunez betea dagoen Jaun batek baidzik balegike, edo eraman lezake, gu bezain gauza txar baten onerako, era onetako egitekorik? Ez segurki! Noiz kenduko diozu bada bere egiteko arazozko au zere Jaungoikoari? Ken dezokezu, bizitza on bat artzearekin. Bertatik artu bearra zara, nor bazara zu, edo burua txoilgaldurik ez arkitzera. Artu zazu bada; ta artu zazu, ill arte guzian ez uzteko asmo osoarekin.

B.

Nola agertu zuen gure Jaungoikoak zorioneko berri au?

Agertu zuen, ager zezaken erarik onenean; bada agertu zuen maiz aski; ta bidenabar agertzen zuela guzi-guzizkoa dela guk berari beti zorizandu diogun amorea. Ekus dezagun nori, ta nola. Agertu zion Adani beinik bein berri on andi au gure Jaun maitagarriak; eta agertu zion, den aserrerik andienerako bidea Jaun berari Adanek eman zionean; ta irabazirik zedukan denboran, bere eskergabetasun gaisto ta bekatu arrigarri-gatik, bertan ta sulezera aurtikitzea; ta aurtikitzea edo botatzea eternidade guzian erretzen ta lertzen Jaungoiko berak Adan au idukitzeko; ta alere agertu zion urrikaldutik bezala; ta, al ziteken gisan, Adan beraren alde Jaun bera jartzen zela: bada agertu zion, Adanen etsaia erriertaz edo meatxuz betetzen zuela.

Itzultzen da, onetarako, suge gaisto Infernuko etsaiagana gure Jaungoikoa; ta erraten dio: a madarikatua! egin duk ik, bai, egin ezaken lanik gaistoenal Galdu dituk ik Eba, ta Adan, beren ondorengo-gaisoekin; bada galerazi diek oriei biei, beti bizitzeko, paradisuari egoteko, ta emendik zerura bere orduz igateko, nik oriei eman nien indarra, grazia, ta esku guzia. Kon-

tent arkitzen az, bai, ere lan gaisto ta bidegabe-ko irabazi galgarriarekin. Baña itxok guti bat, itxok; ez duk au izain, ez, uste dukan diñako irabazia. Badik, bai, orien uts onek bere zuzenbidea ta erremedioa. Andre batez baliatu az i, gizona galerazteko: beste Andre batek gal-eraziko dik iri ere irabazia. Andre etorkizun onek izain dik bere denboran Seme bat, i ta ire infernuko guziak baño esku ta indar geiagokoa. Aren seme onek emain ziek bekatari tristeri bear dutena, iri burua autsirik, beren zeruko bidean zuzen ibiltzeko; ta bide onez beren denboran badabiltz, dabilzken bezala, zerurako dituk azkenean; ta au izain dituk beti zorioneko doatsu, atsegin-kontentuz beteak. I arrastan ibilliko az bitartean; ta ere egin-guziekin ezin eragotzi duela orien ibillera: ta, zenbaiti eragozten badiak, beren naiez izain duk ori, ta beren kulpaz: baño ez, ezin-garaituz i ta infernuko ire lagunak. *Genes. 3. 14.*

Au beren alde Jaunagandik aditu zutenean Adanek eta Ebak, ezagutu zuten, ta bearbada egin orduko ondasunez bete zituenean baño ere obeki, beren Jaungoikoari zor zioten amore; bada au aditzean, ezagutuko zuten beren Jaun-

goikoak berriro agindu ta eskeñi zien fabore au, len beragandik artuak adiña, ta geiago, baño zuen faborea zela; ta fabore, len beragandik artuei berak bekatuz eranzun ondoan, ta aserretzeko biderik andiena ari eman ezkeru, eginikakoa; ta bazekiten, onelako orduan egiten den gauzarik txikienak ere, adiskidetasunetako andienak baño obeki agertzen duela emallearen ontasuna ta amorea. Onen ona den, ta onen emeki Adan bekatariarekin dabillen Jaunagandik nork ez du usteko bere gaizkien barkamentua, aintz eta andiak izanagatik egin diozkan gaizkiak, bere barkamentu au eskatu ezkeru, guzien damuz ta urrikiz, ta ontzeko gogoz beterik dagoela?

Era berekoak izandu ziran Jaungoiko berak egin zituen gañerako berri onen agertzeak. Ez luzatzeagatik, agertuko dut orain orietatik bakar bat. Iltzeko zegoenean, Patriarka Jakobek deitu zituen bere semeak; eta, guziak bildu ziranean, erran zien: *Adi zazue, nere semeak, denboraren buruan guzien onerako gure Jaungoikoak egin gogo duena* (Jaunak emanikako argiarekin ekusi zuen etorkizuna, ta erran zion bakoitzari zego-

kan guzia). Itz egiten dio bein, Ruben zeritzan, lenbiziko bere semeari; ta erraten dio oni, oni zegokana: bere-bat egiten du urrengo aldian urrengo biekin. Oriek ziran Simon, ta Lebi. Itzul-tzen da gero laugarrenagana (Judas zeritzan oni); ta oni, guziak aditzen zutela, ematen dio, eman zezoken berririk andiena; ta erraten dio: *Zure semeak, nere seme Judas, jabetuko dira noizbait Promisioko bazterretan, zure izeneko tribu ta erreinu batez. Erreinu onetan iraun bear dute erregeak erregeen ondoren, ta gobernari andiak, mundu guziak uste duen erremedioa edo zuzenbidea datorren artean. Bai: zure odoletik datorrena izain da mundu galduaren zuzenbi-dea, erremedioa, edo Erremediatzallea. Genes. 49. 10. etc. 11.*

Berri au eman zien Jakobek bere semeei, edo, orien buruan, eman zien Jaungoiko berak Jakobek ezpañez munduko guziei; ta eman zien, izan zezaten, etorkizunaren uste onetan, Adanen bekatutik zetozkien nekeen zerbait aringarri, bada eman zien Jakobek berezi berri au Ejiptoko erregeen pean bizi ziranean, ta beren jait-bazte-rratik urruti zeudela: ta orregatik eman zien,

ongi nai zielako, ta maite zituelako señalean; ta etorkizunaren uste onarekin eramán zitzaten, bear zen eran, orduko beren lan ta neke guziak.

Gu, Jaungoikoari eskerrak, jaioak gara Jauna gizon egin ezkerozko denboretan, ta ez gaude lenekoak uste zuten berri on andi onen begira, baña baditugu guk ere geren etorkizunak; eta orien berri onen begira gaude. Lenekoa bera da, egungo gure Jaungoikoa; ta, len baño ere amorio geiago bereei erakusten diena; ta itxedan deza-kegu guk, bai segurki, emain dizkigula guri ere, ta lenekoei bezain gogo osoz, uste ditugun geren berri onak. Eta eman ere ez ote dizkigu arkitzen garan egunetaraño? Zenbait beintzat, bai; ta onak alere: bada adirazi digu (ta aspaldi da ori) guri ongi naiez, ta obeki laguntzeagatik, gelditu dela gurekin gure Jesus, bere Redenzioko lan andia bukatu ezker: adirazi digu prest dagoela gau, egun, ta puntuoro, guri geren txarkeriak eta bekatu guziak barkatzeko; ta guzi-guziak barkatuko dizkigula, guzien barkamentua guk negarrez, ta bear bezala, eskatu ezker. Adirazi digu gure Jesus berak, beraren nai ta atsegin guzia dela gurekin biotzez biotz itz egitea, ta gu bere

graziaz, ta animako ondasun andi-ederrez beterik uztea: ta adirazi, beste anitz gauzaren artean, gu nor bagara, guretzat dadukala bere zerua; ta zeru, sekulako glorian, atsegiñez, ta kontentuz betea. Zorionekoak, onenbat berri onez baliatzen diranak; eta, zeru au irabazteko bear diran, ta Jaungoikoak eskatzen dituen gauzak egiten dituztenak! Bertzegatik ezpaliz ere, onenbat ontarte ta bere faboregatik zor dioguk geren Jaungoiko maitagarriari eskatzen diguna, ta anitz geiago.

C.

Zertako zen

Jaunaren berri on au ta, eman zuen bezain maiz, ematea?

Gure Jaungoikoak eman zuen bere berri on au, edo adirazi zuen bere ongi naiezko gizon-egin bearra, len ukituz adirazi degunerako, edo bizi zitezzen Adan ta Adanen umeak eta orien ondorengoak Jesusen ustean, ta zuzenduko ziralako beren ustea ta esperautza galdu bage.

Gizon jakintsuak bazekiten Adanek eta gañerako guziak etzutela berez indarririk aski, bekatuaren zorrak ateratzeko: ori bezain ongi zekiten, beren zorrak ez ateratzera, galduak zirala zordun guziak beti-betiko: ta jakindun berak, denbora berean jakin ezpalute, eman uste ziela Jaungoiko berak beren zorren atera-bidea, zer egin zezakeen gaisoak? Zer, baizik beren gauzez etsirik, galduen bide galduren bat artu, ta geroz ibilli bekatuz bekatu, ta gaizkiz gaizki; ta beren egunak bukatu etsien eran, edo desesperatuak bezala?

Orrelakorik egin etzezaten bada, ta ori egin lekuan, ar zitzaten beren obenen alde Paradisu-tik kanpoan zituzten beren neke-izerdiak, beren naigabeak, beren malurrak, beren gaitzak, beren eritasunak, beren iltzea ta munduko kalteak, agertu zien denboraz beren Jaungoikoak berri on andi au; ta adirazi zien idikiko zirala, egunen batean, orduan ertsiak arkitzen ziran zeruko ateak, edo atariak; eta izain zutela nondik atera ta pagatu bekatuaren zor arrigarriak. Etzien orduan gure Jaungoikoak agertu, noiz argitu bearra zen zorioneko egun ondasundun au, edo noiz

agertuko zen gizon egiña onenbat ondasun ekartzeko zegoen gure Jaungoikoa: ta nola berri on au agertu zuenetik, gisa onetan Jesus agertu baño len eunka ta millaka zoazen urteak, gal etzezaten gauza au egiñik ekusteko ustea, agertu zien geroztik ere noizean bein berri bera, ta aldioro siñets ziteken bezala, ta amoriozko bidez.

Adani berri au eman zionetik, bi milla ta eun, ta ogeita bederatzi urteren buruan bezala, erran zion Jaunak Abrani; ez da zer-etsi, nik zuen alde Adani len adirazi nionaz: eginen naz, bai, eginen naz gizon, gizon-egiteko nere ordua etortzen denean, ta gizon egiten nazanean, zure ta zure ondorengoan odoletik artuko dut nik nere gizatasnua: *Genes. 22. 18.*

Andik laur ogeita zazpi urteren buruan au berau adirazi zien Jakobon semeei, araistian ekusi dugun bezala. Andik milla ta zazpieun ta laurogei, ta zenbait urteren buruan egin zen Jauna gizon; ta urte orietan usuago, ta maiz eman oi zuen egiteko beraren berri au: ta eman zien, bertze anitzen artean, Dabid Erregeri, Isaias Profetari; baita Amos, Mizeas, Ajeo, ta

Malakiasi ere; baña guziei baño klaroago Profeta Danieli (c. 9. 25.): bada oni adirazi zion zenbat urte ta asteren buruan etorri bearra zen Jesus Jaungoiko-gizon egina, ta noiz izain zen onen eriotza, bere Aitari gure zorrak pagatzeko. Ta oni, ta erran ditugun Profetei adirazi zien, baita Sibilei ere, batzuei bere jait-ordua ta bizitza, ta besteei bere nekezko pasione santa, ta eriotz gogorra; ta adirazi zien, guzia eraman bear zuela amorez ta gogoz gure onagatik, eta irabaz genezan guk Adanek galdu zigun zerurako geren eskua ta deretxa.

Orra bada zertako zen Jaunaren berri au, ta onen maiz au mundukoei Jaungoikoak adiratzea. Guk badugu orduko gauzen, ta lenekoak egin oi zituzten gaizkien berria. Begitan ematen digu orien itsutasunak, eta aisolakabe ero galdu-galgarriak; eta alere zentzutzen gara? Lenekoakgatik egiteko zedukana, egin du gugatik gure Jaungoikoak; bada egin zen gizon gure guzien onerako: ta geroz ere gugatik egin ditu Jaungoiko berak, leneko gizonakgatik egin etzituen anitz gauza. Baña zer atera du guziarekin gugandik gure Jaungoikoak? Askotatik beintzat, lenekoen

gisako aisolagabekeria ta esker gaistoa, besterik ez.

Eta nora ote doaz, orrela dabiltzanak? Jaungoikoaren juizio izugarri-gogorrera, ta sekulako galduak izatera, lenagoko zordun gaisto esker-gabeak bezala! Begira, gizonak, begira, berriz ere etorri bearra da, len etorri zen gure Jaungoiko bera: baña bigarren aldi onetan etorriko da era izugarrian; ta etorriko da, gugatik egin duenaz guri kargu zorrotzak egitera; ta, egiten dugun guziaren kontu zuzenak artzera! Kontu gaistoak orduan guk emain ditugu, baldin Jaun berari, len ta gero zor dioguna gogoan arturik, eranzuten ezpadiogu esker umiliez, ibillera zuzenez, bizitza garbiz, ta amoriozko biotzez, ta gogoz. Berak digula orretarako bear duguna; baita anitz eta anitz geiago ere. Bai arren, bai!

*Secundum magnitudinem illius,
sic et misericordia illius cum ipso est.*

Eccl. 2. 23.

Gure Jaungoiko maiteak, Adan egin baño len egiten ditu zeru-lurrak, itsaso-odeiak, eguzki-izarrak, eta munduko gauzak. Orien ondoren egiten du Adan; ta, egin orduko, uzten du gauza guziena jabe ta jaun egiña. Baña zer da Adanek egiten duena, onenbat on egin dion bere Egillearekin? Egin zezaken gauzarik gaistoena! Aldebat utzi, ta saldu Jaungoiko bera sagar-bokadu bategatik: edo uts arrigarri ta bekatu beltz itsusi batekin guztiz aserreturik iutzi bere Jaungoikoa. Esker galanta! pagu ederra! Zer zen orduan, Adani Jaungoikoaren aldetik zegokana? Bertan illik gelditzea? Ezer-ez bat bezala zen gelditze ori. Zer bada? Sekulako suan ondaturik Jaunak uztea; au ura kiskiltzen ta erretzen beti, ta beti lertzen ta urratzen au idukitzeko? Etzen geiegi, ez, Adanen bekatuari zegokanaren alde ori guzia. Zer egin zekikeon bada bere esker gaisto, ta bekatu izugarriagatik? Nork jakin? Nork adirazi?

Baña zer da orduan gure Jaungoikoak Adani eginikakoa? Siñistuko zeunke! ordurañoko guzian egin ziozkanak baño, ontarte ta fabore andiago baten egitea! Ta bere lanez ta egitekoz Jaungoiko maitagarriak mundoko guziei adiraz-

tea, bere esku altsua diñakoa dela duen urrikaltasuna ta miserikordia; izanik ere bazter bagekoa, ta asma al adiña ta geiago ta geiago dagikena, duen eskua; bada kastigu-lekuan, eman izandu zion Adan bekatariari, eman zekikeon berririk andiena, ta adirazi zion egiñen zela bera gizon, ta artuko zuela bere gain aren ta gure zor guzia!

Zer zen, au bere Jaunagandik aditzean, Adanek egin bear zuena? Zer? Baizik damuz ta negarez bazterrak beretzea; itzez ta biotzez, ta alde guzietara eskerrak ematea, ontasun utsez betea dagoen, ta ondasunez ta ondasunez betetzen ari zekion bere Jaungoiko maitagarriari. Egin ote zuen Adanek orrelakorik? Etzuen utziko, beintzat ari zegokionaren, ta zor zionaren ezagumentu bagez. Zorionekoak ura, ta gu ere, egin bazuen ark, eta guk orain badaere egitera, egin bear duguna. Eginen dugu guk ori, egin ezkeru, gure zor andien, ta Jaunaren ontasunaren ezagumentuak eskatzen duena: ta ala izatera, izain dugu guk lenen barkamentua, ta gure Jaungoikoak ematen digula, bere zeruko betiko gloria. Izan

dezagula bada, emendik atera orduko. Bai arren,
Jainko maitea, bai!

*Non habent futurorum spem mali,
et lucerna impiorum ex lingetur.*

Prov. 24. 10.

Lurreko gaistoak ez dute begiratu nai etorki-
zunera. Sartuak daduzkee beren buru-biotzak
emengo gauza galgarri txarretan; ta lurretik
begiak ez goratzeagatik, ez dute kasorik egin nai
zeruko argi eder, Jaunaren deitze zuzentzallee-
z. Beti emen bizi-bearrak bezala bizi dira, edo,
iltzen diranean, ilko balira bezala astoen gisan,
edo gorputz ta anima. A ero, zeren buruen gal-
garri-zentzugabeak! Egunen batean etorriko zai-
tzue, bai, orain aldebat uzten dezuten ezagu-
mentua! Baña ezagumentu eskergabekoa; ta
ezagumentu, bekatutik, eta onen ondoren dato-
rren sulezetik, aterako etzaituztena! Orain zuek
ezagutzera orduko zuen damua, erraien- erre-
tzea, ta neke arrigarria, bertatik zentzatuko
ziñazkee, bai: bertatik kontuz, ta erne begiratu-

ko zenioke, zeruko argiak erakusten duen etorki-zunari; ta egiñen zenukee, Jaunak adirazten dizuten guzia. Baña zuek zeren gogo txarrak aspertu nai! Zuek ez utzi nai zeren aurkeri dollor-eroak! Eta zuek nai bizi, geienen gisan, edo gaizki ta gaizki!

Bertze onenbeste gertatzen zitzaien, lenagotik munduan izandu ziranei. Kontatuak ziran, edo agitz guti, Adanen egunetatik Jaungoikoa gizon egin arteko denboran, bear bezala bizi ziranak, urte ta denbora beretan gaizki bizi zirauen aldean; ta alere adirazten zien guziei beren Jaungoikoak, onak izateko egin bear zutena; ta ematen zien bein ta berriz, ta askotan ere, guzien onerako egin gogo zuen gauz andi onen berria! Onez au guzia, ta guziei ongi naiez.

Onela guri Jaungoiko berak begiratzen ezpaligu orain ere, non leudezke gaur munduko geienak? Deiez, gogargiz, graziaz geren biotzak ukitutuz, ta beste milla moduz laguntzen ezpaligu guri geren Jaungoikoak, orain ongi bizi diranak ere nola biziko lirake? Ageria dago: gañerakoak bezala, ta bear bada agitz gaizkiago. Jaungoikoari eskerrak, egiten digun oraingo geren ongi

laburraz; bada Jaungoiko berak orretan guri ez laguntzera, ori ere guk egiñen ez genuke. Berak digula geiago ta geiago egiteko grazia; ta, zeruko gauzak gogoan daduzkagula, geren egunak ongi bukatzeko bear duguna. Bai arren, bai!

*Vae dissolutis corde, qui non credunt Deo,
et ideo non protegentur ab eo.*

Eccl. 2. 15.

Zorigaistoan jaioak, biotz urratu edo bizitza galdu batekin emen gure artean dabilzanak! Bada oriek, edo siñisten ez dute Jaungoikoak erraten dienik, edo gogo gaistoak ematen diena da orien gauza guzien eragillea. Beude nai adiña denboraz oju ta oju predikariak, erran bezate erran al adiña konfesari onak, aditzen zaienak, eta munduko guziak: alferrik izain da orien oju ta errate guzia: ez dituzte berdin gaistoak ontzat artuko orien erran-aju oriek. Oriek len izan du diranak izain dira gero ere; ta beti izain dira ero zentzubage galduak.

Zer nai dezu zuk, gerta dakion, oriek bezala Jaunaren erran onak aldebat utzirik, bere gogora dabillenari? Zeri dagokala (erran ezadazu) eman bear dio Jaungoikoak onelakoari, lenekoei baño laguntza ta deitze andiagoren bat? Eta, ematen ez diola, nola aterako da bere aztura gaistoen erreka ondatu arrigarritik, ara baño len, bide gaistoz gaisto zebillela, erdi-lertua zegoen bekatari arla? Zorigaistoan jaioa bada, gisa onetan arkitzen den edozein anima, beraren Jaunak ez egitera, noizean bein egin oi dituen gauz andietatik bat edo bertze, bada ez du egiñen egin bear duenaren laurdenik ere, ta galdua izain da sekula guzirako.

Orra zertaratzen den, onez deitzen dion Jaunari erantzuten ez dion anima! Ta orra norinai gerta dakikeona, kontuz ezpadabil, bizi den denboran. Geroko onaren ustearekin, ta maiz agertzen ziela bere gizon egin-bearra, ta andik atera zezakeen ondasuna, ondu nai izandu zituen gure Jaungoikoak leneko jendeak eta Israeldarrak. Ori bera billatzen du Jaungoiko berak, sulezeko berria ta zeruko ondasunen ustea guri geren gogoan sartuz, guri geroi eragin-naiez dabil-

nean geren legeko gauzak. Lenekoetatik anitz, eta askok baño obeki egiten ezpaditugu guk geren gauz oriek, galduak izain gara gu ere leneko galduekin batean; ta galduak izain gara sekula guzi-guzirako.

Orretara naiteke ni? Ta orretara, nik neronek nai dudela? Orretara naiteke ni, nigatik gizon egin ezkeron nere Jaun on maitagarria, ta Jaun berak geroz egiten zizkidala, egin dizkidan adiña gauz on ta ontarte? Orretara naiteke ni, ta burutik irauzi, edo erotu bage? Au badakit, eta alere bizi naz, bizi nazan bezain aisa, ta aisolarik gabe! Au badakit, eta ez naz saiatzen zerbait badere egitera, gerta ez dakidan malur arrigarri au? Zertan nago ni, nagoen bezala, nere oraindañoko alferkeri ta nagitasun zenzu bagean? Noiz artean irauñ bear ote dute oraindañoko nere erakeriak, eta urrats edo pausu makurrak? Noiz itzuliko naz ni, nere billan, ta ondoren dabillen, nere deiez dagoen, ta ni beretu nai ninduken, nere Jaun andi ta jabe Jaungoiko maitagarriagana? Gaurdanik, Jauna, ta bertatik, bat ere luzatu gabe, zuk laguntzen didazula. Biziro zugana noan; ta noan asi ta gelditu gabe, kendu bear didazu zuk

zerorrek nere bekatuen karga pisu au. Ziñez eskatzen dizut, eta damuz beterik, erraten dizudala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XIV.garren OTOITZ-GAIA

NORAÑOKO DEN GURE JAUNAK,

GUGATIK GIZON EGITEAN,

EGIN IZANDU ZIGUN

ONTARTEA TA FABOREA

Gauz onak, etorri orduko, atsegin-kontentuz betetzen dituzte, orien begira zeuden biotzak: baña, etorkizun arkitzen diran denbora guzian naikunde utsa ta desira, besterik ez dakarte; ta dakarten desirkundea, edo beren naia, anbat andi biziagoa da, zenbat andiagoak diran, ta obeak, uste diran gauzak edo ondasunak. Leneko jendeak onelako deseoz ta naikundez beteak bizitu ziran, Jaungoikoa gizon-egin arteko denboran: ta, orien desirak adirazten dutenaz, guztiz andia zen Jauna gizon-egitetik oriek uste zuten ontartea. Nola-ere-bait orain guk ekusteko, norañokoa den oriek uste zuten, ta guk eginik ekusten dugun ontarte au; ta, ontarte onegatik guk geren Jaungoiko-gizonari zor diogun esker-amorea, ekusi bear degu nolakoak izandu ziran, Jaunak au egin arteko denboran, gaude oriek, eta

orien artean zenbait Patriarkak, Erregek, eta Profetak izandu zituzten Jesus ekusi-naiak. Asi gaitezen Patriarken ta Erregeen ekusi-naietik.

A.

Lege zarreko patriarken, ta errege zenbaiten Jainkoa gizon-eginik ekusi naia, ta desira

Bederatzi eun, ta ogeita amar urtez bizitu zen Adan Paradisutik kanpoan. Zenbat bere bekatua-
ren damu ta naigaberekin? Berak daki, ta bera-
ren jabe Jaungoiko maitagarriak. Bazekien len-
dabizitik Adanek (ekusi dugun bezala) etorkizu-
na, edo Jaunaren gizon egiteko asmoa. Bazekien
Adanek, aren gaizkitik, datozen kalteakgatik eta
nai dutenen onerako zela gure Jaunaren gizon
egitea. Ekusten zuen Adanek, anbat denboraz
berak bese beingo utsagatik zeramana; ta aren
ume gaisoak orduko aren uts beragatik eraman
bearko zutena. Etzen brontzezkoa, ez; etzen bur-
dinezkoa; ez eta arri gogorrezko ere Adanen bio-
tza: aragi bera-minberezkoa zen, ta damuz erdi-

ra zitekena. Bada, Adanek orduan zituenak bezain ekuste gogorak, ekuste egunorokoak, eta ekuste, egunean askotan berritzen ziranak, zertaratzen etzuten aren biotz beratx minbere au? Zer negarrak, bere biotzaren aldi orietako estutasunagatik Adanen begiak isurtzen zituztenak! Zer aiak, biotz berak bere naigabeekin gau ta egun maiz aski, ta anitz aldiz Adan gaisoari idarokitzen ziozkanak! Zenbat bider, egiñaz damuturik, asi ote zen Adan gizajoa bere kontra, ta Jaunari deitzen?

Deituko zion, bai, Adanek bere Jaungoikoari; ta eskatuko zion (nork daki zenbat aldetara), zetorkiola lenbaitlen, lertzen zuten bere barreneko kezkak arintzera, urratzen zuten bere nekeak leuntzera, ta, erdi bi egin nai zuten bere biotze-ko naigabe astun-pisuak kentzera. Deituko zion, ekusi naiez bere ta gure Salbatzallea, berak galdurikako gauzen Arkitzallea, ta ontasun guziak berekin dituen Ongigillea. Deituko zion bein, ta berriz, ta askotan ere: deituko zion egunoro, goiz-arrats, eta, nork konta-al zenbat aldiz ta bider? Baña, bere deitze guziekin etzuen ekusi, ekusi nai zukean gauz andi au: ta, anbat urteren

buruan, atera zen mundutik Adan, mundua, bere bekatuagatik, bere ezkerro lanez, izerdiz, negarrez, kaltez ta kaltez. Oriek dira, Adanek guri, bere umeei, utzi dizkigun ondasunak eta bazterrak; bazter ta ondasun, ez izateko obeak!

Seth zeritzan Adanen semetik Abrahan mundura zeneko, izandu ziran errenko, umez ume, emezortzi, edo emeratzi familietako Nagusi ta Patriarka. Ez dakigu norañoakoak ziran, orien Jesus ekusi-naiak. Andiak zirala, bai, ta besterik ez digu adirazten Eskritura Santak. Abranek izandu zituenak adirazten dizkigu Kristo Jaunak; baña itz bian, ta guztiz laburki. Jerusalengo elizan erran zien bein Kristo Jaunak, au arkitzen ziranei: zuen Patriarka Abran, gizon andi ark ekusi nai izandu ninduen ni, nagoen bezala, gizon eginik; ekusi ninduen len fedez edo siñistez, ta Profetaren begiz; ta gero, gizon egin nintzaneko, (Aita Maldonadok dionaz) bere Linbotik; eta Linboko bere ekuste, edo ni gizon egin nintzalako berri onek, bete zion atsegin-kontentuz biotz guzia.

Berak nai bezain aldetik ezpazen ere, Abranek baño alderagotik begiratu zion onen Illoba

Jakobek; eta iltzeko zegoela, erran zien onek bere semai: Egun au ekusi naiez noa mundutik Abranen linbora; ta an egon bear dut nik, eta egon bear dute ill on guziak onen begira; ta egon bear dago suspirioz, naiez, ta gogoz beteak, etorri dakigun artean, gu andik aren, ta bere zerura zuzenduko gaituen gure Salbatzallea.

Orra nolakoak ziran, noizean bein Patriarkak erakusten zituzten Jesus ekusteko desirak, eta naiak! Ez dira uztekoak Erregeak ere erakutsi oi zituztenak, Dabidenak beintzat, eta onen seme Salomon gizon jakintsuarenak. Badira Eskritura Santan eun ta berrogeita amar Psalmo, edo zeruko kanta. Irur-ogeita zazpigarrenean agertzen du Salmariak Jesusen etorrera, ta Jesusek berez ta bere Apostoluez munduan egin bear zuena. Bigarreanean agertzen du, mundu guzian banatu bearra dela Jesusen Ebanjelioa, doktrina, ta legea. Onetan berean, ta beste zenbaitetan, agertzen ditu Kristo Jaunaren neke-izerdiak, Judasen txarkeriak, Pasioneko penak, Gurutzeko tormentuak, eta au erran zituen itzak; baita ondoan gertatu ziran gauzarik txikienak ere. Bere nekeak agertzen ditu Dabidek zenbait

aldiz; baña begietatik utzi bage Jesus maitearenak; eta, oriek agertzeagatik agertzen ditu bereak; edo, zuzenago erran dezadan, bereak bailira bezala, agertzen ditu bere kantan edo bere Salmoetan, Jesus maite Jaungoiko-gizonak ekusi zituen bidegabeak, injuriak, eta neke arri-garriak.

Salmo beretan agertzen ditu Dabidek, iru-goiztar Erregeen etorrera, ta Jentillen, ta mundukoen konbersioa, edo gure legeratzea. Agertzen ditu, Apostoluak, eta bere Legeko bertze anitzek eraman bear zituzten neke-martirioak, Juduen, Errege gaistoen, Enperadoren, ta gañerako etsaien eskuz ta manuz. Jesusi darraiko Dabid bere Bizitzan, bere eriotzan, ill ondoan, ta, munduak iraun bear duen denbora guzian; baita azken juizioko egunean ere; bada agertzen ditu orduko Jesusen kontu-artzeak, eta gañerako gauzak; eta, onik ez duela dirudi Dabidek, Jesus gogoan, arpan, ta miian ez duen ordu ta puntuan: ta guzia da Dabid Jesus ekusi nala, suspirioa, ta anitz aldetara ojuz erratea: Zertako da, nere Jaun andia, zuk dezun eskua ta indarra? Noiz artean egoin zara zu zauden bezala, geldi-

rik, eta gugana igorri gabe, igortzeko zauden zere Seme, Jaungoiko-gizona? Noiz ekusi bear ote dugu guk gure Jesukristo Jauna gurekin, gure artean, edo gure eran aragiz jauntzia, ta gure onerako zerutik jaitsia, ta jaioa? Egizu gaur bertan lan andi au, ta atoz, luzatu gabe, gure bekatuaren karga gaistoa guri kentzera; atoz, arren, emengo gure etsaiak garaitzera; ta atoz, atoz, zeruan gu sar gaitezten, gañeko ate, eternidade guzian iraun bear dutenak, guri idikitzera.

Nonbait andia da, Dabid Errege, orretan zuk uste dezun ontartea ta faborea! Bada, ain andia ez izatera, etzeunke zere gogoan orren sarturik erabilliko, ta orren itz bero biziz, ta orren ziñez eskatuko. Zer dio zure seme jakintsu, errege andi, Salomonek? Onen erranak, zuen jakindeagatik, beste asko erregerenak baño agitz geiago balio du edozein gauzetan. Adi zazu bada bein berak, egiteko onen gain, Aita Eternoarekin ziardukela, adirazi izandu ziguna.

Zurekin egoin da beti, ta gizon egin bage, zion bein errege Salomonek, gauza guziak dakizkiena, ta, egiten dituzunetan laguntzen dizun zure Seme bakar, jakiunde utsa, ta sekulako

sabiduria? Betor, betor zero orretatik; eta, bere Jaungoikotasun andia galdu gabe, ar beza lurrean lurrezko gure izatea, edo naturaleza; bebil gurekin emen, emen gu gabiltzan bezala; neka bedi emen gure artean; ta neka bedi gure izenean, gure onerako, ta guri erakusten digula nola bizi; bizitz on banatan laguntzen digula, eraman gaitzan bere ondoren; ta sar gaitzan, berekin batean, bere ta zure zero doatsu orretan.

Ez dezu aditzen zer zion gizon jakintsu Salomonek? Ez dezu aditzen zer zion Dabidek? Ez dezu aditzen Patriarkak erraten zutena? Orien erranak, orien ansiak, orien Jaungoikoa gizon eginik ekusi-naiak, ez dute ongi asko adirazten fabore ta ontarte onen balio, ta ontart au egiten digun gure Jaungoikoaren maitagarritasuna? Etzaitzu kostatu, ez, oriei adiña, gure Jaunaren lan andi au; ta ez dezu ezagutu ere oriek bezala! Zu sortu baño len, bekatari txarra, egiña zegoen, zure onerako, ekusgarri on andi, Ontartegille ori: baño zuk, zuri zor zaitzun gauzari bezala begiratzten diozu, ta anitz estimatzen ez dezula. Beste begiz begiratu zioten, urrutitik begira zegozkan

Erregeak eta Patriarka andiak; baña gerozko Profetak ere, orain ekusiko dugun bezala.

B.

Isaias Profetaren Jesus ekusi naia

Isaias Profetak, begiz ekusi balitu bezala, adirazten dizkigu Jaunaren gizon-egitea, Jesusen jaiotzea, Jesusen bizitza ta eriotza: baita ortik datozen on, ta ondasun guziak ere. Bizitu zen Profeta, errege gaistoen egunetan. Erregeen eran bizi ziran orien pekoak. Egiten zuen Profetak alegiña itzez, mandatuz, ta milla aldetara, guziak beren Jaunagana zuzentzeagatik: baña gaistoak etzuten egin nai aren erranik, eta aitzina zoazen beren bide makur galduetan.

Etzuen onik Profetak, ezpazen Jaunaz oriotzen zenean. Oroit-aldi orietan agertzen ziozkan Jaunari bere naigabeak, eta kezkek: eskatzen ziozkan oriek kentzeko bideak eta erremedioa; eta, agertu zionetik andiena, edo Jesusen etorrera, gelditu zen arritua bezala, ta etzekiela, nola etorrera onetatik bere begiak kendu edo gogo

aldaratu; ta, bertze egitekoetan ziardukanean ere, etorrera onetara zetorkion bere asmo guzia, ta itzketa. Gauz onen gain itz egiten zuen: batzuetan erakusten zuen nolakoa zen Jesusen etorrera; besteetan, zertako zen etorrera au; eta bertze batzuetan agertzen zituen, etortze onetatik datozen onak eta ondasunak. Au guzia, ta etorrera oni zegozkan beste anitz gauza idarokitzzen ziozkan Isaiasi, bere barrenen zuen Jesus ekusi-naiak; eta agertzen zuen noizean bein bere nai bizi au itz bero-labur-ederrekin.

Nolakoa zen, Isaiasek dionaz, Jesusen etorrera? Nornai arritzekoa, ta dena milagrozt bete! Orra Israeldarrak, gaiztoak izanagatik, Jaunari noizbait zorko dioten ekustekoa! zion bein Profetak. *Birjiña bat aurdun izain da*, gizonik gabe: erdiko da, ta izain du seme bat, Birjiña dela; bada erditzean, erdi baño len, ta erdi ezker, ta beti Birjina izain da, ta Birjinen Birjina. Au berau adirazten du berriz; ta adirazten ditu bidenabar zenbait Jesusen gauza ta birtute: etorriko da, dio, *Jesseroen sustraietik zigor bat, eta Aren sustraetik lorea*; edo etorriko da egunen buruan Dabiden odoletik Donzela garbi Birjin Ama bat

Ama onen Semea, Aita Eternoaren Semea izain da; ta Seme Jangoiko-gizon, lore eder birtutez, doaiez, ta graziaz dena jauntzia.

Emen Aitarik ez duen Sema onen etorrera au ekusi naiez, asitzen zaie geto zeruei ojuz: ta, agertzen duela nondikakoa den, edo noren birtutezkoa etortze au, erraten die, al duen indar guziarekin, ta Profetaren itzez, urrengo nere itzak adirazten dutena: Zertan zaudezte, zeruak, orrek idorrak? Noiz urtu bear dute zuen odeiak? Noiz Espiritu Santuak, odei eginik, egiñen du? Birjin Amaren lur garbian, bere birtutez egiteko dagoen lan andia? Betor, betor lenbaitlen ta gaur bertatik, lan au egitera. Artean guk ezin dukegu, uste dugun Salbatzallea; ez eta, onek dakarren Justizia, ta zuzenbidea ere.

Trinidadeko bigarren personak, eternidade guzian, gizatasunik bage, Aitarekin ta Espiritu Santuarekin egondu denak, artu, denboren buruan, gizatasuna? Ta artu bestek ez bezala, ta milagroez Donzella garbi bategandik? Au da Profeta Santu au arritzen zuen, ta nornai arritzeko gauza; ta au zen lenbaitlen Isaiasek ekusi nai zukena. Nai ona segurki! ta zuzen zebillena! Sar

baledi gure biotzetan ere! Emen nai au sartzera, artzen dugun baño geiagotan artuko genuke guk Jesus etorria geren barrenetan, edo, egiten dugun baño geiagotan komuniatuko giñake; bizi ez garan bezala biziko giñake; ta biziko giñake, gure Jaunak bere gizon egite onetan egin digun ontarte ezin-geiagorañokoa gogotik uzten ez genuela! Emendik aitzina badere dagigun, oraindañokoan egin ez duguna; ekus dezagun Isaiasekin batean, zertako egin izandu zuen gure Jaungoikoak era onetan egin zuen gauz andi au.

Zertako da, Profeta Santua, Jaunaren Gizon egitea? Zertako? Oraindik ekusi diran gauzarik ekustekoenak zuri ta mundu guziari agertzeko: bada, Jesus datorrenetik ekusiko dezue (dio bere eran Profetak, nik gurean orain diodana); ekusiko dezue, nola dabilzan elkar arturik bildotsak, eta otsoak, antz-umeak, eta orien etsairik andienak, leoiak eta ardiak, artzak eta aretzeak, edo zekorrak; eta ekusiko dezue, dio, nola aur batek zaitzen dituen guziak, ardi utsak balira bezain aisa, ala larrean elkarrekin dabilzanean, nola korralera biltzen diranean, au elkarren ondoan gaba pasatzeko; ta zaitzen dituela, elkarri gaitzik

egiten utzi gabe. Ez dira gauza ekustekoak, aditzen dituzunak? Aditu dezu ekustekoagorik? Oriek eragiteko bada, ta beste orrelako anitz gauzetarako da gure Jangoikoaren gizon egitea.

Baña, oraiñ gañerako gauzak aldebat uzten ditudala, zer da, Profeta santua, itzketa illun onekin adirazi nai diguzuna? Zuk orain emen ikasi dezakezuna. Aur zaille, gugatik aur egin zen au, gure Jaun andia da. Zaitzen dituen otsoak, tigreak, artzak, eta leoiak dira gizon lapurrerietan zebiltzanak, begiratze makurrak, eta biotz tolestuz beteak zituztenak; arinkeria ta animako loia baizik etziranak, edo antustez ta arrotasunez beterik zebiltzanak: eta bildotsak, aisuriak, auntz-umeak, ardiak eta zekorrak dira aberats onak; maliziarik gabeko jendeak, jende garbiak, jende umillak, eta jende zuzenak. Oriek elkarrekin gau ta egun bakean ta ongi bizitzea ez da besterik, baizik Jesusen erakustek eta graziak eskuratzea gizon gaistoak; eta oriei onen bide on zuzena ar-eraztea.

Etzaie guti kostako, ez, dio Profetak, ontaraztea, gaitzera oituak dauden jende gaisoei: baña, oriei ori eragitera datorren beren Jangoiko-

gizonak errain die: Ez da zer-beldurtu, ez, mundu ta infernu guzia zuek galdu naiez, ta lan on au zuei eragozten, ibilliagatik; zerez ezin dezutena, egin dezakezue nik laguntzen dizutedala; ta ni, zuei laguntzeko nago noiznai, ta nai dezuten guzietan. Au berau Jangoiko berak erraten digu guri egun ere; ta beraren erranak adituz, ta geren lanak eginez ontzen ezpagara, dezakegunak bezala, gurea izain da oben ta kulpa guzia.

Adirazteko gero Profeta berak, Jesusen erakuste ta laguntze onetatik *datozen onak*, itz egiten du, oi duen eran, ta oraingo gure itzketak adirazten duena: orduan ekusiko dezue zuek, nola ekusten duten itsuak, aditzen duten gorrak, eta itzketan dauden mutuak; ekusiko dezue zein arin dabilzan urgunak, zenbat lan egiten dituzten mainguak, eta eskurik etzutenak. Orduan agertuko dira bazter agorretan putzu berriak, eta putzu urez beteak; eta agertuko dira, erreak ziduriten mendietan, ta aldapa gogorretan, iturri ederrak eta urezko erreak: baña dragoien zoko galduetan ere kañabera luzeak, eta ii bear beza-lakoak.

Edo orduan ekusiko dituzue Jesusen milagro oriek guziak, eta anitz geiago; baña oriek baña ekustekoagoak diran animako gauzak ere; bada ekusiko dezue, nola jentillak, nola turkoak, eta oriek bezain gaistoak, eta gaiztoagoak ere, siñesten dituzten Jesusek agerturikako misterio andiak; nola artzen dituzten misterio berak agertzen diezten bideak, nola egiten dituzten, Jesusek laguntzen diela, egiteko ta lan arrigarriak; eta nola, utzirik leneko beren bide gaistoak, arin dabilzan, ta gelditu gabe, Jesusek agertu dien ta berak onez artu duten zeruko bidean. Ekusiko dezue nola Jesusek aterako dien, nai dutenetan, biderako bear duten jan-edana, edo Komunione-ko sustentoa ta graziaren ur ederra. Ekusiko dezue nola, len etsaien leze loi-galduak ziran biotzak, dakazten asmo garbizko loreak eta birtutezko lirio zuri ederrak; ekusiko dezue nola jai-igandeetan, egun artuetan, ta anitz orduz, sartuko diran emen, Sion deritzan lekuan, Jaunaren Elizan, Jaungoikoari dagozkan egiteko garbiak zuzen egitera; ta, ekusiko dezue nola sartuko diran gero, graziaren ondasunez ta irabaziz beteak, atsegin utsa ta kontentua besterik ez

duen zeruko glorian. Zorionekoak egun oriek ekusten dituztenak! Ezin ekus nitzake nik ere? Bai, Jaungoikoak nai balu! Nai dakiola, nik ekusten ezpadut ere, nere ondotik etortzeko daudenak lenbaitlen, edo anitz luzatu gabe, egun au ta egun onetarako gauz andiak ekustea!

Orra aldi onetan Profetak adirazten diguna. Baña etzen au azkeneko Isaiasen erranaldia: agertu zuen geroz ere bere gogo bizia, ta Jesus ekusi-naia: ta a nonbait! (erran zion Jaunari era berean, nik gurean orain diodana, ta urrikal bazenkiotza, galduz, ta galduz doan mundu txar nastu gaisoari! Urra bazenitza lenbaitlen zere zeruak, lurrera gizon egiñik etorri, ta emen egiteko, gure onerako egin uste dezun gauza andi au! Orduan guk aisa garai-gintzake munduko gaistoak, eta sulezeko etsai gogor amurratuak; eta zuk ekarriko zenuken amoriozko suan garbituko genituke geren biotz loiez beteak, eta arkituko genuke, zu serbitzatzeko, zu maitatzeko, ta gure gauzak bear bezala emen egiteko bear den berotasuna ta argia.

Bidenabar (dio berak) ezagutuko lukee lurrekoak norañokoa den zure eskua, zein on maita-

garria zaran zu, ta zuk gure ta guzien onerako aldi onetan egin bear dezuna. Zuk au egin artean, ona gu nekez ta bekatuz ingurutuak: eta, bekatuak kentzeko orain ditugun gauzak orra zein balio gutikoak, orduko erremedioren aldean! Orain guti dira zure izenaz oroitzen diranak; eta alere gutiago Sionko errian, ta Jerusalemgo elizan sartzen diranak. Au guzia zuk bada-kusazu, gure Jaungoiko maitagarria, ta ala ere luzarazteko zaude zere etortzea, zere gizon egitea? Ai! au lana! au nekea!— Orra nolalzoak: orra zein andiak Isaias Profetaren Jesus ekusi-naiak. Nolakoak ote ziran gañerako Profetak izandu zituztenak? Goazen ekustera, obeki ekusteko zein andia den, bere gizon egiteagatik, gure Jaungoikoari guk zor diogun amorea.

C.

Bertze Profeten Jesus ekusi-naia

Isaiasek ezezik, bertze Profetak ere izandu zituzten Jaungoikoa gizon-egiñik ekusteko desir andiak; eta desir, gogo edo naikunde, bideak

zekarrenean, agertzen zituztenak. Agertzen zituen Profeta bakoitzak, agertzen zituenak, zegokan lana egin bage ez uzteagatik; edo berotu naiez munduko guzien biotzak Jesusen uste onarekin; oriek ere beren onagatik eska zezoten labur zitzala, laburtu ala, bere otoi-denborak, eta ager zedilla lenbaitlen, agertu uste zuen eran, ta aragiz jauntzia, edo gizon egia. Orain guk ekusi bear ditugu orietatik zenbaitek beñ edo berriz agertu zituzten beren naikunde, edo Jesus ekusi-naiak; eta ekusiko ditugu orien aldi orietako mintzoerak, edo itzketak, Lirak, Alapidek, eta beste interprete andiak adirazten dituzten eran, ta gutiren bat luzatzen ditugula.

Jesus ekusteko naikundez ta deseoz beterik arkitzen zen batean, izandu zuen Ajeo Profetak onen etorkizunaren gain atsegin ta kontentuzko berri eder bat. Berri au, Jaunaren manuz agertu zien. Profeta berak Zorobabel zeritzan Gobernariari, Josodek Apez Nagusiari, ta gañerako jendei, pozez ta gustoz beterik erraten ziela: *egizue, bai, beldurrik gabe, egin bear dezuten zeren egitekoa: egizue zeren Jaunaren Jerusalengo Eliza, ta gaurgero beude aldebat, oraindañokoan*

anbat estutu zaituzten zuen beldurrak, eta kezka guziak. Orra Jaungoikoak, niri, zorioneko aldi onetan adirazi didana, gerta diteken, ta guk aspaldian uste dugun, gauzarik andienaren gañean. Denbora da, bai, begira daudela jendeak noiz ote datorren gure Jaun etorkizuna: joan diranen aldean laburrak dira, orretarako joateko dauden, edo falta diran urteak.

Urte orien buruan, Zeruak aterako dira beren pausutik, edo izan oi duten eratik, eta agertuko dute, lenak ez bezalako, Izar guztiz eder bat; eta Izar, gau-ta-egun argi egiñenen duena. Lurrak, itsasoak eta bazterrak: galduko dituzte leneko beren nagusiak, eta geldituko dira Romako Enperadoreen eskuetan. Orien manuz ibilliko dira jendeak bere jait-etxeen, ta errien billan. Errian errikonak, eta bazter bakoitzean, ara datozenen izenak artuko dituzte, orretarako romatarrak bereziko dituzten gizonak. Lan au eragiñen du Romako Enperadoreak, ikasteagatik, zenbat milla ta milloi diran aren eskupekoak, eta bere premietan lagundu dezoketenak. Jendeak onetan dabiltzanean, agertuko da mundu guziak eskatzen duena; edo onak eskatzea dute-

na, ta guziak bear dugun gure Jaungoiko-gizon
egiña. Etorri, ta laster, sartuko da Jaun au zuen
Jerusalengo elizan; ta onen sartzearekin gelditu-
ko da Eliza, Salomonek egin zuena diñakoa ez
izan arren, ark egiñikakoa, ta ark ura urrez, ta
zillarrez apaindu zuenean baño ere agitz ederra-
goa, ta ekusteakoagoa: *Et implebo domum istam
gloria*. Zorioneko euskaria! Zorioneko etorrera!
Eta nork au astiz ta luzaro begiz lekusken, orain
siñistez bezala!

Zakarias Profetak era berean itz egiten die
Jakoben umeei, bada erraten die: *Noiz artean
biziko zarate bizi zaraten eran, edo dituzuen
bezain asmo ta ibillera eroetan? Babilonian bizi
diranak bezala, bizi bear dezute zuek, edo ango-
en eran ibilli uste dezute, idoloz idolo, ta gaizkiz
gaizki? Ez, ez: bakarrik, edo zuek bage, erre ta
lertu bedi bere sulezean, ara zuek era orretako
lanekin eraman naiez, zuen ondoren dabillen
etsai gogor madarikatu galgarria. Ez da zer
galdu, ez, zeren zuzenbidearen ustea, edo gero-
ko esperantza. Ez da bat ere zer berandetsi
zeren Jaunaren etortzeaz: banator, dio berak,
zuen artean gizon izatera. Or biziko naz, bai,*

zuetatik bat bainintz bezala; ta biziko naz, zuei bizitzen, ta gauz onak egiten eragusten dizuedala. Zuen artekoak, edo Israeldarrak ezezik (dio gero) mundu guzian banatuak dauden jendeetatik ere neretuko ditut anitz, eta asko; ta neretuko ditut, zuen artean erakusiko dudan dotrinarekin. Nere dotrinarekin batean emain dut emen, ta emain dut mundu guzian ere nork-nai edo bakoizak ongi bizitzeko bear duen laguntza ta grazia; ta, nai badu, ta ongi eskatu ezkeru, agitz geiago ta geiago. Eta bere denboran emain diet nik ongi bizi diranei beren irabazia, ta, beti-betikoko gloria. Baña begira bezate nola ta zertan dabilzan, gaizki dabilzanak; bada lurrez, ta aragiz jaunzia egonagatik, edo zuen gizatasuna artuagatik lena izain naz ni, dio Jaungoiko berak, etsaiak eskuratzeko, ta nori bere penak, eta dagozkan neke ta kastigu guziak emateko.

Zertako da orrenbat itz ontzikeri? Erraten, edo adirazten die jende berei Malakias Profetak. Berandetsirik arkitzen zarazte, zeren zuek nai baño geiseago luzatzen duen gure Jaunaren etorrerak. Gure ondoan, edo gure aldean bizi diran jentilitsuak, gaizki biziagatik (diozue), gu baño

aisago bizi dira, ta nekerik gabe: ta gu ongi ta zuzen bizi garala; ta gu egonagatik, gauden bezala, gau ta egun ta beti geren Jaunaren ustean, geren Jaungoiko-gizonaren begira, ta deiez ta deiez, lenbaitlen datorkigula, beti nekatuak gu, beti kezkarakin gu, ta bein ere atsedeten ez dugula! Nola dabilta gauzak? Edo non gorde da, guri ez laguntzeko, gure gauzen Zuzentzallea?

Orra zuen erakerial Orra zuen itzketa ero bururik bagekoa! Itxozue, zoratuak zenbait denboraz, dio Profetak, eta adi zazue Jaungoikoak erraten dizutena. Igorriko dut, dio, ta anitz luxatu gabe, bideak zuzentzera, Aingeruen gisan biziko den S. Joan Bautista: ta onen ondoren agertuko da zuek uste dezuten Salbatzallea. Jesus Salbatzallea dator Lege berri bat lurreko guziei ematera. Lege onetan arkitzen dira, ongi ta gaizki bizi diranen paguak. Utzatzue, utzazue; zuen bazterretako gaistoak, zenbat ere doatsu-aberatsak diran, egunen batean artuko dute zorigaistoko beren irabazia: ta orduan onak, ongi dabiltzala bizi diraño, neketan ta arrastan emen

ibilliagatik, artuko dute Jesus onagandik beren irabazia, ta sekulako gloria.

Orra Profeten itzketa ta mintzoa; edo orien misteriozko mintzo-itzketak adirazten duena. Orra zein naituak Profetak, eta mundu guziko ta Lege zarreko jende onak, zetorkien lenbaitlen, uste zuten beren Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria. Etziran, ez, orren naituak anbat denboraz biziko, oriek jakin ezpalute etortze onen balioa. Ote dakizu zuk ere? Ez dut uste, bear bezala beintzat. Bada zuk jakitera, edo zuk ezagutzen bazenitu Jesusen etortze onetatik datozkizun ondasunak, etziñan izain, ez, izandu zaran bezain eskergabea: billatu dituzun baño gogoza-go billatuko zenituen Jesusen ondasunak eta laguntzak; eta gaur izain ziñan, zaran baño obea ta birtutetsuagoa. Berari nai dakiola bertatik zuk zere begiak idikitzea, ekus dezagun, oraindaño baño begiratze argiagoarekin, Jaunaren gizon egitea; ta gizon-egite onegatik zor diozun ontartea, ta amoreta; onen amore andiari, al den amorerik andienarekin erantzuteko orain ta zere bizi-tzan, edo zere ill-arte guzi-guzian.

*Beati oculi, qui vident quae vos videtis;
dico enim vobis, quod multi Profetae et Reges
voluerunt videre quae vos videtis,
et non viderunt; et non audierunt.*

Luc. 10. 23

Zorioneko begiak ekusten dutenak zuek orain ekusten dezutena (erraten zien bein Kristo Jaunak berekin zerabiltzanei); bada ekusten dezue zuek, anitz erregek eta profetak ekusi nai izandu zutela, ekusi etzutena; ta ekusten ezezik, aditzen ere dezue, ekusten dezutenaren aotik, oriek berak aditu nai izandu bazuten ere, aditu etzutena: ekusten nazue alabaña ni gizon egiña, ta nigandik aditzen dezue nik mundura dakardan nere lege berria.

Erran dakikegu guri beste onenbeste? Bai, begiratzen badiogu guk geren Jaungoiko-gizonari, ta aditzen badugu Jaun onen legea, Jaun beraren Apostoluak bezala. Nola begiratzen zioten gure Jesusi bure Apostoluak? Biotz onez, ta begi garbiekin: bekatuetatik, eta bekatuen bidetik beren gogoak kentzen zutela; ta beti, ta biziro

maitatzen zutela beren Jesus. Nola aditzen zituzten Apostoluak Jesusen itzak eta Jesusen legea? Aditzen ziotena zuzen egiteko naiez beteak zuedela; ta au berau, al zutenei, eragiteko gogoarekin gelditzen zirala. Onela begiratzen diozu zuk zere Jaungoiko-gizon, Jesus maitagarriari? Onela aditzen dituzu zuk zere Jesusen itzak? Ez dira itzultzen zure begiak, ez dira makurtzen bein ere lurreko gauzetara zure asmo-gogoak? Nolakoa izan oi da zure ibillera? Nola ibilli oi zara zere legeko gauzetan? Guziak egiten dituzuzu zuzen, bear den eran, ta uts egin bage? Zuzentzen dituzu, ta alik lenena, noizbait egiten dituzun zere utsak eta makurrak? Uts egin bage ibilli uste dezu bizi zaraño; ta lan onez on ibiltzeko asmoan arkitzen zara? Ala bada, zorioneko begiak dira zure begiak; eta zorioneko bearri-biotzak zure biotz bearriak. Oriek zuk gaitzen ezpadituzu, edo ori bera zuk egitera ill arteko zere denboran, zuk gero eternidadean ekusiko dezu Jesus, Sakramentuko estalkirik bage, ta argiz ta Aingeruz inguratua. Ala gerta dakizula: bai arren, bai!

*Beatus ero, si fuerint reliquiae seminis mei
ad videndam claritatem Jerusalem.*

Tob. 13. 20.

*Egunen batean agertuko da gizon eginik gure
Jaun maitagarria: ta nork lekusken zorioneko
egun eder au!* erraten du Tobias zarrenak bere
azken aldean. Zorionekoa ni, nik egun au ez eku-
siagatik, ekusten badute nere ondorengo
batzuek! A, zer ekuskarria orduan Jerusalengo
Elizan agertzeko dagoen Jaungoiko-gizona! Jain-
ko-gizon onek, au sartu orduko, utziko du den
guzia, ekustekoz, argiz, ta erakustez betea; ta,
begiak ez ertsitzera, an orduan arkitzen diranak
ekusiko dute, Israeldar onak, eta, guziak baño
gogotikago Errege zuzenak eta Profetak beti ta
beti eskatzen zuten ekustekoa.

Zer egiñen zenuen, zuk bekatari txarrak,
ordu artan au arkitzera zu Jerusalengo elizan,
Jerusalendarren artean, ta Jesusen begietan?
Eskerrez beterik Jesusen oñetan belaunikatu, ta
amorez urturikako biotz bat an ari erakutsi? Au
guzia zuk egiñagatik, egiñen etzeunen bere
orduko agertzeagatik zor diozunaren laurdenik

ere. Atotzea, ta gutiago zor diozu zuk gaur Jesus berari, zeren etorri zaitzun alderagoko gure elizetara, ta sartzen zaitzun zere biotzeraño, komuniatzen zaran guzietan? Eta egiten diozu zuk orregatik zor zaion bezala? A! ta zein guti! Eta orrela, edo geiago egiten ez dezula, izan nai dezu zuk zorionekoa, ta zeruko doaiez betea? Ez da erraz, ez! Izan nai badezu, bada emendik aitzina ta beti, idiki bearko dituzu animako zere begiak, ongi ezagutzeko Jesusi, bere lenbiziko etortzeaz ta geroz egiten dizkitzunakgatik, zor diozun amoreta; amore onen ezagumentuak eraman zaitzan, zor zaion eran, Jesus onari amorez ta lan zuzenez erantzutera; ta gero, bere orduan zeruko gloriara. Jaunak digula orretarako bear dugun argi ta laguntza guzia. Bai arren, bai!

*Si morara fecerit, expecta eum,
quia veniens veniet, et non tardabit.*

Abach. 2. 3.

Profeta Abakuk egondu zen bein, begira bezala, nondik ekusi zezaken ekusteko andi au,

onen luzatzeaz gaizki mintzatzen ziranei bear bezala erantzuteko asmoan. Onetan zegoela, aditu zuen bere Jaunagandik, *eskriba zazu orain ni zuri erratera noana, jakin dezaten geroko irakurleak nik gezurrik erraten ez dakidanak, orain adirazten dizudan guzia: luzatzen badu ere, ez da orregatik zer berandetsi: itxozu; zaude begira, ta ekusiko dezu nola, ibilliz bezala, ta anitz luzatu gabe, agertzen den gure guzien onerako, guk guziok uste dugun Jaun Andia.*

Mintzoera ta itz egite onetan ageri da zein andia zen Lege zarrekoen Jesus ekusi-naia: ta ageri da orietatik zenbait beintzat etsiak bezala bizi zirala Jesusen etortzeaz: baita Jaunaren aldetik aditu zutenaz ere. Nola ote zaude zu, bekatarri txarra; edo zertan ote dabill zure asmoa, zenbait nekeren edo kez karen batzuek artean arkitzen zaran orduetan? Ordu orietan eskatzen ote diozu zere Jaungoikoari datorkizula lenbaitlen, ta atera zaitzala orien artetik, edo dizula ongien dagokizun eran, orduko zere naigabe ta pena guziak, eta berak nai bezala, eramateko bere laguntza ta grazia? Eskatzen diozu ager dagizula, ongi ta zuzen zere gauzak egiteko, bidea?

Eskatzen diozu datorkizula, zuri zere gaitzerako makurtasunak garaitzen laguntzera, zere aztura gaistoak kentzera, ta gauz anitz on egiteko, bear dezun guzia zuri ematera?

Komunione, ta otoitz askotan au guzia bein, berriz, ta anitz aldiz eskatu diozu noski zuk zere Jaungoikoari; baña erditsi bage eskatzen zeniona; ta orrekin iduritu izandu zaitzu, etzaituela zere Jaunak aditu nai zandu. Bai? Bada ez dituzu zuk zere eskaerak bear bezala egin izandu, edo nekepean oraindik zenbait denboraz bizitzea da zuri dagokizuna. Eska zaiozu bada Jaungoiko berari berriz, ta berriz ere; ta eska zaiozu, alik ongiena, eskatzen diozun guzia. Eska zaiozu, bizitza txar au iragotzeko, ta betiko zerua irabazteko, bear dezuna; ta, zenbait denboraz zure Jaunak luzatuagatik ematea zuri zuk eskatzen diozun gauza, ez da zer berandetsi: gutiena uste dezunean izain dezu eskatzen dezun ori, edo orren orde, ori baño obeki dagokizun zer edo zer: bada aspaldian bere itzez orretara beartua arkitzen da gure Jesus; ta mundu guziagatik ere ezin auts dezake Jesus maitagarriak bere itzeta-tik den txikiena, edo bat ere.

Orretan nago, bai, nere Jesus maitea; ta orretan egin naz sekula guzian. Ni nor banaz, eta nik eskatu ezkerro eskatu bear den eran, zugan arkituko dut nik nere gauza guzietarako bear dudan guzia; baita geiago ta geiago ere. Ekusi baditut nik oraindañokoan, ekusi ditudan bearrak eta premiak, nere kulpaz izandu da, ta nik egin bagez egin bear nuena. Garbitu banu nik, neronek nere naiez loitu nuen nere biotza, eta oben gaistoak, orien bide makur ta aztura galduekin, beste indar artuko zuten oraindañoko nere eskaerak, eta beste moduz adituko zituen gure Jaun andiak. Ongi ar ditzan bada, gaurgero egin bear diozkadanak eta izan dezadan nik eskatzen diodan guzia erdisten dudalako atsegin ta kontentua, orain nai dut egin, len egin ez dudana: orain garbitu nai ditut nere biotz-animak; beraren graziarekin erraten diodala damuz ta negarez! *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

**XVI.garren OTOITZ-GAIA
NAI, TA EZ, ONTARTE ANDIA DA
GURE JAUNA GUGATIK GIZON EGITEA;
BADA GUZTIZ ANDIAK DIRA ONETAN
DABILTZANAK**

Orandañoan kanpotik, eta urrutitik bezala begiratu diogu gure Jaun andiaren gizon-egiteari: orain alderagotik begairatu bear diogu, obeki-seago ezagutzeko gure Jaungoikoak bere lan onetan erakusten digun amorea. Onetarako begiratu bear diegu egiteko onetan dabilzanei.

A.

**Jaungoiko bera, Jesusen Ama, ta
Aingeru san Gabriel dabilza
egiteko onetan**

Nolakoa den egiteko bat ezagutzeko, begiratu oi da orretan dabilzenetara: ta Jaungoikoaren gizon-egiteari onela begiratzen badiogu, aitortu bearko dugu andia dela, ta guztiz alaere, egite-

ko au; bada onetan ibilli dira, batetik Jaungoiko berbera, edo Aita Eternoa, zuen Semea, ta bien Espiritu maitagarria; ta bestetik Birjin Amandrea: ta bien artean S. Gabriel Aingerua. Ekusten dezu nolakoak diran onetan dabiltzanak? Bai: ezin andiagoak! Baña nola, uste dezu, ibilli zirala beren egitekoan? Ziñ-ziñez beren egitekoa ongi ta zuzen bukatu nai andiarekin. Andia zen beraz, ta guztiz alaere, eskutartean egitekoa: bada onelakoak onela ez dabilza bein ere ezer-ezetan, edo, orrenbatekoak ez diran egitekoetan. Au obeki ekusteko, begiratu bear diegu banaka, egiteko onetan dabilzanei; ta bein, edo lenbiziko aldian gure Jaungoiko berari.

1. Atozea, ta non da Jaungoiko bezain gauz andirik? Non da gure Jaungoiko bezalakorik? *Gure Jaungoikoaren aldean erregerik andienak, lurreko enperadoreak eta munduko guziak, ezpalira baño geiago ageri ez dira, dio Isaias Profetak (cap. 40. v. 17).* Jaungoiko da alabaña, lenago ekusi dugun bezala, asierarik ez duen, ta ezin buka diteken Izate utza. Jaungoiko da, zerua, lurra, ta mundu guzia betetzen dituen Anditasuna; ta, diranak baño toki ta leku geiago,

ta geiago balira ere, guzi-guziak beteko litukena. Jaungoikoa da aalkundez, jakiundez, ta ondasunez beterik dagoen Izatea, edo da Izate ezin-obeia, ezin jakintsuagoa ta ezin geiagorañoko eskua duena. Jaungolkoa da, guk eta Aingeruak asm-al adiña baño gauz on eder, ta perfekzione geiago ta geiago dituen Jaun andi bat: Jaun au bada, Aita, Semea, ta Espiritu Santua da alde batetik egiteko onetan dabillena. Orra zer Ibiltzaillea! Orra zer Persona!

2. Baña norekin dakar gure Jaun andi onek bere egiteko au? Jesusen Amarekin. Nongoa da Jesusen Ama? Munduan den etxerik oneneko Alaba. Adanen, Abranen, ta Dabid Erregearen etxeko Alaba da alabaña. Eta nolakoa da Ama au izatez? Parerik bagekoa: bada baditu, bere jait-etxeari zegozkan bezalako gorputz-animak (zein ederrak? zein ekustekoak? Egunen batean ageriko da); bai, ta adimentu garbi ekusle zuzen bat, eta, onerako baizik etzen gogoia edo naimentua, ta borondatea ere. Ekusten dezu? Bada, zenbat ere den aditu dezun guzia, deusez bat bezala da Birjin Ama onen animako graziaren, doaien, ta birtuteen aldean.

Norañoakoa da (baldin badakizu) Birjin Amaren animako edertasuna? *Ezin geiagorañoakoa*, erantzuten du S. Anselmok; bada *ezin asma ere diteke*, dio, *Jaunarenaz osterontzean, edo Jaungoikoarena ezpada, Birjin onen animako edertasuna baño ederragorik*. Atoz, siñisten ezpadezu, Anima au edertzen duten gauzak ekustera. Oriek dira grazia, zeruko doaiak, eta birtuteak. Zein andia ote da Birjin onen Animako guzia? *Ondorik ez duen itsasoa diñakoa*, dio S. Juan Damasenok; edo, San Epifaniok dionaz, *numero ta neurri guziak baño ere andiagoa*. Norañoak dirala deritzazu Jesusen Amaren zeruko doaiak birtuteak, eta gañerako ondasunak? *Jaungoikoak berak baizik ezin ezagu ere ditzakenak*, dio S. Bernardinok.

Orrenbat ondasun ta orren andiak eman ziozkan gure Jaungoikoak Birjin Amari? Bai, ta zegozkanari bezala; egin zuen alabaña bere Alaba, bere Ama, ta bere Esposa; bada Birjin au Aita Eternoaren Alaba maitea da; ta denbora berean Seme Jesus Jaungoiko-gizonaren Ama, ta Espiritu Santuaren Esposa. *Aitak, Semeak, eta Espiritu Santuak begiratu zioten, begira zekikeon amore-*

rik andienarekin, dio San Anselmok; eta orregatik eman zioten zegokan guzia, edo ar zezaken adiña edertze, grazia, ondasun ta doai: bada eman al guzi-guzia zuen Jaungoikoak bere eskuan, ta, guztiz maite duen Aitak, ematen dio eman-al guzia bere Alabari, Semeak Amari, ta nork-nai bere Esposari. Orregatik, dio S. Buenabenturak, S. Jeronimorekin batean; Aingeru, Santuei; ta gañerako guzien zatika eman die Jaungoikoak bere grazia; baña Jesusen Amari eman zion, zegokanari bezala, graziaren betetasun guzi-guzia.

Eta, ekusirik A. Suarez deritzan Jesusen Konpañiako Doktore andiak, oriek, gañerako Santuak, eta gizon andi jakintsuak diotena, erraten ta erakusten du, *zeruko Tronu, Serafin, ta Aingeru guziak, eta an arkitzen diran Santu ta Santak baño grazia, ta irabazi, edo santutasun andia-goa, ta irabazi edo merezimentu geiago dituela Jesusen Ama bakar, Birjin Erregiñak*. Norañokoak ote dira bada edergarri oriek? Eta norañokoa ote da Jesusen Amaren animako Edertasuna? Goazen nola-ere-bait au ekustera.

Atozea: ez deritzazu andiak dirala zure debozioko, ta gañerako Santuak? Nolakoak ote dira Ebanjelistak, Apostoluak, eta Lege zarreko Patriarkak, eta Profetak? Nolakoak zeruko Birjiñak, ango Konfesoreak, eta ango Martireak? Nork au adirazi? Irur zati oietatik txikiena Martirena da. Badakizu zenbat diran oriek berak? Kontuak ongi jotzen dakitenak adirazten digutenaz, amazazpi Milloi, edo amazazpi milla bider Milla, eta geiago. Konfesoreak, Birjiñak, eta gañerako Santuak eta Santak, zenbat ote dira? Nork adirazi? Ote dira oriek guziak, eta Martireak adiña Jau-naren Aingeruak, eta Espiritu uts garbiak? Baita amabi bider beintzat geiago ere. Norañokoa da orien birtutea, santutasuna, ta grazia? Nork jakin? Guk dakigun guzia, Kristo Jaunak bein erran zuena da: *ez da gizartean agertu*, erran zuen Kristo Jaunak, *S. Joan Bautista baño andia-gorik, baño zeruko txikiena au baño andiagoda*.

Ongi: ta ez da S. Joan Bautista Santu guzien artean andienetatik bat? Ezin uka diteke. Bada, au baño andiagoda bada Aingeruetatik txikiena, nolakoak izain dira erdikoak? nolakoak andie-

nak? nolakoak gañerakoak? eta nolakoa izain da orien guzien ta zeruko Santu-Santen santutasuna, birtutea, ta grazia? Ta, orien guziena baño andiagoa bada Jesusen Amarena, noranokoa da onen grazia, onen birtutea, ta onen santutasuna? Suma zazu zuk, al badezu; ta errazu bitartean, zeruan ta lurrean arkitzen den edertasun ta grazi guzia baño geiagorekin arkitzen den Jesusen Ama, nai ta ez, Jaungoikoak gañerako guziak baño geiago estimatzen duen, ta andiagoa den, gauza ta persona dela.

Ongi: ta Birjin Ama onekin bazuen (zuen bezala) gure Jangoikoak bere egitekoa, gizon egiteko, ta gure artera etortzeko zebillen denboran, etzekarren egiteko au, al zezaken personik andienarekin? Ezin uka diteke.

3. Goazen orain, Bitartekoa nor zen ekustera. Nortaz baliatu zen gure Jaungoikoa, person-andi, Birjin birtutetsu oni egiteko onetan itz egiteko? Bere Eupireoko prinziperik andienetatik batez, san Gabriel arkanjeluz. Au igorri zion gure Jaungoikoak birjin guzien Birjin oni, egin gogo zuen gauz andi au adiraztera ta eskatzera bezala, ontzat ar zezala Jesusen Ama izatea, ta utz zezala

la Aita Eternoaren Semeari bere baitan artzera gizatasuna, ta eman zezola ortarako bear zuen odol garbia, gorputza ta sustentua.

Etzen orduan asi, ez, Jaunaren egiteko andi onetan zeruko Prinzipe andi au: bost-eun urtez lenagotik ere orretan zebillen; bada baziran beintzat orrenbeste, lenbiziko aldian Jaungoikoak igorri zuela arkanjelu S. Gabriel egiteko beraren gain, denbor-artan Babilonian bizi zen Daniel profetagana, oni adiraztera, etzezala berandetsi; laburtuko zituela Jaungoikuak denborak edo plazoak, eta igorriko zuela urte orien buruan bere Seme-Jaungoikoa gizon egitera. Geroz ere igorri zuen gure Jaungoikoak aingeru bera S. Joan Baptistaren aitagana, oni erratera izain zuela bere andre zar, santa Isabelagandik, izen onetako seme bat; eta seme, Jesusen etor-bideak zuzenduko zituen, edo Jesusen legera jendeak zuzentzera zetorrena.

Errazu orain: eternidade guzian Jainkoak gogoan iduki duen egitekoa; mundua ta mundukoak egiten asi zenetik egin artean, edo lau milla urtez ta geiagotan usu ta maiz Jaungoikoak agertu zuen egitekoa; Jesusen Ama bezalako Birjiña-

rekin Jaungoikoak tratatu zuen egitekoa; ta, S. Gabriel bezalako Aingeru bat bost-eun urtez Arteko dela, Jangoikoak erabilli zuen egitekoa ez da egiteko andia? Nai, ta ez! bada oriek irurak bezalakoak ezin dabiltzke ibilli diran bezala, ezpada egiteko andietan. Oriek bezalakoak ezezik, lurreko erregeak eta enperadoreak ere ez dituzte luzaro ta prinzipiez tratatzen, egitekorik andienak baizik; eta Jaunak ezin dagike, bere izate andiari, edo Jaungoikotasunari, ongi ta eder ez dagokan gauzarik.

Baldin nik baneki norañokoak diran aingeru Gabrielen, Jesusen Amaren, ta gure Jaungoikoaren izatea ta santutasuna, orduan bai, jakinen nuke osoro ta zuzen Enkarnazioko misterioa, edo Aitaren Itz andi, seme bakar Jesusen gizon-egitea, ta egite onetan egin didan ontartea. Baña ez da sortu, ezta sortuko ere, orien iruren, bear bezalako berria, erditsiko duenik! Ez eta Jaunaren gizon-egitea, bear bezala ezagutuko duenik ere! Jaunak berak baizik, ezin dituken berriak dira berri bata ta bertzea. Berak digula, digun amoreagatik, guk dukegun berri bien zatirik andiena; ortik atera dezagun zein andi ekusga-

rria den guk geren Jaunari, gizon egin zenetik,
zor diogun amore! ta gero, amore oni amorez
erantzuteko, eman digun grazia. Bai arren, bai!

*Nolo morten impii, sed ut
convertatur devia sua, et vivat*
Ezech. 33. 11.

Leneko eternidadean ikusi zuen gure Jangoi-koak, gertatu zenean bezain garbiro, Adanen utsal ta bekatu zikina. Zer zion orduan? Zer dio geroztik? eta zer erraten ote du gu gauden egunetan, ta gaizkiz, ta bekatuz mundua bete zen ezkerro? Nai ez nuke, dio Jangoiko maitagarriak, gal lekidan gaistoan artetik bat ere: guziei arre-razi nai nieke beren buruen irabazbidea, ta egin dituzten gaizkien damua, izan dezaten, nerekin batean, eman gogo diedan nere zeruko gloria. Orretarako da egin nezaken gauzarik andiena, edo nere gizon-egitea.

Ekusten dezu eternidade guzian, gure Jaunak gogoan iduki duen asmoa? Ordutik ekusten dago gure txarkeriari dagokan sulezea; ta, ara gu igo-

rri lekuan, arako bideak urratzen dabil, ta guri egiten zerura zuzen daraman beste bid-eder bat. Zorionekoak gu gogortzen ezpagara geren bide gaistoetan! Zorionekoak gu, artzen badugu guk beste bide eder au; ta, onetan bagabiltza bizi garaño, egiten dugula beti; bein ere uts egin gabe, gure Jaun onak zerurako eragin gogo digan guzi-guzia. Pozik egin lezake orrenbat, eta anitz geiago ere, borraroz bizia galtzeko dagoen edozein gizonek, borrareroaren eskutik atera ta Erregerekin bizitzeagatik, aren zaldunak eta gizon andiak bizi oi diran eran.

Eta ez ote dut nik egin bear, sulezeko borre- ro gogorak garraitzeko, ta Jaunaren Zaldun ta Zerutar izateagatik, eskertasunez, besterik gabe, egin bear nuken zer edo zer? Bai, baldin- bere! Ez dut nere gogoan erabilliko, eternidade guzian bere gogoan iduki naben nere Jangoiko maitagarria? Atzenduko ote zait, nigatik Jaun onek artu duen lana ta nekea? Ez nuke nai bein- tzat; eta, atzen ez dakidan, nere Jaun berak dira- la, ori ta gañerako zor zaizkan gauzak gogoan daduzkadala, zuzen ibiltzeko, ta eriotz on bat egiteko grazia. Bai arren, bai!

Cogitare de illa sensus est consummatus.
Sap. 6. 16.

Izan ditzakegunoroitzapen onenetatik bat Jesusen Amaz oroitzea da: zergatik uzte dezu? Zeren Jangoikoak guztiz nai dion; ta nai duen, maita dezagun guk ere. Guztiz nai dio, bai, bere Jangoikoak Jesusen Amari. Zenbat uste dezu? Adi zazu Jangoiko berak diona. Anitz dira, dio, zeruan ta Elizan arkitzen diran anima garbi, birtutez beteak; baña bat bakarra da graziaz, doaiez ta ondasunez beterik arkitzen dena; ta bat bakarra, edertasun utsa baizik ez den anima (*Cant. 6. 7.*). Onekin dira, dio Jaunak, nere egitekoak; onekin nabill, makurren zuzentzen (*Sap. 8. 30*), ta, onek laguntzen didala, atera-naiez nabill, nai duten guziak, Adanek aurtiki dien neke-lan izugarritik, eta geroko sulezetik. Au da nere Semearen Ama; au da nik neronek dakidan bezalakoa, ta bestek ezin ezagu dezakena; bada bear bezala ezagutuko duenak, ezagutu bear du beraren Semea; ta Seme au, nik neronek baizik, ezin

ezagu dezake. Ezagueraren gisakoa da, dio Aita Eterno berak, nik diodan amorea. Ekusi zazu zein andia! zein arrigarriai Ta ekusi zazu, nere anima, zenbat atsegin egiñen diozun gogoz, ta biotzez maitatzen badezu, Jangoiko berak onen maite duen Jesusen Ama maitagarria.

Ai Ama! jakin banu nik nere Jangoikoak orrenbat nai zizula, ta naiko zuela nik ere zu ziñez maitatzea, eginen nuen alegiña, lan au lenago ta lenagotik ere egiteagatik, eta maitatuko zindudan Jaunarekin batean biotz-buru ta indar guziarekin. Dakidan ezkerro, saiatuko naz ongi ta zuzen lan au egitera datozen egunetan, ta nere bizitza guzian. Zorionekoa ni, zuzen egiten badut, egin gogo dudan lan andi au! bada, egiten badut, egiñen dut Jaunari atsegin egiñen dion egiteko bat; et egiñen dut, neroni ere ongi dagokidana; zeren, zenbat ere nere gogoan sartuagoa Jesusen Ama, anbat andiagoak izain diran onen eskuz Jaunaren eskutik artuko ditudan ondasunak: guziak datoz alabaña, S. Bernardok dionaz, alde ta bide onetatik (*Ser. de Nativ. V.*)

Orrenbat ondasun baño gutiagogatik ere, gogoan nork-nai pozik ar zintzake, *maitatze ederraren*, ta Jesusen Ama maitea; bada zeruan, ta lurrean arkitzen diran gauzarik ederrenak ere, ez dute zer-ekusi zure edertasunarekin; zu zara alabaña Aingeru, Patriarka, Profeta, Martire, ta Santu guzien Erregiña; ta guziak baño grazia, doai, ta edertasun geiagorekin arkitzen zaran anima. Zu zara, dezun argiarekin illargiaren, izar guzien, ta eguzkiaren argia illun zenzakena. Zu zara Jainkoak eternidade guzian munduaren erremediorako berezerik iduki zaituena. Zu zara Jaungoiko beraren biotz-biotzekoa: zu Aita Eternoaren Alaba maitea, zu Seme Jaunaren Ama maitea; zu, ezin geiagoraño nai dizun Espiritu Santuaren Esposa maitea: ta zu orien gogotik bein ere atera gabea, ta, etorkizun dauden urteetan, ta sekulan gogoan sarturik idukiko zaituzten gauza, ta beren eskuetako lana: ta denbora berean zu zara, zeruan diranak zuri begira, liluratuak bezala, ta amorez urtuak dauzkatzuna.

Zer misterio bada, bestegatik ezpaliz ere, zeren zaran Jesusen Ama, zaran bezalakoa, nik zu gogoan artzea, nik zu maitatzea, ta zure ize-

nean nik, al dudan guzi-guzia egitea? Ta, daki-dan ezkerro, lan au egitean, egiñen dudala nere Jaungoikoak nai duen lan eder bat; egiñen dudala, nik zuri, gure erremediatzalle Jesusen Amari bezala, zor dizudan egitekoa, ezin utzi dezaket, izan nai ezpadut, izandu den eskergaberik gais-toena, ta munduko gizonik eroena. Ez orrelakorik, nere Jesusen Ama maite-maitea! Zu gogoan zaitudala, ta zure amorez biotz au beterik dadukala, nai dut bizi gau-egun, orduoro, ta sekula guzian. Dezakezunari bezala, eskatzen dizut, erditsi dezadazula orretarako bear dudan laguntza ta grazia: ta, badut uste, zu arteko artu ezkerro, izain dudala eskatzen dudana baño anitz geiago ta geiago ere. Ala gerta dedilla: bai arren, bai!

*Missus est Angelus Gabriel á Deo...
ad Virginem, et dixit ei, Spiritus Sanctus
superveniet in te, et virtus
Altissimi obumbrabit tibi.
Luc. 1. 26. etc. 35.*

Zeru-lurra arritzekoa den gauza ta egitekkoa! Galduak dauden gauza-txarrakgatik onenbat egiteko? Buru gaistoko gizon galduakgatik, galduak bezala Aita-Semeak, eta Espiritu Santua; Jesusen Ama, ta S. Gabriel Aingerua? Au zer da? edo zertan dabilta? Jaungoikoa mandatutan Jesusen Amarekin? Jaunaren mandatari, beraren indartasuna, edo S. Gabriel, Aingeru andienetatik bat? Eta Birjina baietz bat ezin eman bezala, bere Jaungoikoak eskatzen dion gauza baten gañean? Zer gauza? Zer egiteko da, onenbat arazo ta egiteko dakarren egitekkoa? Jakin naiez galdetzen dezu? Bada egiteko au, Espiritu Santuaren bazterrik bageko amoreta, ta Jaungoiko denaren altasun guzia bear, ta eskatzen duen egitekkoa da; au da alabaña, munduko guzien onerako gure Jaungoikoa gizon egitea.

A, zeruko Prinzipe andi, Aingeru San Gabriel, bitarteko eder maitagarria! Eskerrak zuri nik, eta nerekin batean munduko guziak; bada guziakgatik da zuk Danielen denboran, ta geroz, lan onetan egin damua; baita orain zerutik dakartzun mandatu au ere. Lagun zakizkit zerura igaten,

alderagotik zuri eskerrak emateko: eman naiez nago bein, ta berriz, ta sekula guzian.

Jesusen Ama maite Birjina Marla, eskerrak zuri ere, ta esker milla ta milla bider andiagoak, eman dezun baimenagatik. Baimen onek atsegin ta kontentuz bete ditu lurra ta zerua, ta au, ta emen bizi diranak; bada onen ondoren jaitsi da Jaungoiko-semea zuregan, edo zure baitan gizon egitera; ta onen gizon-egitea gizonen onerako da, ta andiz, ta txikiz, ta santuz, zerua betetze-ko. Zorioneko semeak gu, baliatzen bagara zure Seme on maitagarriaz, ta zure laguntzaz! Bide onez ibilli bear dute zeruan sartuko diranak. An sartuko gara gu ere, orien ondoren bagabiltza; ta, au bertatik ekusiko dugu non, ta nola, zaduzkan zu, bere Ama Birjina, zere Seme maitagarriak. A zer ekustea! Jesusen Ama onetsia, Aingeru, ta Santu guzien Erregiña, Aita Eternoaren Alaba maitea, ta Espiritu Santuaren Esposa, Semearen eskoletik, edo bazterrean, atsegin-kontentuz betea; ta alere, gure bear baliz bezain ziñez gu guziok eraman naiez Aingeru ta Santu beren artera, ta zeruko gloriara! Noiz eranzun guk, gure Ama Birjina, onenbat zure ontarteri, ta

onenbat faboreri? Ez beintzat datozen egunetan, ta emen bizi garaño! Zerura bearko dugu, nolare-bait guk au egiteko. Egin-gogoz beteak arkitzen gara, dakusazun bezala, ta orretarako zu zauden zorioneko tokira igan naiak. Eraman gaitzazu, arren! zuzen, ta biderik galtzen ez degula! Egin dezakezu, bai, laguntzen didazula, zere Jaungoikoak emanik dezun esku indartsuarekin: ta, eginen dezulako uste andiarekin arkitzen naz ni. Ez dedilla ustel-atera oraingo nere ustea. Ez arren, ez, Jesusen ta gure guzion Ama maitagarria!

Anitz da, bai, Gabriel Aingeru Santua: anitz da Birjin Amandrea, guk zuei bioi zor dizuegun, esker-amorea; baña anitz eta anitz andiagoa da zuen ta gure Jaungoikoari zor zaiona; ta geren zor andi onen alde erran dezokegu: Orain diran gauzak, eta egin litezkeen guziak baño geiago balio dezun Jaun andia; Jesusen Amak, eta Santa, ta Aingeru guziak baño geiago nai diguzun Jaungoiko maitagarria, zertako da dakarzun adiña arazo ta egiteko gizon-egiteagatik? Zeru ederragoaren bat, edo dituzun baño izate, atsegin ta ondasun obeak uste dituzu zere gizon-egi-

tetik? Zer baiten bearrean arkitzen zara, edo zer zarabiltzi, zabiltzan eran, zere lan onetan? Ai ene! ta nere asmoen ero galduak! Zeren billan ibilli ziteken gure Jaun, ondasun guziak, izate guziak, atsegin guziak, eta gauza guziak berekin dituen Jaungoiko maitagarria? Etzebillen, ez, deusen billan gure Jaungoikoa, lan onetan zebillenean. Ondasunez gu bete naiez zebillen. Bere zerura gu zuzendu naiez zebillen; ta gure on utsagatik ziran gure Jaunaren orduko ibillerak, gure Jaunaren arazoak, eta Jaunaren lan ta egiteko guziak.

Siñisten zenuen au, ta bizitu zara, bizitu zaran bezala? Siñisten zenuen au, ta, saiatu gabe bizitu zara, zer edo zer egitera orduoro ta noizean bein, onenbeste nai dizun, onenbat on egiten dizun, ta, onen ziñez billatzen zaituen zere Jaungoikoaren izenean? Siñisten zenuen au guzia, ta alere zu, zure amarez urtzen dagoen, ta onenbat zor diozun zere Jaun onarekiko zuen epel, onen otz-galdua? Zere zentzuan arkitzen bazara gaur, begira zazu non zabiltzan; ta bertan utzirik oraindañoko zere esker-gabeak, zoazkio trama berari bertan eskatzera lenen barkamen-

tua, ta berriz utsik ez egiteko ta zuzen ibiltzeko bere laguntza ta grazia, damuz ta negarrez erra-
ten diozula: *Nere Jesukisto, etc.*

XVI.garren OTOITZ-GAIA

ZEIN GAUZ ANDI ONA DEN JAUNAREN GIZON-EGITEA

Elizako doktoreak, nola-ere-bait guri adirazteagatik zein andi ekusgarria den Jaungoikoa gizon egitea, au dela, diote, sekula guziko Jaunaren egitekoa; au dela, jakinde utsa den Jaungoikoak baizik, ezin asma zezaken egitekoa; au dela, berak baizik, ezin egin zezaken egitekoa; ta au dela, den bezain ona, ta zuzena edo justoa ezpaliz gure Jaungoikoa, sekulan Jaungoikoak eginen etzuen egitekoa; ta orregatik dela, Jaunaren eskuetatik atera den, ta atera ziteken, egitekorik edo gauzarik andiena ta onena. Egiteko ta gauza andi on au ezagu dezagun, oraindañokoan ez bezala; ta bidenabar ezagu dezagun, onegatik guk Jaungoikoari zor diogun onestea ta amorea, ekusi bear ditugu astiz, ta banaka, orretarako diran ta orain ukitu ditugun irur gauzak.

A.

Jaungoiko jakintsuak baizik, ezin asma zezaken gauza da Jaungoiko bera gizon-egitea

Zer dela uste dezu zuk, gure Jaungoikoa gizon egitea? Jakiunde utsa den Jaungoikoak baizik, ezin asma zezaken egitekoa. Au da alabaña gauzarik andienak ta txarrenak elkar artzea, edo Trinitateko bigarren personak, Aita Eternoa bezan-bateko Seme Jaungoikoak, Espiritu Santuaren birtutez artzea gure izate txarra ta loiezko naturaleza, Birjiña garbi andredone Mariaren erraietan, edo sabelean. Au da, sekula guzian izandu zen, ta ezin ill ziteken, Jaungoikoa gizatasun illgarriarekin bat eginik gelditzea. Eta zertako? Bere denboran aur jaiotzeko, giz-artean, edozein bezala, bizitzeko; ta, zenbait urteren buruan, gaistoen eskuz gurutze batean bere egunak nekez beterik bukatzeko.

Ezpazen gure Jaungoiko jakintsuak, nork au asma zezaken? Niork ere, Alexandriako Zirilok dionaz; «bada, guk asma al baño andiagoa da, dio, egiteko au, edo, egin den bezala Jaungoikoa

gizon egitea». Bai, dio S. Pablok ere, *Misterio au, Jaungoikoaren jakiundeak asmatu zuen misterioa da; ta misterio, berak agertu artean, gogor niori etorri gabea*. Etzuen zer artu, ez, gure Jaungoikoak onenbat egiteko, gu Adanen bekatu-petik atera, ta zeruko bidean sartuak uzteko. Bazituen orretarako, ta zeruko geren bidean bearko genuena guri emateko, anitz bide ta egin-era: itz birekin egin zezaken Jaungoikoak ori guzia, mundua len, ta munduko gauzak egin zituen bezain aisa; baña etzuen orretan gelditu nai izandu: egin nai izandu zuen egiteko ta lan andi au, ezagu genezan guk geren Egillearen jakindea; ta, gure onerako egin zuen trazagatik, zor diogun amore andi bazter-bagekoa.

Norañokoa dela deritzazu zuk, ortik datorkizun zure zor andi au? Nork au adirazi! «Traza onetan ongi begiratzen badiogu, ekusiko dugu, dio S. Agustinek gure izatea ta naturaleza, ezin geiagoraño goratua; bada ekusiko dugu, odeiak, izarrak, zeruak, eta zeruko Aingeru, Serafin, ta gañerako Espiritu andi-eder-goratuak baño goratuagoa, ta Aita Eternoaren eskuetik dagoen Seme Jaungoikoarekin bat egiña».

Orra gure Jaungoiko guk ongi aserretuak artu izandu duen benganza, edo bendekua! Bein Adanen eskuz, ta geroz gerok, egin diozkagu nork daki zenbat bidegabe! nork daki zenbat txarkeri! Guzi-guziak ekusi zituen guk egin baño len, ta bere eternidadetik. Ekusi zuen denbora berean gure lan txar oni zegokan kezka ta pena, (ta pena, ta kezka sekulakoa), barkatzen ezpazizkigun guri Jaungoiko berak geren gaizkiak, edo agertzen ezpazen, gurekin berarekiko bakeen eragille, arteko onen bar; bada guk gerez ezin genegiken, pekatuen barkamenturako bear diran gauzen laurdenik ere. Au guzia zekusan gure Jaungoikoak zer egin ote zuen sekula guzian, ta bere eternidadean? Gaizkia zetorreneko, edo Bekatu bat ekusi orduko, prestatu suak, prestatu garrak, eta prestatu sulezeko tormentu guziak? Ori zen bai, guri geren lan gaistoagatik zegokiguna. Baña etzion, ez, guri zegokigunari gure Jaun onak begiratu: begiratu zion bere buruari: begiratu zion bere ontasunari; ta egin zuen, oni zegokan, ta bere jakiunde andi bazterbagekoak agertu zion araistiko traza; ta artu zuen gugatik gizon egiteko asmoa.

Zorioneko traza, gure Jaunaren amoriozko traz eder au! ta zorioneko asmoa, asmo, onen ongi guri dagokiguna! Egin zitzakeen traza guziak agertzen balitu ere, ez liguke guri geren Jaungoikoak agertuko traz au bezain ongi legokigun trazarik; ez eta, onen erara gauzak egiteko asmoa bezalako asmorik ere: bada emendik dator gure zorren pagua; emendik dator gure ta Jesusen senidetasuna, emendik gure grazia, ta emendik gure zerua, ta zeruko gloria. Zer traze-tan arki genitzake guk onenbat ondasun, ta ondasun onen andiak? Zer ez diogu zor guk orien trazatzalleari? Zer, traz eder ondasundun onetan bere Semetako artu gaituen gure Jaun on maitagarri jakintsuari? Ta zer, eternidade guzi-guzian, guri onelako faboreak egin-naiez, egondu den gure Jaun andiari? Au ezagutzera, bear den eran, norako lirake gure biotzak? Geldirik egon litezke, ta amorez bertan urtzen ez lirala? Ez noski, luzaro beintzat, bertan ez galtzera guk geren buruak edo geren ezagumentua!

B.

Jaungoikoa gizon egitea, guzia dezaken Jaunaren egitekoa da

Jaungoikoa gizon egitea jakiundez beterik dagoen gure Jaun andiaren traz ederra da, ekusi dugun bezala. Orain ekusi bear duguna da, Jaunaren jakiunde andiak trazatu zuen gauz au egitea noren lana ote den, edo noren egitekoa? Baña norena izan al diteke, bat besterik ezpada lan onek eskatzen dituen diñako indar-eskuak dituenik! Nor ote da, orrenbat esku ta indar dituen au? Nor izan diteke, ez izatera altasun guzia beregan duen gure Jaun andia. Jaun onen lana da bada, ta oni bakarrik zor diogu guk, gure Jaungoiko maitagarria gugatik gizon egitea; bestek alabaña etzezaken egin, au bezain lan andirik; ez, eta milla ta milloi bider txikiagorik ere: bada, lenago Libruan ekusi dugun bezala, ezerzetik ezin ezer atera dezakee, indarrik geiena duten egilleak ere; ta batez bestea egiteko ere bear dute egilleak berak beren Jaunaren eskua ta laguntza. Gure Jauna da bakar-bakarrik, eta

lagunik bage edozein gauza, ta, nai duen guzia, noiznai ta nai duen eran, egiten duena. Zarrak berritzea, berriro gauzak egitea, zar-berriak alkarganatzea, ta noranai, ta nai adiñetan edozein gauza, ta gauza guziak igortzea, ori da, gure Jaungoiko altsuak baizik ezin dagiken gauza edo egitekoa; ta Jaungoikoak, geldirik balego bezain aisa, egiten duena.

Baña (gauz arrigarria!) orra zenbat diran, dakusazun bezala, gure Jaun alsuak eginikako gañerako gauzak! Oriek, ezpalira bezain txikiak dira, beste anitz, Jaun berak egin litzaken gauzen aldean; ta alaere egiñak eta eginkizunak deusez bat bezala dira, lan onen, edo Enkarnazioko misterioaren, edo Jaungoiko bera gizon-egitearen aldean. Gauz andia da, bai, dio S. Tomasek, berak len egiñikako elementuetatik gure Jaunak, atera oi dituen bezala, ateratzea loreak, sagarrak, arraiak, egaztiak, belarrak, ardiak, eperrak, perlak, eta gañerako gauzak. Ori baño ere gauz andiagoa da geroz gurekin gure Jaungoiko berak egin duena egitea; egin gaitu alabaña elementu beretatik, eta ezer-ezetik; bada ezer-ezetik gure Jaungoikoak aterea

da, gutatik bakoitzari, egin ginduenean, eman zion anima; ta gure gorputza elementuetatik egina da; bada badu elementu batetik ezatasuna, bestetik beroa, ta gañerakoetatik zer edo zer ta egiñak gara, elementu pisu ta astunetatik, eta astuntasunik ez duen espiritu andi arin uts-garbiarekin: ta orregatik gara, Aingeruen idurikoak, eta lurreko gauzen antza ta izatea dugunak.

Baña zenbat ere lan andiak diran gañerako gure Jaungoikoak egiñikako gauzak; eta zein ere andia den, gorputz-animak bezain elkargandik urruti dabiltzan gauzak elkarganatzea, ta biez bat egitea, lan andi ta egiteko au, ta gañerako gure Jaunak eginak daduzkan guziak labur-errazak dira, orain gu ekusten gabiltzan onen aldean. Zergatik ote? Zeren bere lan onetan, bat egin duen gure Jaungoiko altsuak bere Seme maitagarriaz, ta artu dituen gorputz-animez; ta au da, S. Tomasek dionaz, gure Jaungoikoak egin zezaken gauzarik andiena. Eta ala da: da alabaña, den, ta asma ere diteken baño gauz andiagok, edo Jaungoikoak, eta gure txartasunak, edo Jaungoikoak, eta gure txartasunak, alkar artzea.

Au besterik egin ezpalu ere bere gizon egite onetan, egin zuen gure Jaungoikoak, zeru-lurrak, itsaso-bazterrak, eta oraindañokoan egin dituen, ta eternidade guzian egiteko dagoen gauza guziak baño andiagoa den gauza bat. Onetan ezagutuko dezu, norañokoa den Jaunaren gizon egitea ta Enkarnazioko misterioa; au denean (den bezala), nai duen guzia egin dezaken Jaungoikoaren lanik eta gauzarik andien-andiena.

Zenbat agur ta eskumuñekin begiratuko zenion zuk zere Jaun egilleari, lan au egitean, an arkitzera zu, ta zuk ezagutzera zertan ari zen zure Jaungoiko maitea, lan onetan ari zenean! Nola begiratu ote diozu zere Jaunaren lan oni berari gerozko zere egun-denboretan? Zer? Ez ote da egungo egunetan, egin zen orduan bezain ekustekoa gure Jaunaren lan andi au? Ez dago egun gure Jaungoiko berarekin, orduan bezain ongi, ta orduan baño obekiago ere, gure izatea edo naturaleza? Ez dago egun gure naturaleza, edo izate au, Aitaren eskoietik arkitzen den Semearekin bat egiña? Ez du au bertan egon bear gaur, ta beti, ta sekula guzian? Begiratu diozu zuk nioiz, arkitzen den tokira astiz, ongi, ta

kontuz? Ori zuk egin izandu bazenu, edo egin bazeneza, gertatuko lekikezu, urrutitik Salomonen gauzak ekustera joan izandu zen erregin bati bein Jerusalemene gertatu zekiona.

Malzeda zeritzan Etiopiako erregin batek aditu izandu zuen bere denboran, guztiz ekustekoak zirala errege Salomonek egiten zituen gazak, eta, oriek ekusi naiez, utzi zituen bere Korteko, zegozkan atsegin-sosegu guziak. Artzen du Salomoneganako, edo Jerusalemengo bidea; ta an sartu, ta ekusi orduko Salomonen jauregia ta palazioa, palazioko maiak, ango jan-edanak, ango zaldunak eta serbitzariak, orien ibillera ta soñekoa; ta ekusi zituenean Salomonek Jaungoikoari egin zion eliza, ta elizara igortzen zituen ofrendak eta gauzak, arritua gelditu zen guzia, ta atsik, edo asnasarik ezin artu duen baten eran: ta, itza noizbait etorri zekionean, erran izandu zion Salomoni: Jauna, andia da, bai, segurki zure jakiundea, andia da zure eskua ta altasuna! Anitz aditu nuen nik an nere erresuman, zure gauzen ugain itz egiten zidaten jendeetatik: ta ez nuen nik uste, egin zezakela munduan denek, nik aditu nuenaren laurdenik ere;

eta ekusteagatik zer ote zen zuk egin izandu zenuena, etorri naz anbat bidez, dakusazun bezala; ta ez dut, ez, etorritz bat ere damu; bada ekusi dut zuk egiña, ta ekusi dut uste nuena baño anitz eta anitz geiago; bada ekusi dut, geien-geiena erran zidanak ere, erran etzidala zuk eginik dadukazunaren laurdenik ere. Zorionekoak, eta agitz alere, zure ogia jaten dutenak! Zorionekoak zure itzak aditzen dituztenak! eta milla bider bedekiatua, orrenbat jakinde ta esku zuri eman dizun zere Jaungoikoa! eta, au erran ondoan, eman ziozkan Salomon berari nork daki zenbat urte, perla, inzenso, ta presenta. (3. Reg. 10.)

Gizon batek egiñikako gauzak onela arritzen badute adimentu onezko bat, zer eginen ez luke gere Jaungoiko altsuak egin duen gauzarik andienak ongi guk au ezagutzera, ta astiz ta maiz begiratzen bagenio? Zorionekoak (erran dezakegu guk ere, orretara baño len, ta gaur emen bertatik dakigunarekin): zorionekoak Aingeru-Serafiñak, eta zori berekoak gañerako zeruko guziak, bada ekusten dituzte erregeen Errege, Jaungoiko jakintsu eskudun andiak, egin

dituen gauzak: baita egin dituen gañerako guziak baño andiagoa den bere gizon-egitea ere! A! nork lekusken, zuen eran, edo nolerebait, zuek or zeren zeruan ekusten dezutena! edo nork ezagu lezaken, oraindañokoan ez bezala, ta dagokan eran, gure Jaunaren eskuak egin duten gauzarik andien ori! Baña nork orrela ori ezagual? Ez-eta zuek zerok, zeruan arkitzen zaraztenak ere.

Aski da Jauna, aski ta sobera da, orain nik neronek dakidan apurtxo au berau, besterik bage, ongi bearturik uzteko ni, agorrez beterik, zure esku ezin geiagorañoko egailleari apa ta muñ egitera; ta, dudan guzia bertatik eskeintzera. Eskeintzen dizut, bai, ta gogoz alere, nere adimentua; eskeintzen dizut nere nai guzia, ta eskeintzen dizkitzut gorputz-animak, beren gauzeekin batean. Oriek dira nik orain ditudanak. Geiago ez izanaz, eskeintzeko zuri geiago, dut damu ta pena. Artu zazu orien orde, geiago ta geiago zuri eskeintzeko, orain nigan arkitzen den, nere gogo au: ta indazu, arren, izan dezadan berriro zuri zer eskeñi gauz on anitz, egiteko grazia; baita egin dezun gauz andi onen ezague-

ra garbi-andi, nere biotzaren berotzalle bat ere:
bai arren, bai!

C.
Bazterrik bageko
ondasuna duen Jaunaren
egitekoa da Jaungoikoaren
gizon-egitea

Bere gizon-egite onetan duen Jakiundea ta eskua bezain ongi agertzen du gure Jaungoikoak guganako bere ontasuna ta ongi naia. Guri ongi naiez beterik arkitzen da gure Jaungoikoa, dio S. Tomasek (*ubi sup. op. 60.*) leku, bazter, ta gauza guzietan. Obeki naiez, ematen die onei bere grazia, ta adiskidetasuna: ta, zeren ontasun utsa den, ta nai digun guri ezin geiagorano, egin da gizon, ta artu du beregana gure txartasuna ta naturaleza. Orra nolakoa, santo Tomasek dionaz, gure Jaunari guk zor diogun ongi naia. Onenbat guri nai ez izatera, zertako utziko zion gizon egiten betiko Aitak bere Seme bakar Jaungoiko mai-

tagarriari, erraten du Alejandriako Klemente, gizon jakintsuak?

Etzen izandu, ez, ongi nai utsa, gure Jaunaren ongi nai andi au. Ondasunez betea da, ta, nai dutenen betetzallea, gure Jaunaren guganako ongi naia: ta, aisago gu bere ondasunetatik bete naiez, egin da gizon, ta, gizon egiñik gure artean dago, gure Jaungoiko maitagarria. *Bai, etorri nintzan ni gizon egitera, zion bein Kristo Jaunak, izan zezaten gizonak nere laguntza ta grazia ta izan zezaten, etorri ezpanitz izain zutena baño grazia ta laguntza agitz andiagoa.* Eskerrik asko, zere etortze ongille ondasundun onegatik. Baña zenbat azi da, Jaungoiko-gizon, Jesus maitagarria, zenbat azi ote da, zu gizon egitera etorri ziñanetik, gure bizitza ta grazia? S. Pablok adirazten duen adiña. *A! Jesus maitea (dio S. Pablok); eta zuri guk zor dizugun ondasuna! Zeren zuk artu dezun gure onerako zere gizatasuna, zure Aitak bidaldu ditu giz-artera bere graziaren, ta gure animako ondasun moduak eta bedeikazio guziak.*

Orra zertara den gure Jaun andia, gizon egin zenetik! Len etzuen nai urbil zekion, bere ordez

igortzen zuen Aingeruari ere, ezpazen Moises, edo onen erako gizonen bat edo beste: ta bera gizon egin denetik, atozte, dio, nai dezuten guziak; atozte itzez itz, eta Artekoric bage, gogo dezutena, niri noiznai ta uste osoarekin adiratze-ra. Atozte nekatuak, atozte, bearra ta izerdia baizik etzarazten gaisoak, nik arinduko dizuet zeren bearra ta premia. Atozte, bai, nik emain dizuet bear dezuten jan-edana, ta zeren anima-ko sustentua.

Len ezin sar ziteken *Sancta Sanctorum* zeri-tzan Elizako tokian, ezpazen orduko Aita Santua edo Apez-nagusia; ta ori ere ezin egin zezaken, bein baizik, urte guzian. Zergatik uste dezu? Zeren au zegoen arka edo kutxa txiki batean mana zati bat. Zer zen ango mana zati au? Alda-reko Sakramentuaren itzala edo señailea. Ongi: ta gure egunetan, ta Jaungoiko-gizona Sakra-mentuan dagoenetik, zenbat Meza-emalle igaten ote dira Jaungoiko Sakramentuarekin itz egitera? Egunoro, emen Españian eun milla, ta anitz geia-go. Nork konta Franzian, Italian, Alemanian, ta mundu guzian Meza ematen dutenak? Oriek ere, Españiakoak bezain ongi, igaten dira Aldarean

gure Jaunarekin tratatzera; ta, diranak baño, milla ta milloi bider geiago balira ere, guziak egin lezakee bertze orrenbeste. Ekusten dezu, gure Jaunak gizon egitean, ta geroz, agertzen digun ontasuna? Bai? Bada ez da oraindik au, aldi onetan dugun ekuskizun guzia.

Noizbait atera bear bazen Israeldarren arka edo kutxa txiki au, ezin begira zekikeon bere soñeko, ta estalki guziak eman artean: ta zeren bein begiratu zioten Batsamitak, bertan illak gelditu ziran berrogeita amar milla, ta geiago (*1. Reg. 6. 19.*). Baña, gizon egin zenetik, noiznai ekusten dugu guk Aldareko Sakramentuan geren Jaungoiko maitagarria. Gizon egin zenetik, eta Sakramentu Aldarekoan gelditu ezkeru, egun osoek daramatzi agerian; ta zenbait aldiz kalez kale dabil, ta sartzen da batzuetan erien etxeetan ere: ta aspaldian berak errana daduka *aren atsegin ta kontentua dela emen gurekin egotea, gurekin emen itz egitea, ta emen gu guziok bere ondasunez betetzea*. Orregatik dio S. Agustinek, egin dela gure Jauna gizon, beldur gutiagorekin, ta adiskideen eran, maita dezagun guk emen bizi garaño.

Ai au ekustekoa! Len eriotzez, ubeldez, ta kastiguz bazterrak arrotzen zituen gure Jaungoikoa, onen emeki emen gure artean, bildots bat bailiz bezala! Ezeren bearrik ez duen, ta gauza guzien Jauna ta jabea den gure Jaungoiko maitagarria emen gure artean, gizon eginik, eta Aldareko Sakramentuan, ematen zaionaren begira bezala! Guri ongi naiez, ta lurreko guziak ondasunez betetzeagatik gizon-egina, gizonen ta mundu guziaren Egillea! Aingeruz inguratua dagoen, ta atsegin ta gustoa besterik ez den gure Jaungoikoa, gizartera jatsia; ta, gizonen onagatik gau, egun, ta beti, gizonen begira! Nork au siñistu, fedezko begiz ez ekustera? Nork asmatu ere, ongi nai au bezain izugarria? Egin zuen gure Jaungoiko ontasunez beteak baizik ez, sekula guzian ere. Orra zer gauza den gure Jaunaren gizon-egitea! Orra zein andi ona! ta orra Jaunaren gizon-egitetik datozen ondasunak eta doaiak! Zorionekoak gu, galtzen ezpeditugu, eskatu gabez eman naiez dagoen gure Jaungoiko-gizon maitagarriari!

Occulta Sapientiae tuae manifestasti mihi.

Ps. 50. 8.

Nori, nere Jaungoiko jakindez beterikakoa; nori gogora zekikeon, artu zitekela, gu zuzentzeko zuk artu dezuna bezalako lana ta bidea? Nori gogora zekikeon, traza zenezakela zuk zerorrek ere, ezinobeki trazatu dezun zere gizon-egitea? Jakiunde utsezkoarena da traz eder au; ta orregatik da, zurea bezalakoa. Bekatutan egiña, ta jaioa naz ni; nere gisakoak dira gañerako gizonak eta jendeak; eta, alere, zu ezin geiagoraño trazetan zabilta, galduak izan ez gaitezen oriek guziok, etorkizunak, eta ni! Eskerrak eskatzen ditu (ez dut ukatzen) guri zuk onen ongi, ta onenbat amorerekin begiratzeak; eta ematen dizkitzut, nik beintzat, gaur bertatik eta gogoz, ta ziñez alere: baña bidenabar zure traza maitagarri onek adirazten digu norekin den gure lana ta egitekoa; baita, galduak izan nai ez dutenak egin bear dutena ere: bada adirazten digu zein izugarria den, traz onetako gauz andiak eskatzen duen Aitaren eskua, zuzentasuna ta justizia!

Bai: gure bekatuak guztiz aserretua zedukaten Aita Eternoa; ta, aserreak uzteko, trazatu zuen bere Seme maitearen gizon-egitea, ta Seme beraren ogeita amairu urteko neke-izerdi guzia; baita beraren Gurutzeko eriotz gogor odollezkoa ere! Onenbat kostatu zaio Jaungoikogizon Jesus maitagarriari gure obenak, gure kulpak, eta gure bidebageak bere Aitari barkaraztea? Onan aserretua zedukaten? Onen andi-izugarriak ziran gure bekatuak?

Bai, egiaki! Barkatuak ote daude, edo ez? Barkatuak ezpadaude, nora bearra naz ni? Eta nora bearrak dira nere lagunak? Sekulako sulezero! beti ta beti lertzen, urratzen, ta negarrez au egotera! Ori da gure Jaun aserretuak, barkatu bageko bekatuari berezi dion pagua. Zor onen alde dira gure Jesus maitearen lan-irabaziak. Ez ditu Aita Eternoak gutiagoan barkatu nai izandu. Eta, oraindañoko zorretatik atereak egonagatik, sartzen bagara gu berriz berrietan, egiten badiugu bekatu berriak, noren ustean, edo zeren begira geldituko gara?

A! gure galduak, eta geren galgarriak gu, berriz orretaratzera! Orren erraz urratzen badi-

tugu guk gure Jaunaren trazak, edo egiten badi-
tugu trazaren kontrako lan txar-zikiñak, zer
begiz guri begira dezaguke gure Aita Eternoak?
Nork au adirazi! A! Jauna, aski, ta sobera dira
lenak ere! Ez naz arkitzen ni, ez, bekatu berriz
nere burua loitzeko asmoan! Lenaz dut damu, ta
ziñez alere. Indazu, arren, orien barkamentua;
ta, berririk egiten ez dudala nere egunak buka-
tzeko, ta zere traz ederragatik milla ta milla
esker zuri zere zeruan emateko grazia! Bai
arren, bai!

*A Domino factum est istud,
et est mirabide in oculis nostris.*

Ps. 117. 23.

Andiak dira, bai, ta kontuz ekustekoak, len ta
gero gure Jaungoikoak egin dituen gauzak; baña
lenagoko, ta geroko gure Jaunaren gauzak, aldi
onetan egin duenarekin ekustekorik ez duten
gauzak dira; bada gañerako gauzak izarrak dira,
ta eguzkia, zeruak dira, ta lurreko bazterrak, eta
lurretik asti ta zeruaren erpiñeraño arkitzen

diran gauzak; eta oriek guziak, zein ere andi-ederrak diran, gure Jaungokoak ezer-ezetik atereak dira; baña guk orain egiñik ekusten duguna, Jainko-gizona da: Jaungoiko gauza guzien egi-ilea; eta orregatik da, Profetak dion bezala, andi guzien artean andia, ta ekusgarrien artean ekus-tekoa; edo, zuzen itz egitera, au da bakarrik gauz ekusgarria, ta nornai arritzekoa den gauza, ta gure Jaunaren egiña.

Egiten dezun gauzarik txikienagatik ere zor zaitzu zuri, nere Jaun andia, nork daki zenbat, eta anitz geiago! Zenbat zorko zaitzu bada, egin dezun, ta egin zenezaken andien onegatik? Nork au adirazi? Nork ezagutu ere? Ezeta diran Aingeruak, gizon jakintsuak, eta ager litezkeen adimenturik andienak elkar arturik ere! Au bear den eran ezagutzeko, bear da, gure Jaun andia, zurea diñako adimentua; bear da adimentu bazterrik ez duena; adimentu, diranak eta egin litezken gauzak, batetan ezagutzen dituena; edo bear da adimentu, Jaungoiko bera bezain andia.

Adimentu onekin arkitzen zaran gure Jaungoiko maitagarria, urrikaldurik zu nere txar one-taz, indazu al dukedan argirik andiena, nolere-

bait ezagutzeko zure lan andi au; nolerebait eskerrak emateko, zure lan andi onetan niri dagokidanagatik; eta, zuk laguntzen didazula, autorez ta maitatzez erauzuteko nolerebait, emen bertan agertzen dezun zere esku andiari, ta ongi naiari. Nik ez dut, orain eskatzen dudan gauzarako, eskurik bat ere. Eskatzen dizut alere eskatzen dudan au, erdisteko uste osoarekin, ta ontarte berri onegatik ere eskerrak emateko gogo beroz ta asmoz beterik. Indazu bada, deza-kezunak bezala: bai arren, bai!

*Sic Deus dilexit mundum,
ut Filium suum unigenitum daret.*
Ioan. 3. 16.

Siñestuko zenuen naiko zigula guri gure Jaungoikoak, nai izandu digun adina? Badakizu zuk norañokoa den gure Jaunaren guganoko nai andi au? Oartu zara zu noiz edo noiz? Bear bezala beintzat bein ere: ta noizbait, begiak goraturik, asi bazara zu gauz au ekusten, laster aspertu zara; ta, ez aspertuagatik ere, ezin ekus zentza-

ken zuk dena den bezala, ez eta erdizka ta laurdenka ere. Nai dezu zuk, nere anima, ager daki-zun zuri, orain badere, S. Joan Ebanjelistaz agertzen duen eran? Orra, bada, dio, orra Jaungoikoa munduak zor dion amorea: Aita Eternoak eman die munduko guziei, (ta ongi naiez eman die) bera diñako, berekin beti dadukan, ta bere burua bezain maite duen, bere Semea.

A! Ebanjelista santua, ta nork adirazi lezaken, zuk onen errate labur onekin agertzen diguzun gure Jaunaren amore au! Maitatzea batek bat, oni ongi naia, oni ongi egitea da; ta zenbat ere bati zuk geiago nai diozun, ta emanten diozkatzun ondasun geiago, anbat geiago onesten, ta maite dezu zuk zure gauzen artzallea. Bada ezin andiagoa bada, den bezala, gure Jaungoikoak gaur ematen digun ondasuna (ematen digu alabaña, gizon-egiñik, gauza guzien Jaun ta Jabe den, ta asierarik, bukatzerik eta bazterrik ez duen bere Seme Jaungoikoa), norañokoa da aldi onetan agertzen digun ongi naia, ta amorea?

Begira: gure Jaunaren emate onetan bada, ematea ez besterik ere, bada ematen digu bere Seme Jaun au gure senidetako, ta senide onak

bezala, guri laguntzeko: ematen dien, bere lanez, egiñez, ta itzez guri erakusteko jakin bear duguna; ematen digu, berak irabaz dizaigun bere nekez, odolez, tormentuz, ta eriotz gogor batekin geren bekatuen barkamentua, ta zerurako bear dugun guzia; ta ematen digu emen gurekin sakramentaturik idukitzeko, munduan bizi garaño, ta eternidade guzian berari zeruan begira gaudela, atsegin-kontentuz beteak bizitzeko. Egin zezaken au gure Jaun andiak, ondorik bageko, ta bazterrik ez duen amorearekin ez arkitzera? Orra bada norañokoa den, aldi onetan egin digunagatik guk geren Jaungoikoari zor diogun onestea ta amoreaa!

Atozea: ta ongi lirudike Jaungoiko-gizon Jesus maitearen senideak, onenbat ondasun bere Jaunagantik artu dituzten umeak, Jaungoikoak bera diñako amorearekin maitatu dituen gizonak, eta, Aingeruen lagun egiñik, zeruan beti berekin iduki nai dituenak, beren Jauna ta Jaunaren ondasun-amoreak aldebat utzitik, lurreko gauzei begira gelditzea? bekatuaren zikinkerietan loitzea? sulezeko bide-galduak artzea? ta beren naiez, ta berariaz, beren buruak betiko galtzea? Eta ez da

ori anbatek eta anbatek munduan egiten dutena? Egin gogo dezu zuk ere? Ez al!

Ez, nere Jaungoiko maitagarria, ez! Nik egin gogo dudana da gogotik ez uztea zuri zor dizudan amorea gogoan erabiltzea zure nigatikako gizon egitea, ta zere gizoñ-egite onetan egin dizkidatzun, ta emendik datozkidan on-ondasunak; oriei, ta orietan erakusten didazun zure amoreari amorez, ta bizitz on garbi batekin aleginean erantzuteko bizi nazaño. Zurea da, bai, oraingo nere gogoeta, ta asmo au ere. Iraun baleza onek nere bizitzak adina! Ala gertatuko da, zuk bizirolaguntzen badidazu. Lagundu bear didazu, onetan ezezik, oraindañoko nere esker-gabeen ta bekatu gaistoen damu ta urriki ziñezko batean ere. Eskatzen dizut itzez ta biotzez, onetarako bear dudan zure grazia, erraten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*

XVII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEN JAIT-ORDUA, TA

ORDUKO MUNDUAREN IBILLERA

Nolarebait agertu dugu zein andia den gure Jaunari guk zor diogun amorea, zeren egin zen gizon, zerura gu guziok zuzendu naiez. Geiseago guk, edo obeki geren zor au ekusteko, ekusi bear dugu, Jaun berak mundura zenetik bere predikurañoko denboran gugatik egin zuena.

A.

Zer orduz edo noiz mundura zen Jesus maitagarria?

Ontarte bat noiznai da ontarte; baña ontarte bera ontart andiagoa da, bere orduz, edo bere denboran etortzen denean. Gure Jaungoikoa gizon egitea, ta gizon-eginik, munduratzea, noiznai izain zen guretako ontarte, fabore, ta ondasun andia, baña, era orretan mundura zen denboran munduratzea, munduari obeki zegokan

ontartea zen, ta ontart andiagoa. Nola bada? Zeren era orretan gure Jauna zetorren, ikasi bear zutena munduko gaizoei erakustera; ta orretarako, Jaunak arturikako sasoiaren artu zezaken sasoirik onena. Noiz bada, edo zer sasoiaren mundua zen gure Jainko-gizon Jesus maitagarria? Augusto Zesar zerizan, Erromako enperadorearen azken aldeko egunetan. Nola arkitzen ziran ordu, edo denbor artan, mundua ta munduko jendeak? Isaias Profetak dion eran, edo bake andian, ta ondasunez beteak.

Bai, dio, edo dionarekin adirazten digu, Isaias profetak, Jesusen jait-egunak gogoan darabil-tziela; bai, gelditu da, len nasia zebillen mundua bere odol-isurtze gogor ta gerra gaistoetatik. Bere ger-aldiak eman diozkaten ondasun andiekin pozez bete da munduko Nagusia; ta, eskutar-tean dakarren egitekoan ageri zaio, bai, bere biotzean arkitzen zaion atsegina-kontentua.

Jesus jaio zeneko, baziran berrogei urte, ta geiago Erromako enperadore zela, orduko nagusi Augusto Zesar. Bitarte orretan, edo urte orietan, izandu zituen Augusto enperadoreak bere geraldian andi-gogorrak. Baña ordurako bukatu

zituen guziak; eta bukatu zituen bere gogara; ta ordurañoko bere etsaiak garaiturik, baketan arkitzen zen Zesar, Jesus Jaungoiko-gizona lurre-ra zeneko; ta arkitzen zen Zesar, munduaren irur zatietan arkitzen ziran erreinu ta bazter aberatsenen jaun, ta jabe bakarra.

Eta ger-aldi berririk biztu etzedin, edo, bizten bazen ere, lenbaitlen itzal-erazteko, artu zituen Augusto berak bide ta neurri guztiz onak; eta jakinaren gañean egoteko nor nondik atera, ta zer ondasun izan zezaken bere bear denboran, manatu zuen ekus zedilla zenbat ziran, nor ziran, ta nolakoak, aren eskupean arkitzen ziran gizonak eta andreak. Lan onetarako billatu zituen gizonik onenak, eta igorri zuen nor bere tokira, edo batzuek batera, ta besteak bertzera. Egin zuten oriek, bai, (eta zuzen alere), beren egitekoa; ta ikasi zuen Augustok jakin nai zuena. Arte guzian isillik zegoen lurra, ta mundua; ta, Isaia-sek dion bezala, munduaren bazterrik onena, edo Promisioko aldea, ta Jesusen jait-erria ta erreinua atsedeten bezala zegoen, ederki eseririk edo jarririk bezala, bere bakearen katadera galantean, gañetik artuak zeduzkala, ta ongi

ezarriak, etzezan erre kezakako eguzkiak, uste osozko, edo esperantzazko ta soseguzko oial ederrak; eta bere aldamenen zituela berak lenago bildurikako ondasun andiak.

Orra nola arkitzen zen mundua, ta orra zertan zebillen munduko nagusia, Jainko-gizona mundura etorri zenean; baketan, isillik, eta bear bezala. Ez da misterio, dio S. Basiliok: Agila deritzan egaztien erregiña egoan dabillenean, isillik daude, dio, egaztiak; eta, munduko enrege Jesus Jaungoiko-gizona zerutik zetorrenean, isillik egon bear zuten lurreko erregeak, eta geldirik orien armak. (*In Ascen. Dni.*) Bestela etzen erraz Jesusek egitea egin bear zuena, edo bere erakustea; ez-eta munduko berak ikastea ere Jesus onagandik ikasi bear zutena.

Lege zarreko gauzak erakustera, bere orde z bidaldu zuen len gure Jaungoikoak Aingeru bat; baña bidaldu zuen legeak eskatzen zuen eran, edo era guztiz izugarrian; bada bialdu nuen tronpet izugarri, bazter guziak ikara zeduzkan batekin; ta bidaldu zuen, suz, kez, trumoiez ta tximistaz beterikako odei arrigarri batean. Gelditu zen odei au Sinai zeritzan mendi gañean; ta, azpiko

aldean Israeldar guziak beldurrez iltzear zirala, erakutsi zuen Aingeruak Jaunaren legea, ta legeko gauza bakoitza. Baña erakuste au, diodan bezala, Legearen erako erakustea zen; bada Israeldarren legea lege beldurrezkoa zen; ta legearen erakustea guztiz ikaragarria.

Gaur ez du gure Jaungoikoak igortzen mundura Aingeru bera, edo besteren bat, lege berria mundukoei igortzera edo erakustera: Jaungoiko bera dator orretara; baña dator gizon eginik; eta dator erakustera, lege berak eskatzen duen eran, edo emeki ta eskanbillarik bage: amoriozkoa da alabaña, Jesusek dakarren Legea; ta on da onelako legeari dagokan erakustea.

Atozea: ta egin zezaken Jesus maitagarriak bere bakezko etortze, ta amoriozko erakuste au, egin zuenean baño denbora ta sasoi obean? Etzen erraz; bada bake onean arkitzen ziran orduan lurra, ta lurekoak; eta orrelakoa da, zernai erakusteko, ta jakin bear diran gauzak ikasteko, sasoirik onena; bada gerratakoan, ta aseraldietan, igesla ta bendekua dabilta gizonen gogoan; ta, oriek gogoan dituztenak ez daude, erakutsinai zaiena ikasteko. Guziak ikas zezaten

bada Jesusen amoriozko legea, billatzen du, ori erakusteko bear zen sasoia, edo bakezko denbora; ta dator, zetorken sasoirik onean; ta au da, dakusazun bezala, aldi ta sasoirik onenean gure gure Jesusek egitea, egin zezakegun ontarterik andiena; ta egitea, egin zezakegun erarik onean ta estimagarrienean. Orra zer orduz mundura zen gure Jesus. Eta orra, munduratzearen gain, orduan munduratzeaz guk Jesusi zor diogun amore!

A Jesus maitea! onenbat amorerekin asizaran ezker zure guganako ongi nai andian agertzen, zer agertzeak egin bear ez ote dituzuk gure animan, nor bagara gu, ta guk artzen bazaitugu alik ongiena, alik umilkiena, ta denbora berean amorez, errespetuz, ta naiez beteak arkitzen garala? Era onetan artzera nik zu, komuniatu nazan aldietan gaurko egunerañoko nere denbora guzian, zenbat ondasun artuko nituen nik zure esku zabal-emalle onetatik? Anitz dira, bai, oraindañokoan nik galdu ditudanak; eta galdu izandu ditut, bear bezala ta baketan zu nik ez artuz, komuniatu nazan aldietan? Asaldatuak, eta aztura gaistoz beteak, arkitzen ziran

komuniatzen nintzan aldietan nere biotza ta barren galduak; edo gerra bizian zebiltzan nere naikunde txarrak eta pasione sutuak, zu, nere biotzeratzen ziñan geienetan, edo kasi beti: ta orregatik artzen etzindudan nik, niganatzen ziñanetan, Errege bakezkoari zegokan eran; ta laster ta gogoz igortzen zindudan nik nigandik zu, ta igortzen edo bidaltzen zindudan esker gutirekin, ta zertara zentozen ere ezagutu gabe!

Zure onegia, nere Jesus maitea, ta nere txar galdua! Onela bizi bear ote dut nik datozen egunetan, datozen asteetan, ta denboretan ere? Onen artze txarrak ekusi bear ote dituzu, Jesus maitagarria, urrengo zere etor-aldietan? Ez baldinbere! Bukatuko al dira noiz edo noiz, eta luzatu gabe, oraindañokoan nere barren tristek ekarri dituen gerrak! garaituko al ditut nik emendik aitzina nere aztura gaistoak! Eskurako al ditut nik, errebes dabiltzan nere pasioneak! baketan ta bakez artuko al zaitut nik, nere Jesus maitagarria, gaurgeroko nere Komunioneetan? Nai nuke beintzat, eta guztiz alaere. Indazu zerorrek, onetarako bear dudan zure laguntza, ta grazia. Bai arren, bai!

B.

Nola zabiltzan mundukoak, Jesus mundura zenean?

Mundukoak, ekusi dugun bezala, baketan arkitzen ziran elkarren artean, gure Jesus maitagarria gizon egiñik mundura zenean. Baña Jaungoikoarekin? Gerra bizian, ta agitz edo guztiz gaizki! Iraun balu lenbiziko gizonak, eta, ark bezala irautera beragandik datozen guziak, gure Jaungoiko maitagarriak lenbizikoari emanikako inozenzian, ezagatuko zituzten gauzak diran bezala, edo adimentu zuzen-garbiarekin: izain zuten denbora berean gogo ta naimendu bear bezalako; biziko ziran naigaberik bage, ta atsegin andiarekin, maitatzen zituztela maitatzeko diran gauzak. Etzuten galduko bein ere bere Jau-narekiko adiskidetasuna; ta, bizitz on baten buruan, igain ziran, len ekusi dugun bezala, sekulako atsegin-kontentuetara, edo zeruko gloriara. Baña gaistatu zen lenbiziko gizona, berak nai zuela, ta bere gogora: galdu izandu zituen,

deuses bategatik, bere inozentia ta Jaunaren grazia: aserretu zen, biderik gabe ta bere erakeriz, bere Jaun ongille-maitagarriarekin; artu izandu zuen, gaitzera zuzen daraman bide zabala; ta aren bide berez zebiltzan aren ondorengo galduak!

Zenbat ote ziran, bekatuz bekatu munduko gizonak ordurako egin zituzten legoak? Edo non arkitzen ote ziran mundukoak, Jesus jaio zeneko? Nork au adirazi? Lenago ta lenago ere, edo lenbiziko gizona Jaungoikoak egin, ta bi milla urte baño len ere, gizonak eginaz urrikiturik zegoen Jaungoiko bera, Eskriturak dionaz. Gure Jaungoikoak ekusi zuenean, dio Eskritura santak, zenbat eta zenbat gaistatu ziran munduko gizonak; eta ekusi zuenean, munduko gizonen asmoak eta gogoetak gaitzera beti eta geiago makurtuz zijoazela, damutu zitzaion Jaungoikoari gizonak egiñaz, ta, ekusirik Jaungoiko berak etorkizuna, edo, orren fite ta laster gaistatu ziran gizonak, luzaro bizi baziran, eginen zituzten utsak eta gaizkiak, damuz bete zekion bere biotza edo barren guzia, ta *galduko ditut, zion, ta kenduko diet beren bizia, nik neronek egin nituen gizonai,*

ta oriekin batean laur-oinka, ta arrastan lurrean dabiltzanei; baita egoan dabiltzan egaztiei ere; damutu zait alabaña oriek eginaz. Baña egin zuen gure Jaungoikoak au guzia? Bai egiaki! bada ontzi batean sar-erazi zituen zortzi lagun, ta zenbait animalia; ta, oriek ez, beste guziak itoak utzi zituen, egi, aldapa, mendi, ta mundu guziarekin batean, odei-itsasoetatik igortzen zuela, orretarako bear zen ura edo ubeldea.

Munduaren gaistatua, edo gizonen gaistoak! Andiak izan bear zuten, ta anitz eta asko zuen gaizkiak eta oben-lizunak, orren kastigu gogor bat eragin ziotenean, zuen egille on, gure Jaungoiko maitagarri, beratxtasunez betea zegoenari! Zentzatu al ziran zuen ondoren etorri ziranak? Zuei bezalakorik gerta etzekien, ez al ziran sartu zuen lanetan? Ez al zuten egin bekaturik bat ere?

Ai ene! bekaturik ez egin, ubelde ondoan agertu ziran jendeak? Ez, lenekoak baño geiago baizik! Lenbiziko munduaren bi milla urteetan baño, urrengo bi milletan, ta Jesus jaio zen artean gaizkiago bizitu ziran gizonak, eta leneko-

ak baño bekatu geiago ta geiago egiñen zituzte-
la.

Jesus jaio zeneko, ezin konta-al adiña ziran munduan arkitzen ziran gizon, andre ta zar-gazteak; eta, israeldarrak eta beste zenbait atera, ta gañerakoak infernukoaren eskupean bizi ziranak ziran; bada, profeta Dabidek dionaz, Israeldarrak ziran, nor zen Jaungoikoa zekiten jendeak. Jentilen jaungoikoak ziran arrizko ta zurezko idoloak, eta gaistoaren itxurak, edo figura itsusiak. Guziak egiten zuten orien etsaiak nai zuena; ta onek nai zuena zen gaistakeria, lizuntasuna, ta batek ere bere Jaunaren erran bat ez egitea!

Guziak atera ziran zeruko bidetik, Dabidek berak beste batean erraten zuenaz. Guziak galdu ziran ordurako gure Jaungoikoarentzat, eta zerurako; etzen guzien artean gauz on bat, bear bezala, egiten zuenik, ezeta bat bakarrik ere! *Orregatik*, dio Isaias profetak, *zabaldu zuen, bai*, (ta ongi alere) *su-lezeak bere eztarritzar izugarria. Idiki zituen, ezin geiagorañokoan, bere ortz urratzalleak; sar zitezen, irrikatu gabe, eunka ta millaka ara zidoazen animak.*

Orra nola, ta zer eran arkitzen zen mundua; ta orra nola bizi ziran munduko jendeak Jesus Jaungoiko-gizona mundura zenean! Agertu izandu ezpaliz gure Jesus maitagarria agertu zen denboran, ta zuzendu ezpalitu onen galduak zebiltzan munduko gauzak, non geunden gu gaur, ta norako ziran etorkizunak? Agerian dago, ta nork-nai dakusan gauza da ori guzia. Jesus ez agertzera agertu zen denboran, edo orain artean, bekatuzko naspill uts bat egiñik arkitzen zen gaur mundua. Urrengo egunak, urrengo urteak, eta denborak, oraingoak bezain galduak izain ziran, edo agitz galduagoak eta galduagoak, Jesus etorri ezpaliz gure gauzak zuzentzera; ta azken orduan, oraingoak eta geroagoko jendeak, zenbait ez bestekak, gelditu bearrak izain ziran illunbe utsean, linbo arrigarrian, edo sekulako sulezean.

Zori tristezkoak gu, orretara ezkerro! Betiko galduak gu, ez etortzera etorri den eran gure Jaungoiko-gizon, Jesus maitagarria! Zer zorrak gureak, ordu artatik gure gain ditugunak! Baña ordu oneko zorrak! Zor diogu Jesusi, bai, nork daki zenbat, eta agitz geiago! Zor diogu geren

bizitza; ta zor diogu, geren baitan orain arkitzen dugun ondunai bero bat, eta onerako arintasuna ere. Baña zor au ez izatera guk, jabeturik zegoen, dagoen ordurako, gutaz ta gure gauza guzietz gure galgarri gaisto, sulezeko gure etsaia! Eskerrez, ongi biziz, ta alegiña egiñaz atera ditzakegu guk oraindañoko geren zorrak. Geren zorrak ateratze au gure onerako izain da; ta izain da bidenabar gure irabazbiderik onen onena. Baldin irabazbide onez gu bagabiltza, urrun aienatuko dugu guk gure etsaia; irabaziko ditugu guk gure Jaunaren graziak grazien gain, ta makiñabat gloria zati. Zorionekoak zor-ateratze, ta pagu onen aberatsetan dabiltzanak! Eta zorionekoak gu ere, baldin gu izaten bagara orietatik gaur, ta beti, ta bizi garaño! Jesusek digula, orretarako bear dugun bere laguntza ta grazia. Bai arren, bai.

Ta impietate sua corruet impius.

Prov. 11. 5.

Soldaduak gara, bai, munduan garanok, Profetak dionaz; baña ez gara gu guziok Errege baten soldaduak. Gutatik batzuek Errege andi on, Jaungoiko maitagarriaren soldaduak dira; baña besteak Jaungoikoaren kontra dabiltzanak; eta orregatik dira gaitzez gaitz, eta bekatuz bekatu, dabiltzan soldadu galduak. Luza dezake zerbait soldadu galdu orien bukaerak, baña, bere denboran agertzen denean, agertuko da guztiz izugarria; bada gaistoen bukaera, edo eriotza, bekatuzko eriotza da, ta nekezko eriotza, edo betiko sulezera eskutik daraman eriotza. A eriotz gaisto-madarikatua, ta eriotzaren galgarria! Zori tristekoak zure atzaparretan bizia galtzen duten soldadu gaistoak! Orietatik izan bear ote dut nik ere? Ez nere Jaunaren soldadeskan zuzen ibiltzen banaz orain, ta nere azken-ordurañoako denboran.

Nere Jaunaren soldaduak dira aztura gaistoak urratzen dituztenak, beren aragi asaldatua, mundu ero arroa, ta sulezekoa garaitzen dituztenak; eta, oriek garaitu ondoan, gure Jaunari beren biotz garbietan eser-toki, ta atsedeen-leku on bat egiten diotenak. Zorioneko soldaduak,

bertatik orrelako toki on bat beren Jaunari prestatzen diotenak! Orrelakoen biotzetan pozik sartuko da gure Jesus, ta utziko ditu Jesusek graziaz ta zeruko ondasunez beteak. Ai nere Jesus! ta nor orain legoken, bere etsai oriek garaiturik, bake leun-on batean, ta zure begira! Orduko zure etorrera! Orduko zure sartzea! Orduko gure atsegiñak, gure ondasunak, eta zure maitatzeak! Ez ote ditut bada nik noiz edo noiz oriek ekusi bear? Nor banaz, bai; ta laster alere. Indazu zerorrek, nere Jesus maitagarria, nere etsaiak garaitzeko, ta orrenbat gauz onetarako nere barren au bertatik prestatzeko, bear dudan zure laguntza ta grazia. Onekin batean saiatuko naz ni, niri dagokidana lenbaitlen ta zuzen egitera; egiteko gero zurekin batean, ordutik beti zuk, egin dezadan nik, nai dezuna. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitea; bai arren, bai!

Abiit vagus in via cordis sui.

Isai. 57. 17.

Zenbat ere egin dudan nik, munduko gizonak zuzentzeko (dio Jaungoiko gureak Isaias profetaz), ez ditut ekusten, ekusi nai nituenak, ez eta laurdenak ere. Artu zazue, gizonak, artu zazue bide zuzen bat, gal etzaitzeten sekula guzira (erraten zien gero Jaungoiko berak munduko guzietan; ta erraten zien bein, berriz, ta anitz-askotan ere); ez dezue zer egin gaurgero ibiller bidegabekorik. Ken bitez zuen bideko beaztopak, edo eror-tokiak; eta zabilzte ibilli bear den bezala: zuzen, ta gelditu gabe. Au da Jaungoikoak len lengoei erraten ziena; ta au berau da oraingooi ere orain sekulako gure Jaungoikoak erraten diena. Au erraten digu zeruaren Jaun jabeak; au ara beti-betirako eraman nai ginduzken gure Egille on-ezin emallegoak. Zer erantzuten dioguk, ori adizten dugunean? A, noski lengoak erantzuten ziotena! Baña zer erantzun izandu zioten ori aditzen zuten leneko jendeak? Deusez itzez ta miiz; baña lanez ta ibilleraz erantzun zioten, egin nai etzutela aditzen zutenik; bada, galduen eran zebiltzan, gogo gaiztoak nai zuen bidez bide, bide zuzenik artzen etzutela, ta egunoro gaizki baño gaizkiago.

Orra nola zebiltzan len lurreko geienak, edo kasi guziak, gizon eginik lurrera Jesus etorri zenean! Nola ote dabilta egun egungo, edo gure denborako jendeak? Lengoen gisan noski, geienak beintzat, eta geren Jaunaren Legetik ere agitz-agitz urruti. Eta, gure Lege onean bizi diranak berak bizi ote dira bear bezala, zuzen, ta gure Jaunak nai duen eran? A, gure Jaungoiko maitagarria! Oriek badere balegite egin bear dutenak! Egiten ote dugu zuek eta nik, edo guk gure Jesusen umeak? Zuzen ote gabilta gu guziok? Utzi ote genituen guk geren bide makurrak, zuzenak artzeko? Beterik ote daude asmo garbiz, ta zeruko gogoz gure buru-biotzak? Ez ote dute oraindik zerbaitxo nasten gure adimentua aragiaren keak, eta lilurazio nastuak? Oriei darraizten naikunde galduak, edo gura txarrak ez ote dituzte geiegi makurtzen gure biotzak?

Bai egiaki, gure Jaungoiko maitagarria! Iguzu arren, makurrera onetatik datozen bekatuen keak, eta lañoak aienatzeko bear dugun zure graziaren argia ta laguntza. Iguzu, arren, oraindaño gereren aztura gaistoak garaitzeko, makurtasunak zuzentzeko, bide onean oñak sar-

zako, ta bide onetatik atera gabe zuzen ibiltzeko bear dugun indarra ta laguntza guzia. Au guk erdisten badugu, uste dugun bezala, saiatuko gara birtutez birtute zuzen ibiltzera; ta ibilliko gara zeruko bidetik geren oñak atera gabe, ekustera zu zere zeruan, ta an zu maitatzera igan arteko denbora guzian. Iguzu bada argi au, ta laguntza: bai arren, gure Jaungoiko maitagarria, bai!

*Convertimini á viis vestris pessimis,
et quare moriemini, domus Israel.*
Ezech. 33. 11.

Au zer da, nere jendeak? zion bein gure Jaungoikoak Ezekiel bere profetaz. Au zer da, edo noiz artean egon bear dezue zeren bekatuaren loan, ta loiean? Noiz artean bizi bear dezue zeren gogara, ta nere gogora begiratu gabe! Zuei begira ni orain, ta eternidadean; ta zuek niri begiratu ere gabe goizetik arratseraño! Zertako zaituet nik zuek; eta zuek zer dagikezue ni bage, ta nik zuei laguntzen ez dizutedala? Beude bada,

beude aldebat, oraindano zuen erakeriak, eta zeren erakeriak utzirik, atozte nigana orain badere; edo atozte nere graziaren esku onetara. Au dagikezuela zuek, eta orain ta beti bizi zaitezkeela nerekin ongi, ta zeren artean aisa, zertako biziko zarazte gaizki? Zertako gelditu nai dezue kezka ta naigabez beteak?

Au da len Jaungoikoak israeldarrei erraten ziena: ta au berau da, gaur gurekin dakarren itzketa. Baña zer itzketa da guk darausaguna? Zerukoa? Jaungoikoaren itzketa on oni dagokana? ta bear bezalakoa? Zer ote da gure barrenak orain erraten duena? Zer, orain gure biotzak gogoan darabilena, edo egin uste duena? Jaungoikoagana nai duela ote dio, ta mandamentuen bide zuzena artzera doala? Ori badio, ta, baldin badio ziñez, egin gogo du, leneko ta oraingo guziei gure Jaungoikoak eragin nai izandu diena. Ori badio, len lurrera bezain gog-oso etorriko da orain gure Jaungoikoa, komuniatzen garanetan, gure barrunbera, guri laguntzera, ta gu bere doaez ta ondasunez beterik uztera.

A, ero txar galduak gu, Jaungoikoak nai zuen asmo on au artu gabez galdu ditugunak onelako

aldiak eta ondasunak! Galduko dugu berriz bat ere? Ez genuke nai beintzat, gure Jaungoiko mai-tagarria! Artu naiez gaude, beste anitz zure ondasunekin batean, oraindañokoan galdu ditugunak ere. Atoz orretarako, gure Jaungoiko mai-tagarria: atoz maiz gugana, ta gure biotzera. Damuturik gaude oraindañoko gure ibillera galduz: urrikiz beteak gaude, ta lertu naiez, gure biotzak. Onak izateko, ta zuzen ibiltzeko asmoa ta asmoa da orain gugan dugun asmoa: ta asmonetan bizi ta ill nai dugulako siñuan, erratera goaz guziok: *Nere Jesukristo Jauna etc.*

XVIII.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEK BERE JAIT-DENBORAN

LENBIZIKORIK ERAKUSTEN DIGUNA

Ekusi dugu, zein gaizki bizi ziran munduko jendeak gure Jaungoikoa, gizon-eginik, mundura zenean. Zergatik, uste dezu, zela orren gaistoa mundukoen orduko biziera? Zeren nagusitako artuak zeduzkaten irur etsai guztiz galgarriak, eta egiten zuten oriek nai zutena. Zein ote ziran mundukoen irur etsai oriek? Oriek ziran, san Joan Ebanjelariak adirazten dizkigunak; edo ziran aragiaren naikunde makurrak, begien edo gogoaren arinkeriak, eta biotzaren autuste galduak, edo arrotasuna. *1. Ioan. 2. 16.*

Eta zer ote da, Jesusek bere jait-denboran munduko gaisoei erakusten diena? Beren itur nagusi edo etsai galgarri oriek garaitzeko bidea. Nola ote? Itzez, ta manuz? Ez: itzik atera gabe; ta berak egin zuenarekin. Zer egin zuen orretarako gure Jesus maitagarria? Orain guk ekusi bear duguna:

A.

Aragiaren naikunde gaistoak garaitzen guri erakusteko, jaio baño lenago Jesusek egin zuena

Aragi gaistoa, bure naikunde makurrekin da, S. Joan Ebanjelariak agertu digun bezala, munduak dituen irur etsai indartsuetatik bata: *Concupiscentia carnis*. Nola garaitzen den etsai galgarri au, laster aski ta fite erakutsi izandu zien munduko guziei Jesus maitagarriak; bada erakutsi zien, bere jait-ordua etorri baño lenagotik ere. Nola, uste dezu? Bere buruari, edo aragiari, eragiten ziola aragiak egin nai oi ez duena. Zer izan oi da, gure aragiak, edo mundura datorren edozeinek, berez nai duena? Emen bat ere nekerik bage, gustoz beterik, eta aisa bizitzea. Ala bizitu ote zen gure Jesus mundura zenetik, edo egin ote ziozkan gure Jesusek atsegin guziak bere buruari? Ez eta bat ere. Guziak ukatu ziozkan jaio zeneko; baita lenagotik ere. Siñisten ezpana-

zu, ez dezu, orduan Jesusek gugatik egin ta eraman zuena ekustea besterik.

Gure Jesus maitea jaiotzeko zegoen egunetan aditu zuten onen Amak eta S. Josek, Augusto Erromako enperadorearen agintze ta manu bat. Manuak zion, enperadorearen pean arkitzen ziran guziak billa zezatela nongoak ziran, ta noren umeak; eta ager zitzatela beren izenak.

Bearrean arkitzen ziranak, ziran, edo beren eskuz bizi ziranak S. Josek eta Jesusen Ama maitagarria; baña Dabid errege andi, ta santuaren etxetik zetozenak ziran bata ta bestea. Etxe au Belenen arkitzen zen, ta berak bizi ziran, berri au aditu zutenean, andik urruti Nazaret zeritzan erritxoan. Bazekien Ama Birjiñak, berri au argana zenean, etzegoela agitz urruti beraren erdi-ordua. Bazekien, edo izan zezaken bere gogantberta, bazter guzietatik au bilduko ziranak beteko zutela Belen, ta artuko zituztela ango ostatuak eta etxeak. Bazekien, nekez arkituko zuela ura bezalako errumes pobre edo beartsu batek non oñak sartu; ta alere nekezago aren eran edo adiuntzan arkitzen zen emakumeak. Bazekien, berekin zekarren bere Semea, Aita Eternoaren

Semea zela, ta Aita bera diñako Jaungoikoa. Bazekien lurreko erregeen semeei bezain ongi zegokiola jaiotzeko zegoen Jaungoiko-gizon oni bere etxean, ta gelan jaiotzea.

Baña au guzia bezala, bazekien zer egin gogo zuen aldi artan gure Jesus maitagarriak; eta, aditu zuenean Enperadorearen manu au, atera zen bereala bere itxetik, bere lan guziak eta egiteko andi-txikiak au utzirik. Artzen ditu bada, Jesusen jait-ordurako prestatuak zeduzkan bere oialtxo garbiak; ateratzen da bere senar on S. Joserekin batean bere itxetik; eta, non gelditu bear duen ez dakiela, badoa Enperadore Erromakoak agintzen dion, ta Jaungoikoak nai duen, tokira.

Nora zoaz, Jesusen Ama maitagarria? Nora zoaz? neguaren erdian, ta erditzeko puntuan aterako ziñan zu zere baztertxotik? Begira zaiozu, zere buruari eypadere, zerekin daramazun zere Jesus jaio bearrari! Orain arrerazi nai diozu orrenbat neke ta lan? Aski dira, bai, jaio ondoan orren begira daudenak, ori ongi nekatzeko!

Baña, ezin geldi ditekela dio Jesusen Amak: nekez beterik jaio nai duen Semeak deitzen

duela dio, Romako enperadorearen itzez; ta deitzen diola, bere jaiotzean, nekea, lana, ta bearra besterik izain ez duen lekura; ta Seme berak nai duela, dirala, dio, artzera doan bidea, ta bide luze gogorreko nekeak. Zoaz bada ordu onean, Birjin Amandrea; ta zere Seme Jesus balia daki-zula, beragatik artzen dezun zere bidean, ta, berarekin batean eraman bear dituzun aldarte txarretan, otzetan, ta gañerako zere neke gogor guzietan!

Artzen dute Belengo bidea Jesusen Amak eta san Josek: badoaz beren bidez, bidean gelditu gabe: sartzen dira billatzen zuten beren errian; ta gertatzen zaie, uste zutena: bada, nekezko beren bidea bukatu ondoan, arkitzen ez dute Belen guzian, gaba pasatzeko ta gutiren bat atsedeteko, gelatxo bat badere ematen dienik: orduko beteak daduzkee kanpoko aberatsak, edo, uste diranentzat gordeak daude erriko itxe guziak, eta etxeetako gelak.

A Belendarrak (errain zuen berekiko aldi onetan Jesusen Ama maitagarriak); a Belendarrak; eta bazenekie zuek nor den, orain emen nere barren onetan dakardan aurtxoa! Emen dator,

aspaldian zuek uste dezuten Mesias andia. Emen dator israeldar guzien, ta munduaren Salbatzailea. Emen dator gizon eginik, eta jaiotzeko puntuan, Trinitateko bigarren persona, Aita Eternoaren Seme Jainko maitagarria! ta dator, zuek zuzendu naiez, ta zuei zeren etsaiak garaitzen erakustera; ta orregatik dator, edozein aurtxo bezala, neketan, ta bere burua zuekgatik penatzen duela! Au ez dakizue zuek: egunen batean ezagutuko dezue; ta geienok beintzat, berandu noski, ta beste munduan.

Zer penak (asmatzen badakizu), orduko Ama-Semen biotzetako penak! Amak etzien bere penei begiratzen. Semearen penaz oroitzeak erdiratzen zion Ama maitariari bere biotza: ta Semeak ere, bereak baño agitz geiago ta geiago sentitzen zituen bere Amaren penak; bazekien alabaña berak arreraziak zirala Amak zeramatzienak; eta maite zuen Jesusek bere Ama; ta maite zuen, munduko seme maitatzalle guziak beren amak baño anitz eta aski geiago.

Ekusten dezu orain, jaio baño lenagotik ere gure Jesus bere buruari egin izandu ziona? Ekusten dituzu, jaiotzeko zegoenean, Jesusek eraman zituen nekeak eta penak? Etzigun ederki erakutsi, nola garaitzen den etsai gogor aragi gaistoa? Zer nekeak eta penak, Jesusi Belendar eskergabe txarrak arrerazi ziozkatena? Zer penak eta nekeak, Amarenei begiratzeak eman ziozkanak? Etziran andiak? Eta nolere! Bada guziak ziran gure onerako; guziak gure amoreakgatik, eta guzi-guziak guri erakusteko aragiaren naikunde txarrak garaitzen; naikunde galgarriak galerazi ez dizaguten geren bide ona, ta zeruko gloria. A gure Maisu eder, gure Jesus maitagarria! goiz aski asi zara zu guri erakusten, guk ongi izatekotz, egin bear duguna! Noiz asi bear ote dugu guk ikasi dugun lan on au egiten? Noiz etsai gogor, gure aragi sutu au, guk eskuratzen? Bertatik nai nuke, nik beintzat, zuk laguntzen didazula, nere Jesus maitagarria. lagun zakizkit bada; bai arren, bai!

B.
**Aragiaren naikunde
gaistoak garaitzen
guri erakasteko, Jesusek
bere jait-orduan egiña**

Etzuen Jesusek utzi, ez, jaio zenean, bere ordurañoko erakuste ona, ta guri geren aragiaren naikunde txarrak garaitz-erazteko bidea. Siñisten ezpadezu orain nik zuri erraten dizudan au, atoz ekustera, orduan Jesusek egin ta eraman zuena. Bazen, Belengo errian sartu bañolen itxola txar bat, eguraldi gaistoak ematen zueneko. Ekusirik bada Ama Birjinak Belendarrren ongi etorria, edo eskergabea; ta ezaguturik urbil zuela bere erdi-ordua, sartzen da itxol onetan. Ateratzen ditu an, ordu artarako berekin zekartzien oial garbiak. Belaunikatzen da itxolaren baztertxo batean; ta, berak gero santa Brijdari adirazi zion bezala; ala zegoela, ta bere gogo guzia zeruan zedukala, oñazerik gabe, ta, ez beste aurren gisara, baizik argia bidriotik ateratzen den eran, jaiotzen da Jesus; ta, jaio orduko Aingeruak ezartzen diote Ama berari bere

besoetan. Zeruko bere lo ederreтик iratzartzen denean, arkitzen du Jesusen Amak bere Seme maitagarria otzez ikara, ta negarrezko aurpegia- rekin. Orra, jaio zeneko, Jesusen asiera! orra zer bizitza! orra zer sosegua! orra bere gorputzari aldi onetan Jesusek ematen dion atsegina-aldia!

Urrikaldurik, Ama Birjinak biltzen du lenbaitlen bere Seme-Jesus bere oialtxo garbietan. Baña oialak berogarri txikiak ziran, Jesus bezain otzikara zegoen aur bati, bere ikar-eria kentzeko. Etzekien Amak zer egin orretarako. Etzuen egurrik; sua egiteko; etzuen lumarik, etzuen seaskarik au estaliz, estutuz, ta erabilliz bere Seme Jesusi otza kentzeko. Neguan arkitzen ziran ta neguko gau-erdirik gogorrenetatik batean. Alde guzietatik sartzen zitzairen beren itxola txar erdi-urratuan, den aizerik otzena ta biziena; ta orduko izoztuz joain ziran bazterrak. Jesusen Ama ere otzak ikara zedukan, ta beregana bere Semetxoa artu naiagatik, guti bero zezakean au. Zer egin dezake bada, Jesusen Ama maiteak, otzez ill ez dakion bere aurtxo Jesus bere besoetan? Zer daki berak ere? Onetan dagoela, begiratzen du, au arkitzen zen estalbi

txar batera; arkitzen du au agotz, edo lasto moltxo edo abar bat; etzarzen du aren gañean bere Semetxo ongi oztua. Baña azpiko lasto zatiak zenbat bero dezakee, otzez ikara dagon Aurra?

Non zaudezte zuek, zeruko Aingeruak? Ez dezute ekusten Ama-Semeak gau onetan daramaten otza ta nekea? Noizko da bada zuen jakiundea, ta esku andia? Ez dakizue nola, edo zer bidez berotzen diran otzez ikara daudenak? Ez dakizue zer zor diozuten zuek zeren Errege Jesus, otzez ikara dagoenari? Zertan zaudezte bada, edo zeren begira?

A! baña badakite Aingeru onak, nai balu berotu, ez duela orien bearrik Jesus jaio berriak. Badakite, otzez ikara ta negarrez dagoen aurtxoa izanagatik. Jaungoikoa dela Jesus jaioberria. Ta Jaungoiko, otz-beroak eta gañerako gauzak bere eskuan dituenak. Badakite, bai, otzez bada-go ta negarrez gure Jesus, bere naiez dagoela, ta guri erakusteagatik zeruan sartzeko guk egin bear duguna, edo nola garaitzen den ango bidera ateratzen den etsai galgarri, aragi gaistoa; ta orregatik, ez duela Jesusek nai ken dagokion oraingo aldian daraman bere otza ta nekea. Zau-

dezte bada geldirik, Aingeru jakintsuak; eta zaudzte Jesusi begira, ta arri zaitezte Jesusek gugatik bere jaioberrian daraman otzikaraz, ta neke arrigarriaz!

Eta zuk, Ama Birjina, zer egiten dezu zere Seme maite Jesus berotzeko? Ez nai adiña! Ekusirik Amak Jesusen otzikarak; eta etzuela deus balio, oriek arintzeko, itxola txarreko estalbi otzak, artzen du Jesus bere besoetan, ta egiten du al duena. Nai zioken egin, bere Jaunari bezala, al zuen agurrik, begitartetik, eta begiratzerik umillena; baña erdiratzen zion bere biotza, Jesusi ekusten zion otzak eta negarrak. Ekuste onek urtzen ziozkan Ama maitariari bere bi begiak; eta, zer ari den ez dakienaren eran, estutuko zuen bere bular gañean; josiko zuen bere arpegia Jesusen arpegiarekin, ta urrikariz ta amorez Amari zeriozkan negar malkoak nastuko ziran Jesusen begietako negar-malkoekin; ta bien negarrak utziko zuten Jesus bi aldiz ur egiña.

Zer dardarak, zer itonaiak Amaren biotzak ordu artan izandu zituenak! Ekusi zuen eran Jesus ekusi baño, naiagoko zituen artu bere gain munduko gose, egarri, otzikara ta neke guziak.

Amaren pena ta neke guzia zen ezin-arindua, berak nai bezala, bere Seme jaioberriak ordu artan zeramana bezain neke, ta pena arrigarria.

Neke au ezagutuko zenuen zuk ere, zuk orduan ekusi bazenu Jesus zegoen eran, ta era artan zegoen Jesusi begira Jesusen Ama maitari ezin urrikaltiagoa: ta bidenabar ezagutuko zenuen, aragiaren naikunde txarrak garaitzen zuri erakutsi naiez zela, bere buruari aldi artan Jesusek ematen zion tunda ta nekea; ta ekuste onek, arrizkoa ez izatera zu, erdiratuko zuen zure biotza, ta utziko zituen negarrezko iturri egiñak zure bi begiak: ta utziko zinduen zu, bere orduko nekearekin erakusten zizun guzia zuzen egiteko gogoarekin; ta, aragiaren gogo, ta naikunde gaistoak garaitzeko gogoz ongi-ongi betea.

Orain ere gogora ekartzen badituzu zuk orduko Jesusen otzikarak, orduko aren negarrak eta nekeak, eta begiratzen badiezu astiz ta kontuz, ta maiz, badut uste ezagutuko dezun, zuk ta nik asm-al baño andiagoa ta andiagoa zela orduan Jesusek bioi zigun amorea; bada, onelakoa ez izatera, etziozkan eragiñen, ez, eragin ziozkan

ikarak, negarrak, eta mundu guzia arritzeko aski ziran gañerako gauzak. Ekarzkizu bada gogora. Begira egiezu maiz, astiz, ta amorez: ta, ekusirik Jesusek, jaio orduko, zugatik egiten duena, egiozu ordeztu alegina; ta, zere gogo gaistoa, ta aragiaren naikunde txarrak garaitzen dituzula, sarzaitetz Jesusek aldi onetan erakusten dizun zeruko bide garbian, ta zabilta ortik atera gabe, bera ekustera, ta zor diozkatzun eskerrak ematera, zeruan sartu artean. An biok elkar dakusagula! Bai arren, bai!

*Subjecti igitur estote... propter Deum,
sive Regi.... sive Ducibus, tanquam ab eo
missis ad... laudem bonorum.*

1.— Petr. 2. 13.

Aita Eternoak nai zuena egiten zebillen gure Jesus jaio zeneko; baita lenagotik ere, bada zeren ala nai zuen Aita Eternoak, ibilli zen Jesus bere Amaren baitan, Nazareth zeritzan erritik Belengo erriranoko bide guzian. Ama zebillen Erromako errege andiaren manuz ta aginduz; ta

aren sabeleko Semetxo Jesus zebillen, bere Aitari atsegin egiteagatik, eta guri erakutsi naiez, ere geren aldietan gure Jaunagatik, egin bear duguna.

Zer da bada, gure Jesus maitagarria, zer da, zuk egin dezunaren eran guk egin dezakeguna; ta zer aldi dira gure egiteko onen eginaldiak? Egiteko au ote da, Jaun beragatik, Jaunaren ordezkari daudenen erranak egitea? Eta egitekoaren aldia ote da Jaun-ordezkoen (naiz gure gurasoak izan, naiz nagusiak, naiz gurekiko eskuren bat duen bertze edozein) manu ordua? Bai? Egin uste dugu bada, zure laguntzarekin batean, bertatik eta trikatu gain, naiz nekalea gerta dedilla, ta naiz erraza, orduan guri manatzen zaikuna. Ori da zuk guri zere Aitagatikako ibillera nekatu-luzearekin erakusten diguzuna, ta ori guk egin nai duguna. Iguzu zerorrek, zuzen egiteko, bear dugun zure laguntza ta eskua. Bai arren, bai!

*Reclinavit eum in praesepio:
quia non erat locus in diversorio.*

Luc, 2. 7.

Jaio zenean, arkitzen zen gure Jesus bere aitziñekoen lekuan; ta alere ez berak, eta ez bere Amak izandu zuen ongitorrigillerik, edo beintzat etxeren batean zokotxo bat ere eskeñi zionik; eta Amak Jesus ezarri zuen, mundura zeneko, animaltegi bateko estalbi batean. Au zer da, gure Jesus maitagarria? Bearrean dagoen edozeñi edozein lekutan urrikaltzen zaio nor edo nor; ta, neguan bada, edo eguraldi gaistoan, aren bearra, eman oi zaio bere beroaldia, bere afaria ta oatzea, edo gutienez etxeko agoztegia, edo zokotxoren bat; eta zuri, ta zutaz erditzeko dagoen Espiritu Santuaren Esposari, ta Aita Eternoaren Alaba maite Birjin Mariari, ukatzen diote beren erritarrak, eta aldeak ere, au guzia, ta uzten zaituzte zuek biok neguko gaurik gogorrean etxez ta erriz kanpoan! A, zer geldiera, bidez nekatuak datozen, ta guziaren bearrean arkitzen diranentzat! Arrizkoak ote ziran, orduan Belenen bizi ziran gizaki ta emazteki guzien biotzak? Galdu ote zuten txoil guziak beren ezagumentua, edo zer gertatu ote zitzaien? Onen gogorrak Belendarrak, burdiñez-

ko jendeak ere bera zitzaken tranzean, beren alde Jesusen Amarekin? Nola ez diozu, zuk badaere, gure Jesus urrikaltia, obeki begiratzen zere Ama maitagarriari? Zeri dagokala arrerazten diozkatzu onenbat eskergabetasun, onenbat otz, eta neke? ta zergatik ez dezu bidenabar kupideago zuk zere burua?

Zergatik, uste dezu? Guri geiegi naiez! Gugatik dira alabaña aldi onetako Jesusen nekeak; eta gugatik Amaren neke gogorak ere bada guri adirazteagatik nola dijoazen zerura doazenak, nekatzen ta nekatzen du Jesus jaioberriak bere burua; ta, bere burua nekatzeagatik uzten du neke gogorretan bere Ama ere, edo uzten du eguerri gabeko otzikara, kezka-lan, ta neke guzien artean! A! ta zenbat zor dizugun, erakusle on, gure Jaungoiko-aur, Jesus maitagarria! Zure eskolan bagenbiltza gu bizi garaño; ta egiten bagenu guk, gaur baña bigar zuzenago, ta egunoro bear bezala, jaio ere baño lenagotik zuk, gure Jesus maitagarria, erakutsi diguzun guzi-guzia! Ori gerta dakigula, zure laguntzarekin batean. Bai arren, bai!

*Semper mortificationem Jesu in corpore nostro
circunferentes, ut ei vita Jesu manifestur,
in corporibus nostris.*

2.— Cor. 4. 10.

Nai dezu dagoen beti zure gorputza Jesusen gorputza orain arkitzen den eran, edo atsegin-kontentuz ta gloriáz betea? Egizu bada zuk, eta gaurdanik egizu, jaio zenetik Jesusek egin izandu zuena. Etzuen Jesusek deusetan uts egin bein ere, ez begiz, ez eskuz, ez oñez, ta ez beste alde-tara. Etzuen gogoan artu Jesusek ongi etzirudien gauzarik txikiena ere. Etzuen maitatu Jesusek, maitatzekoa etzen munduko gauzarik bat ere: zuzenak ziran beti Jesusen gogorazioak, zuzenak itzak eta zuzenak gañerako Jesusen gauzak. Guzi-guziak egin zituen Jesusek bere Aitak nai bezala, ta uts egin bage; ta artu zituen gogoz, ta pozik, bere gorputza nekatu zioten otzikarak, eguraldi txarrak, begitarte gaistoak, eta gañerako neke guziak. Orregatik arkitzen da gaur Jesus, ta egoin da Jesus eternidade guzian ere, dagoen bezala, atsegin ta kontentu andiarekin.

Orrela nai dezu egon zuk ere? Bada gorde bearko dituzu zere begiak ekuste arinetatik; zere bearriak aditze gaisto, berriketa txar, lausenga loi, ta era orretako gauzetatik; gorde bearko dituzu, bai, zere miia ta zere eztarria, izketa arin ta jan-edan utsezkoetatik; gorde bearko dituzu zere eskuak ukitze lizun, joko galgarri, ta bear ez den beste edozein lanetatik; gorde bearko dituzu zere oñak danza zikin, ibillera galdu, ta sartzetate-ateratze galgarri guzietatik; eta gorde bearko dezu zere biotza asmo, gogo, ta naikunde, gure Jaunaren begietan ongi ez dirudienetatik.

Ori ezezik, egin bearko dezu zuk geiago ere: ontzat artu bearko dituzu zuk, eta zugatik nekatu zen zere Jaungoiko-aurraren izenean, egiten zaizkitzun bidegabe ta esker gaistoak, etortzen zaizkitzun eritasunak, naigabeak, berri illunak, kalteak, eta zure gorputza edo zure biotza nekatzeko diran gañerako gauzak. Bai, nere Jesus maitea, bai; guk ekusi ezkeru, zuk gure onerako zere jait-egunetik egin ta eraman dezuna, ori guzia egin naiez beteak arkitzen gara. Ala izan dezagula, guzia ongi, zuzen, ta beti egiteko bear dugun zure grazia. Au eskatzen dizugu gaur,

lenago bide au artugabeaz, ta egin ditugun
geren bekatu guziez ongi damaturik, erraten
dizugula: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XIX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEK BERE GIZATASUNA ARTZEAN, TA JAIT-ORDUAN ERAKUTSI ZIGUN BIGARREN GAUZA

Bigarren gure etsai aserre gogor indartsua da begi galduen arintasuna, ta gogoaren erakeria. *Concupiscentia oculorum*. Adanen bekatuak, edo bekatu etorki orijinalak, gaistatu zuen gure gogoa, ta agitz arindu zizkigun gaitz aldera geren begiak. Orregatik gure begiak, adiñetan gu sartu orduko, bazterretara begira dabilta, ta lurreko gauza txarrak ekusi-naiez; ta ekusi ezke-ro begiak iduri oneko gauzak, gauz oriek izan arren anima gaisoari ongi ez dagozkanak, gelditzen dira onen gogoan geiegi sartuak; eta zenbat ere gauzak gaitzerako egokiagoak, anbat gelditzen dira animaren gogoan barrenago sartuak. Zergatik, uste dezu? Zeren animako gure gogo galduak naiena dituen gauzak diran, beraren erakoak, edo bera errazkiago gaitzera eraman oi dutenak. Orietatik dira etxe galantak, oatze leunak, edertasunak, diruak, ondasunak, eta barren

makurtu txarrari, ta begi galduei atsegin egiteko diran gañerako gauzak. Orien atzetik, edo orien ondoren dabillen gogo, gogo galdua da; zeruko bidetik urrun dabillen gogo da; ta gogo, suleze-ra zuzen-zuzen dijoana.

Zer egin dezakegu bada guk, gogo ero au zenzarazteko, ta geren begi arin galduak eskuratzeko? Gure Jaungoiko-aurtxoak bere gizon egitetik erakutsi zigun bigarren gauza. Zer da orduan guri gure Jaungoikoak erakutsi zigun bigarren gauz au? Atsegin ta kontentuz, diruz ta ondasunez beterik dagoen bideren bat? Ez bada; orrelago bidearen bukaera sekulako sua ta garra da; sekula guzian borrero gogorren eskuz ta atzaparrez urraturik bizitzea da; orrelako bideak darama bat betiko negar-urratzeetara, edo sulezeko errette gaisto, lertze betiko, atsekabe madarikatu, pena gogor, ta damu guzietara: ta Jesusen bidea doa Aingeruen artera, ta, atsegin-kontentuak baizik ez diran tokira.

Zer bide da bada gure Jaungoiko-aurtxoak agertzen digun zerurako bide zuzen au? Bearrez, gabez pobrezaz, ta gogo ariñak nai ez lituken gauzaz betea dagoen bide bat. Bide au da, gure

Jaungoikoak gizon egin zenetik beretzat arturika-ko bidea; ta au berau da Jesusek, zerura nai dutenei, erakusten dien arako bidea.

Bada nik zerura nai dut, nere Jesus maitagarria; ta nai dut ekusi, zuk egin zenuen bide au, zure ondoren, ta zu nere begietatik galdu bage, zuzen ibiltzeko.

Nondik asi zenuen zuk, nere Jesus maitagarria, zerurako zere bide zuzen au? Gizon-egite pobre, bearsu batetik. Baña nai zenuela? Nai osoarekin, ta zuen amorez. Jaiotzeko dauden aurrak ez dakite, aberatsak izain diran edo beartsuak, beren jait-orduan ez-eta non ta nola jaio bear duten ere: ez dakite alabaña deus; ezagumenturik bage arkitzen dira beren amen sabeletan: ta ezagumentuan sartuak balira ere, ez luke aurrak beren eskuan, ondasunak dituen gurasetatik, edo ama beartsuagandik jaiotzea. Jesus da bakarrik, jaio baño len guzia zekien Aurra; ta nai zuena egin zezaken Aur-Jaungoikoa.

Bai; bere Amaren sabeleko aurtxoa zenean ere, bazuen Jesusek, ill zenean adiña adimentu, ezagumentu, ta ezaguera. Bertatik ekusten zituen Jesusek, jaiotzeko zegoenean gertatzen

ziran gauzak eta etorkizunak. Aurra bazen ere Jesus bere Amaren sabelean, ta aur oraindik jaio bagea, Jaungoikoa zen denbora berean; ta Jaungoiko, nai zuen Ama ta nai bezalakoa, artu izandu zuena.

Ar zezaken berez gure Jaungoiko maiteak, gugatik gizon egiteko zegoenean, nai zuen Ama, ta nai bezalakoa? Dudaren pitsik gabe. Baña nolakoa zen, artu izandu zuena? Munduan zen onena, bai, baña denbora berean ondasungabea, ta ongi beartsua.

Ekusten dezu zein laster, ta zein goiz, asi zen gure Jesus guri erakusten nola garaitzen diran begien arinkeriak, eta gogoaren gura gaistoak; bada asi zen, bere Amaren sabelean gizon egin zenetik, edo au bere gizatasuna artu zuenetik. Orra zuk zere Jesusi zor diozun lan andi bat. Bai? Bada orduko zure zor andi ori, zuk Jesusi zor diozunaren asiera bat bezala da. Goazen ekusiz gañerako geren zorrak ere: eta orain ekus dezagun, ordu beretik, geren bigarren etsaia garaitzeko Jesus berak egin izandu zigun erakutsaldia.

B.
**Bere jait-orduan
erakusten du Jesusek,
nola garaitzen den animako
bigarren etsaia**

Nola jaio zen gure Jesus, orretarako ordua etorri zenean? Begi ariñak, eta gogo galduak nai dituzten gauzekin, edo ondasundun ta aberats? Ez, baizik beartsu; ta gabe, ta gañerako aurren neke guziekin, ondasun gabeko Ama baten umea bezala. Bai: aur jaio zen gure Jesus; ta jaio orduko, egiten zuen Jesusek negar; ta, negarra bezala, egiten zituen adiñ artako beste aurrak egin oi dituzten begiak-idikitze, españak-erabil-tze, ta gañerako gauzak.

Aur-gauzak baizik argan ekusten etzituzte-nak, usteko zuten arkitzen zela Jesus beartsu, ta gabetasuna ta bearra nondik zetorkion etzekiela. Baña, bear den eran dakienak nor, ta nolakoa den gure Jesus, badaki, bai, berak nai-izanez gertatu zela, orduan ta geroz Jesusi gertaturika-ko guzia. Jaungoikoa Jaungoiko zenetik, edo eter-

nidade guzian, egondu zen gizon egiteko Trinidadeko bigarren Persona; ta ordutik artuak zeduzkan bere neurri guziak, jait-ordua zetorkionean jaio zen eran, edo beartsu ta nekez beterik, jaitzeko. Ustekabean bezala gertatu ziran orduko Jesusen gauzak; baña Jaunaren konsejuz egiñak ziran, Jesusek berariazko bere bearra estaltzeko billatuak bezala; ta orregatik artu zuen gure Jesusek, bere Amatako, Birjina garbi birtutezko bat, bai, baña ongi beartsua, edo doi-doia bizi-tzeko diña zuena.

Etzen, ez, Ama bezala, beartsua Jesusen Aita; Aita Eternoa da alabaña Jesusen Aita; ta Aita Eternoak badu, ta eman dezake, nai duen guzia: bada Aita Eternoarenak dira, lurraren ondo-ondotik zeruaren erpiñerano arkitzen diran gauzak; eta guziak baño geiago, ta agitz ederragoak egin ditzake Aita berak edozein orduz ta puntuz; ta guzia eman dezoke, edo guzitik nai duena, berak nai duenari.

Baña bere Aitaren ondasun guzietatik zer artu zuela uste dezu Jesusek bere jait-ordurako? Egiñen zion ordu artarako bere Aita altsuak jau-regi eder edo palazioren bat? Prestaraziko zion,

Konstantinoplako enperadoreak beren semeei apaintzen ziena ere baño ederkiago, ta obeki, apaindurikako gela? Ordurako egiñak egoin ziran, edo billatuak, seaska ederren bat, eta seaskarako bear ziran lumak, olandadak, sedaurte, zillarrezko estalkiak, eta errege guzien Erregearen Semeari zegozkan gauzak eta festak, eta atsegin-kontentuak, eta gusto guziak?

Siñistuko dezu? Bada etzion egin, ez, gauza onetatik bat ere gure Jesus jaio berriari, zein ere maite zuen bere Aita Eternoak; eta Jesusen Ama bezain beartsu izan baliz bezala beraren Aita altsu maitagarria, utzi izandu zuen bere Seme Jesus bere jait-egunean guztiz gabe ta bearsu: ta, palazio ederraren, edo jantegi-lekuan, eman izandu zion itxola txar, kasi tellatu erdi-urratu bat baizik etzuen: itxolan eman izandu zion, seaskaren edo oatze leun beroaren orde, estalki otz-gogor bat: eta Jesusen orduko soñeka guziak izandu ziran guti balio zuten oial txar batzuek.

Gertaturikako gauza ote da zuek aditzen dezutena, Jesusen umeak? Munduan izandu den birtuterik andieneko Amaren Seme bat izan

Jesus maitagarria: uts bat bere bizian egin ez duen Amaren Semea izan Jesus gurea; Jaunjikolari atsegin gelena eman dion Kriaturaren Semea izan Jesus jaioberria: ta denbora berean, guzia dezaken gure Jaungoikoaren Seme maitea izan Jesus bera; ta alaere onen tranze gogorrean, jaiotzen deneko, gure Jesus maitari ezin-maitagarriagoa? Au zer da (adirazi nai badiguzu) Ait-Eterno, Jaungoiko zuzen, ezin zuzenagoa? Munduan den gurasorik gaistoena ume batek ere izan lezake, zure seme maitari Jesusek duen jaiotzea baño jaiotze nekatu-gogorragorik, eta jaiotze bearsuagorik?

Ekus dezagun gauz onen gain, Ebanjelari santuak adirazten digun gauzatxo bat Jesus jaio zen gau artan berean agertu zela, dio, Aingeru bat; eta Belendik urrun etzeuden artzai batzuei erran ziela «*Berri* on batekin natorkitzuet, nere artzaiak; zuei adiraztera nator, orain berriro, emen zuen bazterretan gertaturikako gauz andi bat. Dabiden erri,urrengo Belen orretan, gaur jaio da munduaren Salbatzalle kristo Jaun Jaungoiko-gizona. Zoazte, zerok zeren begiz ekustera. Baña ez da zer-uste ta pensatu, diruz beterik

eta urrez jauntzirik datorkizuela zeren Salbatzallea: guti balio duten oialtxo batzuetan ingurutua edo bildua, ta estalbi batean ezarria, arkituko dezue, aratzen zaraztenean. Badoaz artzaiak beren ekuskizun andi au ekustera; ta arkitzen dute beren Jesus, edo beren Salbatzallea, Aingeru onak adirazi zien bezala. *Luc. 2. a v. 9.*

Gauz-arrigarria! Gizon eginik datorkigu guri gure Jaungoikoa geren artera; ta, onara era onetan etortzeko, jaiotzen da Ama beartsu bategandik! Munduko guzien, ta zeruko Erregea da, mundura datorren Jaungoiko-gizon au; ta, munduan agertzen denean, aberetegi, edo itxola txar erdi-urratu batean, jaiotzen da! Jauntzen dute, jaio zenetik anitz luzatu gabe, zeru-lurren Errege andi Jaungoiko-gizon au; baña nola, edo zer eran, uste dezu? Edozein aur beartsuk izan litzaiken zenbait oialtxorekin. Errege jauntzi onen lenbiziko, ta bigarren gela ezkaratza zen, ta animalien lekua. Onen lumazko, ta illezko koltxoiak estalbi gogor bat, eta ola, edo arria! Otza garaitzeko an arkitu izandu zuen sua, bazter guzietatik sartzen zen ifarra, edo aize bizia. Orra nola-

koa gure Jaungoiko-gizon, Jesus maitearen munduratzea eta jait-era!

Aditu dezu etorrera, edo jaiotze nekezkoagorik? Ori da bada gure Jesus maitariarena: ta da, zuri ta niri erakusteko nola guk iges egin dezakegun, gure begiak arintzeko ta gure gogoa makurtzeko diran gure etsai gaistoen ortz-atzaparretatik: eta da guri bioi erakusteagatik nola, lurreko gauzak eta atsegin txarrak aldebat utzirik, irabaz ditzakegun betiko gure ondasun andiak, eta atsegin eder-garbiak: irabazten dira alabaña, begiak bilduz, gogoa garaituz, asmoak zuzenduz, ta zeruko izar ederrak, edo gogargiak billatzen dirala, Jesusek bere jait-egunean izandu zuenaren erako gabeak eta beartasunak erakusten digun bidez, ta bezala. Orregatik bada, erditsi nai dituztenak zeruko ondasun oriek, billatu bear dituzte Jesusek ekusi zituenen erako nekearekin, gos-egarriekin, bearrarekin, ta gabearekin; edo, lurreko gauzak (oriekin arkitzen diranak, eta gañerakoak) gogoz badere uzten dituztela; ta, ezpaltuzte bezain umil ta garbiro bizi-tzen dirala.

Bearrean arkitzen zara zu, ta, zure gogoak nai lituken gauzaren batzuek gabe. Ez da zerransiatu, Gauza gaistoa baliz, edo, gaitzera daraman bidea, bearra, gabea edo ez-izatea, bereztat etzuen, ez, artuko gure Jesus erakusle on maitagarriak; ez eta guri ere arreraziko, arrerazi digun bezala: ta, arrerazi badigu, edo geren bearrean edo gabearekin iutzi bagaitu gure Jesus maitagarriak, guri ongi naiz izandu da, bai, siñistu nazazu, ta, guk geren zeruko bidea gal dezagun beldurrez bezala, ta irabazi andiak guri eragiteagatik.

Bearrean arkitzen zara zu, ta lenago zerorrek zenituen, zenbait ondasun edo gauza bage? Begira egiozu, zugatik bere munduko gauza guziak utzi, ta beartsu jaio zen Jesus maitagarriari: artu zazu arenaren izenean zere bearra; ta irabaziko dituze betiko diran ondasun ederretatik zati andiak.

Ez dituzu nai bezalako, edo zere gogorako, itxea ta gelak? Oatze gogorra dezu, edo zuk nai ez bezalakoa? Oroi zaitetz Jesusen seaskan, estalbi otz-gogorraz, ta itxolaz; ta ekusiko dezu, zein ere txarrak diran, arenak baño agitz obeak

dirala zureak, edo zuk dituzunak; eta ez daramazula zuk zerean, au ark eraman zuenaren erdirik, ez eta laurdenik ere.

Ez dizute, zere estutasunetan zere erritarrak, zere aldeak, edo zere auzokoak ematen eskatzen diezuna, ta bear zenuken zer edo zer? Eta zer artan zioten Belendar gogorrak Jesus maitagarriari ta onen Ama erditzeko zegoenari, bide luzez etorri, ta itxe-baztertxo bat Belenen eskatu, edo billatu zutenean?

Euriak, aizeak, eguraldi gaistoak gaizki zarabiltza noiz edo noiz? Eta nola erabilli zuten gure Jesus, jaio zen gau otz-illun-gogorrean? Ekusi dezu zuk bein ere zure Jesus onagatik, Jesusek ordu artan ekusi zuenaren amar zatietatik bat ere? Norgatik ziran orduko Jesusen nekeak? Etziran guziak zure onerako, ta zuri erakusteagatik, alako aldietan zuk egin bear zenuena? Noren onerako dira zure lanak, zure nekeak, eta zure munduko estutasunak? Zuretako izan diran guziak, eta alere saiatuko etzara zu bear den bidez, ta alik ongien-ongiena, oriek guziak eta geiago ere, (geiago Jaungoikoak nai balu) eramatera?

Ez dezu nai adiña beti, edo guti dezu? Baña ill zara oraindaño koan gosez, soñeko gabez, edo bearrez, edo ez dizu zere Jaungoikoak andik edo emendik eman izandu egunean zere egunekoa? Eta, bizitza gaistoarekin, edo zere eskergabearekin eskuak lotzen ezpadiozkatzu zuk zere Jaungoiko berari, ez ote du egin bear beste orrenbeste, bizi zaraño?

Oroitzen bazara zu, zure Jesusek bere jaio berrian, ta larrugorrian zegoela, izandu zuen otzikaraz ta neke arrigarriez, txikia iduriko zaitzu, bai, zere nekerik andiena; ta iduriko zaitzu, ondasun andia dela zure bear guzia, lana, ta gabea. Oroi zaitetz bada alik maizena; ta, begiak kendurik lurreko erakeri, gauza txar, ta lilurazio galduetatik, artu zazu gogoan gaur Jesusek, bere gizatasunaren artze, ta jaiotze umill-penatuarekin, erakusten dizuna; ta egizu alegiña, zere zeruko bigarren etsaia garaitzen dezula, zeruko bide batean sartu, ta zuzen ibiltzeagatik. Jesus jaio berriak dizula, orretarako, bear dezun bere laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Apparuit gratia Salvatoris nostri...
erudiens nos, ut abnegantes impietatem et
saecularia desideria, sobriè,
iustè, et piè vivamus.*
Epist. ad Tit. 2. 11.

Zorionekoak, gure Jaungoikoa gizon egiñik etorri ezkerro, mundura etorri garanak; bada guk badugu, lenagokoak izandu etzuten Maisu jakintsu erakusle ezinobe bat. Maisu au Maisu zen bere lendabiziko jait-egunetik; eta bertan, edo jaio zenetik asi zen erakusten guri, guk geren bizitza guzian jakin ta egin bear dugun guzia.

Zer ote da, orduan guri gure Jesusek erakusten ziguna? Zer? Ez diozala batek ere eskurik eman bere buruari, gauza txar galduetarako. Utz ditzala gogoeta ariñak, eta naikunde makur, zeruko bidetik atera nai dutenak. Bere jan-edanetan, bere loan, ta bere gañerako bear dituen lurreko gauzetan, ez dedilla sartu, ezinbestez baizik; eta, sartzen denean ere, sar dedilla lenbaitlen andik ateratzeko, ta bear duena baizik ez artzeko asmoan.

Erakutsi izandu zigun, gure Maisu on Jesusek bere jait-egunean zerbait geiago? Bai, ta gauz anitz eta anitz ere; ta guziak guztiz onak, edo ezinobeak. Zer bada, edo nolakoak? Erakutsi zigun, ta adirazi, ibilli gindezela bear den eran, edo zuzen-zuzen, geren zeruko bidean, ta Jaunen legetik oñik atera gabe. Adirazi zigun, ta erakutsi, ez dagiogula bati ere, berak naiko ez duen gauzarik, edo ongi ez den, ta gerok gerendako naiko ez genuenik. Eta erakutsi zigun azkenean, eraman ditzagula geren egunak, geren asteak, geren illak, eta geren bizitza, gure Jaungoiko maitagarriak manatzen dituenak, eta beste zenbait gauz on, egiten ditugula.

Orra gure Jesusek lenbiziko bere jait-egunean erakusten diguna, dio san Pablok: orra zein eder-on-andia gure Jesusen lenbiziko erakustea. Egin bageneza guk zuzen beti, ta itzik atera gabe, gure Jesusek erakutsi digun au! Zorioneko Jesusen eskolarrak orduan gu! Asi gaitezen bada gaur bertatik, jaioberriak bagiña bezala. Erakutsi ziguna, guri egiten laguntzeko, dago gure Jesus; ta zenbat ere andiagoa den geren lanerako gure naia ta gogoia, anbat indartsuagoak izain dira

gure Jesusen laguntzak. Artara noa, nere Jesus; lagun zakizkit nere lanaren azken-orduraño, au bukatzean sar nadin ni, nekez ta zuzen ibilliz, zuk irabazi zenuen zere zeruko glorian. Bai arren, bai!

*Scitis gratiam Domini nostri Jesu Christi,
quoniam propter nos egenus factus est,
cum esset dices, ut illius inopia vos divites
essetis.*

2.— Cor. 8. 9.

Ez dakizue zuek, Jesusen umeak, zeren Jesusi zenbat zor diozun? Gizon egin baño len, ta eternidade guzian ere, bazuen Jesusek nai zuena. Etzuen ezerean bearrik bein ere, ta beti bazuen, guzirako, bear zen esku ta indar baztergabekoa, ta alere, guri ongi naiez, egin zen gizon, ta jaio en beartsu ta gabe. Bai, guri ongi naiez, ta gu aberastuak eta ondasundun egiñak uzteagatik!

Nola uste dezu? Bere borondatezko, edo bere naiezko gabearekin graziak eta graziak guri ira-

bazten zizkigula, ta, gabeak arrerazten ziozkan nekeekin, guri agertzen zigula nekezko bide, irabazi andizko bide, zeruko bide zuzen arrigarrizko bat. Zorionekoak, Jesusen amoreakgatik bide au artzen dutenak, eta, onetan dabiltzala, irabazten dutenarekin zeruan aberats sartzen diranak! Oriek, bai, oriek dira, gure Jesusek maite dituen umeak; oriek dira bere ondasundun gure Jesusek egiten dituenak: eta oriek, pozik bere glorian gure Jesusek artuko dituen umeak.

Ez ote naz ni ere izain orietatik? Nik neronek nai badut, bai; ta bertatik alere: bada guzientzat dator gure Jaunboikoa, gizon eginik, gure artera: guziei erakusten die Jesusek bure zeruko bide au, ta, onetan sartzen diranak, sartzen ditu Jesusek zerurako dauden bure umeen artean. Nai dut bada nik, nere Jesus maitagarria; nai dut nik artu, zere bearrarekin, edo gabearekin erakutsi didazun zeruko bide au. Indazu orretarako, nere etsaiak garaitzeko, ta bide onetan irauteko, bear dudan zure laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

Expectatio Israel, Salvator ejus....

*quare quasi colonus futurus es in terra,
et quasi viator declinans ad manendum?*

Jerem. 14. 8.

Israeldarrak len uste zinduztena, ta noizbait, noizbait, gizon eginik agertu zaran Mesias gure Jaungoiko Salbatzallea, zer asmoak dira zere gogoan orain zuk dakazkitzun asmoak? (erran dezakegu gaur guk, Jeremias Profetaren itzak geren alde artzen ditugula) Zergatik zatoz gaur, bere errian tokirik izan bagez, toki billan urrutira dijoan bat bezala, ta, besteren etxean sartzen den bidezko errumesaren eran? Zere jaio-puntuan arkitzen zaranean, uzten dezu zuk zere leku ta erri Nazareth; bazoaz bidez bide, andik urrun dagoan Belengo errira; ta au zabiltza zere Amarekin batean, gau bat pasatzeko toki billan; ta, tokirik au ezin arkituz, arkitzen zara erdi-urratua dagoen itxola batean sartzeko premian! Ez da au nornai arritzeko sobera den lana ta nekea?

Zertako da bada, Jesus maitea; zertako da, aldi onetako onenbat zure neke, arazo, ibillera ta lan? Zeri dagozkala artu izandu dituzu, zuk artu

dituzun zere bidezko tundak, eta toki txarretan igaro dituzun gau latz-gogor-otzak? Ez dakizu zuk ori, bekatari galdua? Artu izandu ditu, guri gogoan sarrerazteko geren munduko sar-aterea; ta orren ondoren eragiteagatik, oroitzapen onek eragin oi duena.

Nola, uste dezu, sartu ziñala zere munduan? Larrugorrian, ta deus ere bage. Eta nola atera bearrak ote gara zu ta ni, biok, mundu beretik ateratzeko denbora datorkigunean? Emen utzirik ditugun geren gauza guziak. *Utsik atera nintzan* (dio Job Santuak, eta erran dezakegu guk ere) *nere amaren sabeletik, eta utsik itzuli bear dut lurrera, edo lurraren sabelera*. Gauz onen oroitzapena da Jesusek bere jait-egunetik zure gogoa sarrerazi nai duena.

Baña zertako? Lurreko gauza txarretarako gogo galduak zuri gal-erazteko; bada, nai-ta-ez utzi bear diran gauzetatik aisa kentzen da gogo. Ongi diozu, nere Jesus maitea, ongi diozu! Bidezkoak gara munduan garanok; eta, geren biderako, edo bizitza labur au zutik idukitzeko, bear den jan-edana ta soñekoa baldin badugu, ez dugu geiagoren bearrik, ansiarik

bage ta aisa bizitzeko. Apaintze ederrak, ekuste ariñ zorrotz eskergabekoak, begiak eta biotzak zikintzea, janari meez, edo edari sutuz barrenak berotzea, oatzez, ta gustoz gorputzak aspertzea, ta orrelako bertze gauzak, Jesusek bere jait-ordutik aldebat utzirikako gauzak dira; ta Jesus beraren ondoren dabiltzanak utzi bearrak. Beude bada, Jesus maitea, beude aldebat; bada nik ere zure ondoren ibilli nai dut, bizi nazaño. Lenago ez-utziaz, ta, oriek eragin dizkidaten bekatuez, dut orain zuk ekusten dezun adiña damu ta urriki! Orien barkamentua eskatzen dizut orain bai, ta bekatu berririk ez egiteko grazi ta laguntza ere, itzez ta biotzez erraten dizula: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XX.garren OTOITZ-GAIA

JESUSEK BERE JAIT-ORDUAN

ERAKUTSI ZIGUN IRUGARREN GAUZA

A.

Erakutsi zigun biotzaren arrotasuna, ta antustea garaitzen

Gure irugarren etsaia antustea da, edo biotzaren arrotasuna ta soberbia: *Superbia vitae*. Antustea, soberbia, edo arrotasun au guzien gañean bat egon-naia da; edo lagunei baño begitarte ohea egiten zaiola, guzien gogoan sarturik, eta, orretarako bear diran egiteko, soñeko, itxe, ta gañerako gauz-andi guziekin bizi-naia da. Nai galdu au, lurreko gauzetan sarturik, eta zeruko-ei begiratzen etzaiela, bizi-naia da ta anitz bekatutarako bidea. Bekatuen bide gaisto au urratu naiez, ta mundukoak zeruko bidean sarrerazte-ra, etorria da, gizon eginik, gure Jaungoiko maitagarria; ta orregatik artu izandu zuen, jaio zen

ordutik eta luzatu bage, zeru bereko bide au; ta bertatik asi zen guri erakusten nola garaitu, emendik urruntzen gaituen, irurgarren etsaia, edo geren antustea, biotzaren arrotasuna, ta naikunde makurra. Bai: ordutik artu zuen gure Jesusek etsai galgarri onen kontrako bidea, edo zerukoa; ta bertatik autsi zituen, edo etorri ere baño len, bere baitatik aienatu zituen antuste arroaren naikunde galduak. Nola ote? Goazen ekustera.

Autuste arroak, edo soberbiak, ukituz adirazi dugun bezala, ezin ekusi du beinik bein aurtasuneko konturik, edo gauza leun-txiki-beratx-umillik: eta zer izandu ote zen, au aienatzeko gure Jesus maitagarriak bere jait-orduan egin izandu zuena? Aur jaio, ta aur gelditu: ta gelditu aur, berak ni zuela. Bai: *berak nai zuela*: bada jaio zeneko, ta lenbiziko puntutik ere, bazekizkien Jesus maitagarriak, bere azkeneko urteetan zekizkien gauza guziak; eta bidenabar bazegizkien nai zituenak, batean ere uts egin bage, ta, ala nai izatera, bertatik geldituko zen gizon andi eginik, eta izain zen diñakoa: bada, lurreko aitarik bage gizon egitea, egin zen bezala; Amaren

Donzellatasuna galdu gabe jaiotzea; izaten asi orduko jakindez ta altasunez beterik arkitzea; ta egin zituen beste zenbat gauza bezain erraza zen, bera batetan azirik, edo anditurik gelditzea: baña guri geren arrotasunaren naikunde galduak galerazten erakutsi naiez, aur gelditu zen Jesus jaio zenean, ta aurtasuneko negar ta neke guzien artean. Orra, orretarako gure Jesusen lenbiziko pausuak.

Bigarren lekuan antuste arroak egon nai luke lekurik onenean, ta guzien gain bezala. Eta gure Jesusek ori eskura-naiez, edo, nola eskuratzen den guri erakusteagatik, artu izandu zuen bere jaitorduan, ar zezaken tokirik txarrena. Jesusek nai izatera, jaioko zen Israeldar guzien Jaun ta errege: ta jaioko zen Dabid erregeren jauregian, edo onen seme Salomonen palazio ederrean, edo orien biena baño eder-obeia zen besteren batean. Baña non jaio zen gure Jesus maitagarria? Itxola txar erdi-urratu batean, ta ganadutegian. Orra Jesusen aldi onetako bigarren pausua!

Irurgarren lekuan, eskupean iduki nai lituke guziak antuste arroak, edo soberbiak. Egin izandu zuen zerbait Jesus maitagarriak bere esku-

peratzeko munduan arkitzen ziran jendeak? Bat ere. Zer bada? Aditu zazu. Jaio zeneko, Jesusek, nai izatera, izain zituen nai adina zaldun ta soldadu, ta, nai bazuen, munduan arkitzen ziran jakintsuenak, indartsuenak, eta artarakoenak: bada artara ezkerro, erraz erakar zitzaken, oriek ezezik, munduko guziak ere, zeren etzen ori, egun artako, ekusi ditugun, edo beste zenbait gauza baño gauza gaitzagoa; bada Jesus jaio zen egunean, libruak diotenaz (*apud Daurout. Catech. hist. t. 4. lil. 29.*) agertu zen izar berri bat, eguzkia sortzen edo agertzen den aldetik; eta eguzki beraren sartutokian agertu ziran irur eguzki. Orduan bertan agertu zen arri bat, ura zeriola, ta urte askoz iraun zuen arri artako iturriak. Eta, orduraño munduaz jabeturik zeuden, ta idoloetatik itz egiten zuten sulezekoak, mutu ziran batetan, ta adirazi zuten egun artan jaio zen aurrak, edo Jesusek, lotu zieztela beren miiak, edo mingaÑak. Onelako gauzak bezain erraz eragin zitzaken bere onerako ziran guziak, eta gizartetik erakar zitzaken, bere zaldun izatera, nai zituenak. Erakarri zituen? Ez. Bada, Jesus jaio zenean, etziran arkitzen Jesusen itxolan,

Jesus bera, beraren Ama, ta san Josef besterik; edo gueienaz arkitzen zen animalia bat edo beste.

Laurgarren lekuan opinione ona nai du antustek, edo nai du birtutetsuen laguntza, ta serbitzua: ta orrelakoetatik al dituenak beretu naiez dabil, antustez burua beterik darabillena. Eta zer da Jesusek bere jait-orduan egiten duena? Naitkunde makur ori lertu, edo guri lertzen erakutsi bere laugarren pausuarekin. Nola ote? Adi zazu.

Nai izan balu, ar zitzaken Jesus maitagarriak adirazi dugun soldadu ta zaldunen orde, nai adina Aingeru; ta Aingeru, berak nai zituenetatik; bada au zituen, jaio zeneko, bere aldakan edo aldamenean, zeruko guziak, bere Aitak ara bidalduak, erraten ziela; zoazte, Aingeru guziok, zoazte, nere Seme ta zuen Errege Jesus adortzera: nereak bezala, arenak zarazte zuek guziok; eta nerearen eran aren nai guziak egin bearrak zarazte: ots bada, zoazte bere-bereala; ta egizue agintzen ta manatzen dizutena, naiz gaitza izan, ta naiz erraza, ark zuei manatzen dizutena.

Baña artu zituen Jesus jaio berriak Aingeru guzietatik zenbait badere? Ezeta bat bakarrik ere. Eta etzituen igorri edo bidaldu soldadu zenbaiten, edo zaldunen eske, bere zaitzeko, ta, bera ekustera etorzen zirane, nor zen adiratzeko? Ez eta ori ere. Onen lekuan Jesusek egin izandu zuena zen, mendiko artzai beartsu batzuen eske bere Aingeru andiak igortzea, oriek etorri zitezten ekustera Jesus beraren aurtasuna, itxe txarra ta gabea.

Au zer da, nere Jesus maitagarria? Zer egiteko da, zuk gaur zere eskutarrean darabiltzuna? Zer egiteko? Guri orain guztiz ederki dagokiguna. Geren arrotasuntzarrak, ta antuste galgarria bertatik lertzen, edo bide zuzenez eskuratzen guri ezinobeki erakustea. Onetarako, bai, agertu zen Jesus, negarra baizik ezin zezaken eran, ta aur egiña. Orretarako, bai, artu izandu zuen itxola txar, edo ganadutegi galdu bat bere jauregita-ko, edo jait-etxetako. Jesusen etxearen erakoak ziran, etxeko gauzak, etxeko ondasunak, eta bere jait-orduan Jesusek izandu zituen etxetar guziak. Etxe onetan Jesusek izandu zituen gela zabalak, sala apainduak, eta oatze jauntziak

ziran ganaduen ezkaratz bat, eta bere estalbia Jesusen ondasunak, estaltzea zuten oialtxo garbi batzuek; eta Jesusen familia, ta zaldun guziak, bere Ama Birjin beartsua, ta onen senar maitagarri san Josef. Non arkituko dezu antuste arroaren galgarri obeagorik? Non bide zuzenagorik?

B.

Ez da bide au beste biderik, lurrekoen antuste arroa garaitzeko

Zertako da, nere Jesus maitagarria, zuk zere jaioberrian agertzen diguzun adiña umiltasun, otz, bear neke, ta gabe? Zuei (dio, edo adiratzen digu); zuei, nere ume maiteei lanez bertatik erakusteko, itzez gero bere denboran erakutsi bear dudana. Zer ote da zuk gero, anditzen zaranean, edo bere denboran erakutsi uste diguzuna? Zorionekoak izan nai badugu emen, ta beti, izan gaitezela umill-umillak, edo arrotasunik gabeak: iges egin dezagula, alegin guzian, mundu eroaren ibillera arro ta bide zabaletatik; baldin izaten

badugu guk, geren gos-egarriak iltzeko, ta geren soñerako bear duguna, ez gaitezela ansiatu geiago, edo bear ez ditugun beste gauzak bil-tzeagatik; eta geiagorekin arkitzen bagara, utz ditzagula, gogoz badere, bear ez ditugun guziak eta egin dezagula, oriek beartsu gaisoei emanaz, al dukegun ongi edo on guzia; ta denbora berean, geren buruak lanez, baruz, edo beste zerbait bidez nekatzen ditugula, saia gaitezela geren egunak ongi, ta bear den eran, bukatzera.

Au da guri gero gure Jesusek itzez erakutsi bear diguna; ta au bera da Jesus berak, bere jait-egunetik bere negar ta neke guziekin erakusten duena; ta, lanezko Jesusen erakuste au bage, itzezko beraren erakustea anbat balioko ez luken erakustea litzake. Anitz beartsu arkitzen dira munduan, Jaungoikoak emanik duten beren bearrarekin, edo gabearekin kontent arkitzen ez diranak. Anitz-anitz dira, ori ta gañerako beren nekeak emeki, ta pazienzian eramateko bere Jesus nekatuari begiratzen ere ez diotenak; edo beren neke-bearrak ontzat artzen ez dituztenak, ekusiagatik gure Jesus beren amorez nekatur, edo berei, beren nekeak, eta bearrak ontzat

artzeko bidea erakusteagatik, guzia bere jaitordutik bearrez ta gabez betea. Zertarako lirake bada beartsu oriek, ekusten balute Jesusek, erranagatik oriei ontzat ar ditzatela beren nekeak eta gabe guzia, ez duela berak gabe bizi nai, ta neketan sartua?

Zer begiratze egiñen liekee orrelakoak Jesusen erranei, Jesusek erraten dienean gurutzeko bidez ibilli bear dutela zeruan sartu nai dutenak, eta betiko galduak izan bear dutela, antuste arroak erakusten dituen urrats galdu, edo pausu ariñetan, ta onren ondoren dabiltzanak, ekusten balute, ori erraten dien Jesus bera onelako pausuetatik eta gurutzeko bidetik, agitz aparte ta urrun dabillela? Zer errain lukee, ori dionean Jesusek, Jesus ekusten balute ondasunez ta diruz betea, lurrera deneko; ta ekusten balute jaio dela Jesus zaldunez beterik dagoen jauregian, sedazko kolgaduraz, ispillu ederrez, indietako maiez, Moskobiako kataderaz ta milla gauza baliosoz apaindurikako gelan, ta, oraindik egin den oatzerik leunenean, ta onenean? Zer errain lukee, ekusten balute, gogoak ematen dion guzia ematen diotela Jesusi bere itxekoak; eta

neke, izerdi, oñaze, ta min bage, arkitzen dela Jesus jaiotzen denean, ta bere bizitza guzian; ta denbora berean adirazten diela mundukoei, zerura nai badute, utz ditzatela antustearen gogoetak; eta, oriek garaitzeko, neka ditzatela beren buruak eta gorputzak; eta izerditan urtuak, gose-egarriarrek, bearraren ta gabearen azpian, eraman dezatela beren bizitza guzia; ta, noizbait izaten badute munduko zerbait ondasun, utz dezatela gogoz ta biotzez, alakorik ezpaliz bezala?

Au guzia Jesusek adirazten lienean munduko gaisoei, bera balebill aisa ta nai duen eran, bera balebill onraz, urrez, ta diruz betea, jendez ingurutua, ta konbenienzien edo aisatasun guzian artean, atsekaberik egin gabe bere buruari, ta nai dituen atsegiñak egiten diezkala, zer errain lukee onen itzez, edo zer kaso egninen liekee Jesusen erranei? Batere: ta errain lioke noski: Aisa diozu, bai, orain erraten dezuna. Nai badezu zuk, guk dagigun zuk diozun lan gogor au, ots emazu, ta atoz, nola egiten den guri erakustera, ta egizu lenik zerorrek guri aisa erakusten diguzun au.

Errain zioten Jesusi au guzia, Jesusek lanez lendanik ez egitera, itzez gero erakutsi zuena: baña egin izandu zuen gure Jesus maitagarriak, eta ederki alere; ta egin izandu zuen, itzez erakutsi baño agitz lenagotik, edo jaio zen puntu beretik: bada denborarik galdu gabe, ta orduan bertan, asi zen antuste arroaren ta soberbiaren lan galgarri guziak urratzen; ta manatze-onra, ta lurreko-eroak, estimatzekoak dirala uste duten gañerako gauzak utzi zituen Jesusek aldebat, eta orien lekuan artu izandu zituen munduak oinpean darabiltzan gauzak, edo umiltasuna, itxola txarra, zokoa, mesprezia, bearra, otza, negarra, ta gabea; ta artu zituen, ez uzteko bizi zen artean, ta bere gurutzeko eriotzaraño. Eta orregatik artu zuen gure Jesusek, antustea garaitzeko ta nola garaitzen den erakusteko, artu bear den bidea.

A nere Maisu eder, Jesus maitagarria! Zerulurrak beren gauzekin zureak dira; ta, ezer ez duen errumes bat dirudizu zuk sortu zaranetik! Erregeen Errege zara zu, ta manatzen dutenen Jaun ta Jabe ezin-andiagoa; ta, edozein manatzalleren erranak egiteko dagoena bezala, zabilta

zu sortu orduko; baita lenagotik ere! Mundu guzia zuri agur ta agur egin bearra, ta zu guziei agur egitera etorria bezala, erritik aterea, ta ganadutegian, ta estalbi batean, sortu orduko! Lurreko oialak, urre zillarrak eta gañerako gauzak, guziak zure eskukoak; eta, zuk dituzunak, ezin txarragoak!

Jainko-gizon nere Jesus, nere amoreakgatik, onen itxura txarrean! Aita Eternoarekin bat den aren Seme maitea, nigatik aur egina! Aingeruz, ta kerubinez bere tronua ingurutua dadukan nere Jaungoikoa ezkaratz batean, estalbi batean, ta ganadutegian! Itsasoak, odeiak, elementak, eta zeru guziak nolana darabiltzien Jaun andia, eskuak loturik! Aur-oialez ingurutua! ta otzaren igesi zoko txar batean ezarria! Zergatik au guzia? Niri erakusteagatik antuste gaistoa, ta munduaren arrotasuna garaitzen!

Ez dut au nik ere garaitu bear, nere onagatik ezpada ere, onenbat zor diodan nere Jaungoiko maitagarriagatik? Onenbat berari kostatu zaion erakuste guztiz eder au, gogoan ongi sartua dadukadala Jesusi adierazteagatik? Eta adirazteagatik, zenbat ere itxura txarragoan nigatik

dagoen, anbat maiteago dudala, san Bernardok dion bezala: *Quanta pro me vilior, tanto mihi charior*. Bai, baldinbere! Nai nuke beintzat. Indazu zerorrek, nere Jesus maitagarria, orretarako bear dudan zure laguntza ta grazia; ta bertatik, batere trikatu gabe, artara noa.

*Qui mollibus vestiuntur
in domibus regum sunt.*

Matth.11. 8.

Zer da au, zer da, nere Jesus maitagarria? Jaio orduko zuk zeretzat artzen dituzun lagunak otza, estalbi txarra, ta gabea? Ez dira ordu orretarako obeak oatze berotu bat, olandak, eta sedak, eta jauregi eder-berriak? Gaistakerietako bai, dio Jesusek; ez zerurako. ederki jauntziak, eta nai duten eran bizi diranak itxe andietakoak dira; ta orrelakoetan arkitu oi da, bai, arrotasuntzar, antuste, soberbia franko. Au guzia gal-eraztera datorrenak (artara nator ni: jakin ezazu, bai) artu bear du, nik ordu, ta aldi onetatik artu izandu dudan bide au; ta nere ondoren etorri nai

dutenak egin bearko dute nekezko bizitza, edo bizitz umil naigabez beterikako bat; eta bizitz onetarako lagunik onenak, nik orain artu ditudanak dira.

Izan bitez bada gaurgero nereak ere, nere Jesus maitagarria; ta otzak bere aldietan ingurutzten nabenean, izan dedilla, zuk zere jait-egunean izandu zenuenaren izenean. Nere soñeko erdi-galduak, edo txarrak garai dezatela oraindano, nere biotz arroaren antuste galgarria: ta oberen bat jauntzen badut noiz edo noiz izan dedilla ezinbestez, ta burua batere arintzen ez didala; ta izan bitez nere itxe-gelak, eta gañerako gauzak, zure eskolan dabillen ume onari dagozkanak, eta zure gauzetan obekiena lagunduko didatenak. Bai, arren, nere Jesus maitagarria, bai!

*In die honoris tui ne extollaris,
quoniam mirabilia opera Altissimi solius,
et gloriosa, et absconsa, et invisata opera illius.*

Eccl. 11. 4.

Zeri dagokala, Jesusen umeak, gure arrotasuna ta antustea? Zer dira gure gauza guziak, oriekगतिक arrotzeko gu, ta antustez beterik gelditzeko? Igitzea bera lana kostatzen zaiku: bezal bat, askotan beintzat, ezin goititu dugu; ta, egiten ditugun gauzarik andienak ere, zer gauzak dira, gure Jaunaren gauzen aldean ezarri ezker? Aur illarenak dirudite, edo, arrastan dabillen ar txarrarenak; eta andienak ere, egun bian bukatzen diranak dira, edo izatez txiki-txarrak dira; ta irautez guztiz laburrak. Gauz andiak, gauz ekuskariak, Jesusen gauzak dira: ta, guzien artean, aurtasunekoak: oriek dira alabaña, gañerakoak ez bezalakoak, eta gauz umil, gord-estaliak.

Bai, Jesus maitea, bai, zure aurtasuneko gauzen berria dutenak, geiago arritzen dira orduko zure umilltasunaz ta gabeaz, lenagoko zure zeru ta lur egite, ta gañerako gauz andiez baño: zeren, len zuk egin dituzun bezalako gauz andiarrigarriak egitea, ta orietatik bakoitza bere tokian ezartzea, an idukitzea, edo nai dezun eran erabiltzea, zere aala, anditasuna, ta eskua guri agertzea den, guri, oriek ekusi ondoan, era-

gin naiez, zuri guziagatik zor zaitzun agur, esku-
muin, ta esker emate guzia: baña aurtasuneko
zure gauzak, guztiz txikiak diruditen gauzak dira,
ta zure gloria, eskua, ta aal guzia agitz gorde-
tzen duten gauzak; eta, zor zaitzun estimaziora-
ko kanpotik laguntzen ez duten gauzak: eta,
estimazioa galtzeko bidean bat berariaz jartzea,
estimazio dakarten gauzak egitea baño agitz
arritzekoagoa da.

Onenbat nigatik, eta nere antustea niri garai-
tzen erakusteagatik egin dezun nere Jesus-aur-
txoa, zer egin dezaket nik, zuri atsegin geiena
emain dizun gauzaren bat egiteko? Aur baten
eran, ta inozenzian bizi? Mundu arroaren gauzak
utzi, ta zure ume umillarenak egin? Zure ize-
nean, ta eme-emeki artu, eguraldiak, buruko
miñak, auzoko norbaitek, edo nornaik emen ta
bertzetan ematen dizkidan aldarte txarrak? Ori
da, bai, milagroak, ekuskariak, edo lurreko gauz
andi guziak baño geiago zuk estimatzen dezuna:
ta ori bera da, zuri atsegin egiteagatik, eta nere
onerako, nik gaurgero egin nai dudana. Indazu
zerorrek, nere Jesus aurtxoa, nik orretarako
eskatzen dizudan zere laguntza ta grazia; au

bage alabaña, ezin dagiket nik, dakizun bezala, orrelakorik, ez eta besterik ere. Eskatzen dizut au, zere aurtasuneko amore andiagatik. Ez arren ukatu, ez!

Vae, qui sapientes estis in oculis vestris.
Isai. 5. 21.

Urrikari zaituztet (dio Isaiasek, lurreko arro guziei itza zuzentzen diela) urrikari zaituztet, bai, zeren buruei begira zaudezten arrotzar galduak! Zuek, zerekiko gizon andi-jakintsuak zarazte. Zuei, zuen iduriz, munduan den agur, eskumuin, ta begitarte guzia zor zaitzue: ta, zue-nak dirala deritzazue zuek, edozein aldetan arkitzen diran gauzarik onenak. A ero txar gaisoak! beldur naz, baita, agitz alere, erran dakizuen zuei egunen batean, len bein Luzifer, sutan datzanak, damuz ta naigabez beterik aditu zuena.

Au zer da, Luzifer (erran zitzaion oni bein) au zer da? Orrela galduko zenuen zuk zere Zerua, ta zerutik eroriko ziñan, erori zaran bezain aisa?

Artizarrak baño, argi, ta edertasun geiago zenuen zuk, Jaungoikoak egin zindueneko. Zere asitze berean graziaz apaindua, ta naturalezaren doaiez betea zeunden zu, ta, bear zenuen esku guzia zerekin zenuela, edozein gauzetarako. Baña zure Jaunarena izan, zuk orduan zenuen guzia; ta ale-re, zuk zerorrek zerez irabazia izandu baliz bezala, arrotu ziñan zu, zere burua ain ederki ekusi orduko, ta, deusez baten eran izandu zen zuretako, zu-ez bestea, ta zerua, ta zure Jaungoiko-gizon ere: ta, zere buruari begiratzearekin, berotu zekizun zere biotza; ta asi ziñan, eroaren eran erraten; *Igan bear dut nik Aingeru guzien gañera, ta nere Jaungoiko beraren pare-ra*, andik errazki eragiteko zeruko guziei, ta lurrean arkitzen diranei, nere edertasunari dago-kan agur, eskumuin, ta begitart on guzia. Baña zer gertatu zaitzu zuri, Luzifer arrotzarra? Zertan gelditu dira, ta non, zure antuste galduak uste zituen agurrak, eta gañerako gauzak? Keetan ta sulezean! Or, bai, or arkitzen zara zu, aspaldiko urteetan. Or bertan, or erretzen zaude zu gerozko urte guzietan. Or bertan egoin zara eternida-

de guzi-guzian ere; ta or egoin zara, bai, ikatz itsusi, su, ta gar egiña!

Orra antuste galduaren, orra soberbiaren bukaera illun-galgarria! Au dakidan ezker, orain nik dakidan bezala, arrotu bear ote zait nere burutxarra, leneko eran, nere Jaunaren kontra? Ez baldinbere! ez, nere Jesus maitea, ez arren, ez! Au gerta ez dakidan, oroituko naiz noizean bein badere, zure jait-eguneko umillera nekez beterikakoaz! Oroituko naz, orduko zure agertze, ta ibillera gorde-estali arrigarrizkoaz: eta zuk orduan, nere betiko onagatik egoin zenuenaren alde, ontzat artuko ditut nere bizitzan egiten zaizkidan naigabe ta txarkeri guziak. Baña nerez nik, eta bakarrik, ezin dagiket au ere. Bear dut orretarako zure laguntza, ta lagun zakizkit zere graziarekin, nere Jesus aurtxo maitagarria; baita orain, oraindañokoan au nik egin-gabeaz damuturik, erraten ere: *Nere Jesukristo, etc.*

XXI.garren OTOITZ-GAIA

ZORTZIGARREN EGUNEAN,

EDO URTEBERRIZ

JESUSEK ERAKUTSI ZIGUNA

Beingo erakustea erakuste laburra da, guk gauz andiak ongi, ta bear den eran ikasteko. Gauz andia da aragiaren naikunde loiak, begi-barrenen arinkeriak, gogoeta makurrak, eta biotzaren antustekak garaitzea. Orregatik etzen ase-rik gelditu gure Jesus jaioberria, Eguerriz egin zuenarekin, edo bere jait-egunean guri orretarako erakutsi zigunaz. Berriz ta berriz ere, ta anitz aldetara, erakutsi zigun ori bera; ta guztiz ederki urteberriz beintzat, edo bere Zirkunzisioko egunean. Nola, uste dezu? Neke berriekin, ta berariaz berak arturikako alkekizun andiarekin. Bai.

A.

Urteberriko bere neke berriekin ere erakutsi zigun Jesusek geren etsaiak garaitzera

Zer neke ziran urteberriko gure Jesusen nekeak? Neke gogorak! Lege zarreko Zirkunziskoko nekeak! Jaungoikoak manatzen zuen leneko bere Legean, gizakiagandik erditzen zena, semez erditzen bazen, bizi zedilla bereis lenbiziko zazpi egunetan; ta zortzigarren egunean eraman zezatela erdi-berriaren semea Zirkunzisionera. Ala eraman izandu zuten Ama Birjinarena, edo gure Jesus maitagarria.

Zer zela uste dezu, lege zarreko Zirkunzisionea? Gauza gogor, anitz aurri bizia kentzen zion gauza bat, edo gorputz minberetik, eta gorputzaren alde guztiz peligrozkotik aragi zati bat kanibetaz kentzea. Ebakitze onek, eta ebakitzetik zetorren odolak, oñazez betetzen zuen aur gaisoa: ta, iltzen ezpazen oñazez ta penaz, gelditzen zen irugarren eguneko, lertzen bezala, ta erdi-illa; ain andia zen ebakitzetik zetorren miña

ta nekea: bai, ta Eskriturak dionaz, ezin andia-
goa.

Orra zertara zen gure Jesus, gugatik jaio, ta zortzigarren egunean lege zarreko Zirkunsionera zenean! Ekusi zazu zer oñazeak, orduko Jesusen oñazeak! Ez da munduan izandu Jesusen gorputza baño gorputz obeagorik; ez eta minbereagorik ere. Zer miñak bada, ta zer oñazeak urteberriz, ta urrengo egunetan Jesusek izandu zituenak? Orrelako oñazeekin zeuden batean Sichen-go erregea, ta aren soldaduak eta gizonak: sartu ziran Jakobean seme bi, ta ill zituzten, eragotzbidetik ekusi gabe, ta nai bezala, guzi-guziak; guziak zeuden alabaña oñazez beteak, eta, beren buruz ezin balia zitezken eran. Nola egoin zen bada Jesus maitagarria, jaio, ta zortzigarren egunetik oñaze beretan sartua zegoenean? Asma zazu, al badagikezu; ta adirazi zadazu alik ongiena!

Gure Jesusen lan au ekusi zutenean, arrituko ziran zeruko Aingeruak; eta asiko ziran elkarri erraten, baita Jesusi ere, Isaiasek diona: *Nola gertatu da, Aingeru lagunak, gertaturik orain guk emen ekusten deguna? Jesus odola dariola?*

Jesus garaitua, ta kanibetez ebakia? Eta non dira, Jesus, zure aal esku-indarrak? Aur txikia izanagatik zu, etzara zu denbora berean, nai adiña dagikezun gure Jaungoiko altsua? Nola zaduzka bada kanibeta txar batek bere azpian, edo nola utzi zaitu zu nekez, oñazez, ta odolez jauntzia?

Neronek nai dudala (eranzun zezaken orduan, gure Jesus maitagarriak): neronek nai dudala, ta lurreka gaisoei geiegi naiez. Bai, Jesussek berak nai zuela, ziran Jesusen orduko neke gogorak eta oñaze guziak; bada Zirkunzisioko legea giza-kume bekatarienzat zen, edo oriek bekatupetik ateratzeko; ta Jesus maitagarria, Espiritu Santuagandik zetorrena zen, ta Birjina-gandik jaioa, ta orregatik zen bekatuik bagekoa. Guri ongi naiez bada, ta guri berriz erakusteko, len eguerriz erakutsi ziguna, edo guri erakusteko geren animako etsaiak garaitzen ziran Jesusen Zirkunzisioneko min, oñaze, ta neke guziak; bada, diogun bezala, Zirkunzisioko lege gogorra gizon-uts bekatarienzat zen, ez bekatuik etzuen Jainko gizon Jesus maitagarriendako.

Artu zituen bada, gure Jesusek (eta artu zituen bere zortzigarren egunetik) Zirkunzisioko

oñaze-nekeak, guri erakusteagatik zerura nai dutenak egin bear dutela beren legeak eskatzen diena, aragi gaistoak, begi ariñak, eta barren galduak au ez naiagatik. Lege onek, dakizun bezala, eskatzen digu, Zirkunzisioko kanibetaz, edo al den bidez, bakoitzak kentzea bere aragiaren lan lizunak, bere miiaren itz-arin alfer berokak, bere gogoaren atsegin-gusto debekatuak, bere begien lapurreriak, eta ekuste loi-galdugorde-zikiñak, bere bearrien zabaltze eskergabekoak, eta, gure Jaun oikoak debekatzen dituen gañerako gauzak.

Lege berak dio utz ditzatzula zuk aldebat, aizeak daramatzien berriketak, zuri dagozkitzuna izanagatik, edo zure gain datozenak; baita lagun-urkoen ta zure etsaien uts-egiteak, txarke-riak, eta gañerako bidegabeak ere. Oriek uztea bada, ta bendeku txarrak, eta oroitzapen makturak gogotik kentzea da zure legeak zugandik eskatzen duena, ta, bere Zirkunzisioko neke guziekin zuri zere Jesusek erakusten dizuna. Nai dezu zuk egin au zere Jesus onaren izenean, ta Jesus berari zor diozun amorearen alde?

Bai, Jesus maitagarria; baita geiago ta geiago baliz ere. Zu zere jait-egunean otzez ikara ekusteak erdiratzen ditu, ongi nai dizuten guzien biotzak: baña ekusteak zu, gaur zauden eran, edo odola dariezula, ta Zirkunzisioko oñazez zarana betea, aski ta sobera da arri egiñik nornai uzteko; edo, sentiduekin gelditzen denari, zernai eragiteko! Sentiduekin nago ni (eskerrak zuri); orain nik ezagutzen ditut, nigatik zuri zere amoreak eragin dizkizun, zere odolezko, ta neke arrigarritzko erakuste ezinobeak; eta ongi naiturik arkitzen naz gaur, bertatik asteko, zugandik ikasidudan eran nere lanak egiten, ta egiteko ezin zuzenago, ta zure Lege santak agintzen didan guzi-guzian. Betor orretarako zure laguntza, ta artara noa. Betor: bai, betor arren, betor, nere Jesus maitagarria!

B.

**Urteberriko bere desondrekin
erakutsi zigun Jesusek antuste
arroak garaitzen**

Zirkunzisioko Jesusen oñaze-nekeak neke-oñaze andiak ziran; ta denbora berean, edo bide-nabar, oñaze-neke desondrariak; eta orregatik ziran agitz arrigarriak, eta guztizkoak. Bai: desondrariak ziran Jesusen Zirkunzisioko oñaze-nekeak. Zergatik ote? Zeren Zirkunzisiaoa zen Jaunak, bekatu etorkia edo orijinala kentzeko, emanik zedukan gauza ta siñua: ta, siñu au bere gain artzen zuenak, edo Zirkunzisionera zijoa-nak, aditzera ematen zuen bekataria zela, ta loiez ta zikinkeriz animan galdua: ta orregatik, ekusten zutenak Jesus Zirkunzisioko kanibetaz odoltua, usteko zuten beste, adin artako, edozein aur bezain galdua zela, ta bekatu etorkiaren edo orijinalaren zauriak sendatzen zebillena: bada guziak dakite, ez duela niork belarrez ta trapuz loturik ekartzen papurik ez duen eskua, edo zauririk eta miñik bage arkitzen den burua.

Ekusten dezu, ta aditzen onetan erraten zaitzuna? Aita Eternoaren Seme Bakar Jesus maite bekatariaren siñuarekin ta Zirkunzisioko odolez betea! Ez da gauz arrigarria ta desondraria? Atozea: ez da Jesus Aita Eternoaren ispillu garbi-garbia? Ez da Jesus Aitaren Izate, ta Sustanzia

guziaren bear bear bezalako figura, edo Imajina? (*Hebr. 1. 2.*) Edo ez da Jesus, Aitak eta Espiritu Santuak duten izate berberarekin arkitzen den Jaungoiko-gizona? Atozea; Jaungoikotasun eder au ez dago, argia illunbetik, bizitza eriotzetik, eta edozein gauza ezer-ezetik baño agitz eta agitz urrunago pekatutik? Zer desondra bada Jaungoikatasun eder au, bekatariaren soñeko zikin loi itsusiz jaunzteak bezalako desondrari? Orra bada zer desondra Jesusek urteberriz nigatik daraman desondra? Bere bizian ekusi zuen andiena; ta niri didan amoreta niri erakusteko, ezinobea!

Siñes nazazu, bai, urteberriko Jesusen desondra dela Jesusek izandu zituen desondra guzian artean agerian dena. Izandu zituen, bai, Jesusek bere desondrak beste zenbait aldiz ere; baño ez Zirkunzizioan bezain utsak, eta andiak. Jaio zenean, etzuen Jesusek izandu, Belengo erri guzian nork eman bere barrunbean bazter edo zokotxo bat, gau bat pasatzeko; ta sartu bear izandu zuen itxola txar urratu batean; ez lo an egitera, baizik otzaren kontra gau guzian pelean egotera. Desondra ta neke andia! Bai; baño ez

desondra utsa; bada gau artan berean etorri zitzaizkan zerutik Aingeruak, eta menditik artzaiak, beren Jaun ta Errege andiari bezala, beren agurrak eta onrak egitera.

Bekataria zirudien Jesusek, San Joan Bautistak Jordango urez bataiatu zuenean: desondra zen au Jaungoiko-gizon Jesus maitearentzat: baña etzen izandu, ez, desondra uts-utsa; bada ura burutik Jesusi san Joanek eman orduko, utzi zuten zeruak Jesus onraz betea: agertu zen alabaña an bertan Jesusen gañetik Espiritu Sautua; ta Aita Eternoak denbora berean ots egin zuen, *Au da nik maite dudan nere biotzeko Semea: Au ni atsegin ta kontentuz betetzen nabena.*

Gaiztagin arrigarria bezala, zeatu zuten Jesus bere azken-egunean, edo ostiral santuz: atera zuten Jerusalem erritik gurutze sendor bat bere soñean zuela; ta gurutze berean iltzez josirik, kendu zioten judu gogorak bere bizia. Non da desondra andiagorik? Baña, desondra au ere, ondraz beterikako desondra izandu zen Jesus maitagarriarendako, bada munduari adirazteko bear gabeko nekeak zirala orduko Jesusen nekeak, ordu berean egin zituen Aita Jaungoiko-

ak anitz milagro ta gauz arrigarri; gord-erazi zuen alabaña eguzkia, mundu guziaren doluz ta lutuz estalirik uzteko, larrugorrian arkitzen zen bere Semea: urratu zen berez elizako kortina; ta arriak berak erdiratu ziran, al bezala erakusteko, bidegabeko lan ark eskatzen zuen damu ta sentimentua.

Ona nolakoak ziran gañerako Jesusen desondrak: ondraz ta ondraz beteak. Zirkunzisioko desondra da, ondriarik gabeko desondra; ta orregatik da desondra andi guztiz arrigarria.

Nork eraman zaitu, Jesus, zere Zirkunzisiara? Nork orren leku desondragarrira? Zere Ama maitagarriak! Jesus! Ama Birjina! Ori egiñen zenuen zuk zere Semearekin? Ez dakizu zuk zer den Zirkunzisia? Ez dakizu or ematen dutela bekatuaren marka desondrari loi itsusia? Ta ematen dutela milla ta milla oñazerekin, ta neke-pene-kin? Eta alere ara daramazu, zere Seme Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria? Ara darama, bai; baña ongi penatzen zaiola bere biotza; ta zeren zortzi eguneko bere Semetxo Jesusek eragiten dion bide, ta lan gogor desondrazko au!

Bai, Jesusen umeak! bere naiez doa Jesus bere Zirkunzisiara, Amaren besoetan ara doanean! Bere naiez dago Jesus Zirkunzisiotan, oñazez lertzen bezala, ta dolorez, ta desondraz jauntzirik an arkitzen denean; ta orrela dago, guri ongi naiez, ta guri erakusteagatik jakin bear duguna! Amorearen andiegia! Beti-betiko Jaungoikoa gizon egiña, ta jaioberria: Zeru-lurren, ta ondasun guzien jabea gugatik beartsu ta pobre egiña, soñeko txarretan bildua, itxola erdi-urratu batean otzez ikara ta negarra dariola? Gauz arrigarria! Baña Jaungoiko-gizon au, zorztigarrenen eguneko gu guziokgatik kanibetaz ebakia, oñazez betea, ta bekatarien soñekoz jauntzia! Agitz arrigarriagoa!

Orra Zirkunzisioko egunean guk geren Jesusi zor diogun, kostuzko, ta desondrazko erakustea. Zertarako ote da gure Jesusen erakuste au? Ekusten duguna guri eragiteko. Zer ekusten dugu guk gaur, edo zer erakusten digu gaur guri geren Jesus maitagarriak? Munduko opione txar, ta antuste galduak galdurik, geren lege garbiari jarraitkitzea. Darausala, nai duena mundu eroak: dagiela, nai badu, ista, ta irri; erran dezala,

gogok ematen diona, guk, zerurako bagara, ez diogu orri begiratu bear, Jaungoikoak manatzen diguna egin bear dugun aldietan, begiratu bear diogu guk (eta kontuz) bere burua gugatik desondratu zuen gure Jesus maitagarriari. Ongi guk begiratzen badiogu geren Jesusi, ta guk egin nai izaten baditugu Jesusek erakusten dizkigun gauzak, egiñen ditugu, bai, manatzen ez dizkigunak ere; bada ori da Jesusek bere Zirkunzisionean egin izandu zuena; egin izandu zuen alabaña, ongi zirudien gauza bat, baña Aitak manatu etziona; ta egin izandu zuen, desondretan ta neke arrigarrietan bere burua sartzen zuela.

Egizu bada zuk ere, urteberriko Jesusen nekeei begira zaudela, zere legeak manatzen dizuna; bai, ta edozein beste gauz on ere, Jaunaren gogarokoa dela dakizunean, manatua ez izanagatik, naiz dela nekezkoa, ta onra guti dakarren egitekoa; bada zenbat ere zuzenago ta geiagotan ori zuk egiten dezun, anbat lasterrago garaituko dezu zuk zere antuste arroa, ta egiñen diozu Jesusi atsegin ta kontentu geiago. Saia zaitetz arren, bada, zure onerako da guzia, ta, bere

Zirkunzisioko erakuste ederragatik. Jesusi zor diozunari nola-ere-bait erantzuten asteko.

*Data est mihi omnis potestas
in coelo, et in terra.*

Matth. 28. 19.

Urteberriz, edo jaio ta zortzigarren egunean, arkitzen zen gure Jesus, egun adiña esku, ta indar zuela, nai zuen guzi-guzirako. Egin ote zuen orregatik zerbait bere alde ta faboretan? Deus ere. Geldi-geldirik, eta sosegu onean egondu ote zen gure Jesus maitagarria urteberri egunean, ta urrengo egunetan? Ez ori ere. Zer bada? Ezin igitu den aurraren eran arkitzen bazen ere, arkitu zen Jesus egun orietan, berak nai zuela arturikako Zirkunzisioren neke arrigarrietan! Berak au nai zuela? Nai zuela, ta gure onagatik, edo guri erakusteagatik geren buruak penatzen, ta, gure Jaunak zerbait agintzen digunean, ura guk eragiten geren gorputzei, ta geren gogoei; oriek nai ez dutena, ta eragoz genezakena.

Aditu dezue, Jesusen umeak? Artuko dituzue gogoz, ta umilki era orretako gauzak, eguraldi gaistoak, zeren kateak, desondrak, eta gañerako, Jangoikoak igortzen dizkitzuten nekeak? Ori da gaur Jesusek erakusten dizutena: ta ori guk, onak izateko, egin bear duguna. Saiatuko zara zu, gaurdanik badere, ori egitera? Nai nuke beintzat, Jesus maitagarria; ta, lan on au eragozteko, lilura ez nazaten aragiaren naikunde txarrak, gogoaren erakeriak, edo biotzaren arrotasunak, indazu zere grazia, askotan ta maiz nik begiratzeko zure gaurko odol isurtze arrigarriari, zure min-oñaze neke gogorrei, ta zure Zirkunzisioko desondra ezin andiagoari; ezaguturik nik guzia zela nere onerako, dagidan alegiña nere obenen alde, ta zuri nik atsegin egiteagatik. Ala gerta dedilla, aur-penatu Jaungoiko maitagarria. Bai arren, bai!

*Circuncidite igitur praeputium cordis vestri,
et cervicem vestram ne induretis amplius.*

Deut. 10. 16.

Ekusi dezue, dio gaur gure Jaungoikoak, Jesusen daramana! Ekusi dezue Zirkunzisioko Jesusen odola; ekusi dituzue orduko Jesusen oñazenekeak, eta desondrak! Guzia zen, zuei erakusteko egin bear dezutena: guzia zen, zuei eragiteagatik zeren Zirkunzisioko lan andia. Zer lan ote da lan andi au? Au da guk kanibetaz ebakitzea, edo guk osoro galeraztea, gure animak galtzeko diran aragiaren atsegin txarrak, barren berotuaren suak, eta bendekuak, ta biotz arroaren asmo galduak. Eta lan au bera da umilki guk geren lanak egitea; ta, ezaguturik Jaunarenak garala gu geren bizitzan, geren eriotzan, ta ondasundun arkitzen garanean, edo gabe ta beartsu gabiltzanean, baita atsegin andi-txikiak eta kontentuek ditugunean, edo nekepean gabiltzanean ere, emeki ta beraren izenean guk eramatea, gugandik aldi, gure Jaunak nai duena.

Orretan nago ni, bai nere Jaungoiko maitagarria, orretan nago; ta prest arkitzen naz ni, gaur bertatik egiteko (ta ziñez alere), zuk orain nigan-dik nai dezun guzia, ta zuri atsegin egiñen dizun edozein gauza. Zer nai dezu dagidan orain, ta bizi nazaño? Aurdanik asi da Jesus odola isur-

tzen, ta badakit isuri duela, niri ongi naiez, ta nere onerako. Nai dezu, nere Jesus maitagarria, eman dezadan ordañez nik nere zañetan dudau guzia? Au ezezik, emain dizut nik, eta pozik alere, nere biotza, bere naikunde, ta duken amore guzi-guziarekin. Oraindaño koan nere gogara bizitu naz ni, ta ez bear bezala! Damuturik nago nere gaizki eginaz; ta gaurgero egin naiez nago zuri atsegin egiñen dizun, ta nigandik nai dezun guzia. Izan bitez bada zure Zirkunzisioko neke-oñazeen izenean gaurgeroko nere lan ta neke guziak: eta izan bitez guziak, zuk nai dezun orduan ta eran egiñak, eta zuk nai bezalakoak. Baña indazu orretarako, ta guziak zuzen egiteko, zere laguntza ta grazia. Bai, arren, bai!

*Omnia detrimentum feci,
et arbitror ut stercora,
ut Christum lucrifaciam.*

Philip.3. 8.

Zer gauza dira, munduan arkitzen diran ondasun guziak? Zer izan ditezke lurreko leku

eder-luze-ageriak, eta emengo egiteko andiak? Zer; baizik aizetan, edo auts-egiñak, gelditu bear duten gauzak: eta, irauten duteño ere, gure Jauna ta Jaunaren zerua galerazi oi duten gauzak! Orregatik, dio san Pablok: nik lurreko gauza guziei begiratzen nien, animen galgarriei bezala, ta oin-peko autsa, ta loia, bezain erraz utzi nituen guziak, Jesus ezagutzen asi nintzanetik.

Zorioneko ezaguera, onen lan onak eragiten dituen ezaguera: edo ezaguer, antuste gaistoa bere gauzeekin aldebat utzerazirik, arrerazten duena gure Jesus maitagarria! Arrerazi baliezat niri ere, nik gerozko nere gauzak, Apostolu bera- ren eran, ta Jesusen gogara, edo alik zuzenen- zuzenena egiteko! Ez, Jesus maitea, ez, ez dut nik gaurgero nai, niri zu gal-erazteko den mun- duko ondretatik edo gauzetatik batere, ondra edo gauz ori baliz ere nik nai bezalakoa, ta mundu guzian arki litekeen andiena, onena, ta naigarriena. Ori, ta gañerako guzi-guziak baño, naiago zaitut Zu bakarrik, nere Jesus maitaga- rria, zere Zirkunzisioko nekean odolez betea, ta oñazez lertzen bezala, zaudenean ere.

Egiteko baleude, oraindañokoan niri nere antuste galgarriak, orien ondoren, zoratuaren eran neranbillela, eragin dizkidan egiteko, ibille-ra ta pausu makurrak, ez nituke eginen, ez; ezeta sekula guzian biziko banintz ere! Lenago-tik onetan ez-egonaz, edo lenago Zu nik billatu gabeaz (billatuko bazindudan ere desondren bidez, ta neke ta neke), ongi damaturik arkitzen naz gaur. Eta gaurgero zuzen ibilli nadin nere bidean ta zure ondoren, kendu bear didazu oraindañoko nere oben-kulpen karga astun au. Au eskatzen dizut, itzez ta gogoz erraten duzula.

Nere Jesukristo, etc.

XXII.garren OTOITZ-GAIA

ERREGEEN EGUNEAN GURE JESUSEK

ERAKUTSI ZIGUNA

Salbatzallearen izena zen Aita Eternoak bere Seme Jesus maitagarriari eman izandu zion izena; ta erregeen eguna baño len, ta bere jait-ordutik ere, asi zen Jesus Salbatzallearen lanak egiten; bada bere jait-ordu berean, igorri zuen Aingeru bat, artzaien eske; ta, anitz luzatu gabe, deitu zien izar berri batez urrutiko erregeei, ta gañerako jendeei ere. Oraingo gure egitekoa da Jesusen erregeekiko egitekoa; ta, Jesusek deitu zituen artzaiak utzirik, ekusi bear dugu gaur errege deituak egin izandu zutena.

Zer egin ote zuten errege oriek, ekusi zutenean deitzen zituen Jaungoikoaren izar ederra? Jesusen billan joateko asmoak artu: beren bide-rako gauzak bildu, ta billan asi: arkitu zutenean, agur andiak, eta presentak egin Jesus maitagarriari, ta, onek adirazi zien bidez itzuli gero beren etxeetara.

Orra erregeak, Jesusen izar au ekusi zutene-
tik, egin zutena; ta orra guri gaur Jesusek bere
gogargi onez, adirazten digunarekin eragin nai
diguna. Zorionekoak gu, au guk egiten badugu,
irur erregeak beren lan andia egin izandu zuten
bezain laster ta zuzen. Ala dagigun, goazen
ekustera astiz, ta banaka, erregeak egiñikako
lan bakoitza, ta bakoitzarekin Jesusek guri eragin
nai diguna.

A.

**Erregeei Jesusek eragin ziena,
ta guri ere eragin nai digun
lenbiziko gauza,
da berak nai duen guzirako
gu prest egotea**

VIDIMUS STELLAM EJUS IN ORIENTE.—

Matth. 2. 2.

Gure Jesusek ezagutzen gaitu gu guziok; eta
geienez, nori bere eran, adirazten digu eragin
nai diguna. Israeldarrak oituak zeuden Ainge-

ruak ekustera; ta, beregana erakartzeko Jesusen Belengo mendian edo bazterrean arkitzen ziran israeldar artzai batzuek, igorri zien, jaio-zelako berriarekin, Aingeru bat. Goiztarrak, edo eguzkia agertzen den alde artako jendeak, oituak zeuden izarretara; ta orien deiez etzuen Jaungoiko-gizonak Aingerurik bidaldu; bidaldu zuen izar berri eder-eder bat.

Bazekiten alde artako jendeak Balaanen profetia, ta Iraeldarrak uste zutela Jakob en odoletik etortzekoa zen Mesias beren Erregea. Errege oni eman ziozkan Balaanek zenbait izen, ta orien artean Izarrarena: *orietur Stella ex Jacob*. Num. 24. 17. eta, izar berri au ekusi zutenean, Jaunak denbora berean barrendik argi egiten ziela, eza-gutu zuten erran nai ziena, edo eza-gutu zuten jaioa zela juduen Errege Jaungoiko-gizon Mesias.

Au ezezik, eza-gutu zuten geiago ere; bada eza-gutu zuten, Errege jaio berriak deitzen zituela bera ekustera, edo beregana. Zer egin zuten, dei au aditu zuten Goiztarrak? Irurek beintzat *baietz* erantzun; eta erantzun, artuko zutela len-baitlen beraganako bidea.

Zer diozue errege Magu, gizon jakintsuak, zer diozue? Errain zien anitzek, aditu zutenean oriek zuten asmoa ta gogoia. Zer egin zaitzue zeren jakiundea, edo nora dira zuen buruak? Zeren agertu den emen gure Er-aldean izar txar berri bat, utzi nai dituzue zuek zeren umeak, zeren itxeak, zeren ondasunak, eta zeren atsegin ta gusto guziak; eta artu nai dezue zer eratakoa, ta norañokoa den ez dakizuen bide bat? Ez dezue len zuek ekusi izandu izar berririk bein ere? Ez dakizue zuek, laster galdu, edo gorde oi dirala era orretako izar berriak? Ori bera gertatzen bazaio agertuberriari? Eta gertatzen bazaio, zuek urrutiko toki errebesen batean sarturazi, ta ondoan? Orra; orduan galduak zuek, galduak zuen aideak, eta galduak zuen baster oitako jendeak! Utzazue, utzazue zeren asmo galgarri ori, ta zaudezte geldirik zeren etxe ta jauregi galantetan: amesak dira, bai, orain zuen buruetan dabitzan asmoak eta gogoetak. Orra Erregeei errain zietena beren erritar askok, edo beintzat zenbaitek.

Baña zer diote, erausi au aditzen duten Erregeak? Zer? Izar au, diote, ez da beste zenbait,

agertu oi diranak, bezalakoa: berariaz eginerazia da, ta gizonegin den Jaungoikoak bidaldua. Bidaldu du, beraganako bidea, argana joan nai dutenei, erakustera. Gu beintzat onetan gaude: ta, galdu bear dugula bageneki ere, ez genuke utziko guk arako asmoa; obe da alabaña gu gerok galtzea, ezen ez, ots egiten digun geren Jaungoikoari guk ez erantzutea.

Ongi diozue, gizon andiak; gizon jakintsu ta jaungoikotiararak, ongi diozue. Ori da lenbizikorik egin bear dutena, Jesus arkitu ta zerura nai dutenak: Jesusek ots egiten dieneko, beren bearriak erne idukitzea, ta, adirazten dien edozein gauze-tarako gogoz ta biotzez prest arkitzea. Presta zatzue lenbaitlen, ta ordu bat ere galtzen ez dezutela, zeren biderako nai dituzuen gauzak; eta zoazte, deiez dagokizuen Jaungoikoaren ekustera. Ez du, ez, deus galduko zuen erregeta-sunak, erregeen Erregeagatik artzera zoazten oraingo bidean. Bide orretako zuen pausuak, Jaungoiko beragatik artuko dituzuen pausuak dira; ta pausuera orietan dabiltzanak, erregeen lanetan ta egitekoetan dabilta. *Servire Deo regnare est.*

Zoazte, bada, errege jaunak; eta zoazte lenbaitlen; izain dituzte, bai, beren denboran, zuek artzera zoazten bide orretako pausuak, eta neke guziak dagozten esker ederrak, eta ondasun andiak. Zoazte; baña joan bear dezue, al ditezken present guziak zeren eskutartean dituzuela. Anitz oriek, eta andiak izan arren, anitz andiagok eta agitz geiago izain dira an zuek Jaun bera-gandik artuko dituzuenak; bada lurreko presentak izain dira zuen present guziak, eta zeruko present-ondasunak dira, zuek deitzen zaituzten Jaungoikoaren ontasun-presentak. Deitzen etzaituzte, ez, dezuten onra zuei kentzera: ondra berri andiak zuei eman naiez da, izar berri ederez gaur, bera arkitzen den bazterrera zuek deitzea. Deitzen zaituzte, bai, bere Apostoluen, edo bere predikari onen, ta martire andien artean zuek sarrerazi naiez. Ots, bada, ots, goiztar erregeak; eta, beldur-izutze guziak aldebat emen uzten dituzuela, joan zaitetze alik lasterrena, deiez dagoen zuen Jaunaren oñetara; ta ara orduko, egiozue dagokan agur, eskumuñ, ta adorazione guzi-guzia.

Atozea, au diozun gizatxarra, edo emakumea; ta ez dezu zuk ere noiz edo noiz ekusi zere Jaungoiko onak igortzen zizun izar, edo gogargiren bat, edo beste? Zuretzat zure Jaungoikoaren izarrak ziran, zure gurasoen, zarragoen, konfesarien, predikarien, edo beste orrelakoen itzak edo erranak. Atozea bada; ta zenbat aldiz deitu dizu zere Jaungoiko maitagarriak, bein izar oititik bataz, bein besteaz? Zenbat aldiz adirazi dizu gurasoen itz-erranez, utz ditzatzula onelako ta alako zere lagun, ta jostatze txarrak? Joan zaitezela maiz elizara, an mezak enzutera, konfesakomekatzera, ta ango debozinezko, ta beste gauz onetan denbora zati on batzuek badaere ongi igarotzera? Atozea, zenbat alditan erran izandu dizute zere konfesariak, aditzen zenituen predikariak, edo, irakurtzen zenituen libruak, zure deiez zegoela zure Jaungoiko maitagarria; joan zenkizkiola lenbaitlen, zere naikunde txarrak garaiturik, zere gogoeta makurrak lertzen zenituela, ta zere antuste arroaren erakeriei begiratu ere bage? Zenbat, eta zenbat aldiz erakutsi izandu dizu zere Jaungoiko berak, nola egin egiteko, ta lan eder au, agertzen zizkitzula zere

begietara zure lagun onak egiten zituzten era bereko gauzak? Zenbat bider izutu izandu zaitu zere auzokoaren eriotzarekin, etxeko neke-malur-miñekin, sulezerako beldur-gogorrarekin, ta nork daki zenbat beste aldetara?

Ongi: ta deitze orietatik edozein, ta denbora berean, ta bertze zenbait aldiz zuk izan oi zenituen zere barrengo dardarak, beldurrak, ondunaiak, edo obetzeko gogoak etziran zeruko izar berriak, edo zu zere Jaunagana deizen zinduzten izarrak? Baña kontuz ta astiz begiratu izandu diezu zuk oriei guziei, edo orietatik bakoitzari? Artu izandu dezu zuk, oriek ekustearekin, zere Jauna lenbailen billatzeko gogoak?

Ai ene! Ori nik egitera, edo egin izandu banu nik oraindañokoan, ez nengoen gaur, ez, nagoen eran, edo arkitzen nazan bezain estado txarrean! Egoin nintzan, bai, bekaturik bage, ta graziaz ta birtutez ongi apaindu-betea! Egoin nintzan, bai, Jesusen alde-aldean, edo Jaunari amarez ta ongi naiez lagun egiten niola! Eta egoin nintzan, nork daki, zenbat irabazirekin, ta zeruko atsegin andien begira! Baña batzuetan begiratu ere ez diet izar oriei; ta begiratu nienetan ere,

askotan beintzat, ez begiratu bezala zen; bada, zer zioten aditu gabe, lurreko gauzetara eramane oi nituen nik nere asmo ta gogo guziak. Orregatik daude, dauden bezala, gaur nere azturak, nere pasioeen suak, nere naikunde txarrak, eta nere gogoeta makurrak! Onela utzi bear diet nik onenbat nere etsairi, nai dutena nitaz egiten? Ez baldinbere! Garaituko ditut? Bai aleginean! Nola? Jaunaren izarrak, edo gogargiak eta inspirazioneak adiratzen didatena adituz, predikariak, eta gañerako guziak, nere onerako erraten didatena ontzat artuz; ta prestatzen nazala, manatzen ta adiratzen didaten guzi-guzia zuzen egiteko. Ala gerta dedilla, nere Jesus maitagarria; bai arren, bai!

*Ducam eam in solitudinem,
et loquar ad cor eius.*

Oseae 2. 14.

Deituko diot nik, ongi ta zuzen ibilli nai duen animari (zion bein, Oseas profetaren ezpañez, gure Jaungoiko maitagarriak); eta ater-eraziko

dut munduan izan oi diran, itz-onzikerien, edo lurreko eskanbillen artetik; eta, nere bazterrean, edo bere bakartasunean arkitzen dudan aldietan itz eginen diot, oi dudan bezala, edo eme-emeki, ta berari ongien dagokan eran; ta ark ordutik artzera, nere itzketa on emeak adirazten dion egitekoa edo ibil-bidea, nik neronek emain diot, nerekin bat egiñilk bizitzeko eskatu nai didan nere grazia, ta laguntza guzia.

Zorioneko anima, Jesus maitagarriaren dei eme au, ta dei onekin ibilli oi diran itzketak, graziak, eta laguntzak ardura, ta maiz, edo askotan izan oi dituen anima! Izan oi ditut nik ere, edo aditzen ditut, Jesus onaren deitze ta itzketa ondasundun, era onetakoak? Ez, beintzat nere Jaun onak nai adiñetan! Zergatik, uste dezu? Zeren ibilli oi nazan ni, nere Jaun onaren igesi bezala, ta nere gogara. Zeren ibilli oi nazan ni, jolas ariñen, jostatze galgarrien, eta era bereko beste zenbait egiteko txar, ta gauza pitsen ondoren; ta zeren, era onetan dabillenaren bearriak arkitzen ez diran, Jaungoikoaren itz leun eme ederrak adi ditzakeen eran.

A nere, zorigaistozko ibillera ero, ta ikusketa galduak! Utziko al zaituztet nik, isill-geldirik arkitzen nazala, kontuz aditzeko nere Jaunaren itz on leunak; oriek gogoan darabiltzidala goiz-arratsetan, egunaren ordu guzietan, edo noizean bein badere, eraman nazaten, egitera nigandik aldian nere Jaun andiak nai duena! Ala gerta dedilla, nere Jaun maitagarria; bai arren, bai!

Ecce sto ad ostium, et pulso.

Apoc. 3. 20.

Bearretan arkitzen zaran nere anima, zergatik artzen ez dituzu zere Jesusek, zuri ongi naiez, eskeintzen dizkitzun gauzak? Uste galduak galdurik zaduzka zu, ta ez dezu zuk billatzen, bearren-bearren dituzun gauzetatik, den txikien-txikiena ere! Birtutez jauntzirik arkitzen zarala uste dezu zuk; baña, ustez betea dagoen zure anima utsik arkitzen da, ta birtuterik bage! Zuri au adirazi naiez nago ni anbat denbora da, dio gaur zure Jaungoiko maitagarriak, baña zuk ez didazu niri, orretarako bear zen lekurik eman izandu.

Deiez nago ni, bai, aspaldi guzian; ta kroskaka, zuri zere biotz ori idik-erazi naiez; baña loo zautza zu zere utsetan, zere oben-kulpetan, ta zere erakerietan, ta ez-aditu egiten diezu zuk nere kroskada, ta deitze guziei!

Ez nator ni, ez, zugaratzen nazan aldietan, zu-zure bearrez, edo zuk dituzun gauzak zuri kenzera. Zuri ongi naiez nator, ta niganako bide zuzen ondasundun bat zuri erakusteagatik. Adi zazu bada, orain badere, zure onerako den nere dei ta ots eder au. Au zuk aditzera, idikiko didazu zuk niri zere biotza; ta sartuko naz ni zure gogoan, adiraziko dizut or bertan ongi dagokizuna, ta arreraziko derozkitzut, zure onerako diran bideak, eta neurri guziak.

A nere Jesus maitagarria, ta zure onegia! Nerea bezain errebes zebillen anima baten ondoren ibilliko ziñan zu, ibilli zaran eran, ta galdua bezala! Zu nere deiez, nere Jesus maitagarria, ta ni ondasunez betetzeko asmoan onenbat aldiz ta denboran; ta ni zure igesi beti, ta gordeka, etsaien bat balerraikit bezala! Asma ziteken, aletin guzia asmaduretan egiñagatik, nere erakeri au bezalako erakeririk?

Baña zuri eskerrak! Berandu badere, ezagutu dut nik au; ta, egiñaz damuturik; eta, zugandik datozen ondasun andiak bildu naiez, orra non dezun, Jesus maitagarria, orra zabal-idikia, zuk nai dezun guzietan emen sartzeko, nere biotz txar galduegi au! Sar zaitetz arren orain bertatik; eta, emendik atera bage, adirazi zadazu, adirazi nai didazun guzia. Guzia nai dut egin, ta zuzen alaere. Lenago ez egiñaz dut damu ta damu; ta barkatu bear didazu nere uts andi au. Bai arren, bai!

*Ecce verbum Domini factum est eis
in opprobrium, et non suscipient illud.*

Jerem. 6. 10.

Nori nik itz egiñen diot, dio Jaugoiko maitagariak, Jeremias profetaz? Non arkituko dut nik, nere itz onak aditzeko dagoen gizonik? Nere itzeta-tara, gortuak zezala daude nere erritar guziak. Gogoak ematen diena bai, baña besterik, ez dute aspaldi guzian oriek bear bezala nigandik aditzen. Zerbait nik erran, edo adirazi orduko, an

da orien ista, an da orien irria, edo ez-aditu-naia ta eskanbilla. Ero baten itzak bezala dira orientzat nere itzik zuzenenak ere; ta, aditzen dituzten guzietatik ez dute ontzat artzen bat ere. Orra gure Jaungoikoak orain guri adiratzen digun itzketa. Orra Jaungoikoaren itzketa bat guztiz arrigarria, ta denbora berean guztiz egiazkoa.

Atozea ezperen; zenbat artu dituzu zuk, aditu dituzun zere Jaungoikoaren itzetatik? Zenbat zure Jaungoikoaren gauz on aditu dituzu zuk etxean, elizan, auzoan, ta, nork-daki, zenbat beste tokitan? Baña, aizearen ots uts batzuek izando balira baño anitz geiago begiratu diezu zuk oriei? Eta ez da au zuk ista ta irri zere Jaunaren itz onez egitea?

Au egiten dutenak, zer egin uste ote dute? Egungo errege onak beren ibillerarekin erakusten dietena, edo nekez ta bidez Jesus billatzea? Zein guti! Jesus billatzeko gogorik ere artzen ez dutenak, noiz, edo nola, edo non arki dezakee berea Jesus? Eta norako dira Jesus arkitzen, edo billatzen ez dutenak? A nere Jaungoiko maite Jesus jaioberria, ez segurki, ez zeruko atsegin-kontentuetara! Eta atsegin-kontentu oriek galdu

bearra ote naz ni ere? Bai, era berean ez-aditu egiten badiet nik nere Jesus maitagarriaren deitze leun-eme, ta itzketa erakusleei!

Ez, nere Jesus maitea, ez: ez dut, ez, orrelakorik nik gaurgero egin uste! Adituko ditut, bai, belarri erneekin, ta adituko ditut orren, kaltear ez gelditzeagatik, zure itz egite guziak; eta adituko ditut zure itz eme leunak agertzen didaten ongi naiari edo amoreari gogoz, ta lanez erantzuteko asmoan. Itz egizu bada, nere Jaun maitagarria, ta adirazi zadazu zer den nik gaurgero zure izenean egin bear dudana. Prest arkitzen naz ni, zuk laguntzen badidazu, artan asteko; ta, gauza berriak niri zuk agertu artean, alik zuzenean egin-naiez nago zure Lege santuak erakusten didana. Len orretan uts eginaz dut damu; ta, uts onen barkamentua erditsi-naiez, erraten dizut itzez ta biotzez: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XXIII.garren OTOITZ-GAIA

A.

**Erregeei Jesusek eragin zien,
ta guri ere eragin nai digun,
bigarren gauza da:
gauza onak asitzea
ta ongi ta zuzen bukatzea**

VENIMUS ADORARE EUM.— Matth. 2. 2.

Badira mundu onetan jendeak, beren Jaungoikoari, Jaungoikoa deiez egonagatik, ez aditu egiten diotenak; baita, eranzunagatik, eta arganako asmoa artu ta ere, Jaungoikoagana daraman biderik artzen ez dutenak; edo, arako bidea artu ondoan, gibelat edo atzera itzultzen diranak. Ez dira, ez, jende orietatik, zeruan sartu bear dutenak. Oriek guziak betiko galduo diranak dira. Ziñez zerura nai dutenak dira, Jesus onaren ots onak eta deiak aditzen dituztenak. Oriek dira Jesus berak bein erakutsi dien, ta

berak aiturikako bidean azken orduraño, edo berak ill arte guzian, irauten dutenak.

Baña ez dira anitz, ez, Kristo Jaunak dionaz, mundu guzian diranen artean, au egiten dutenak; bada dio *anitz dira deituak, eta guti autsetsiak*, edo anitzi deitzen diet (izarrez, edo gogargiz, ta inspirazionez badere); baña gutxi dira nigana datozenak, eta zerurakoak: *multi sunt vocati; pauci vero electi*. Matk. 20. Zorioneko guti berezi orietatik dira, Jesus gaur billatzen duten irur erregeak; eta orien eran ibilli bear dute orien lagun izan nai dutenak.

Nola dabilta bada irur errege oriek, edo zer egiten dute, Jesus arkitzeko? Beinik bein, izar berriaren, edo izarraz deitzen dituen Jaungoikoaren deia aditu orduko, prestatzen asi, beren biderako bear dituzten gauza guziak prestatu guztiz laster, ta ezinobeki; bada len baño len beren Jaunaganatzeagatik, billatu zituzten beren biderako, zaldien orde, dromedarioak (oriek dira, zaldiak baño bizi-rogo dabiltzan, ta sendoragoak diran ganaduak): eta, oriek bezala, billatzen dituzte gañerako gauzak ere; ta uzten

dituzte biderako bear etziran, edo bidean luza-razteko ziran gauza guziak.

Gauzak prestatu orduko, ateratzen dira irur erregeak itxetik: eta abiatzen dira beren bidez. Eta orra, ori da guri geren biderako erakusten diguten bigarren gauza. Baña noiz atera ote ziran beren errialdeetatik? Negu otzaren erdi-erdian. Nora doaz? Jesusen billa. Nor da Jesus? Aur jaio berri bat. Non jaio da? Ez jakin erregeak berak ere. Eta alere Jesusen billara doaz? Bai bada. Andia zen nonbait orien Jesus ekusi-naia! Andia, bai; baita Jesus berak bereganako bidea erakutsiko zielako ustea, ta esperantza ere.

Ala da: baña etzitzaien, ez, ustel atera beren ustea; ta ekusi zuten, anitz luzatu gabe, billatzen zutena, edo beren Jaungoiko-gizon, juduen Errege Jesus-jaio berria; ta, ekusi zuten, Jesus berak erakutsirikako bidez arkitzen zutela: bada errege onak itxetik atera ziraneko, asi zen igitzen Jesusen izar berria, ta eraman zituen bear zen bidez, Jesus arkitzen zen tokira; ta, obeki ara oriek eramateagatik, etzebillen izar au, izar zarrak adiña; bada izar zarrak egiten dute ogeita laur orduz, ta egunoro mundu guziaren inguru osoa; ta izar

berri au, erregeak adiñazebillen, ez geiago; eta orregatik egunean, legoa guti baizik, ez.

Zenbat ote ziran erregeen egunoroko legoak edo ibillerak? Gizonak zegizkeenak; baña gizon biziro zebiltzanak; andia zen alabaña goiztar erregeak zuten, Jesus ekusi-naia; ta lenbaitlen Jesus ekusteagatik, etzituzten kupide beren buruak, eta bazebiltzan, ibilli-ala. Erregeak baziran ere, egun orietan nork-nai bezain aldarte txarrak eman izandu ziezten beren buruei; ta, bidean zebiltzanean, ez otzaz kasorik egiten zuten, ta ez aizeaz, ta ez elementaz. Ezinbestez gelditzen ziran, apurren bat gelditzen ziranean ere; ta, dromedarioei zaldalea arrerazi, ta berak beren jan-edanak; eta zerbait lo egin orduko, bidean ziran berriz; ta, asiberrian bezain biziro zebiltzan, ta batere beren buruei begiratzen etziela.

Etzen orien gogoan Errege jaioberria beste gauzarik batere. Onen gain, edo Errege jaio berriari zegozkanak: izain ziran bideko iruren itzketak eta jolasak, non, edo noiz (errain zuten zenbait aldiz beintzat) arkitu bear ote zaitugu, guk, ibilliz, ta gogoz billatzen zaitugun gure Erre-

ge jaioberria? Berandetsiak arkitzen gara, ta lenbaitlen zu ekusi naiez ta naiez beteak. Gaur badere arkitzen, ta ekusten bazindugu! Urrun arkitzen bazara gu gauden tokitik, atera zaitez zu gure biderdira, edo labur ezazu, dagikezunak bezala; zukanako gure bide au.

Baña zer gertatzen zaie, au zioten, ta gelditu bage zebiltzan errege onei? Batere uste etzuten gauz illun bat. Billatzen zuten Jesus arkitu lekuan, arkitzen dira bat-batean argirik bage, edo gordezten zaie Jesusen izar berri bide-erakusle-ederrak; ta gelditzen dira, aren billan nondik artu, edo zer egin ez dakitela.

Orra, Errege Jaunak: orra zertan gelditu diran egun askotako zuen ibillera ta neke guziak! Besteak, ez bezalako izarra zela zenioten, zuen Errialdean orain azkenik agertu den izar berri edo zar ori: baño ori ere aitu da, edo gorde da, gañerako izarrak gorde edo aitu oi diran bezala. Eta orain? Obeki egiñen zenuten, bai seguru ere, gelditu baziñazte zuek zeren etxeetan, zuen etxeetakoak edo erritarrak gelditu ziran bezala. Itzul, itzul zaitezte bere-bereala. Artu zazue eka-ri dezuten bidea; ta zoazte lenbaitlen, zeren

etxeetan, artu dezuten eskergabeko neketik atsedetera.

Ez orise; eranzuten dute, ta ederki alere, irur erregeak. Ekusi bear dugu bein, diote, deitu gaituen Errege jaioberria. Agertuko aigu, bai, gorde digun bere izar gure argigillea, edo erakutsiko digu beste bideren batez, beraganako bidea. Juduen bazterretan arkitzen gara. Ara, non dugun emengo erregeen korte Jerusalem (begietan zuten orduko Jerusalengo erria); emen da agian, edo bearbada emen arkituko dugu, joan diran egun guzietan guk billatzen dugun juduen Erregea: ta emen ezpada ere, emen izain dira non den adiraziko diguten gizonak.

Begira, errege jaunak; begira! Or Jerusalemen arkitzen da Herodes deritzan errege gaisto bat. Ez dakitzue zuek zer gogoratuko zaion Herodesi, zuek bezalako gizon batzuek batetan or, ta bera- ren baimenik bage, sartu zaraztela aditzen due- nean? Presondegian sarrerazten bazaituzte, an usteltzen uzteko, edo andik atera, ta erriko guzien begietan illerazteko?

Ez-aditu egiten dute goiztar erregeak. Sar- tzen dira Jerusalemen, batere beldurrik gabe; ta

galdetzen dute, guziak aditzen dutela: non arkitzen da juduen Errege jaioberria? Goiztarrak gara, diote; ta, an agertu den izar batek eman digu Errege onen jaioberria; ta ona, non gatozen zenbait presentekin Erregetzat au, eta geren Jainkotzat, ezagutzera.

Etzuten arkitu an errege onak billatzen zuten beren Errege-Jaungoikoa; baña arkitu zuten onen arkibidea. Au artu orduko, ateratzen dira Jerusalendik, eta badoaz, len bezain gogoz ta biziro, beren bidean. Bidean sartu orduko agertzen zaie beren izarra; ta, ari darraizkala, atsegin ta kontentuz beteak, arkitzen dute laster, urrun etzegoen Belengo erritxoan, Jesus jaioberria, ta billatzen duten beren Erregea.

Ekusten dezu irur erregeak egiten dutena? Ekusten dezu nola dabilzan oriek, Jesusen billan dabilzanean? Ikasi zutenetik izar berriak, edo izzarrarekin batean beren Jaungoikoak, adirazi ziena, gelditu ziran, beren egiteko au egiteko asmoan, ta prestatu ziran zuzen ta laster, au egi-tera.

Au egiteko, egin bear zuten bide luze gogor len ekusi ere etzuten bat; eta Jaunak au nai zuela

ezagutu orduko, asi izandu ziran, batere trikatu bage, nondik artu, ta noraño ibilli-bearrak ote ziran ere etzekitela; ta asi izandu ziran uste onez beteak, deitzen zituen Jaungoikoak emain ziela, bera arkitzeko bear zuten argi, esku, ta laguntza guzia.

Zekarten izar gidaria gorde zenean, abiatu ziran beren bidearen galdez; ta, Jerusalengo gizon jakintsuak adirazi zieneko, non jaio bearra zen billatzen zuten Errege au, atera ziran Jerusalemdik, eta etziran gelditu, Jesus arkitu artean. Jaunaren gogoia ikasi zutenetik egin arteko denbora guzian, etzuten onik izandu errege onak. Gau ta egun, ta beti lan orretan aritu ziran, munduko perellik eta nekerik andienak garaitzen zituztela.

Orra goiztar irur erregeak aldi onetan egin izandu zutena, beren Jaun onak izar berriz adirazi ziena, alik ongiena ta len-baitlen egin naiez. Eta orra zuri ere zere Jaungoikoak bereisten dizun zerurako zere lana edo egitekoa. Egin izandu dezu zuk ere, goiztar erregeen eran? Baña aditu ere nai izandu dituzu zuk, lan onen gain Jaungoiko maitagarriak egin oi zizkitzun itzak?

Edo, aren itz onak adituagatik zuk noiz edo noiz, egiten zenuen zuk itz on oriek adirazten zizute-nik?

Aldi orietan, nai-ta-ez, erraten zenuen zuk zere buruarekin ziñardukela: Jesusen dei onak ziran, zenbait aldiz nik nere barren onetan nera-biltzan itzak! Ez naz ni, ez, ongi bizi, dei on oriek erraten dutena nik ez egitera, edonik nere ibiltze makurrak zuzentzen ditudan artean! Bizitza loi lizuna zen, ta uts-obenez beterikakoa, len nik nekarren, edo egin izandu dudan, bizitza!

Eta nolakoa ote da, egungo egunetan dakar-dan au ere? Galduz ez ote doaz, gauz onetarako nere Jaungoikoak niri eman izandu zizkidan asmo onak eta gogoak? Orain baño agitz obeki konfesatzen ez ote nintzan ni, lenagoko nere denboretan! Maizago bai beintzat, eta kontu ta beldur geiagorekin; bada orain baño biguñagoa zen orduan nere biotz au; ta, len izutzen ninduten gauzak gaur beldurtzen ez naute batere! Len baño agitz laburragoak dira, ta epelagoak (otz-otzak ez diranean ere) gerozko nere otoitzak, eta debozionezko gauzak! Nora noa bada ni, onela nabillen denboran, edo norako naz ni, ni gaurge-

ro nere zeruko bidean ez ibiltzera biziroago, edo beste gisan ta moduz? Jesusen oñetara noa, edo sulezera?

Mintzoera au, eta era bereko beste zenbait ere nere Jesus onaren itzketak, edo deitze emeak ziran; ta guziak ziran nere onerako, ta ni on-erazi-naiez. Baña ondu naz ni, oriek guziak adituta ere? Ez egiaki, nere Jesus mintzari on-maitagarria! Nik nai izatera, ez lizaiket niri goiztar erregei adiña, ta laurdenik ere kostako zugaratzea; ta alere, aragiaren naikunde galdu ta gogoeta txarrekin, edo antuste arroaren erakeriekin diardukadala, doakit niri, zuk, zerori billazteko ematen didazun, denbora! Egunen batean damutuko zait denbora eder au galtzeaz, galtze beraz damutzen ezpazait denboraz, ta egiten ezpadut nik lenbailen errege onak egin izandu zutena, edo ez ibiltzera ni arin ta lijero zugarako nere bide zuzenean, ta ez egitera nik zure oñetan oriek egin zutena, edo niri dagokidana!

Artara noa ni, nere ustez, nere Jesus maitagarria; ta noa ongi damuz beterik, lenago au ez eginaz; baita, egin ditudan nere utsegite ta bekatu guziez ere. Indazu orain, nere Jesus maitea,

oraindañoko nere uts guzien barkamentua; ta indazu, zuganatzeko, ta zugandik berriz iges egin bage, ta zure amore onean bizi nazala, nere egunak bukatzeko zere laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

*Filii tui de longe venient,
et filiae tuae de latere surgent.*

Isai. 60. 4.

Zugandik urruti dauden zure semeak, Jesus maitagarria, zu ekustera etorriko dira, bai, onez ta naiez ongi beteak. Au berau egiteko daude emengo ta ango baztarretan banatuak arkitzen diran zure alabak. Zure berria aditu orduko, batak eta besteak utziko dituzte, dituzten lanak, dituzten gauzak, eta beren egitekoera guziak. Zuganatzea alabaña, ta, zurekin egin bear dutena zuzen egitea, da orien guzien egitekoa ta lan andia. Eta ongi doatsuak, ori egiten duten zure umeak!

Egin ote dut nik au berau, oraindañoko nere egunetan? Anitz nekatu ote naz ni, nere Jesus

billatzen? Askotan ote noa ni nere Jesus ekustera? Anitz ordu eraman oi ditut nere Jesusen begietan, Jesusi begira, edo Elizan sarturik, ango bere bakartasunean Jesusi lagun-egiten diodala? Ezpaliz bezain aztua dadukat noski nik nere Jesus maitagarria egunik geienetan; ta jaietan ere kaso guti egiten diodala bizi naz ni aspaldiko denboretan! Ta bizi naz ni, bizi nazan era onetan, nere Jesusen ateetan, edo Jesus nik urbil aski dadukadala. Eta alere Jesusen umea naz ni; ta ume bear bezalakoa, ta, Isaiasek agertzen dituen ume onen gisakoa? Ez, mudatzen ezpaz ni orain badere, edo obeki ezpadut nik billatzen gaurgero, len, ta beti, ongi naiez ta begira-begira dagokidan nere Jesus maitagarria!

*Trahe me: post te curremus
in odorem unguentorum tuorum.*

Cantic. 1. 4.

Zuk nai dezuna egin naiez nago ni, nere Jesus maitagarria. Nai badezu (nai dezu, bai; ta ziñez alere), nabillen ni zure ondoren, lagun zakizkit,

dagikezunak bezala; bada zurekin batean, bada-giket nik zernai, ta nai dezuna. Arin ta zuzen ibiltzeko ni, zuk nai dezun gauzetan, ez dut nik, ez, izar berri bearrik; aski dut orretarako zure izate ta Jaungoikotasun ederraren zerbait berri. Berri au duena, fite ta laster joaten da zu ekustera, ta zuri bere agur onak egitera, edo nekez egoin da, zu aleginean onetsi ta maitatu gabe: zu zara alabaña, gauz on guziak baño obe maitagarriagoa, ta, ezin asm-al adiña jakiunde, esku, ta edertasunekin arkitzen zaran Jaungoiko-gizon, aur jaioberria.

Baña nork, nork erditsi nai du, orretarako bear den diña zure berri, ta erdirik ere? Berri au ez billatzeagatik bizi dira zutaz aztuak munduko geienak. Orregatik dabilta lurreko gauza txarren ondoren, eroen eran, edo liluratuen gisa. Orietatik bat izandu naz ni ere, nere Jaungoiko maitea; bai; ta ala gaizki! Asi naz, berandu bade-re, berri on onen billan, edo zu zerbait ezagutzen. Nere lan on au ongi bukatzeko, indazu, bertatik al dukedan zere argi edo berririk andiena, ongi ezaguturik nor zaran zu, nere deitzalle guztiz maitagarria, nabillen arin ta biziro zugarako

nerre bide guzian, naiz dela luzea, ta naiz gogorra.

*Dicit piger: leo est in via, et leaena in itineribus:
sicut ostium vertitur in cardine suo,
ita piger in lectulo suo.*

Prov. 26. 13.

Nagia ez da aitzaki ta aitzakia besterik. Alde batetik deitzen zaionean, izutzen dutela, dio, an dabillen leoi aserrearen orroak. Erraten badiote ibilli dedilla, edo doala edozein bidez, artuak daduzkala, erantzuten du, leoi emeak bide guziak; eta ez da igitzen, arkitzen den tokitik, edo bidean asiagatik, laster itzultzen da bere tokira; ta, gertatzen zaio pernioetan sartua dagoen ateari gertatzen zaiona: inguruan ibiltzea, baña bere lekutik atera gabe.

Eta ez da au bera, oraindako guzian zuri gertatu zaitzun lan gaistoa? Anitz ibilli zara zu orain artean zere zeruko bidean? Arkitzen ere ote zara zu zeruko bide on onetan? Utzi ote dituzu zuk zere aztura gaistoak? Garaitu ote dituzu

zuk zere naikunde makurrak? Egin ote dituzu zuk askotan zere Jaunaren erranak, eta zere legeko gauzak? Ongiak egin izandu dieztezu, txarkeriz bete zaituzten, zere gaizkigilleei? Birtutez birtute zabilta zu, ta zerurako irabaziz, zere anima ongi betetzen dezula? Baruz, silizioz, ta zere Jaunaren izenean arturikako nekez ezi izandu dezu zuk zere burua?

A nere Jesus maitagarria! Zorionekoa ni gaur egin banitu nik oraindañokoan gauz orien erdiak badaere! Leoien igesi nenbillenean, gertatzen zitzaidan niri, Amos profetak diona (5. 19) artzak niri nere bidera ateratzea; ta, orien ortzetan ez gelditzeagatik, itxean sartzen banintzan ni, an niri suge bat eskutik lotzea, ta onen izurriz beterik gelditzea: bada zure legeko lanen igesi, ta nere gogoeta txarrak egin naiez nenbillenean erortzen nintzan ni bein bekatu batean, bein bestean: galtzen nuen nik orduan, zuk niri ongi naiez emanik, nuen zure grazia; ta gelditzen nintzan ni astun ta nagi, nere bide onerako; ta gelditzen nintzan aztura gaiztoz, animako zauriz, ta tirrikazio galduz betea, bear ez diran gauzetarako.

Eta nola ote nago egungo egunean ere? Zerorrek dakizun bezala, nere Jesus maitagarria! Damuz beterik (nere ustez) orain arteko nere nagitasunaz, ta zeruko bidean arin, ta oñik bein ere batera edo bestera atera gabe, ibiltzeko nai andiarekin! Ai, ala gerta baledi! Gertatuko da, bai, nere Jesus maitagarria, zuk ni nere oraindañoeko bekatu guzien kargapetik ateratzen banazu; ta ematen didazula, gerorako zere laguntzarekin batean, bekatu beren ziñezko damu ta urrikimentua. Au eskatzen dizut itzez ta biotzez erraten dizudala: *Nere Jesukisto Jauna, etc.*

XXIV.garren OTOITZ-GAIA

A.

**Erregeei Jaungoikoa eragin ziena,
ta guri ere eragin nai digun
irurgarren gauza da,
present on bat
umilki, ta gogoz Jesusi guk egitea**

*APERTIS THESAURIS SUIS OBTULERUNT EI
MUNERA.— Matth. 2. 11.*

Bere presentagatik eskerrak uste dituen presentariak, edo present-gilleak, presenten batekin norbait billatzen duenean, egiten diozka oni, bere presenta egitean, eskumuñ umillak eta agur andiak; bada, den andiena izanagatik daraman presenta, arroturik badarama, ta ematen badio artzen duenari, zor ez dion gauzaren itxuran, ta modurik gabe, mindurik utziko du present-artzallea, ta anitz estimatzen ez diola bere presenta.

Gure goiztar erregeak egin zioten, arkitu zutenean, Jesus maitagarriari beren presenta. Nola ote? Ausardiarekin; antustez beteak zeudela, ta erregetzar arroen eran? Ez, baizik umilki, ta bear bezala, arkitu bazuten ere Jesus, uste etzuten eran ta tokian, edo bazterrean.

Non arkituko zuten gure Jesus goiztar erregeak? Erregeen jauregian, edo aren jait-errian, ta, an alakorik ezpazen, erriko itxerik onenean ta apainduenean? Ala arkitu usteko zuten; bada Errege jaioberri baten billan zetozen; ta erregeak, erregeei dagozten tokietan idiro, edo egon oi dira, jaiotzen diranean. Baña etzuten arkitu, ez, Jesus maitagarria orren toki on-apainduan: arkitu zuten itxe txar edo abeltegi erdi urratu batean: ta, arkitu zuten an, beraren izar berriak erakusten ziela; bada, ara zeneko, batean gelditu zen izarra Jesusen itxe txar edo toki gañean zein zen Jesus, erregeei bere argiarekin adirazten ziela.

Orra, goiztar errege jaunak; orra non arkitzen den, zuek billatzen dezuten aur jaioberri, judu gogorron Erregea! Ez dezute noski zuek orren leku txarrean sartu ere naiko? Nai dezute atera

dezaten atarira, orren urrutitik zatozten ezkerro, ekusi bage ez itzultzeagatik zeren errietara?

Baña erausi eroak dira, era onetako erausi guziak! Ekusi orduko zein den, izarrak erakusten dien Jesusen tokia, jaisten dira beren dromedarioetatik, eta sartzen dira erregeak Jesus ekustera: ta, ekusi bezain laster belaunikatzen dira Jesusen oñetan, ta gelditzen dira, ezin umillago, ta arrituen eran, edo odolez ustiak edo liluratuak bezala.

Au zer da, errege andiak? Gizon indartsu, bear bezalakoak, zer da gaur or zuei gertatzen zaitzuenena? Soldaduz betea zegoen Jerusalemgo erria, ta murru arrigarriz, ta dorre andi sendorrez ingurutua. Erri andi ta Korte sendor onetan arkitzen zen gizatzar gaisto errege gogor Herodes. Zuek an sartzean etzenuzten errege onen baimenik, onen errian sartzeko; ta alere sartu ziñazten ojuka, ta galdez: *non arkitzen da juduen Errege jaioberria?* An egondu ziñazten, nai adiña denboraz, izutzen etziñaztela, ta andik atera ziñazten, batere beldurtu gabe, ta ausardi andiarekin: ta, etxe txar batean sartu orduko, adio zuen belaun-besoetako indarrak, eta arpegiko

kolorea! Zer gertatu zaitzue or zuei; edo or zer ekusi dezue zuek? *Ama donzella beartsu bat*, erantzuten dute, *bere amabi eguneko Semetxo batekin*.

Zer dute oriek biok, orrela zuek uzteko? «A (diote, biotzez beintzat) ezin adirazi ditekeen diñakoa da oriek dutena! Edertasuna darie Ama Semeei; baña ez lurrekoa! Ori ekusi dugu guk, emen sartu orduko, ta orrek utzi gaitu batetan gu, ikara bezala, ta umiltasunez ta debozinez beteak! Eta berebat gertatuko zen, Sansonek adiña indar ta biotz izandu bagenu ere! Lurreko loreak, zeruko izar-eguzkiak, eta gañerako gauz ederrak, nolakoak dirala uste dezu (diote), emengo Ama-Semeen edertasun aren aldean? Ikatza bezain beltzak, eta guztiz itsusiak. Jaungoikotasuna zer den dakienak, bai, baña bestek ezin ezagutu dezake zer den, ta nolakoa den Jesusen edertasuna; ez-eta onen *Amarena ere*».

Irur erregeak orduan agertzera, barrenbarrenean zutena, agertuko zuten au guzia: baita anitz geiago ta geiago ere; bada, an sartu orduko, asiko ziran biotzez edo al zuten bezala, erraten: Edertasunaren beroa, ta erretzallea!

Erretzen derozkigu geren barren guziak, eta amoriozko sutan urtuak bezala gelditu dira gure biotzak! Urtu ditezela, bai, ordu onean; ta maita zaitzagula guk, gure Jesus, ezin geiagoraño; ta maita zaitzagula, orain ezezik, beti ta beti, ta eternidade guzi-guzian ere! Ai, Errege jaioberri, gure Jaungoiko maitagarria! Ez dugu damurik, ez, zu ekustera etorri garalakoaz, urrititik artara etorri bagara ere! Etortzeko bageunde gaur, ta milla ta milloi aldiz, etorri garan baño urrunago-tik etorri bear bagenu ere, pozik eta pozik etorri-ko giñake gu, zu ekustera; ta orain emen arkitzen garan bezala, zure oñetan belaunikaturik, zuri agur ta agur umillak. eta ongi-torri bero-beroak egitera!

A ero zoratu galduak! (erran zezakeen, au erran ondoan, erran ezpazuten ere) a Jerusalem-dero zoratuak! A Herodes, Herodes! A Herodesen soldadu, ta jende galduak! A, zuek ere, gure goiz erritar galduak, eta bazter orietako jende, onara gu ekarri gaituen izar bera, guk bezain ongi ekusi dezutenak, eta, gurekin ez etorri naiez, or gelditu zaraztenak! Bazenekite zuek, nor den guk emen gaur arkitu dugun aur jaiobe-

ria; ta nor onen Ama, tazein onak biak, eta zein eder maitagarriak, laster artuko zenukee, bai, guk ekarri dugun onarañoko bidea; ta ibilliko ziñazkee, gu bezain biziro, edo biziroago; ta, gu bezala, gure ondoan belaunikaturik, egiñen zeniokee, bai, guk bezain gogoz, zor zaion ongi-torri, ta dagokan, bere agur-ta-agur andia!

Guk, Jesus maitea, ezagutu zaitugun ezkerro, errain zuten gero errege berak, aitortzen dugu, ta pozik alere, zu zarala gure iruren, ta munduko guzien Jaun, Jabe, ta Errege ezin-maitagarriagoa; ta zu zarala, zeru guzian ta lurrean arkitzen diranak maitatu bear zaituzten Jaungoiko-gizon, gure Salbatzallea! Au, erdia itzez, ta erdia biotzez erraten zuteño, egiñen ziozkaten goiztar erregeak milla agur, ta eskumuñ beren Jesus maitari-maitagarriari.

Artzen dute gero beren presenta. Balaunikatzen dira berriz Jesus beraren oñetan, ta erraten diote: erregeen Erregeari, ta Jainkoari bezala, zor zaitzu zuri, gure Jaun andi jaioberria, munduan arkitzen den guzi-guzia; ta, guk duguna zurea dela zuri adirazteko, ta noiz ere nai emain dizugulako siñutan edo señalean, orra gerekin

artu ditugun urre zati, inzenso-piska, ta mirrapur au. Au, ta guk ditugun ta izan ditzakegun ondasunak ezezik, gure buruak ere, edo gu gerok, garan adiña, zureak gara; ta egizu gutaz ere, gure eskuetako presentaz bezala, zuk zero-rrek nai dezuna. Au erran ondoan, uzten dute Amaren eskuetan beren presenta; ta gelditzen dira, guti ematen diotelako damuarekin; ta Jesus-ek adirazi bear nai diezten gauzen begira.

Ekusten dezu, nola dauden gaur goiztar erre-geak Jesusen oñetan? Zein umillak! Zein zenza-tuak! Zein bildu makurtuak! Ekusi orduko, arri-tzen ditu, ta betetzen atsegin ta kontentuz Jesu-sen Jaungoikotasunak; eta geroz lurretik ezin jaso dituzte beren begiak; ain txarrak derizte beren buruei Jesusen parean, edo Jesusen begie-tan: ta, an daudeño, beti daude beren Jesus gogoan dutela, beren Jesusi eskerrak ematen, ta Jesus maitatzen ta maitatzen dutela.

Orobat egiten ote dezu zuk ere, elizan arki-tzen zaran zere aldietan, ta errezo zerbait egiten dezunetan? Ez ote diezu begiratzen zuk bein ere aldi orietan, elizan sartzen edo andik ateratzen diran jendeei? Ez, eta an daudenei, edo an bate-

tik bestera beren egitekoetan dabilzanei ere? Ez dira an elizan zure gogoratzen, edo gogotik, ara orduko, utzi oi dituzu zuk itxeko zere egitekoak, kanpoko zere lanak, lagunak erausiak, auzokoen bidegabeak, oroitzapen lizunak, eta gañerako erakeriak? Abe-Mariak erraten dituzu, Jesusen Amari begira zaudela, edo itzez erraten dezun guzia biotzez diardukazula? Mezakoan egon oi zara zu Jesusen izatea, Jesusen bizitza, Jesusen neke gogorrrak, eta gudanako Jesusen amore bazter-bagekoa zere gogoan ta zere biotzen daduzkatzula? Ori da errege goiztarrak zuri gaur adirazten dituzun egitekoa; ta ori zere Jaungoikoak zuri eragin nai dizuna.

Zer presentak ote dira, elizarazten zaran aldietan, ta egunoro zuk zere Jesus maitagarriari egiten diozkatzunak? Ematen diozkatzu zuk goizoro, edo jaiki orduko, ta egunaz gero noiz edo noiz, zere gogo guzia, zere adimentua, ta zere naimendua, biei eragiten dieztezun, ta Jesus berari atsegin egiteko diran, zure gauz on guziekin? Edo egiten dezu zuk, oriez biez baliatzen zarala, goiz-arratsetan, egunaren ordu guzietan, ta beti, edo beintzat maiz, zugandik

zure Jaunak nai duena? A zer urrezko presenta ori zure Jesus maitagarriarentzat!

Jesus beraren izenean, ta zu zerori gal etzaitzen, nekatzen dezu bidenabar zuk zere burua, edo baruz, korapilluz beterikako lokarriz, ta sili-zioz, edo eragotziz zere begiei bear ez dituzun ekustekak, zere miiari itzketa makurrak, zere bea-rirei aditze lizunak, arroak, edo ez zuzenak; eta zere biotzari bere naikunde txar gaisto guziak? Minaren arrigarria! Presentaren ona!

Eta errege onak egin zuten presentaren erako present oso bat egiteagatik, enzuten dituzu egunean eguneko mezak? Egiten dituzu goiz-arratsetako, ta otorduetako, edo otrontzetako zere otoitzak? Erraten diozu zerbait, etxetik ateratzean, orduak aditzean, zere lanak asitzean; ta era bereko beste aldietan zaitzen zaituen zere Aingeruari, zere izeneko Santuari, edo zere Jaungoiko maitagarriari? Egiten dezu arratsetako examina, edo egun guziko zere lanen ekus-aldia; ta, oni darraikon ones-damua, edo akto kontriziozkoa? A zer inzensua! Ala zer presenta!

Orra zuk, erregeen eran, Jesusi egin bear dizun presenta: ta orra nola egin ere. Egin badiozu

zuk bein ta berriz, ta anitz aldiz, edo egunoro, iltzen zaran artean, zuk ekusiko dezu denboraz, baita beti-beti eternidade guzian ere; ta ekusiko dezu, bai, goiztar erregeak Belenen baño agitz obeki ta ageriagoan, zere Jaungoiko-gizon Jesus maitiaren edertasuna; ta zu aren lenbiziko ekus-tetik, izain zara zorioneko Jesusen umea! Zu atsegin utsez, ta kontentuz beti bizi bearra! Ta zu zeruko Errege, edo erregeen laguna. Erotasunez betea zara zu, ta zenzugabea, au guzia, orren erraz irabaz dezakezula, gelditzen bazara zu zeruko izarraz edo gogargiaz kasorik egiten ez dezula, ta zere bazter txar orretan, edo bizi-tza galdu galgarrian!

Fili, Deo dignas oblationes offer.
Eccli. 14. 11.

Nere semea, dio Eskritura santan gure Jaungoiko maitagarriak, nere semea, bada, begira zazu zertara zoazen, zere Jaunaganatzen zaran aldietan: ta begira zazu zer present-modu den, arganatzen zaranean zuk egin uste diozun zere

presenta. Konfesatzera zoaz? Egin uste diozu konfesioko presenta? Begira bada zer eran, edo nola zoazen, konfesatzera! Zoaz (joan nai badezu, joan bear den eran); zoaz, gaizki eginaz, ta gaizkiarekin zere Jaungoikoari egin diozkatzun atsekabeez ongi damutua. Zoaz umilki an zere Jaungoikoari agur egitera: ta zoaz, zere gaizki guzia barkatuko dizulako uste oso-osoarekin; baña zoaz, oben guziak eta kulpak aldebat uzteko asmoz beterik, eta guzi-guziak utziko dituzulako itza zere Jaungoikoari ematera. Orrela ezpa-zoaz zu zere konfesionera, ez da, zure Jaunari dagokan presenta, zure konfesionea.

Komuniozkoa da zuk zere Jaungoikoari egin uste diozun presenta? Bear bezala komulgatzen zara? Biotz garbi-garbiarekin komulgatzen zara? Jesus artu naiez zoaz zu zere komunionera? Jesus maitatu naiez zoaz; ta komunione oneko indarrarekin, obeki baño obekiago zere Jauna serbitzatzeko gogoz betea zoaz zere komunione-ra? Orrela bazoaz zu, ongi zoaz, bai; ta, gogo dezuna egiten badezu, komulgatzen zaranean, egiñen diozu Jesus maitagarriari ederki dagokan komunioneke zere presenta.

Otoitz garbi beroa da, egin nai diozun zure presenta? Bear bezala enzunikako meza da zure presenta? Zure presentak dira, egunak, asteak, illak, eta bizitza guzia ongi, ta kontuz eramatea? Present ederrak dira. Oriek zuk zerekin artu ezkerro, bazoazke, bai, lotsalkerik gabe, zere Jesus ekustera. Ongi artuko zaitu, bai, Jesus maitagarriak, eta begitarte ederra egiten dizula, era orretan arganatzen zaran aldietan.

Ala joaten ziñan zu oraindañokoan zere Jau-nagana, arganatzen ziñan guzietan? Ai, nere Jesus, ta zein guti! Zugana naz ni askotan, nere Jesus maitagarria, present on bat badere eskue-tan ez nuela! A! ta zenbat eta zenbat aldiz zuga-na nazan ni txarkiago ta txarkiago ere, edo biotz zikin, loitu, galduarekin! Onetaz oroitzeak berek guztiz alketzen nau ni gaur; ta, ez dakit zer negi-ken, aldi orietako nere agertze txarrak galeraz-teagatik! Gal bitez, arren, zure gogotik, nere Jesus maitagarria, ta geldi bitez bertan barka-tuak! Au eskatzen dizut, eta ziñez alere; ta berriz era bereko agertze txarrak ez egiteko itzarekin.

Coram illo procident Aethiopes.

Ps. 7. 19.

Bazter guzietatik etorriko dira, dio Dabidek, Jesusi agur ta presentak egitera. Bazter guzietan izain ditu gure Jesusek adoratzalleak, maitatzalleak, eta ongilleak; baita Etiopiako leku illunetan ere; ta egia dio. bada egungo egunean badira orrelakoetatik (eta anitz alere, ta anitz) Españian, Franzian, Europan, Asian, Amerikan ta Afrikako anitz lekutan.

Baña orietatik ote naz ni ere? Askotan agur egiten diot nik nere Jesus maitagarriari, goizetik arratseraño? Askotan, ta maiz belaunikatzen naz ni nere Jesusen oñetan, otoiz edo erregu zenbaiten presentak egitera? Etzait egunik igarotzen, egin nitzakeen orrelako gauzetatik zenbait iuzten ditudala? Bai noski, ta geienak ere! Orobat gertatuko da datozen egunetan? Ez nuke nai beintzat, nere Jesus maitagarria!

Eta nola nator ni gaur nere Jesusen oñetara? Biotz garbi-zuriarekin, edo mairu beltzaren larrua baño beltzago dadukala nere barrena, edo nere anima? Ala badere, ona non nazun ni gaur

zere oñetan, nere Jaungoiko maitagarria. Zein ere beltz-galdua nazan ni, zure eskuetatik aterea naz. Aisa aski egin ninduzun zuk ni, artara ziñanean; ta egin ninduzun bezain aisa, zuri nazakezu, neronek nere naiez arturikako nere obenen beltztasun loi-zikiñetik. Ez dezu bear orretarako, ez, nere utsak barkatzea, ta zere graziaz ni beterik uztea besterik. Egizu arren, nere Jesus maitagarria. Eskatzen dizut, nere gaizkiez ongi damaturik; eta, gaizki berririk egin bage, ta garbiro bizi nazala, agur umillak eta lan onen presentak maiz eta maiz zuri egiteko asmo osoarekin. Ai, anitz banegitza, ta guziak zuri dagozkizunak!

Rex erit super nos.

I. Reg. 8. 20.

Billa bezate nai dutenak, nai duten lekuan, beren erregea: nere Errege da, goiztar erregeei izar berriak erakutsi dien Jaungoiko-Erregea. Nere Erregea da nere Jaungoiko-gizon Jesus maitagarria! Ez da, ez, nere Errege au baño errege zuzenagorik, ez da ederragorik, ez da oberik, ez

eta maitagarriagorik ere: Onen etsai guziak nere etsai egiñak gelditzen dira gaurgero: guziak garaitzera noa, nere ezagueraren, adimentuaren, ta biotz on baten armak arturik. Lenagotik lan onetan ez asiaz dut damu ta urriki!

Nere Jaungoiko Erregeren etsaiak etsai gogorrak dira; ta etsai guztiz bortitzak: dira alabaña nere aragi gaistoa, bere naikunde txar sutu-galduekin: Mundu artoa, bere asmo eroekin, ta ikuskari makurrez edo exenplo gaiztoz dena jauntzia; ta sulezeko gaistoa, bere jakindearekin, bere gu ezin-ekusiarekin, ta bere milla gordeka, ta tentu arrigarriarekin. Askotan eramane naut, bai, bein batak, bein besteak, eta zenbait aldiz guziak elkar arturik, nere Jaunaren kontra: baña gaurdanik orien kontra nai dut egon beti, ta nere Jaunarekin bat egiñik. Zein ere bortitz-indartsu-gorak diran etsai oriek, guziak garaitu uste ditut, guziak baño indartsuagoa den nere Jesus Errege onak laguntzen didala.

Orra bada ni, nere Errege Jesus maitagarria; ona ni prest, zuk nai dezuna eragiteko nere begiei, nere eskuei, ta nere adimentu ta naimendu guziari. Nazan guzia, nere gauza guziekin,

zurea nai dut izan nik gaur ta beti. Dudana baño
geiago banu nik, present ohea egiñen nikezu
gaur. Biotzez ta zinki ematen dizut orain, bildu
dudan ta emen dakardan au; baita gaurgero nik
izan dezakedan guzi-guzia ere, gauz on anitz
zure alde egiteko, orain dudan nere gogoarekin
batean. Egin ditzadan guziak, nik nai bezala, ta
batean ere uts egin bage, kendu bear didazu
zuk, lenagoko nere utsen karga gaistoa; eska-
tzen dizut, nere naiez artu nuelako damuz bete-
rik, eta itzez, ta biotzez erraten dizudala: *Nere
Jesukristo Jauna, etc.*

XXV.garren OTOITZ-GAIA

A.

**Erregeei Jesusek eragin zien,
ta guri ere eragin nai digun,
laugarren gauza da:
Berak nai duen bidez ibiltzea**

Andiak ziran, onak ziran, ta biotz onez emanak, irur goiztar erregeen presentak. Baña agitz andiagoak, agitz obeak, eta biotz edo amore obearekin emanikakoak izan bear zuten, errege berak Jesusen eskutik artu zituztenak: bada emanean garaitzen ditu Jesusek emalle guziak; eta, artzen duen baño geiagokoa da Jesusek ematen duena. Ezpañak geldirik idukiagatik, itz eginen zien Jesusek erregeei biotzez, ta inspirazionez edo gogargiz; ta, adiraziko zien ontzat artuak gelditzen zirala ekarri zituzten presentak; baita bideko nekeak, eta lenbizitik orduraño erakutsi zioten ongi naia ta deboziona ere.

Denbora berean egiñen zuen Jesusek, berari zegokana; ta emain zion bakoitzari, zituen onda-

sunak eta Indietako urre, zillar, perla ta diamante guziak baño geiago balio zuena, edo, ekarri zion urrearen orde, emain zion zeruko jakiunde garbia, ta bertako karidadea; inzensoagatik emain zion otoitz ederrerako grazia, ta atsegizko debozionea; ta mirragatik, bekatuaren usteltasun loiera gabe, garbiro bizitzeko bear zuena.

A zer Indiak arkitu dituzuen or Belenen, goiztar errege onak! Ongi nekatu zarazte, bai, joan diran egunetan! Bide luzean etorri zarazte, Jaungoiko-gizon Jesusen billan; ta, Jesus arkitu artean, izandu dezue zenbait egiteko ta arazo! Baña zorioneko arazo-bide-nekeak, zuen neke-bide-arazoak; bada bertatik irabazi dezue, Jesusen eskutik artu dezuten adiña zeruko ondasun ta doai; ta, gerorako eternidadeko gloria! Onak ziran, bai, ta ongi naiez emanak, zuen urrea, zuen mirra, ta zuen inzensoa; baña Arabiako inzensoa eta mirrak, eta Indietako ta mundu guziko urreak baño, milla ta milloi bider geiago balio du eman zaitzuen zeruko ondasunaren zatirik txikienak! Pozik itzuli zaitezke, bai, zeren errialdera, ta alkerik gabe; ta, eskerdun onak

izan bearko dezue, nola ere-bait eskerrez eran-
zuteko deitu zaituzten, ta orrelako ondasunez
bete zaituzten zeren Jaungoiko-gizon, Jesus mai-
tagarriari!

Bertatik asiko ziran irur erregeak beren egite-
ko ta lan eskerdun onetan; ta, lan au obeki egi-
teagatik, galduko zioten Jesus berari, zer zen
egin zezakeena, edo berari atsegin egiteko egin
bear zutena: bazekiten alabaña, ongilleak nai
duen eskerrik onena dela, nai dituen gauzak
zuzen egitea. Adiraziko zien Jesusek orretarako
egin bear zutena: ta manatu zien denbora
berean, utz zezatela Herodes gaistoaganako
bidea; ta ar zezatela beste bat, etxera itzultzean.
Eta, kasorik egiten ez dutela Herodes erregez,
itza len eman bazioten ere itzuliko zirala beraga-
na, juduen Errege jaioberria arkitu ondoan,
artzen dute Jesusek erakutsi dien beste bide au.
Badoaz andik beren etxeetara: ta, etxera ordu-
ko, agertzen die beren goiztarrei arkitu duten
ondasuna. Egiten dira Jesusen Apostolu edo Pre-
dikari; ta, al dituzten guziak Jesusen legera eka-
rri ondoan, ematen dituzte Jesus beragatik beren
bizitzak, eta odol guzia; ta Santu ta Martir egiñik,

igaten dira ill orduko zerura; an atsegin ta kontentuz beteak betiko bizitzan bizitzera.

Zorioneko errege doatsuak zuek; bada lenda-bizitik azkeneraño egin dezue, eta ezin ederkia-go, Jesusek adirazi dizutena! Jesus maiteak deitzen zaituztelako siñu bat ekusi orduko, artu dezute zuek Jesus billatzeko gogo bero bat, eta asmoa. Asmo au artu, ta laster atera zarazte Jesus bera billatzera. Arkitu dezute, bai; baña milla neke ekusi ondoan. Arki-toki berean egin diozkatzue zeren agur on, eskumuñ umillak, eta zeren presentak. An bertan utzi zenituzten zeren jentil-kontuak; eta artu izandu zenuten zeren Jaungoikotako, Jaungoiko-gizon Jesus jaio berria: ta artu izandu zenuzten, bein ere ez iuzteko, edo zuek ill arte guzian ziñez, zuzen, ta biziro bera maitatzeko. Eta, Jesusi zegokan zeren lan on andi au egin ondoan, igan izandu zarazte, orrela-koentzak Jesus berak dadukan tokira, edo zeru eder orretara; or Jesus beraren amorez urtuak, eternidade guzi-guzian, edo beti-ta-beti egotera.

Bukatu zen, goiztar errege onak; bukatu zen, zuen emengo erresuma, edo erreinua; baña, bukatuko ez den Erreinua da zuek, zeren Jesus

maitearen erranak edo adirazte onak egiten dituzuela, irabazi dezuten zerukoa. Bukatzen ez den zeren zeruko Erreinu onetan zarazte zuek, eta izain ere zarazte beti-betiko Errege andi, edo Prinzipe. Or Erreinu orretan, or zuek izain dezue, bai, nai adiña atsegin ta kontentu, ta izain dezute atsegin-kontentu atsekabarik batere gabekoa. Zorioneko erregeak bada zuek irurok; eta milla ta mill aldiz zorionekoak! Eta nor legoken or bertan, zuen eran, ta zuenaren erako atsegin-kontentuan! Baña zer erakeria, zuk orain, zer siñisten dezun, ezpazenekei bezala, darausazuna? Nor legoken, diozu, goiztar errege onak dauden lekuan, ta, orienak bezalako atsegin-kontentuen artean? Nornai, nai badu, egon diteke, bere arako ordua etortzen zaion ordu beretik; aski du orretarako, irur errege beren, oraindanoiko ibillerari, ta gerozko denboran oriek egin zutenari, ongi ta kontuz begiratzea; ta, orien eran, ark ere bere gauzak egitea.

Zer ibillera da, diozu, goiztar erregen ibiller oraindanoikoa? Otoitz-gai onetan, ta lenagoko iruretan zuk zerorrek ekusi dezakezuna. Eta zer ote da, beren ibillera onen ondoren errege berak

egin zutena? Jesus maitagarriak adirazi ziena? Zer? Herodes gaistoaganako bidea iutzi, ta Jesusek adirazi zien beste batez zuzen etxeratzea. Eta, orra, orien eran zerura nai dutenak egin bear dutena: arkitu artean, Jesus billatzea, edo benik bein zer ote den gugandik gure Jesusek nai duena, ongi ta garbiro ikastea; ta gero, ikasten dugun au kontuz ta zuzen egitea.

Egin izandu dezu zuk bata, ta bestea, zere oraindañoko denboran? Beldur naz ezetz! Esazu ezperen, zenbat eta zenbat aldiz, edo zela elizan, zela itxean, zela bidean, zela lagun artean, edo zela bakarrik arkitzen ziñanean, eman izandu dizu zuri zere Jaun maitagarriak zere biotza-ren ukitze edo beldurrera bat, iratzar zindezen zu zere atsegin txarren, edo lurreko gauzen loo gaistotik, eta kontuz adi zenezan ordu barean bere gogargiz edo inspirazionez Jaungoiko berak adirazi nai zizuna? Zenbat aldiz era orretan adirazi dizu zuri zere Jaungoiko maitagarriak utz ditzatzula zere barrena zikinerazten dizuten ibillera makurrak, dantza galgarriak, jostatze loiak, jokatze kaltezkoak, amiltegiak dituzten itxeak, jan-edan lizungarriak, edo era bereko beste zen-

bait gauza ta leku? Baña zuk bein ere benaz, guztiz, ta txoil utzi izandu dituzu?

Atozea: ta zenbat aldiz, era berean, edo nola-ere-bait, adirazi dizu zuri zere Jaungoiko berak itzuli diozazula (ta alik lenena) nori berea, edo zor zaion ondasuna; atera ditzatzula, ta luzatu bage, zere zorrak, ez dela zer zugatik kaltear ta naigabeturik iduki nior, edo neketan ta penan: ez dela zer-egin bidegaberik txikiena ere munduan denik, naiz dela zure etsairik andiena. Baña egin izandu dituzu zuk oriek guziak, eta gañerako, Jaungoiko berak adirazi dizkitzun gauzak? A! noski, oriek egiteko artu bear zen bide zuzena zuk artu lekuan, gelditu zara zu leneko zere bide galgarri gaistoan!

Ortik zu ater-erazi naiez, ta sar zindezen zuri zegokizunean, adirazten zizun noiz edo noiz zere Jaungoiko maitagarriak, edo predikuz, edo libruz, edo beste zerbait aldetatik, egin zenezala konfessionea jeneral bat, edo zere bizitza guziko konfessionea. Baña zer egin diozu zuk aldi orietan zere Jaungoikoari? Ez aditu. Adirazi dizu zoazela maiz Komunionekeo maiera. Zenbat aldiz urbiltzen zara, ta nola? Zerorrek dakizu. Adirazi dizu igan-

de-jaiak dirala, mezak, sermoiak eta bezperak enzuteko, libruan egoteko, etxekoei doktrina ta otoitzak erakusteko, ta beste zenbait gauza ta lan on egiteko. Egin dituzu? Zenbatetan, ta nola, edo zer moduz ta eran?

Anitzek uste dute nolana beren mezan egon ezkerok, egin dituztela jaieko lanak, eta beren egiteko guziak. Uste dute, konfesatu ezkerok, egin dituzten gaizkiak, edo beren bekatu guziak, bertan gelditzen dirala barkatuak; eta artu dute-la zerurako bide berri on zuzena; baña anitz eta asko konfesatzen dira, edo beren gaizki egiñen urriki onik gabe, edo berrien bideak galtzeko asmorik artzen ez dutela; ta argatik gaizki; ta andik laster arkitzen dira bekatu berrien artean, ta beren leneko bide galgarri beretan.

Au da, Jesusen umeak, Jesusek erakusten dizuten bidea, ta goiztar erregeak egin zutena? Onetarako billatzen dezue, gau ta egun elizan arkitzen den, ta bere aldaretik deitzen digun gure Jesus maitagarria? Ez egiteko guk, gure Jesusek guri adirazten dizkigun gauzak, zertako da gure ta gu bezalako en elizaratzea? Zertako da an gu gure Jesusen begietan agertzea? Zerta-

ko da aren oñetan gu an belaunikatzea? ta zertako dira beste zeinbait orrelako gure itxur-eria? Ez gure onerako, ez! Ez gu zeruan goiztar erregeen lagun gure Jaungoikoak egiteko!

Galdu nai dugu berez, ta ori guk gerok daki-gula? Baietz dirudi! Ez da au erotzar utsen, ta zenzurik ez dutenen egitekoa? Egiteko onetan nekatuko naz ni berriz ere, ta alferrik, edo nekatu ondoan kaltear gelditzen nazala? Ez baldinbere, guganako amorez urtzen zauden gure Jesus maitagarria! Eta, gerta ez dedin, argi egizu oraindañokoan ez bezala, edo argiroago agertzzen diguzula, guk, gero zure zeruan sartzeko artu bear dugun geren bidea; ta iguzu bidena-bar, bide bera artzeko, ta bide on onetan biziro ibiltzeko bear den zure laguntza ta grazia. Onekin batean ibilliko gara gu, goiztar erregeen eran, arin ta zuzen. Ala bagenbiltza; ta bagenbiltza, trikatu gabe, ta zeruraño! Zorioneko umeak orduan gu, ta atsegin ta kontentuz beterik beti bizi bearrak.

*Vigilia honestatis tabefaciet carnes,
et cogitatus illius auferet somnum.*

Eccli. 31. 1.

Zere otoizetan, ta libru onak irakurtzen dituzula, billatzen badezu zuk zere zerurako bidea, zuk arkituko dezu: ta zu, bide au arkitu orduko, asten bazara bideko zere lanetan, ta irauten badezu zuk zere lanak bukatu artean, garaituko dituzu, bai, aragiaren naikunde txarrak, eta one-rako zere nagitasuna; bada oriek garaitzen dira, ta eskura datoz aragiaren naikunde makurrak, nork bere buruari, bear ez duen loa kenduz, ta egin ditzaken baruak, ildurak, eta beste nekezko lanak egiten dituela. Au da orain bere Eskritura santaz gure Jaungoiko jakintsuak adirazten digun egitekoa.

Nagitasuna garaitu gabez, ta beren buruak ez nekatzeagatik, gelditu ziran beren errietan, deitzen zituen Jaungoikoari ez aditu egiten ziotela, irur erregeak ez, beste goiztarrak. Orobat egin izandu zuten Herodes gaistoak, eta jerusalendar guziak. Zeñekin ibilli naz ni oraindañokoa; goiztar irur erregeekin, edo gañerako nagi-

alferrekin? Eranzun dezala oraindañoko nere bizitzak!

Egin izandu dut beti nik nere Jaungoiko maiteak adirazi oi zidana? Askotan galdetu diot nik nere Jaungoiko erakusleari zer ote zen nitaz nai zuena, edo nik egin-bearra? Edo bizitu ote naz ni aisa, lasai, ta nere gogora? Garaitu ote ditut beti nik nere naikunde makur-galduak, edo garaitu ote naute berak ni bein, bitan, berriz ta berriz ere? Egunen batean ageriko da, ta guziok ekusten dugula.

Ez, nere Jesus maitea, ez: orduan ezezik, bertatik ere aitortuko dut nik, egin dudan nere gaizki guzia. Nagitzar galdu-gaisto bat izandu naz ni oraindañoko nere denbora guzian! Nere gogoari atsegin egiteagatik, ez diet begiratu nik, bear bezala beintzat, zure izarrei, edo igorri dizkida-tzun gogargiei! Ez aditu egin izandu diet nik zure oju meei, edo deitze maitagarrii; ta, nigandik zuk zer nai zenuen nik jakinagatik, gelditzen nintzan beti ni nengoen lekuan, ta nere bizitza gais-toan; edo, igituagatik noiz edo noiz, nengoen tokitik, itzultzen nintzan laster nere naietara, edo nere bizitza txarrera; ta arrastan erabilli nau

nere gogoak, edo nere aragi sutuak bere aztura ta kostunbre galgarriekin.

Onela biziko naz ni emendik aitziña, edo gaurgero? Nere deiez egoin da beti nere Jesus? Niri erakusten ibilliko da Jesus nere ibilbidea, ta ni Jesusen igesi ta gordeka? Ez al dut eginen berriz onelakorik? Entzunen al ditut gaurgero nere Jesusen itzak? Ibilliko al naz zeruko bidean erne ta bizi? Nai nuke beintzat; eta orain orretan nago. Jaunak didala, entzun-ibillera onek eskatzen duen laguntza ta grazia. Bai arren, bai!

Vidisti virum velocen in opere suo?

Coram Regibus stabit, nec erit ante ignobiles.

Prov. 22. 29.

Ez da norako-nai egiña bere Jaunaren bidean arin dabillen anima. Onela dabillen animak egiten ditu bere Jaunaren gogara bere gauza guziak; eta, aren gogora gauzak egiten dituen anima leku onerako jaioa da, ta berari dagozkan laguneren artean bizi bearra. Noren artean, ta non ote? Sulezean; ta ango galdu-txar erre zikiñen

artean? Ez bada. Bada non? Erregeen artean, ta zeruko glorian.

Nora bearra ote naz ni, edo noren artera bearra? Nere eskuan dago, nere Jaunaren laguntza ta graziarekin batean, nai dudan lagun-en arteratzea. Birtutezko bidea da niri, zeruko lagun-arterako, nere Jaunak berezi didan bidea. Urrats jakinak dira, bide orretako urratsak edo pausuak. Kontuz banabil ni, ta ez-uts egin naiez, ez ditut uts egiñen: ta, uts egiten ezpaditut, zerurako naz ni zuzen-zuzen, irur goiztar erregeen, ta gañerako ara igan diranen lagun izatera.

Zorionean jaioa ni, ni aratzen banaz, anitz nekeren buruan ara iganagatik! Bada, ni ara ezkerro, nereak izain dira sekulako gustoak, eta nik an artu al din atsegin ta kontentu! Ni ara ezkerro, neretzat aitu dira lagun galduak, lurreko kezakak, naikunde lizunak, eta min andi-txiki, ta atsekabe guzi-guziak: an ez da alabaña lagun onak, ona, ondasuna, ta atsegin utsa beste gauzarik.

Ez ote dut bada artuko nik, orain badere, arako bide zuzen ondasundun au? Au utzirik ibilli bear dut nik eroaren eran, sulezeko bide gal-

garran, zer penak an, zer nekeak diran ta zar kezak dakidala? Ez arren, nere Jesus maitea, ez! Aski al dira, orain arteko nere ibillera galduak, eta arako pausuak! Eman ezpanu bat ere, beste lekutan arkitzen nintzan ni gaur, ta zeruko irabazi andiekin! Ots bada, nere anima; gabil-tzan zuzen, ta goazen arin zeruko bidez, ango errege, santu, ta aingeru guzien artera. Zenza gaitezen orain badere, ta dagigun gaurdanik, gure Jaungoiko maiteak nai duena. Bai arren, bai!

*Ego, qui loquor justitiam,
et propugnator sum ad salvandum.*

Isai. 63. 1.

Ez da zer beldurtu, dio Jesus maitagarriak, agertzen dizudanean nik zuri, uste etzenuen bideren bat edo beste; bada bide au, nekez, kez-kaz, ta etsaiez inguratua arkitzen denean ere, badut nik, bideratzen diranentzat, oriek or ibil-tzeko bear adiña indar ta laguntza; ta ezin era-kuts dezaket nik zerura zuzen ez daraman, ta

oriei ongi ez dagoten, biderik; ez-eta bide, errazki ta aisa ezin egin ditekenik ere.

Au den ezkerro, diozun bezala, ona ni, nere Jesus maitagarria, ona ni emen, luzatu bage, ta gaur eskuetan, zuk nai dezuna zuzen egiteko; ona ni emen biderako prest; edo ona ni abian, agertzen didazun edozein biderako. Zuk laguntzen didazula, egin uste dut nik nigandik zuk nai dezun edozein gauza, naiz dela au izan diteken gaitzena edo gogorrena; baita, lenbizitik azkene-raño, izerdia dariedala ibilli bear banu ere!

Ai! onetan egon banintz beti ni, nik zu ezagutu zindudanetik, nere Jesus maitagarria! Gaur egoin nintzan ni, nagoen baña zure alderago; ta milla ta milla pausu on emanik, zerurako nere bide zuzenean! Anbat denbora galdu dudalako damuak arinduko al ditu gaurgero nere oñak, bizi-biziro nabillen bizi nazaño, ta irabaz ditza-dan, oraindañokoan nere nagitasunez galdu ditudan irabazi guziak.

Andiak dira, bai, ta guztiz alere, nik orain artean galdu ditudan irabaziak; eta oriekin batean galdu dut nik, nere naiez, nere anima. Au da, bai, au galtze arrigarria! Au da, bai, zu, nere

erakusle on Jesus urrikaltia, atsekabez bete zaituen nere galtzea; ta galtze, ni sekulako galbidean sar-erazi nabena! Atera ote naz, orain badaere, nere galbide gaisto-lizun onetatik? Zerorrek dakizu au, nere Jesus maitagarria! Atera ezpanaz, atera nazazu; ta ez nazazula utzi, nere galbide gaistora berriz urbiltzen, bizi nazaño. Eskatzen dizut, len an sartuaren damu ta urriki andiarekin; ta itzez ta biotzez erraten dizudala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XXVI.garren OTOITZ-GAIA

A.

Kandelari-eguneko Jesusen elizaratzeak erakusten digu, guk geren buruez egin bear duguna

*TULERUNT PUERUM IN JERUSALEM;
UT SISTERENT EUM DOMINO.— Luc. 2. 22.*

Deus ez dakien aurrak bezala, egin zituen Jesusek bere aur-denborako gauza guziak; eta, besteen artean, Kandelari eguneko bere elizaratzea, ta elizako bere presentazioa. Bere presentazio, edo elizaratze au egin zuen gure Jesusek gañerako beren gauzen eran, edo ongi oarturik, berariaz, bear bezala, ta guri erakusteagatik, guk geren egin-orduetan egin bear duguna. Baña zer ote da gure Jesusek gaur guri erakusten diguna? Benik bein, guk, egitera beartuak gauden geren gauzak zuzen egitea; ta gero guk

egitea, egin bear ditugunak ezezik, beste zenbait ere.

Zer egiten du gaur Jesusek, guri gauza oriek era orretan egiten erakusteko? Egun artako legeak ziona. Zer zion legeak? Egin zekiola gure Jaunari lenbiziko semearen presenta, eramantik orretarako seme lenbizikoak Jaun beraren etxera, edo eliza berezira. Baña egin zuen Jesusek bere elizaratze orretan, ta elizako bere presentan, beste edozein israeldarrak egiten zuena baidarik? Bai? Zer bada? Guzia bere naiez egitea: bada egin zuen gure Jesusek presentazioko legeak zion guzia; ta etzuen beartzen Jesus, israeldarrak bezala, semeen presentazioko legeak; lege au alabaña ama-ume bekatarientsat egina zen; ta, ez Jesusek, eta ez Jesusen Amak izandu zuten bekatuak, ez orduraño, ta ez bein ere. Egin zuen bada Jesusek gaurko bere presenta, bere Aitari atsegin egiteagatik; eta, atsegin osoa Aitari egin naiez, egin zuen guztiz zuzen, ta ezinobeki; bada egin zuen, alik lenena; egin zuen bere Amaren eskuz; ta egin zuen, berak nai zuela, ta premiarik bage.

Bai: benik bein, egin zion Jesusek bere Aita maitagarriari alik lenena bere buruaren, edo zen guzi-guziaren gaurko presenta; bada present au egiten zen amaren erditzetik berrogeigarren egunean; ta, egun au etorri orduko, agertu zen Jesus presen-tegian, edo bear zen elizan, ta Jau-naren begietan. Eta, a zer presenta! Parerik gabekoa!

Egun artan Jesus elizan sartzean, erran zeki-keon Aita Eternoari: ona Jaungoiko maitagarria, ona non dezun zere eliz onetan, oraindik agertu den presentik ederrena; ta present, agertu diran ta ager litezkeen semeen presentak baño geiago ta geiago balio duen seme-presenta! Ez dezu ezagutzen zuk au, ezaguntzaz beterik arkitzen zaran Jaungoiko maitagarria? Ez da, ez, dirudie-na. Bekataria dirudi: baña ez du bekatu-kutsurik ere. Zure Jakiundea da, ta Trinitateko bigarren Persona, gure amarez Ama Birjinaren ume ta aur-egiña. Emen dator Jaungoiko-gizon zure Seme au, gure zorrak bere gain arturik; eta dator, zuk nai dezula, guzi-guziak bertatik atera-tzera. Badu, bai, aur jaioberria izanagatik, zere-kin edo nondik oriek atera; egin dezaken gauza-

rik txikienak balio du orretarako diña, ta agitz geiago. Lenago ere egiteko onez onara etorri naia zegoen: ta, etorri ezpada, zure legeak diona zuzen baño zuzenago egiteagatik, izandu da; ta bidenabar egiteagatik, zuk naien dezun bidez, ta moduz.

Zer bidez, edo moduz egin izandu zion Jesus-ek bere Aita Eternoari gaurko bere presenta? Bere Amaz baliaturik. Amaren eskuz egiteagatik bere Aitari gaurko bere presenta, egondu zen Jesus Elizara gabe, legeak ziona Amak egin artean; edo jaio ezkerozko berrogei egunetan; bazekien alabaña Jesus maitagarriak, lurreko onak edo Santuak, eta zeruko guziak baño geiago balio duela beraren Ama Birjinak; eta, gañerakoen eskuetatik baño, bakar onen eskutik obeki artzen duela Jaungoikoak edozein presenta. Erdi-berrien legeak ziona egin orduko, ta egun orien buruan artzen du Jesusen Amak bere Semearekin elizarako bidea, an bien izenean, ta biak nai dutela, Aita Eternoari egiteko Jesusen presenta.

Elizara zeneko, zekienak bezala, nolakoa zen zeraman presenta, errain zion Jesusen Amak Aita

Eternoari: ona non dezun, ekusten dezun presenta! Jaungoiko-gizona da, dakusazun bezala! Jaungoiko-bezanbatean zure Semea da ta Seme guztiz maitea! Nigan artua du, duen Gizatasuna; ta orregatik nere Semea ere da; ta, berez, gogoia, ta nai duela, dator; ta ala ezpaletor ere, ekarriko nikezu nik dakardan bezala, ta emain nikezu, ema-dizudan bezain gogoz, ta biotz oso-arekin.

Artu zazu bada, zuri nik zor dizkitzudan ondatsun, ta doaien alde. Anitz da, bai, nik zuri zor dizudana; baña, zukanako nere zor guziak baño milla, ta milla bider geiago balio duen presenta da orain nik nere eskuetan dakardan, ta zuk emen ekusten dezun presenta. Artu zazu bada zeren zurea den, den bezala; ta artu zazu bide-nabar mundu guziak zor dizunaren alde, ta gure guzien onerako. Orrenbat merezi du, bai, daki-zun bezala; baita geiago ta geiago ere.

Zure Ama Birjinak au dion artean, zer ote diozu zuk, gure Jesus maitagarria? Nai dezula zatoz, ta bortxarik gabe? Naiezko presenta da, gaur Aita Eternoari zere Amaren eskuz zuk egi-ten diozun presenta? Nola-ere! dio, ta ezin naia-

gozkoa! Gizon egin zeneko presentatu zion Jesusek Aitari bere gizatasuna; present au berau egin izandu zion bere Jait-egunean, egin izandu zion bere Zirkunzizioan, baita beste anitzetan ere; baña, nioiz ere baño egokiago egiten dio egungo egunean; au zen alabaña, Jaunak orretarako berezi zuen eguna.

Elizan sartu orduko bada, ta, nior oartu bage, eginen zion Jesusek biotzez ta begiz, bere Aita Eternoari, al zuen agurrik andiena; ta errain zion, itzik atera gabe, naiez ta biotzez: Badakit, bai, nere Aita maitea, norañokoak diran bekatarien zorrak, eta zein balio gutikoa den zor orien alde gizon utsak egin dezakeena! Badut nik ere, zuk zerorrek emanikako nere gizatasuna. Ona non natorren, au arturik, zuk nai dezun guzi-guzia egitera; ta, beste gauzen artean, zor orien alde zernai egin naiez nator. Nai badadezu zea nazaten orien alde, ona non dagoen orretarako nere bizkar minbere au. Aranzez odoltu bear banaute; ona nere buruko loak; baita buru guzi-guzia ere. Gurutzean josirik ill bearra banaz ni, ona iltzearako nere eskuak eta oñak; eta ona azkenean nere odol guzi-guzia; naiz, au ateratzeko, urra

ditzatela nere zañak, nere loak, eta nere bular au, ta biotz bera ere. Zer nai dezu, bada, dagidan zor orien alde? Errazu nai dezuna: Baditut, zuk emanikako bearriak; eta adituko dut, zuzen egiteko, erraten didazun guzia. *Ps. 39. 7. Hebr. 10. 5.*

Zein begi onez begiratuko zion Ait-Eternoak, bere Seme Jaungoiko-gizon Jesus maitagarriari, ekusi zuenean zein laster, zein gogoz, zein esku zuriz, ta zein ziñez egiten zion beren buruaren ta gauza guzien presentak? Ontzat artzen bazituen Abelen, Noeren, Abranen, ta bertze lege zarreko gizonen present txikiak, nola artuko zuen Ait-Eternoak, anbat eta anbat balio zuen Jesusen presenta? Ez da erraz guk au adiraztea! Ekusi zazu zerorrek, al dezun eran, astiz ta gogoz begiratzen diozula.

Gero begira zaiozu aldi onetan Jesusek erakutsi zizun egitekoari; ta ikasi zazu zere Jaunari presentak egiten; ta egiozkatzu garai onean, Ama Birjinaren eskuz; ta biotz on garbi-oso batekin, naiz obligaziozkoak izan, edo zuk egin bearrak; naiz zure naiezkoak, edo borondatezkoak. Orrela zuk oriek egin ezkerro, ongi artuak izain

dira, bai, zure presentak; eta oriek ark zugandik artzean, emain dizu zere Jaungoiko emalle andiak zuri dagokizuna.

Au zuk erditsi nai badezu, egiozu jaiki orduko zere Jaungoiko maitagarriari, zere biotzaren, ta egun artako zere gauzen presenta; ta, Jesusen Ama arteko arturik, eska zaiozu, egun guzian biotz ongillez, asmo garbiz, gogo beroz, nai on, ta maitatze ederrez beterik, edo zuzen-zuzen, ta berak nai duen eran ibiltzeko grazia. Zoaz gero, al bezain len, bere elizan Jaungoiko berari zere presentazioa, edo zere adimentuaren, zere naimentuaren, ta zere zaran guzi-guziaren presenta egitera: baña zoaz, zere Jaunari atsegin egi-teagatik, eta Jesusen Amaz baliatzen zarala.

Ori egiten dezunetik, begira zaiozu zuk zere buruari, Jaunari emanikako gauzari bezala, ta gorde zazu, alik ongiena; eskatuko dizu alabaña jabeak, gutiena zuk uste dezunean; ta, orduan kontu ona zere buruaz zuk ez ematera, gaizki artuko zaitu, artzeko zaituen zere Jaungoikoak; eta galduko zara sekula guzirako.

Egunoro egin ote diozkazu zuk zere Jaunari era onetako presentak? Gorde ote dituzu zuk,

zere Jaunaren gauzak bezala, zere oroimendua, zere ezaguera, ta zere biotza? A! ta zein guti! Ori nik egitera, edo nik ori egin izandu banu oraindaño nere denboran, nagoenetik beste gisan negoen ni gaur! Gaur izain nintzan ni nere Jesus onaren biotzekoa; ta nork daki zenbat ondasunekin arkitzen nintzan ni nere animan! Baña zer eran arkitzen ote naz ni? Jaungoikoak daki! Berak didala oraindaño nere utsen barkamentua, ta gaurdanik badere, Jesusek bere presentazioan erakutsi didan guzia zuzen egiteko grazia. Bai arren, bai!

*Voca nomen ejus, Accelera
spolia detrahete: Festina praedari.*

Isai. 8.3.

Ageri da, Jesus maitagarria, zein egokia den zere Aitak Isaiasez zuri emanikako izena, oni erran zionean, deitu bear diozu: *Ots fite, zoaz lasterka, osturik daramana kentzera, ken egiozu lenbailen duen guzia*: Bada presentazioko eguna etorri orduko, atera ziñan zu zere itxetik, eta eli-

zara ziñan, zere Jaunari an erratera: Ona ni prest sulezeko guzien kontra: nai badezu, kenduko diot, eta luzatu gabe, munduan sulezeko gaistok eraman diotena. Kendurik, eraman diote, Aita nerea, zu ezagutzeko bear den zeruko zure argia; ta utzi dute bekatuaren illunbe galgarri gaistoan. Nai dezu bada, atera dezadan nik mundu galdu au bere illunbetik, emateko gero, bear bezalako zure ta nere berria? Badagiket, bai, nik au guzia, zuk zerorrek ongi dakizun bezala; ta badagiket, bat ere trikatu gabe. Zer diozu bada, nere Aita maitea? Zure naia aditu naiez nago. Banoa, nere lan au egitera? Izenaren egokia, Jesusen lan andi au adirazten duen izena!

Eta niri dakokidan izena ote da, nere bataioan niri eman izandu zidatena? Ordutik Kristo Jaunaren izenekoa naz ni, edo kristioa, edo kristaba? Zer bizi da kristabaren bizia? Ongi badabill, ta Ebanjelio santuak adirazten dion eraz, *gurutzea ta martirio gogorra*, edo goizetik arratseraño kontuz bizitzea, naikunde makurrak garaitzea, gogoari atsegin gaistorik ez egitea; nai ez dituen zenbait lan aragiari eragitera, ta gogoz ta

biotzez gure Jauna beti maitatzea. Lan onetarako prest ote nago ni goiz-arrats, gau-egun, ta noiznai ta beti? Ori da gaur niri nere Jesusek era-kusten didan lenbiziko gauza, edo egitekoa. Egin baneza nik (eta zuzen) gaurgero badere, lagun zakizkit egiten, nere Jaungoiko maitagarria. Bai arren, bai!

*Ego Mater pulerae dilectionis,
et timoris, et agnitionis, et sanctae Spei.
Eccli. 24. 25.*

Nai dezu zuk bear bezalako bitarteko bat, zere Jaunaganatzen zaran aldietarako? Orra non dezun Ama Birjiña. Au da, bai, Aingeru, ta Tronu, ta zeruan arkitzen diran gañerako guziak baño gure Jaungoikoak ebeki artzen duen artekoa, au da alabaña Aita Eternoaren Alaba guztiz onetsia; au Semearen Ama maite-maitea; ta au Espiritu Santuaren Esposa berezia. Birjin-Ama onen eskuz egiten badiozu zuk zere gauzen presenta, zor zaitzun baño ederkiago artuko zaitu zu, bai, zere Jaungoiko maitagarriak, eta emain dizu zuk

bear dezun guzia; bai, ta anitz eta anitz geiago ere.

Nai dezu zuk orain zere oben guzien urrikia, ta zere Jaunaren beldurtasuna? Nai dezu zuk orretarako, ta zere gauzak zuzen egiteko, zere Jaunaren ezaguer argi andi bat? Nai dezu zuk, zere Jaunak oraindano utz guziak barkatuko dizkitzulako, bizitz-on bat egiten lagunduko dizulako, ta azken-grazia emain dizulako uste, ta esperantz andi bat? Nai dezu zuk bidenabar zere Jaunaren amore ta maitatze bero-sendor bat? Balia zaitez bada Bitarteko onez, edo Jesusen Amaz: au da, zuri zere Jaunagandik ongien-ongien ori guzia erditsiko dizun bitartekoa.

Baña artu naiko dezu zuk, Ama maitagarria, ni bezain gauza txar-errebes bategatik onenbat egiteko? Naiko dezula baneki nik, atsegin ta kontentuz beterik geldituko nintzake! Naiko dezula deritzat, bai, Ama birjina; bada zure Seme Jesus maitagarriak gaur egin duena, niri erakusteko da: ta, erakutsi dizkidan gauzetatik bata da, zutaz baliatzea. Ona bada ni Birjin-Ama maitagarria; ona non natorren ni, zuri ziñez eskatzera ar ditzatzula, arren, nere biotz txar au, ta, nere

Jauna maitatzeko nik orain nere baitan arkitzen dudan gogoia, gañerako nere gauza guziekin batean: ta ar ditzatzula, guzien presenta zere eskuz Jaun berari gaur egiteko. Egizu nigatik anbeste; ta bidenabar eskatu bear diozu nere Jaungoiko maiteari didala, arren emendik aitzina, nere gauza guziak zuzen egiteko bear dudan bere laguntza, ta grazia. Bai arren, bai!

*Christus dilexit nos, et tradidit semetipsum
pro nobis oblationem,
et hostiam Deo in odorem suavitatis.*
Ephes. 5. 2.

Ekusten dezu, zenbat zor diogun guk gure Jesus maitagarriari? Guri ongi naiez, artu ditu bere gain gure zor guzi-guziak; eta, orretarako, agertu zaio Jerusalemgo elizan bere Aita Eternoari, ta erran izandu dio, onekin berarekin dela gaurgero aren egitekoa. Ona, (erran dio aldi onetan Ait-Eternoari); Ona ni prest zor orien alde nai dezunerako. Bertan, gero, edo zuk nai dezunean, nik egiñen dut orien alde, manatzen dezun guzi-

guzia. Ez dezu, ez, zer begiratu nere nekeetara; andienak ere pozik artuko ditut nik, zuri gizonen zorrak pagatzeagatik, eta baketan geldi zaitezenezu, nere Aita maitea, nik maite ditudan munduko jende guziekin.

Orra, bekatari txarra; orra, zugatik gaur gure Jesusek bere Aita Eternoari erraten diona. Eta zuk Jesusi ordañez bezala, zer erraten diozu? Zer dakit bada? Nik erran bear nikeona da: *eskerrak, eta eskerrak zuri, nere Jesus maitagarri onegia!* Orrelakoa zu ez izatera, nola zuk ar zenetzaken, gu bezain ume txar galduakgatik artu dezun adinbat neke ta egiteko? Ez dakit nik gaur zer negiken, nere onean zuk aldi onetan egiten dezunagatik! Ona ni, nere Jesus maitagarria, nere aldetik prest, eskerdun onaren eran, zuk nai dezun edozein gauza egiteko. Zer nai dezu bada dagidan nik, zor dizudan amorearen alde? Zure eskuetan uzten dut orretarako nere biotz au; esku beretan uzten dut nere adimentua; bai, ta nere oneste ta nai guzi-guzia ere.

Guzia da guti, zure amoreari nik zor diodanari erantzuteko, ta nere oben gaisto ta zor andien alde! Lenago nik ezagutzera, orain adiña bazen

ere, zer gauza den oben kulpa, ta oraindañoko nere gaizkia, ez nuen egiñen, ez beintzat anbes-tetan; ez, eta bein ere! Egiñak ez dute, egin nituelako damua beste zuzenbiderik. Damu dut, bada; ta ziñez alere! Ta damuko nuke, nere bizi guzian gaizki bat baizik egin ezpanu ere. Orra bada, Jesus maitagarria; orra, nere egin guzien alde, gaur egiten dizudan present txarrekin batean, oraingo nere urriki au ere; ta, berriz orrelakorik ez egiteko gogoia. Gogo au ere Zugandik datorkit niri, nere beste gauz onak bezala; ta, gal ez dezadan, indazu zere laguntza ta grazia; baita lengo nere utsen barkamentua ere. Ori eskatzen dizut, itzez ta biotzez erraten dizudala: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*

XXVII.garren OTOITZ-GAIA

KANDELARI EGUNEKO GAUZAK; ETA ORIEK ADIRAZTEN DIGUTENA

A.

**Simeoni, ta Ana profetiari
Kandelari egunean
Jesusekin gertatua;
ta Jesusen gogoa
ezagutu nai dutenak
egin bear dutena**

Jendez ongi beterik arkitzen zen Jerusalengo erria Kandelari egunaz Jesus ara zenean. Ango elizan ere anitz izain ziran, Jesus an bere presentaziora sartu zeneko; ta alaere etzuten ezagutu nor zen Jesus, bik baizik. Orien izenak ziran Simeon ta Ana: ta orien bizitza, Ebanjelio santuak diona.

Arkitzen zen orduan Jerusalenen, dio Ebanjelio santuak, Simeon zeritzan gizon bat. Gizon au, bati ere bidegaberik egiten etzion gizona zen; ta

denbora berean Jaungoikoaren beldurtia, ta Jaungoikoren legeko gauz andi ta txiki ziranak zuzen egiten zituena: ta orregatik zen gizon santua ta, Espiritu Santua berekin zedukan gizona; edo grazi anitz, eta zeruko argi ta atsegin andiekin arkitzen zen gizona.

Gizon on oni, egun au etorri baño len agertu zion Jaungoiko maitagarriak egun onetako Jesusen presentazioa; ta Jesus elizara zeneko, an zegoen Jesusen begira. Apaiza zen gizon santu au; ta, Jesus an agertu orduko, ezagutu zuen berak uste zuen Jesus bera zela. Artzen du bereala bere besoetan (zenbat atsegin ta kontenturekin, nork adirazi?) ta, erraten dio biotzez, nork daki zer? Ekusi zazu zer erran zezaken one-lako aldian gizon santu batek; eta gizon, bere bizitza guzian, edo nork daki zenbait urtez, Jaungoiko-aur onen begira zegoenak!

Jaungoiko-aur au bada bere besoetan ekusi zueneko, asi zen Simeon itzez erraten, Ebanjelio santuz guk dakiguna: *Ez dut Jauna, zion, ez dut zer ekusi lur gañean, edo mundu guzian, ekusi ezkerro besoetan dadukadan nere Salbatzailea. Onen begiera nengoen ni, joan den aspaldiko*

denboran; etorri da nik au ekusteko denbora; ta au ekusteak eman dit, munduan izan nezaken atsegin ta kontenturik andiena. Balekite munduko jendeak nor den, nere besoetan dagoen Jaungoiko-Gizon aur-egin au! Au da, mundu guziari argi-egi egitera datoren gure Redentorea; ta au, artu nai dutenen onra ta gloria.

Ordu berean agertu zen an Ana profetisa; ta ezagutu zuen onek ere, gizon santu Simeonek bezala, bere Redentorea; ta eman ziozkan eskerak eskerren gain bere etortze era ain maitagarritzakoagatik, eta, ezin idukiz, edo ezin gordez bere Salbatzalle-Jesus ekuste onek eman zion atsegin-kontentua, asi zen itz egiten, ta agertu zien an arkitzen ziranei, nor zen an orduan guziak ekusten zuten aurtxo.

Zer andre zen zorioneko andre ekusle au? Au zen, zazpi urte baizik ezkontzan egin etzituen andre bat. Au zen, laur-ogei laur urteko alargun, bizitza garbizko bat. Andre alargun onen lenbiziko egitekoa, edo egitekorik andiena, izandu zen baruz ta nekez bere burua, edo bere pasioneak eskuratzea; eskez, ta otoitzez bere Jauna palakatztea, gau ta egun, ta beti bere Jauna serbitza-

tzea; al zuen guzian, ta guztiz maiz elizaratzea, ta ango gauzak zuzen egitea. Gisa onetan irabazi zuen andre on onek, Jesus elizan agertzen zenean, au ezagutzeko argia.

Ekusten dezu zeintsu diran, edo nolakoak, Jesus ezagutzen dutenak? Ekusten dezu nondik artzen duten, zuzen dabiltzanak, Jesus ezagutzeko bidea? Orien bide on zuzen onez ibilli ote zara zu ere oraindañoko zere denboran? Ez ote diozu zuk norbaiti egin izandu bein ere, niork zuri egin dizazun nai etzenuken gauzaren bat edo bertze? Eta zer eran ote zabilta zu, egungo egun bere-tan ere? Ongi zatoz zu zere auzoarekin, ta lagun-urko guziekin? Beti ere zuk ez diozu nioiz egiten bidegaberan bat edo beste? Zurekin arkitzen diran, ta zu beren begietan zaituzten guziak kontent arkitzan ote dira zure pausu guziez, edo zure ibilleraz? Niori ere egin ez diozu zuk nioiz, ongi ez dirudien zer edo zer?

Bistan dituzu beti zuk, eta beti zere begietan, zere uts egiñak, zere obenak, eta kulpa guzi-guziak? Damutzen zaitzu zuri, oriek ekusten dituzunean, oriek bezain gauz itsusi gaisto gal-garriak egin izanduaz? Berriak egiteko, edo

lenakgatik zerua galtzeko beldurrez zaude zu gau ta egun, edo noizean bein badere?

Zere Jaun ona gogoan dezula, ta ari atsegin egiteagatik, egiten dituzu zuk zere gauzak? Guziak dira zuzenak? Guziak ongi diruditenak? Guziak garai onean, ta bear den eran ta denboran egiñak?

Espiritu Santua zerekin ote dezu zuk beti? Maitatzen dezu zuk ziñez zere Jaungoiko maitagarria? Galtzen ez dezu zuk bein ere zere Jaungoikoak emanikako grazia; edo bizi oi zara zu bekatu andirik beintzat, egiten ez dezula; ta, txiki bat egin orduko, eskatzen diozu zere Jaungoikoari bere barkamentua; ta erne zabilta gerozko denboran, berririk ez egiteko? Zere gogoz, ta Elizaren manurik ez denean ere, barutzen zara zenbait aldiz, edo kentzen diozu zuk zere buruari, ar lenezaken janaritik, edaritik, lotik, edo asedetetik, zer edo zer?

Egiten dituzu goiz-arratsetako zere otoitz onak? Bazoaz elizara egunoro, edo al dezun aldi guzietan? Elizan, etxean, edo non edo non ekusten dituzu zuk zenbait denboraz zere zorrak,

Jesusen nekeak, eta zuganako zere Jaunaren ontasuna?

Ori zuk egitera, izain zara zu, bai, zere Jaunaren ekusle onetatik bat; izain zara, bai, Ana profetisaren, ta gizon santu Simeonen zeruko laguna; ta zuk errain diozkatzu Jesus maitagarriari, ara baño lenagotik ere, ta komuniatzen zarantzan, nork daki zenbat gauz eder, ta ederki; ta zuk egiñen dezu, alegiña, ezagutzen dezun zere Jesusen berri ona banatzeagatik; ezaguturik, zuk bezala maita dezaten gañerakoak ere: ta zuri bere denboran gertatuko zaitzu, Jesus onarekin dabilzanei gertatzen zaiena, edo beraren glorian zuzen sartzea. Ala gerta dakizula. Bai arren, bai!

B.

**Jesusen Amari
egun onetan gertatua;
ta Jesusekin dabilleenari
gertatu oi zaiona**

Etzen kendu oi Jesusen aldetik Jesusen Ama maitagarria. Jesusen aldean arkitu zen, Jesusek, Aingeru batek emanikako berriarekin artzaiak billatu zituenean. Jesusen aldean zegoan Ama Birjina, Zirkunzisioko Jesusen nekeei begira. Bere Jesusekin zen Ama Birjina, goiztar irur erregeak Jesus ekustera agertu ziranean; ta an zen Ama Birjina Jesusen Presentazioan ere.

Begirozu, Ama maitagarria! Begira, zer egi-ten dezun! Orrela bazabiltza, ta Jesusen orren aldean beti zu arkitzera Jesusek ezezik, izain dezu zuk ere zere kezka ta naigabea!

Au adirazi zion, gizon argitu san Simeonek, Kandelariko, edo Jesusen Presentazioko egun onetan; bada, oraindik Jesus bere besoetan zedukala, erran izandu zion Ama Birjinari: Ekusten dezu, zere Seme Jaungoiko-gizon, Jesus maitagarri au? Bada au dela medio, edo onegatik anitz izain dira Israelko jendeetatik (bai, ta mundu guzikoetatik ere) zerurako diranak; baña bertze anitzek zein ere den ez ezagutu egiñen diote: ta, ori deusez bat bailiz bezala, guztiz begitan artuko dute, zenbaitek beintzat; eta egi-

ñen diozkate munduan diran bidegabe ta txarke-
ri guziak.

Zuk zere Seme on onekin ibilli naiko dezu,
oraindañokoan bezala; ta ekusi bearko dituzu
Semeari egiñen diozkatzen kontrako gauzetatik
zenbait badere; ta maiteegi dezu zuk zere Seme
au, ekusten diozkatzun nekeak zeretzat ez artze-
ko. Andiak dira, bai, onek eraman, ta zuk ekusi
bear dituzun txarkeri-neke-tormentuak; eta
oriek ekuste berak utziko du zure anima ezpataz
bailiz bezala, damuz, urrikariz, ta penaz josia.

Au da gizon ark Jesusen Amari aldi artan
erran izandu ziona; ta au gero denboraz Jesusen
Amari gertaturikakoa. Bai: Jesusen Amari gerta-
turikakoa; bada Jesus badoa bere Aitaren manuz
Ejipton gordetzera, bere Amarekin doa; ta
bidean dabill Ama, ta Ejipton dago, Jesusen bide-
ko, ta ijitarteko penak ongi penatzen dutela.
Andik datorrenean, ta gerozko denboretan ere,
Jesusen Amak ekusten ditu Jesusen nekeak; eta,
bereak bailitu baño geiago illuntzen diote Amari
bere biotz minbere maitaria.

Elkarrekin itz egiten zutenean Ama birjinak
eta Jesus maitagarriak, zenbat aldiz agertuko

ziozkan Semeak Amari bere Pasioneke neke-izerdi, odol-isurtze, ta gañerako tormentuak? Eta nola adi zitzaken Ama Birjinak bere Seme mai-tearen neke-tormentu, onen arrigarriak, biotza guztiz penatzen etziotela, ta negar ederrak isuri gabe? Birjin-Amak ekusi zuenean, eskribak, fari-seotzarrak, eta beste anitz gizatxar galduk onik etzutela, aren Seme Jesus galdurik edo illik utzi artean, zenbat illuntasunek artuko zioten bere biotza, zenbat estutasunek eta zenbat naigabek?

Judasen Jesus saltzeak; eta saltzea Jesus ezer-ez batean, edo ogeita amar diru zikiñetan, nola estutuko zion Amari bere anima? Aditu zuenean Ama berak, Jesusi gaizki nai ziotenak loturik zekartela Jesus Jetsemanitik Jerusalem; ta ekarri zuten gau berean juezez juez, ta tribunalez tribunal zerabitela, lenbaitlen, gaistagin arrigarri bat bailiz bezala, bizia kendu naiez, zer dardarak, zer ito-naiak, orduko Birjin-Amaren barre-neko itonai-dardarak? Aditu zituenean, gau artan Jesusi egin ziozkatzen irriak, istak, eta txarkeriak; aditu zituenean bigaramun goizeko azoteak, eta arantzez burua urratzea, ta nola, Jesus utzirik,

artu zuten Barrabas Jerusalemgo jendeak, zer penak, zer kezkek Jesusen Amarenak?

Atozea: goiz berean etzuen Amak ekusi bere Seme maite Jesus maitagarria, aranzazko koroak bere loak eta buru guzia urratzen ziozkala, odola zeriola, indarrik gabe, gurutzetzar bat soñean zuela, an jaiki, emen erori, ta borreroak tiraka zeramatela? Etzuen ekusi izandu, Kalbarioko mendira zeneko josten ziozkatela iltzez Jesusi gurutze batean bere bi eskuak eta oñak; eta gurutze berean goiturik utzi zutela, nork daki zenbat milla personen artean, orietatik anitz istaz, ta blasfemiaz zegozkiola? Etzuen ekusi izandu, nola zegoen an irur orduz oñazez betea, odolez ustutzen, ta, gizonek eraman dituen tormentu ta agoniarik andienetan? Eta, au guzia ekus zezaken Amarik maitarienak, Semerik maitagarrienari begira zegoela, penaz erdiratzeko puntura gabe?

Zer izain zen bada, Ama berak ekusi zuenean gero, soldadu batek Jesus berari lanzaz urratzen ziola bere bularra; ta, biotza zulaturik, atera ziola an gelditu zen odol gutxitxo bat? Zer izain zen, gurutzetik jaitsi, ta bere besoetan ekusi zuenean

bere Seme maitagarriaren gorputz illotz-urra-
tua?

Ta zer, au ere obian sartu, ta itzuli zenean
bere zokotxora, an Semearen neke izerdiak, tor-
mentu gogorak, eta eriotz arrigarria gogoan
zerabiltziela, bere naigabeak, bere aiak, eta bere
penak eta penak berritzera?

Zer izan ziteken, Jeremiasek diona baizik?
Itsasoan ur gazi adiña oñaze damu ta pena arki-
tzen dira (dio Jeremiasek) onen anima maitala-
rian! Orregatik ez deritzat anitz san Bernardok
diona, dionean, Martire baño, geiagokoa dela
Jesusen Ama, Jesusekin zebillela, bere animan
ekusi zuenagatik.

Eta zer diozu zuk, Jesusen umetzat zere
burua dadukazuna? Zer diozu bada, edo zertan
zaude? Jesusen ondoren bazabiltza zu, Jesus
beraren Ama bezala, izain dezu, bai, zuk ere zer
eraman ta zer ekusi! Mundu eroarentzat erake-
riak dira Jesusen gauza guziak; eta ista ta burla
du munduak orietan sartzen diranendako. Etsai
galgarri-galduak ezin ekusi du Jesusen gauz orie-
tatik bat ere. Alegiñean urratzen ditu, gauz orre-
tarako bide guziak; eta, besterik ezin duenean,

gogortzen ditu egin bear diran gauzen gaiak; eta kentzen die, berez ekarri lezakeen ezti ta kontetu guzia. Lurreko gaistoak irriz egoin dira, ta ista, ta ista, zu zere Jesusen gauzetan ekusten zaituztenetan: ta gañerakoetatik, edo on beretatik ere, zenbaitek beintzat, onez ustein, emain dizute bein ta berriz, ta askotan ere, zer-ekusi edo nair-gaberik asko. Ekusi zazu bada zertara zoazen.

Ekusia dadukat, bai nere Jaungoiko maitagarria; ta aspaldi alere, ta guztiz ongi: ta, au ekusi ta ere, Jesusen ondoren ibilli nai dut nik, bizi nazaño; naiz neka nadilla nekatu alean, ta nere indarrak eraman ala. Nere nekeak gañez egin baño len Jesus berak emain dit, bai, bere eskua ta laguntza; bai, ta noiznai ere, nik eskatu ezkerro; ta berak orduan aterako nau ni (ta aterako nau guztiz aisa) nere neke, ta lan-pena guzien artetik. Eta, Jesusen ondoren nabillela, garaitzen banau ni nere nekeren batek, pozik emain diot nik Jesus nereari nere bizia; ta emain diot ordañez bezala; edo len nigatik berak (eta niri orretarako deus zor etzidala) eman izandu zuen bere biziaren alde. Zorioneko umea ni, egiten badut au, orain diodan eran, ta ill arte guzian.

*Fili, concupiscens sapientiam,
conserva justitiam,
et Deus praebebit illam tibi.*
Eccli. 1. 33.

Jakin nai dituzu zuk, Jesusen umea, zere Jaunaren gauzak? Nai dezu zuk, dizun zuri zere Jaungoiko maitagarriak bere zeruko gauzen zer-bait berri? Zabiltza bada zuzen-zuzen zero bereko zere bidean, edo zabiltza ongi ta garbiro; ta orretan ibilli gogo badezu, ez da besteri zer-egin, zuk zeretzat naiko etzenuken gauzarik batere: ta, egiten dituzunak, egizkitzu zere Jaunaren gogora, ta alik ongiena. Ori zuk egiten badezu, izain dezu, bai, nai dezuna: ta zere Jaungoikoak emain dizu argi eder, ta jakinde garbi luzea.

A, baña itsu bat bezala bizitu naz ni oraindagozko nere denboran, nere Jaungoiko maite argigillea; ta bizitu naz, zu nere gauzetan ekusi ere bage! Bada nik ez ditut artu izandu bein ere nere naigabeak, nere txar-aldiak, nere eritasunak, eta gañerako nere malurrak bear zen eran, edo nere Jaunagana zeramaten urratsak edo pausuak

bezala! Ez nabil berez, bear den bidez ta zuzen!
Uts egiten dut berez lagun urkoekin, edo nere
Jaungoiko maitagarriarekin!

Bai noski; ta, nik uste baño anitz geiagotan
ere! Zentza banendi ni orain badere! Egin bani-
tza gaurgero nik, nere Jaungoiko maitagarria,
zuri dagozkizun nere gauza guziak, eta nere
auzoko ta lagun guzien gauzak ere! Orduan bai,
zuk, nere Jaungoiko maitea, agertuko zeniket,
ongi izateko nik jakin bear nuken guzi-guzia! Au
ikasi naiez nago, nere Jaungoiko maitagarria,
nere gaurgeroko gauza guziak era orretan egite-
ko. Erakus zadazu arren, dagikezunak bezala; ta
indazu, nere gauza guziak zuzen egiteko ta zu
ziñez maitatzeko, zere laguntza ta grazia. Bai
arren, bai!

Humiliare Deo, et expecta manus ejus.

Eccli. 13. 9.

Jaungoikoak ezin ekusi ditu biotz arrozko
gizonak eta jendeak. Oriei gordetzen diezte gure
Jaungoikoak, agertzeko daduzkan bere gauzak.

Gizon umillak dira, gauz oriek ikasten dituzten gizonak. Jerusalemgo fariseotzar ta eskriba arrok, eta antuste eroz beren buruak beteak zeduzkaten orduko gizonak, etzuten ekusi Jesus bere Presentazioan, Simeonek eta Ana profetisak bezala? Bai; baña ez nor zen ezagutzen zutela, Ezagutu zuten Simeonek, eta Ana profetisak? Oriek bai. Zergatik ote? Zeren baruz, otoitzez, ta Jaunaren beldurrez umildu zituzten beren buruak.

Oraindanoan ez bezala, nai dezu zuk orain ezagutu zere Jaungoiko maitagarria? Orretarako beitu bearko dezu zuk zere burua. Begiratu bearko diezu bein ta berriz zere obenei. Ekusi bearko dezu zer dan orien alde zor zaitzuna, edo zer sulezea. Begiratze au zuk zuzen egitera, ekusiko dezu nor den, zein ona den, ta zein maitagarria zure Jaungoiko Jesus ezinobea; bada zu galdu-lekuan, zure oben galgarriei zegokeen bezala, zure zorren alde sartzen da gaur Jerusalem aur egiñik, eta elizara doa, Aita Eternoak zer manatzen dion aditzera.

A! nere Jesus, ona baño ohea, ta umilla baño umillagoa! Alketurik nadukate ni, ta lotsaz bete-

rik oraindañoko nere arrotasunak, ta antuste galgarriak! Lurpean sarturik egon bearra nintzan ni aspaldietako denbora guzian, nere bizitza lizun ta ibillera gaistoagatik; eta, anbat bekatu loi izugarri egin ondoan, deusez bat egin banu baño lotsa gutiagorekin agertu izandu naz ni zure begietan, ta ibilli naz gero ere arro ta zuzen! Ez dakit, nola ondaturik ez nadukazun, nere Jaun andia, lenbiziko nere bekatu itsusitik! Zure onegia, nere Jesus maitagarria! Berandu bada ere, ezagutu dut nik gaur nere oraindañoko erakeria! Indazu arren onen barkamertua: ta indazu, umil, ta zuk nai bezala, gaurgero bizitze-ko grazia. Bai arren, Jaungoiko maitea, bai!

*Vide, Domine, quoniam tribulor...
Subversum est cor meum in memtipsa:
quoniam amaritudine plena sum.*

Thren. 1. 20.

Begira, Jaungoiko maitagarria, begira Jesusi! Ekusten ez dezu zuk non arkitzen den, edo nola dagoen, zure Ama maitagarria? Zuri ongi naiez,

au zurekin dabil beti: ta orra ortik datorkiona: gurutze gogorra, kezka, ta nekea! Bai, dio Profetaz; arazo andiak dira, ta naste gogorrak, nere barrenak ekusten dituenak! Gain-bera biotz au irauli balirate bezain oñaze ta neke andiekin arkitzen naz ni; ta miñez, ta naigabez beterik nago, nazan guzi-guzia! Zure nekeak dira, nere Seme maite Jesus, zerorrek dakizun adiña penatzen nauten nekeak; eta dira, neke barreneko kezkez ta urrikarriz, erdi bi egiteko eran nadukatenak!

Penen gogorrak nonbait, Jesusen Amaren penak! Nondik datozkio, baldin badakizu, obenik bageko Birjin-Ama maiteari onen pena gogorrak? Bere Seme Jesusi laguntzetik! Jesusek alabaña ekusi nai ditu, bera bezala, bere lagunak; eta Jesusi lagun egiten dionak zerurako bizitzan, eraman bearako ditu Jesusen nekeen erako nekeak. Bai; artzen badezu zuk, Jesusen bizitzaren erako bizitza, beraren Amak bezala, izain dituzu zuk ere arenen erako zenbait neke ta kezka. Baña ez da zer izutu orien etorreraz: bada aituko dira noizbait emengo neke andi-txiki guziak; eta artzen badituzu zugatik Jesusek era-

man zituenen alde, ekarriko dizkitzute betiko kontentuak, betiko atsegiñak, eta beti-betiko gloria. Nork utzi naiko ditu bada, galdu txar ero bat ez izatera, onenbat irabazizko kezka-nekeak? Nik ez beintzat!

Naiz bai, bada, Jesus maitea; naiz neka nadi-lla neka al adina, zarekin nabillenean, zurekin ibilli nai dut nik bizi nazaño. Ala lenago ez ibilliaz; ta, ez-ibiltze onetatik etorri diran nere utsez, dut damu ta urriki, ta ziñez alere! Barka bazentza guziak! Eman bazenezat, berriz bat ez egiteko grazia! Ori eskatzen dizut, itzez ta gogoz erraten dizudala: *Nere Jesukristo, etc.*

*Cui comparabo te, vel cui assimilabo te,
Filia Jerusalem? Cui exaequabo te,
et consolabor te, Virgo Filia Sion.*

Thren. 2. 18.

Non arki dezaket nik zure parerik, Jerusalem-go Alaba-eder, ongi mindurik arkitzen zaran Ama birjina? Tristuraz beterik sartu zen lengo batean Belenen Noemi, bere erraña Rut alargunarekin.

Baña aren tristurak ez dute zer-ekusi oraingo zure tristur-min andiekin! Tristatu zen Noemi bere bi seme galduagatik; eta zuk galdurikako Jesusek balio du, bi milla semek eta munduko seme guziak baño anitz eta agitz geiago; ta, ama guziak beren semeak baño, askotan maiteago zenuen zuk galdu dezun zere Seme Jesus maitagarria!

Non idiroko dut, naigabez, ta nekez beterik arkitzen zaran Ama birjina, zure penak zerbait arintzeko, atsegin, belar, edo bideren bat? Ez eta mundu guzian ere! Emengo arin-bideak eta gauzak baño luze-andiagoa ta zabalagoa da zure biotzeko pena; pena da alabaña, Jaungoiko-gizon ill baten Amari dagokan bezalako!

Bada, penatzen zaran ezkerro, Ama maitagarria, ta dakizun ezkerro nik, naiagatik, ezin dagi-kedala deus bat zure penak arintzeko, egizu zuk nere alde ta gure onerako egin dezakezuna; ta zere penakgatik sar gaitzazu gu ere zure ta Jesu-sen penetan, edo utz gaitzatzu, geren bekatuz penatu zaituztegulako damuz ta penaz beteak; bada bein neke-penak dira gure oben ta kulpa gaistoakgatik!

Ai, nere Ama maitea! on au atera baneza nik, nigatik izandu dituzun zere neke-pena gogorre-tatatik! A, bidenabar ar baneza nik, zu nigatik penatu zaralako pena andi ta naigabe bat! Geroz usteko nuke, bizi bear dudala uts-bideetatik urrun, ta pena berrietarako gairik ematen ez dudala. Ar nazazu bada arren, Birjin-Ama maita-garria, bere gaizkiez urrikiturik arkitzen den ume txar bat bezala; ta lagun zakizkit erdisten orain nik adirazia; ta, zuzen bizitzeko bear dudan zeruko grazia; baita orain itzez ta biotzez erraten ere: *Nere Jesukristo Jauna, etc.*